

**EUSKALTZAINDIA**

**EUSKAL  
GRAMATIKA  
LEHEN URRATSAK - IV  
(JUNTAGAILUAK)**

**EUSKAL GRAMATIKA  
LEHEN URRATSAK - IV  
(Juntagailuak)**

**GRAMATIKA BATZORDEA  
EUSKALTZAINDIA  
1994**

**EUSKALTZAINDIA**  
**GRAMATIKA BATZORDEA**

**EUSKAL GRAMATIKA**  
**LEHEN URRATSAK - IV**  
**(Juntagailuak)**

**1994**

## **GRAMATIKA BATZORDEA**

**Burua:** Patxi Altuna

**Idazkaria:** Patxi Goenaga

**Idazkariordea:** M<sup>a</sup> Pilar Lasarte

### **Kideak:**

Miren Azkarate

Pierre Charritton

Andolin Eguzkitza

Alan King

Jose M<sup>a</sup> Larrarte

Jesus M<sup>a</sup> Makazaga

Jose Antonio Mujika

Beñat Oyharçabal

Francisco Ondarra

Karmele Rotaetxe

Pello Salaburu

### **Azken moldatzailea:**

Miren Azkarate

*Corpus*-a maneiatzea eta EJJÉ-rekiko bitartekotza:

Jesus Mari Makazaga

## AURKIBIDEA

<b>SARTAURREA</b> .....	1
<b>0. JUNTAGAILUAK, MENDERAGAILUAK ETA LOKAILUAK:</b> berezikera oinarritzeko irizpide bila	
1. Juntadura eta menderakuntza .....	5
2. Hiru irizpide .....	7
3. Juntagailuak eta lokailuak .....	10
4. Kausazko lokailuen arazoa .....	13
5. Juntagailu motak .....	15
Laburpena .....	16
<b>1. EMENDIOZKO JUNTADURA</b> .....	19
<b>0. Aurkezpena</b> .....	19
<b>1. Forma, funtzioa eta juntagaiak</b> .....	21
1.1. Emendiozko juntagailua .....	21
1.2. Juntagaiak .....	23
1.3. Izen sintagmaren barneko osagaien juntaketa ala kasusintagmen artekoa? .....	33
1.4. Kasu markarik gabeko izen sintagmen juntaketaren ezintasuna .....	42
1.5. Posposiziodun sintagmen kasu berezia .....	43
1.6. Beste zenbait esapide .....	46
<b>2. Singularreko komunztadura juntaduran</b> .....	49
2.1. Perpausak juntatzen direnean .....	50
2.2. Kideko sintagma juntatzen ditugunean .....	51
2.3. Erreferente bereko izen sintagma ditugunean .....	52
2.4. Izen sintagma abstraktuak .....	53
2.5. Partitiboa .....	54
2.6. Aditza sintagma juntatuen aurrean .....	54
2.7. Juntadurazko zenbait esapide ( <i>hau eta beste, hau eta hori</i> ) .....	55

<b>3. Osagai ezabaketa emendiozko juntaketetan.</b>	57
3.1. Juntagaiak kasu-sintagmak direnean	59
3.2. Juntagaiak perpausak direnean	62
3.2.1. Kasu sintagmen ezabaketa	62
3.2.2. Aditzaren ezabaketa	62
<b>4. Ere lokailua emendioaren indargarri.</b>	73
4.1. Eta... <i>ere bai</i> / eta... <i>ere ez</i>	74
4.2. Eta bai... <i>ere</i> / eta ez... <i>ere</i>	75
4.3. Bai eta... <i>ere</i> / ez eta... <i>ere</i>	77
4.4. <i>Baita ere</i> / <i>ezta ere</i>	80
4.5. <i>Eta ere</i>	81
<b>5. Baiezko eta ezezko zenbait juntaduraren berezitasunak: banakaritza</b> ( <i>bai... bai...</i> , <i>ez... ez...</i> )	81
<b>6. Eta juntagailuaren tokia.</b>	84
<b>7. Emendiozko esamoldeak.</b>	87
7.1. <i>Ez ezik</i> / <i>ez ezen</i> / <i>ez eze</i>	87
7.1.1. Lehen atalaren forma.	88
7.1.2. Bigarren atalaren forma.	92
7.1.3. Hurrenkera	96
7.1.4. Funtzioa	98
7.2. <i>Ez bakarrik</i>	99
7.2.1. Lehen atalaren forma	99
7.2.2. Bigarren atala	102
7.2.3. Bestelako zenbait	105
7.2.4. Funtzioa	108
<b>8. Ezaugarri nagusiak labur bilduz.</b>	111
<b>2. JUNTAGAILU HAUTAKARIAK.</b>	119
<b>1. Edo juntagailua.</b>	120
1.1. Forma eta funtzioa	120
1.1.1. Zein mailatako osagaiak elkartzen dituen	120
1.1.1.1. <i>Edo</i> adierazpen-perpausetan	121
1.1.1.2. <i>Edo</i> galde-perpausetan	124
1.1.1.3. Egindako esapideak	126
1.1.2. Izen-sintagmaren barneko osagaien juntaketak eta izen-sintagmenak: noiz bata eta noiz bestea	127
1.2. Balioa	130
1.2.1. <i>Edo</i> adierazpen-perpausetan	130

1.2.2. <i>Edo</i> galde-perpauzean .....	137
1.2.3. Sinonimoak elkartuz .....	138
1.2.4. Zenbatzaileak elkartuz .....	138
1.3. Ezabaketak .....	139
1.3.1. Juntagaiak kasu-sintagmak diranean .....	139
1.3.2. Juntagaiak perpauzak direnean: aditzaren ezabaketa .....	140
1.3.2.1. Aditz osoa eskas denean .....	140
1.3.2.2. Laguntzailearen ezabaketa .....	141
1.3.2.3. Aditzaren ondarkiaren ezabaketa perpauz jokatugabeetan .....	141
1.4. Tokia .....	142
1.4.1. <i>Edo</i> X <i>edo</i> Y .....	142
1.4.2. X <i>edo</i> .....	144
<b>2. Edota juntagailua</b> .....	145
2.1. Forma eta funtzioa .....	145
2.1.1. Zein mailatako osagaiak elkartzen dituen .....	146
2.1.1.1. <i>Edota</i> adierazpen-perpauzetan .....	146
2.1.1.2. <i>Edota</i> galde-perpauzetan .....	147
2.1.2. Izen-sintagmaren barneko osagaien juntaketak eta kasu-sintagmenak noiz bata eta noiz bestea .....	149
2.2. Balioa .....	150
2.2.1. <i>Edota</i> adierazpen-perpauzetan .....	150
2.2.2. <i>Edota</i> galde-perpauzetan .....	153
2.3. Ezabaketak .....	153
2.4. Tokia .....	155
<b>3. Ala juntagailua</b> .....	155
3.1. Forma eta funtzioa .....	155
3.1.1. Zein mailatako osagaiak elkartzen dituen .....	156
3.1.1.1. <i>Ala</i> galde-perpauzetan .....	156
3.1.1.2. <i>Ala</i> adierazpen-perpauzetan .....	156
3.1.2. Izen-sintagmaren barneko osagaien juntaketak eta izen-sintagmenak: noiz bata eta noiz bestea .....	162
3.2. Balioa .....	163
3.3. Juntagailu hautakariaren bidez juntatutako sintagmak eta aditz-komunztadura .....	164
3.3.1. Numero komunztadura .....	164
3.3.2. Aditzaren pertsona komunztadura .....	165
3.4. Ezabaketak .....	166

3.5. Tokia.....	167
3.5.1. Ala X, ala Y .....	168
3.5.2. X ala .....	169
<b>4. Nahi(z), zein juntagailuak.</b> .....	170
4.1. Forma eta funtzioa .....	170
4.2. Balioa .....	171
4.3. Ezabaketak .....	173
4.4. Tokia.....	176
<b>5. Ezpa.</b> .....	178
Labur bilduz .....	179
<b>3. AURKARITZAKO JUNTADURA.</b> .....	183
<b>1. Juntagailu aurkariak.</b> .....	183
<b>2. Baina, aurkaritza-juntagailu nagusia (A, baina B ).</b> .....	184
2.1. Aurkaritza honen zer-nolakoak. ....	184
2.2. <i>Baina</i> -k elkartzen dituen juntagaiak .....	188
2.3. Ezabaketak .....	191
2.4. <i>Baina</i> juntagailuak hartzen duen lekua .....	194
<b>3. Baizik eta horren kideen aurkaritza (ez A, B baizik).</b> .....	196
3.1. Aurkaritza honen zernolakoak .....	197
3.2. Ezabaketak .....	204
3.3. Juntagailu bakoitzaren tokia eta erabilera .....	207
3.3.1. <i>Baizik</i> juntagailua .....	207
3.3.2. <i>Baino</i> eta <i>ezpada</i> juntagailuak .....	210
3.3.3. <i>Baina</i> juntagailua (baizik-en pareko denean) .....	210
3.3.4. <i>Ez baina, ez ... baizik</i> -en pareko .....	213
3.3.5. <i>Ezezik eta ez ... ezen</i> aurkaritza egituran .....	214
<b>4. Baina, baizik/baizen eta baino-ren beste zenbait erabilera.</b> .....	214
4.1. <i>Baina</i> menderakuntza gisako egituran .....	215
4.2. <i>Baina</i> lokailu .....	216
4.3. <i>Baizik</i> , eta <i>baino</i> hitzen erabilera "murriztalea" .....	216
4.4. <i>Baizik</i> espletibo edo gehigarri hutsa .....	219
Laburpena.....	220
<b>Bibliografia.</b> .....	225
<b>Gai aurkibidea.</b> .....	231



## SARTAURREA

Oso gutxi ezaguna den arren, Bizkaiko idazle klasiko batek, Añibarrok, erabili zuen izenburu horretaz -SARTAURREA-z bataiatu nahi dugu atariko solas labur hau, irakurleak buru eta belarri hartan *sartu aurretik*, ataritik beretik, jakin dezan zertaz ari den eskuartera zaion Gramatika liburu hau. Gaur baino lehen argitaratu du, izan ere, Gramatika batzordeak besterik eta irakurleak ere badu seguraski haien berri. Hiru ziren guztira. Lehen *Perpaus bakunaz*, bigarrena *Euskal aditzaz*, hirugarrena *Lokailuez*. (Dioguu bideuabar argitaratu berria dela beste bat ere: bi lehenbizikoen bilduma den "Gramatika laburra"). Eta orain honeu aditzea izatean galdegiugu du irakurle berak, azken hau kontatu gabe laugarrena den beste honek, zein duen bere gaia eta edukia. Hona laburkiro esana liburuaren lehen orrialdeetan luzexko azaltzen zaizuna.

Bi perpaus elkarganutzen direnean sortzen den perpaus elkartua bi eratakoa izan daitekeela gauza jakina da: eduta elkarganatu direnak inaila bereko bi perpaus dira eta izaten jarraitzen dira, edota bietariko bat bestearen barnean osagai gisa txertatzen da. Lehen kasuan bi perpausen estekailuak *juntagailuak* deitzeu ditugu, haiek elkarri juntatu baizik egiten ez dutelako, eta ez bata besteari menderatzen; bigarrenean, aldiz, *menderagailuak*. Bada biotarik lehenbizikoak, *juntagailuak* alegia, dira liburu horetan aztertu ditugunak, besteak hurrengorako utzirik. Bi perpaus elkarri juntatzeko, ordea, modu bat baino gehiago dagoenez gero, hortik sortzen diren perpausak ere mola batekoak baino gehiagokoak dira hala nola, emendiozkoak, hautakariak eta aurkariak.

Ez zaitezela izu, otoi, irakurle, hitz berri horiek entzutean, baldin horietan ezagutzen ez badinuzu zuk ikasi zenituen *kopulatioak*, *disjunktiboak*, *adbertsatiboak* eta abar. Berberak dira. Hori bai!, lehen ez bezala euskal izeu berriz bataiatuak eta zuri irakatsi zizkizutenak baino bi gutxiago, gainera; orduko bost haizetatik hiru bakarrik baitira gure ustez *juntagailu* izenareu beteko. Ondoriozkoak (*ilatiboak* deitzen zirenak) hirugarren liburukian, lokailuen artean, sartu genituela oroitzen zara, agian, eta banakariak, berriz, (*distributiboak* deituak) ez dira gure ustez sail berria eta ez ditugu

sail berritzat hartu, ezpada horko hiru horietako bietan barreiatu, emendiozkoetan sartuz batzuk eta hautakarietan beste batzuk.

Batere harrokeriarik gabe esan dezakegula uste dugu euskaraz juntagailuen gainean inoiz eman izan den informaziorik joriena eta oparoena aurkituko duzula liburuki honetan. Hori sinestarazteko ez dizugu hemen hitzaspertu luzerik egingo; aski duzu *Aurkibide* zehatzari gainbegiratu txiki bat ematea eta gero, denera zenbat orrialde diren ohartu ondoren, orainarteko euskal gramatikek, hala nola Azkue, Altube, Lafitte, Villasanterenek, gai berari zenbat leku ematen zioten erreparatzea.

Ez da hori gure meritua eta ez dugu horretan merezimendu handirik. Lan egiteko moduak ikaragarriro hobetu dira eta gure aurrekoek izan ez zituzten bezalako baliabi-deak izan ditugu guk eskumenean. Gure lana, izan ere, orain arte gutxitan egin izan den bezala, testuen gainean egin da, hor aipaturiko gramatikak zokoratu gabe, noski. Baina beriro esan, batez ere iturrietara jo dugu, euskal literaturako testuak arakatu ditugu eta hemen ematen dizugun dotrina, puntu askotan berria eta orain arte emangabea, haietan edan. Edozein punturen adibide edo froga gisa dakartzagun aipamen ugariak ezerk baino hobeki erakutsiko dizute dioguna egia dela. Zer esanik ez, hori gnzia *Orotariko Euskal Hiztegi*-ko knrpus erraldoiari eta eskergari zor diogu eta hura zela medio egin ahal izan da.

Bi urte handiz aritu gara liburu honen lantzen. Lan ordu askoren, neke eta gatazka gehiagoren eta ezin konta ahala eztabaida beroen fruitua eta emaitza duzu esku arteko liburu hau. Euskararen esparruan gutxiena landua eta gorriena zegoen arloa landuxea gelditzen da honenbestez, beti ere hemen axaletik baizik ezin arakatu izan diren puntu batzuk geroko ikerlan monografikoez argituko dituztelakoan.

Eskerrak ematea bakarrik falta dugu eta pozik ematen dizkiegu lehenik OEH-ko arduradunei, gure eskuetan utzi dutelako, behar izan dugun eta eskatu dugun oro, nahi genuen material guzia. Hitz gutxitan ezin esan daiteke zenbatetaraino erraztu digun lana. Halaber eskerzueu ditugu argitara eman aurretik liburuki osoa irakurri eta oharrak egin dizkiguten euskaltzainak. Azkenik, edizio hau ere, leheugo liburukiena bezala, aski laster agortuko delakoan baikaude, aurretiaz nahi ditugu eskertu liburuki hau irakurri ahala atzeman ditzaten okerrak eta makurrak gatziga diezazkigutenak, hurrengo edizioetan zuzendu ahal ditzagun.

Buruenik bi hitz liburuan zehar ageri diren adibideeu gaiuean. Autore zaharren testuak gaurko ortografia-sistemara egokitu ditugu, *ch* zetorren lekuan *tx* emanaz, *c* eta

*qu* grafien ordez *k*, eta *y*-ren ordez *j* ipiniaz (salbu *egiya* eta hau bezalakoetan), etab. Autoreen eta liburuen aipamenak egiteko, berriz, *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ageri diren bezalaxe ezarri ditugu.

Donostia, 1993-XI-17

Patxi Altuna

Gramatika Batzorde Burua

## JUNTAGAILUAK, MENDERAGAILUAK ETA LOKAILUAK: bereizketa oinarritzeko irizpide bila

### 1. Juntadura eta menderakuntza

Perpaus bat baino gehiago duenari deitzen diogu perpaus elkartua. Baldin horiek maila berekoak badira, perpaus elkartzeko honi juntadura esaten diogu, alegia perpausak juntatuak agertzen dira:

- (1) a. Zerua **berun** kolorea zuen eta urrunean trumoi hotsak entzuten ziren.  
b. Txantxetan ari ziren ala benetan zeuden haserre?

Juntaduraren egitura nagusia honako hau litzateke:

- (2)  ${}_p[\alpha \text{ junt } \alpha]$

a edozein kategoria izan daiteke: perpausa (hori da (1a) eta (1b)ko kasua), izen sintagma (*liburu gorria eta luma berria*, adibidez), adjektibo sintagma (*oso handia baina arina*, esaterako), adberbio sintagma (*astiro eta tentuz*), eta abar. Baina hemen, perpaus elkarketaz arduratzen garenez, a perpaus deneko kasua da interesatzen zaiguna, bereziki. Hortaz, (2)ren arabera, perpaus juntatuak maila bereko perpausak dira eta bien (edo gehiagoren) artean perpaus elkartua osatuko dute:

- (3)  ${}_p[P_1 \text{ eta } P_2]$

Adibidez:

- (4)  ${}_{n_0}[_{p_1}[\text{Lehengoa mendira joan ginen}]] \text{ eta } {}_{p_2}[\text{bazter politik ikusi genituen}]]$

Hemen juntatu diren bi perpausak,  $P_1$  eta  $P_2$ , parekoak dira, hots; ez dago, gramatika egituraren aldetik, bata bestearen mende. Biak maila berekoak dira eta bien artean, bien gehiketarik, sortzen da perpaus elkartua,  $P_0$ , alegia.

Baina (3)an ez bezala, perpaus elkartu horretan bata bestea menderatzen badu, bata bestearen osagai, bata bestearen parte, delarik, (5)ean bezala:

$$(5) \quad p_0[\dots p_1[\dots] \dots]$$

hots:  $P_0$  perpaus nagusia eta  $P_1$  perpaus txertatua edo mendekoa delarik, orduan juntadura ez, menderakuntza dugula esango dugu. Adibidez:

- (6) a. Ez dut uste [joango naizenik]  
 b. [Atzo esan nizunaz] ez ahaztu!  
 c. Gizon horrek [zerbait badakiela] susmatzen dut.

Mendekotzat jotzen denak beste edozein sintagmak perpaus baten barnean beteko lukeen zeregina betetzen du. (6)ko adibideetan mendekotasun erlazioa dugu perpaus nagusiaren eta txertatuaren artean. Eta menderatze edo txertatze hori behin eta berriro errepika daiteke, perpaus txertatu batek bere barnean beste perpaus txertatu bat izan dezakeelarik eta honek beste bat, eta abar:

$$(7) \quad p_0[\dots p_1[\dots p_2[\dots p_n[\dots] \dots] \dots] \dots]$$

Adibidez:

$$(8) \quad p_0[\text{Ez dut esan } p_1[\text{badakidala } p_2[\text{noiz etorriko naizen}]]]$$

Hemen perpaus elkarketa ez da elkarren pareko liratekeen hiru perpaus erantsiz gauzatu, bata bestearen barnean txertatuz baizik. *Noiz etorri naizen* perpausa  $P_1$ -en osagai da, honen txertatua, beraz. Baina,  $P_1$  bera  $P_0$ -ren osagai da. Hortaz, hiru maila desberdin ditugu, hierarkia bat dago.

Juntadura elkarren pareko diren bi juntagai edo gehiago batuz gerta daiteke, baina juntaduran ere zenbaitetan maila desberdineko juntagaiak aurki ditzakegu, bi juntagai baino gehiago ditugunean, honako egitura hau erakutsiko lukeelarik:

$$(9) \quad \alpha_0[\alpha_1 \text{ junt } \alpha_2[\alpha_3 \text{ junt } \alpha_4]]$$

Adibidez, honako hauetan:

$$(10) \quad p_0[p_1[\text{agertu zen txakurra}] \text{ baina } p_2[p_3[\text{oso argal zegoen}] \text{ eta } p_4[\text{zauriak ere bazituen}]]]$$

Perpauk honetan bi atal nagusi ditugu,  $P_1$  eta  $P_2$  biak elkarren pareko, baina,  $P_2$  berak beste bi juntagai ditu:  $P_3$  eta  $P_4$ . Hauek ere elkarren pareko dira, baina horrela nolazpaiteko hierarkia sortzen da perpausean.

Juntadura juntagailuen bidez gauzatzen da. Menderakuntza, berriz, menderagailuen bidez. Euskal gramatiketan juntagailu eta menderagailuen arteko muga modu argi batean ezartzen da. Hor dugu, adibidez, Azkuerengandik datorkigun harako bereizketa hura: "Las conjunciones afijos son, por lo general, subordinativas, y coordinativas las conjunciones vocablos" (Azkue, *Morfología*, 478. orr.)

Beraz, morfologian ere isladatzen da perpauk elkartuetan egin dugun bereizketa hori: perpauk juntatueta juntagailuak agertuko zaizkigu, hitz solteak hortaz, (*eta*, *baina*, *edo*, adibidez). Baina adizkiari itsatsitako atzizkiak (*-en*, *-ela*, ...) nahiz aurrizkiak (*(balidin) ha-*, *hait-*) agertuko zaizkigu perpauk txertatua dugunean. Beraz, irizpide honetan oinarri gaitzke txertaketa eta juntadura bereizteko, euskaraz juntaduraren eta menderakuntzaren arteko diferentzia sintaktikoa morfologiazko diferentzia batez azaleratzen baita. Horregatik, gramatika honetan morfologiazko ezaugarri honen arabera egingo da menderakuntzaren eta juntaduraren arteko bereizketa: aditzak atzizki edo aurrizkiren bat badarama, perpauk txertatua dela esango dugu. Hortik aparte, aditza jokatu gabea bada, orduan ere aditz hori perpauk txertatu batekoa izan ohi da, beraz menderakuntzaren aurrean gaudela esango dugu (ikus (15)eko adibideak. Jakina, badira perpauk lokabeak, eta juntatuak ere, itxuraz aditz jokatu gabe modura agertzen direnak (agintekeran, adibidez), baina egiazki aditz jokatu gabeak ez direnak, laguntzailea ezabatua duten aditz jokatuak baizik.

Gerta daiteke irizpide hauen arabera txertatutzat emango genukeen perpauk baten oso antzekoa edo esanahiaren aldetik haliokidea den beste bat txertatua ez izatea, irizpide formal honi emango baitiogu pisu berezia.

## 2. Hiru irizpide

Hona hemen, nolana ere, menderakuntzak berekin dakartzan ezaugarri morfologikoak. Ezaugarri horietan oinarri har dezakegu perpauk elkarketa menderakuntza edo txertakuntza bidez gauzatua den ala bestelako elkarketa dugun erabakitzeke. Hiru irizpide nagusiz balia gaitzke:

a) Adizki alokutiboak.- Perpauk txertatuek ez dute onartzen adizki alokutiborik. Hortaz, perpauk txertatu bat alokutibo cran jarzen saiatzen bagara gramatikala ez den

ondorio batera iritsiko gara. (Hala ere, esan behar da gaurko zenbait euskaldunen hizkeran lege honen indarra aski ahuldua aurkitzen dela, forma alokutiboak nonahi sartzen baitituzte). Beraz “lege zaharrari” eutsiz gero:

- (11) Miren berandu etorri dun

ongi dagoela esan behar. Baina (11) bezalako bat nagusiago den beste baten barnean txertaturik agertzen bada, orduan alokutiborik ez da:

- (12) a. Miren berandu etorri DELA uste dinat.  
b. \*Miren berandu etorri DUNALA uste dinat.

Perpaus juntatuetan, berriz, zilegi da alokutiboak erabiltzea:

- (13) a. Dirua eskatu zidak baina ezetz esan behar izan zioat.  
b. Dirua eskatu dit baina ezetz esan behar izan diot.

Hemen, (12)an ez bezala, forma alokutiboak eta alokutibo ez direnak, denak dira zilegi.

Adizki alokutiboak onartzen dituen perpausa ez litzateke perpaus txertatua izango. Beraz, (12a)n perpaus txertatu bat bada. (13)koak, berriz, perpaus juntatuak ditugu. Irizpide hau aski argia bada ere, honek ez du esan nahi alokutiboak ametitzen ez dituztenak denak menpeko perpaus direnik. Galde perpaus lokabeak aipatu ditugu gorago, honen frogatzat. Bere lekuan esplikatuko da noiz den zilegi eta noiz ez alokutiboa. Adibidez, *-ta* enklitikoaz osatzen diren perpausetan alokutiboa zilegi da, nahiz eta eskubidea dugun, *-ta* horren enklitikotasunari esker, hain zuzen, perpaus txertatutzat hartzeko:

- (14) Utz dezagun lana, berandu duk eta.

b) Aditz flexioko markak.- Perpaus txertatuetako adizkiak bere flexioan ezaugarri bereziak izan ohi ditu. Ezaugarri horiek atzizkiak izan daitezke (*-en*, *-ela* eta hauetatik eratorriak: *-enez*, *-enik*, *-enez gero*, *-elako(z)*, *-elarik*, e.a.). Aurrizkiak ere bai: *ba-* eta *bait-*.

Alde honetatik, agintekeratzat jotzen diren zenbait adizkik ere *-en* eta *-ela* atzizkiak erakusten dituztenez gero (cf. *egin dezagun*, *ez dezazula horrelakorik egin*, e.a.) perpaus txertatutzat hartu beharko genituzke, nahiz eta itxura batean behintzat perpaus

lokabeak osatzen dituztela dirudien. Agian, perpaus lokabe barik, perpaus nagusia nolabait ezabatua duketen perpaus txertatuztat har genitzake.

Bestalde, zenbait perpaus txertatutan aditza jokatu gabea izan ohi da. Beraz, hau izango da txertakuntzaren aurrean gaudelako beste seinale bat ere: *-(z)ea*, *-(z)en*, *-(z)era*, *-(z)eko*, nahiz *-tu (izan)a*, *-tuz*, *-turik*, *-tu ondoren*, eta abar gisa agertzen bazaigu adizkia, txertatua izango da adizki hori daraman perpausa.

Horrela, honako perpaus hauek denak mendekoak ditugu:

- (15) a. MENDIRA JOATEA pentsatu dugu.  
 b. ISILIK EGOTeko esan genion.  
 c. BIZIKLETAN IBILTZEN ikasi du.  
 d. Honez gero damutu zaio HORI ESAN (IZAN)A.  
 e. KARTA IDATZI ONDOREN ohean etzan zen.  
 f. ZENBAIT HERRIALDETAN EUSKARA GALDUZ doa.  
 e.a.

*Eta* juntagailua ere nolabait aditz flexioaren parte bilakatu dela pentsa liteke tankera honetako perpausetan:

- (16) a. Goazen dantzara, AZKENEKO EGUNA DA-TA (adizki jokatuarekin).  
 b. GOITIK BEHERAINO BUSTITA iritsi zen (adizki jokatu gabekoarekin).

Hala ere, (16a)koen kidekoetan adizki jokatu forma alokutiboa zilegi denez, gorago esan bezala, egitura horietan euskarak juntaturatik txertakuntzarako pausua eman berri duelako seinale izango litzateke. Nolabait, txertatua izan arren, agian oraindik ere juntaturaren arrastoak gordetzen dituela esango genuke.

c) Hitzen hurrenkera.- Perpaus txertatuek perpaus elkartuan gainerako sintagmek edo osagaiek betetzen duten lekua eta zeregina betetzen dutela esan dugu gorago. Ondorioz, perpaus txertatuek perpaus ez diren gainerako osagaiek perpausaren barruan duten mugikortasuna erakutsiko dute. Mugikortasun hau falta dute perpaus juntatuek. Gainera, perpaus juntatuetan ordena aldaketak –zilegi direnean– esanahi aldaketa ekar dezake berekin, txertakuntza bidezko perpaus elkartuan ez bezala. Ikus (17 a) eta (17 b)ren arteko aldea.

- (17) a. Berandu altxatu naiz eta sukarra nuela ikusi dut.  
 b. Sukarra nuela ikusi dut eta berandu altxatu naiz.



Ordena aldaketaren ondorioz suertatzen diren esanahi aldaketa hauek ez dira gertatzen normalean txertakuntzan.

- (18) a. Bide berri bat egingo dutela esan du irratiak.  
b. Irratiak esan du bide berri bat egingo dutela.  
c. Irratiak bide berri bat egingo dutela esan du.
- (19) a. Amaitzen badut joango naiz.  
b. Joango naiz amaitzen badut.
- (20) a. Dirua behar nuenez gero, zuregana etorri naiz.  
b. Zuregana etorri naiz, dirua behar nuenez gero.

Jakina, zenbait perpaus txertatutan (erlatiboetan, adibidez) ordena aski aldagaitza da.

### 3. Juntagailuak eta lokailuak

*EGLU III*-n saiatu ginen alborakuntza juntadura mota bat dela frogatzen, juntagailurik gabe edo nolabait  $\emptyset$  juntagailuaz eratua. Horregatik, bi perpausen artean ager daitezkeen juntagailu itxurako edozein hitz ezin da besterik gabe juntagailutzat hartu. Honek *juntagailuak* eta *lokailuak* bereiztera eraman gintuen: adibidez, *baina* eta *ordea* edo *berriz* ez dira gauza bera, hala badirudite ere. Lehenbizikoa juntagailutzat hartu genuen. *Ordea* eta *berriz*, ez. Hauek lokailu direla esaten genuen. Arrazoiak ere eman genituen:

a) Benetako juntagailuak balira, ez litzateke metatzeko biderik izango. Adibidez, *eta* eta *baina*, biak juntagailu izaki, nekez jarri ahalko ditugu elkarren ondoan perpaus elkartu batean. Baina bai *eta* bai *baina*, biak ager daitezke lokailu deitu ditugun horietako batekin:

- (21) a. \*Liburu hau oso atsegina da eta beste hau, baina asko lagun diezazu keena.  
b. Liburu hau oso atsegina da eta beste hau, berriz, asko lagun diezazu keena.  
c. Liburu hau oso atsegina da, baina beste hau, ordea, asko lagun diezazu keena.

Zer esan nahi du honek? *Ordea* eta *berriz* lokailuak direla. Hortaz, *eta* nahiz *baina* ager daitezkeela *ordea* edo *berriz*-ekin batera, baina ez biak elkarrekin.

Lokailuei dagokien bezainbatean, batzuetan ezin metatu badira ere, beste batzuetan badirudi horrelako ezintasunik ez dugula:

- (22) a. \*Baso hartan pago ederrak daude, hemen, ordea, pinu beltzak ugari, berriz.  
 b. Ez eman inori, zeren, bestela, gabe geldituko zara.  
 c. Autoan eramango zaitut, zeren, gainera, zure etxe ondotik pasatu beharra dut.

Beraz, *eta* eta *baina* klase berekotzat hartzen ditugun bezala, *ordea* eta *berriz* ere klase berekoak ditugu, baina ez *eta* eta *baina*-ren klasekoak. Hortaz, *eta* eta *baina* juntagailutzat hartzeko eskubidea badugu. Hauek egiazki perpausak junta ditzakete eta hauen arrimura, gero, etor daitezke juntadurari fiabardura bereziren bat emango dioten lokailuak.

b) Bestalde, juntagailua, juntatzen dituen osagaien artean kokatuko da, bien juntagunean. Bakarren batek, hala ere, (*baizik*-ek, adibidez) bere kokagune berezia izan dezake. Nolanahi ere, juntagailuak kokagune jakina izango du beti. Lokailuak, berriz, askoz mugikortago dira. Gainera, bigarren perpausako osagaien artean ibil daitezke. Beraz, lokailuek bigarren perpausarekiko atxikimendu argia dute.

c) Lokailuen aditzondo edo adberbio izaera oso nabarmena gertatzen da: lokailuen morfologiak gehienetan argiro erakusten du aditzondo baten aurrean gaudela: *aldiz* < *aldi+z*; *beraz* < *bera + z*, *eta* abar. Juntagailuetan nekez aurkituko dugu horrelako gardentasunik.

d) Juntagailuen eta lokailuen arteko bereizketa egiteko ezarri genuen beste irizpidea zen, lokailuek beti perpausen arteko lotura gauzatzen dutela, ez bestelako osagaien artekoa. Esan nahi baita, lokailurik ez dugula aurkituko adibidez bi izen sintagmaren artean. Juntagailuak, berriz, emendiozkoak eta hautakariak bereziki, perpausen artean ezezik izen sintagmen, adjektibo sintagmen eta beste hainbat osagaien artean aurki daitezke. Hortaz, irizpide honetaz ere balia gaitzke egiazko juntagailuak lokailuetatik bereizteko.

Lokailuak, beraz, ager daitezke juntagailuz juntatutako perpausen artean:

- (23) Zuek egingo duzue lan hori, edo, bestela, egin gabe geldituko da.

Sarritan, *ordea*, inolako juntagailurik gabe ere agertuko da lokailua. Hauek dira, hain zuzen, orain arteko gure gramatikak okerbidera eraman dituzterak, lokailu

besterik ez diren hitzak juntagailutzat hartzera bultzatuz. Ageriko juntagailurik ez duten perpaus hauek, bestalde, lokabeak izan daitezke. Alegia, perpaus elkartu bat osatzen ez duten perpaus segida bat. Lokailuak, nolabait perpaus batek aurrekoarekin duen lotura –esanahiari dagokion lotura, baina ez egiturazkoa– adieraziko du:

- (24) Larrosak atsegin ditut. Daliak, aldiz, arloteegiak iruditzen zaizkit.

Hemen esan dezakegu bi perpaus ditugula sintaxi egituraren aldetik, goragoko perpaus elkartu bat osatzeko ahalbiderik ez dutenak:

- (25)  $P_1$ [Larrosak atsegin ditut] +  $P_2$ [Daliak, aldiz, arloteegiak iruditzen zaizkit]

*Aldiz* lokailuak  $P_2$ -k  $P_1$ -ekiko duen erlazioa –esanahiari dagokion erlazioa– adierazten du, bi perpausak nolabait kontrajarriak direla adieraziz (horregatik sailkatu dugu *aldiz* aurkaritza lokailuen artean). Hala ere, (24)ko bi perpausak lokabetzat hartuko ditugu. Horren seinale litzateke bien artean egiten dugun eten edo geldidune hori.

Askotan, hala ere, goiko (24) horren ordez, etenaldi laburragoa egingo dugu. Eta, idazterakoan, behar bada, puntuaren ordez koma ezarriko dugu:

- (26) Larrosak atsegin ditut, daliak, aldiz, arloteegiak iruditzen zaizkit.

Hemen ere, juntagailurik ez da, baina kasu honetan, agian bi perpaus lokabe barik alborakuntza bidez juntaturiko perpaus elkarketa dugula esan genezake. Baina kasu honetan ere, ez da lokailua juntadura bideratzen duena, agerian ez dagoen  $\emptyset$  juntagailua baizik, edo nahiago bada, juntagailurik gabeko juntaduraren aurrean gaudela esan dezakegu.

Hortaz, lokailuek berenez ez dute perpaus elkarketa bideratzen. Lokailuen lana, bestela ere elkartuta edo elkartu gabe daudekeen perpausen arteko erlazioaren ñabarduraren bat aditzera ematea besterik ez litzateke izango. Dena den, *EGLU III*-n egin dugun lokailuen sailkapenak eta hemen eskaintzen dugun juntagailuen sailkapenak ia-ia orpoz-orpo jarraitzen diote elkari. Ez da kasualitatea: maila honetako perpaus arteko lotura eta, beraz, esanahi-erlazioak, funtsean mota horietara biltzen baitira. Horrela, emendiozko lokailu deitu ditugunak emendiozko juntaduraren lagun agertuko dira (berau delarik, esanahiari dagokion bezainbatean, juntadurarik neutroena eta, beraz, balio anitzekoena). Hautakariak hautakariekin eta abar.

Ondoriozkotzat eta kausazkotzat hartu genituenak dira lokailuen eta juntagailuen artean dagokeen parekotasun horretatik kanpo gelditzen direnak, horrelako juntagailu berezirik ez dela uste baitugu.

#### 4. Kausazko lokailuen arazoa

Azter dezagun, nolanahi ere, kausazko lokailuen arazoa. Arestian esan dugun bezala, kausazko lokailuak bazirela begenioen ere, orain, ez dugu horrelako sailik proposatzen juntagailuentzat. Honek arrazoitu beharra du. Har ditzagun kontutan honako adibide hauek:

- (27) a. Lana goiz-goizik asirik, bazkal aintzineko (...) bukatzen dute (...) ZEREN ETA atsaldeko ez dute sekula utzi nahi lan hori (E. Zubiri, "Lanak", *Nafarroako euskal idazlariak*, 97)  
b. Hama haukin ni ezin higi naiteke, ZEREN ez naiz usatua (P. Axular, *Gero*, 61)

#### Baiua

- (28) a. Uste duzue ezen Galileano hauk berze Galileano guziak baino bekato-reago ziradela, ZEREN halako gauzak sufritu baitituzte? (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Lc. 13, 2)  
b. Eta atsegin hartu behar zuán eta alegueratu, ZEREN hire anaye haur hil baitzén, eta biztu baita, galdu baitzén, eta eriden baita (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Lc. 15, 32)

(27) eta (28)ren arteko kontrastea nabarmena da: batean *zeren (eta)* soila agertzen da, aditzak inolako markarik ez daramala. Bigarrenean, berriz, *zeren-ez* gainera aditzean *bait-* marka ageri da. Gorago emandako irizpideen arabera, argi dago aditzak *bait-* aurrizkia edo honen ordain izan ohi den *-en* atzizkia badarama perpaus txertatua dugula; eta adizki horien alokutibo ezak ere gauza bera irakasten digu. Beraz, (28)ko perpaus elkartuetan menderakuntza dugu.

Baina zer gertatzen da delako marka hori ez dutenekin? *EGLU III*-n lokailutzat eman genituen *zeren*, *zergatik*, *alabaina*, *bada* eta *izan ere*. Ba al da horretarako arrazoirik?

a) Gehienetan *zeren*-ek leku jakin bat du bi perpausen artean. Ez du, beraz, lokailuei egotzi diegun mugikortasun hura. Beraz, alde honetatik, juntagailu izango litzateke, ez

lokailu. Egia da, hala ere, zenbait autorek –Etxeberri Ziburukoak, adibidez– *zeren* hori bere ohiko lekutik mugiarazten duela:

- (29) Hala deitzen duk, faltaren kutsutik ilkhi gabe  
ezin errenda gaitzekin *zeren* zenien iabe (J. Etxeberri, *Manual devotio-  
nezcoa*, 3.161)

Baina horrelakoetan, –aditzak daraman marka ikus– menderakuntzaren aurrean gaudela argi dago.

b) Baina morfologiaren aldetik (*zeren* < *zer* + *en*; *zergatik* < *zer* + *gatik*), eta baita biltzen dituzten osagaien kategoriagatik ere (hauek perpausak bakarrik lot ditzaketela ematen du eta ez sintagmak ez eta behezagoko osagaiak), lokailutzat hartzeko eskubidea dugula dirudi.

Aditzak atzizkia edo aurrizkia daramanean perpaus txertatua dugula esan dugu. *Zeren* lokailua dela onartzen bada, proposa genezake, lokailu hori beste bide batetik (aditzak duen atzizki edo aurrizkiari esker) txertatua gertatzen den perpausari dagokion ñabardura –kausarena, alegia– ematera datorrela. Lokailuak sarritan junta-gailuaren arrimura etortzen ziren bezala, *zeren* ere oraingoan menderagailuaren arrimura etorriko litzateke. Ez dugu proposatuko, hortaz, analisi bikoitza, hots: alde batetik *zeren* lokailua eta bestetik *zeren* *hait-* menderagailua. Aitzitik, *zeren* beti lokailu dela esan genezake: batzuetan menderakuntza indartzera edo datorrena; bestetan alborakuntza garbia izango dugu eta beste batzuetan bi perpaus lokabek (sintaktikoki lokabek) duten kausa-erlazioa agerian jartzea izango litzateke lokailua-  
ren hetebeharra. Hau bidezko dela ikusteko ez dugu honako adibide hauek begiztatzea besterik:

- (30) a. Nola ez duen dirurik, ezin du auto berririk erosi.  
b. \*Nola ez du dirurik, ezin du auto berririk erosi.
- (31) a. Nahiz (eta) ez duen dirurik, ez zaio gehiegi antzematen.  
b. \*Nahiz (eta) ez du dirurik, ez zaio gehiegi antzematen.
- (32) a. Ez dut etxerik nahi, *zeren* ez baitut horren beharrik ere.  
b. Ez dut etxerik nahi, *zeren* ez dut horren beharrik ere.

*Zeren*, *nola* ez bezalakoak dela argi ikusten da hor: *nola-k* beti aditzak marka bat daramala joan behar du. *Zeren*, berriz, bilutsik nahiz aditzari atzizkia edo aurrizkia

erantsiz. Horrek esan nahi du *nola ... -en* osorik azter dezakegula, baina *zeren-en* kasuan agian ez. *Nahiz eta -en* ere osorik hartu beharko dugu menderagailutzat.

c.- Gainera, juntagailuek (*eta-k eta edo-k* bereziki) perpausak ezezik sintagmak ere juntatzen dituzte. *Zeren-ekin* hori ezina da. Beraz, lokailu dela esateari eutsi diezaiogegu.

## 5. Juntagailu motak

Beraz, orain arte esandakoak gogoan hartuz, honako juntagailu hauek bereziko ditugu:

a.- Emendiozkoa: *eta* juntagailuaren bidez gauzatzen dena. Nolanahi ere, *eta* juntagailu ezezik menderagailu ere izan daiteke.

*Ez eziklez ezen! ez eze ... (ere)* moduko esamoldeetan, "emendiozko esamolde" deitu dituguntan, agertzen den *ez ezik* horrek ere emendiozko juntagailuekin baduke zerikusia, nahiz *eta* seguru asko lokailua izan.

b.- Hautakariak: *edo, edota, ala, nahi(z), zein* izango lirateke juntagailuak. *Ezpa* ere, testu zaharretan agertzen dena, sail honetakoa izango litzateke.

c.- Aurkaritzakoak: *baina, baizik, haino, ezpada*.

## Laburpena

### Lokailuak:

Beti perpausen arteko lotura gauzatzen dute. Ez ditugu aurkituko bestelako osagaien artean (izen sintagma, izena, adjektibo eta abar).

Hauen aditzondo edo adberbio izaera oso nabarmena gelditzen da.

Perpauk elkarketa ez dute bideratzen. Perpausen arteko erlazioaren fiabarduraren bat aditzera ematea besterik ez dute egiten. Nolabait perpauk batek aurrekoarekin duen lotura –esanahiari dagokion lotura, baina ez egiturazkoa– adieraziko du.

Juntagailuak baino mugikorragoak dira.

Bat bestearen ondoan meta daitezke, juntagailu batekin edo bi lokailu bilduz:

- a) Liburu hau oso atsegina da *eta* beste hau *berri* asko lagun diezazukeena,
- b) Autoan eramango zaitut, *zeren*, *guinera*, zure etxe ondotik pasatu beharra dut

### Juntagailuak:

Juntatzen dituen osagaien artean kokatzen dira, bien juntaguncan, perpausa edo beste osagai baten juntaguncan, (izen sintagma, adjektibo sintagma izenak, adjektiboak eta abar juntatzeko).

Perpauk elkarketa bideratzen dute.

Ez dira metatzen bat bestearen ondoan. Adibidez *eta*, *baina* ezin dira metatu:

- a)\* Liburu hau oso atsegina da *eta* beste hau, *baina* asko lagun diezazukeena.

### Menderagailuak:

Perpauk txertatueta adizkiak bere flexioan ezaugarri bereziren batzuk izango ditu.

Perpaus txertatuek gainerako sintagmek edo osagaiak betetzen duten lekua eta zeregina betetzen dute. Perpaus txertatuek ez dute adizki alokutiborik onartzen (gaurko zenbait euskaldunen hizkeran lege honen indarra aski ahuldua badago ere.)

Zenbait perpaus txertatutan aditza jokatu gabea izan ohi da.

### **Juntadura:**

Maila bereko perpausak elkartzeari, juntadura deitzen diogu.

Perpaus juntatuak maila bereko perpausak dira, ez dira bat bestearen mendeko.

Juntadura juntagailuen bidez gauzatzen da. Hitz solteak agertzen dira: *eta, edo, baina...*

### **Menderakuntza:**

Perpaus nagusia eta perpaus txertatua edo mendekoa azaltzean esaten diogu.

Menderagailuen bidez gauzatzen da. Adizkiari itsatsitako atzizkiak: *-en, -ela, nahiz* aurrizkiak: *ba-, bait-* azaltzen dira. Aditza jokatu gabea ere ager daiteke.

### **Juntagailu motak:**

a) Emendiozkoak: *eta* (menderagailua batzuetan)

Emendiozku esamoldeak: *ez ezik/ez ezen/ez eze...(ere)*  
*ez... bakarrik , ...ere*

b) Hautakariak: *edo , edota, ala, nahi(z), zein, ezpa.*

c) Aurkaritzakoak: *baina, baizik, haino, ezpada.*



**Lokailu motak:**

a) Emendiozkoak: *Ere, gainera, bestalde (bertzalde), halaber, (orobat, berebat), behintzat, bedere, bederik, bebinik behin, badere, badarik (ere).*

b) Hautakariak: *Bestela, bertzenaz, osterantzean, gainerontzean, ezpere(n), ezpabere.*

c) Aurkaritzakoak: *Ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik, bizkitartean, bien bitartean, (t)arte honetan, artean, alta, alabaina, alabadere, dena dela, dena den, hala ere, hala eta guztiz ere, haatik/hargatik, horratik/horregatik, barren, badarik ere.*

d) Ondoriozkoak: *Beraz, bada, hortaz, hortaz bada, orain bada, orduan, honenbestez, horrenbestez, halatan, hala.*

e) Kausazkoak: *Zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere.*

Oharra:

Gogoan eduki behar da lokailuen saila ez dela juntagailuena bezain sail itxia.

Ikus *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - III. Lokailuak* liburua

## EMENDIOZKO JUNTADURA

### 0. Aurkezpena

Emendiozko juntagailuen azterketari heldu aurretik komenigarri iruditu zaigu juntagailu-mota honi eskaini diogun kapitulu luzearen hezurdura bera azaltzea. Bestela, irakurlea azalpen, eztabaida eta xehetasunetan galdu, eta ikuspegi orokorrik gabe geratzeko arriskua dugu.

Lokailuak aztertzean egin genuen legez, definizio labur baten ondoren, lehenik juntagailu bakoitzaren *forma* aztertuko dugu (ik. 1.1.), batasunerako bultzatu beharreko formaren ondoan literaturan izan dituen aldarez ere zerbait esanez.

Ondoren, juntagailu horren *funtzioa*-z jardungo dugu (ik. 1.2.), hau da, zertako erabiltzen dugun aztertuko dugu. Alde honetatik aztergai nagusia hauxe da: nolako osagaiak, zein mailatakoak, elkartzen dituen juntagailu horrek. Izan ere, sarreran esan bezala, juntagailuen berezitasuna edozein mailatako osagaiak elkartzea da. Beraz, hiru modutako juntagaiak bereiziko ditugu: perpausak (1), izen-sintagma (2), eta sintagmaren barruko osagaiak (3):

- (1) Triste bizi naiz eta hilko banintz hobez
- (2) Ahaideekin eta adiskideekin ospatu nahi dituzte zilarrezko ezteiak
- (3) Ahaide eta adiskideekin ospatu nahi dituzte zilarrezko ezteiak

(2) eta (3) adibideak ikusi orduko oharren gara juntagaien kategoriaz zerbait gehiago esan behar dela. Horregatik 3.2. puntuan noiz juntatzen diren izen-sintagma osoak (kasu-marka eta guztikoak) eta noiz sintagmaren barneko osagaiak (izenak (3) adibidean) argitzen ahaleginduko gara. Dena den aukera izenen eta kasu-markadun sintagmen artean dago; hortaz, azken urteetan ugaltzen ari zaizkigun (4) adibidea bezalakoak inolako tradizioz gabeak ditugu (ik. 1.3.-1.5.):

- (4) Gobernua eta Konfederazioari elkarrizketei hasiera emateko eskatu zaie

Bestalde, aditz laguntzailearekin komuntadura duten izen-sintagmak juntatzeak nolako ondorioak dituen ere aztertu beharko dugu (ik. 2.), zein sintagmek eskatzen duten pluraleko komuntadura eta zeintzuk onartzen duten erraz singularrekoa:

- (5) Sagarra eta udarea jan ditut
- (6) Olesa eta ate-jotea da (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 153)

Juntagailuak elkartzen dituen osagaien kategoria (zein mailatakoak diren) eta komuntaduran duten eragina aztertu ondoren, juntaduran gertatzen diren osagai-ezabaketaz arituko gara. Jakina da solasean errepikatzen diren osagaiak isilpean utzi ohi ditugula. Jokabide honek juntaduran —oraingoan emendiozko juntaduran— dituen berezitasunak ikusiko ditugu, bereziki aditz-ezabaketari dagozkion puntuetan (ik. 3.). Hurrango bi adibideak bezalakoak izango ditugu aztergai, besteak beste:

- (7) Gurera datorren bakoitzean musu eman eta txokolatea eskatzen dit
- (8) Gurera datorren bakoitzean musu ematen dit eta txokolatea eskatzen

Lokailuetan, lokailu bakoitza zein juntagailurekin batera ager zitekeen aztertu genuen. Kontrako bidea eginez, juntagailua zein lokailurekin erabiltzen dugun azalduko dugu oraingoan. Batez ere *eta ... ere (bailez)*, emendiozko juntagailuaren eta *ere* lokailuaren erabileran gertatzen denaz eta gaurko joera okerrez arduratuko gara (ik. 4.).

Ondoren, *bai x (eta) bai x 1 ez x (eta) ez x* egiturak, banakari baliokoak ikusiko ditugu (ik. 5.). Bi osagai edo gehiagoren aurrean *bai* edo *ez* errepikatuz balio banakaria adierazten dugula esaten dugu; kontuan izan hala ere, (9) bezalako adibideetan ez dagoela berez juntagailurik (ik. *EGLU-III*, 17-18. or.), alborakuntza dugu. (10) adibidean, ordea, *eta* dugunez, juntagailu bidezko juntadura dugu:

- (9) bai mendian, bai itsasoan gustora aurkitzen naiz beti
- (10) ez da inon gustora aurkitzen ez mendian eta ez itsasoan

Azkenik, *emendiozko esamolde* deituko ditugunak aztertuko dira: *ez ezikiez ezeni ez eze + (baita) erelhere* batetik eta *ez bakarrik + (haital/haina) ere* bestetik (7.). Askotan inongo juntagailurik gabe erabili arren, batik bat emendiozko *eta*-ren laguntzan ager daitezkeenez, interesgarri iruditu zaigu sakontasun apur batez aztertzea.

Zazpi puntu horietan zehar ahaieginginduko gara bada *eta* emendiozko juntagailuaren nondik norakoak azaltzen. Eta eskema horri berorri jarraituko gatzaizkio gainerako juntagailuak aztertzean ere.

## 1. Forma, funtzioa eta juntagaiak

Orain arte komunzki *kopulatiboak* izendatu ohi genituen juntagailuak *emendiozkoak* deituko ditugu gaurdanik. Izendapen biak dira zuzenak, biak bidez asmatuak. Bi zeregin dituzte juntagailu hauek, izan ere, eta bietarik batari begiratzen dio batak eta besteari besteak. *Kopulatibo* deitzeak lotze eta elkartze funtzioa ipintzen du agirian eta hori berez juntagailu guzkiek egiten dute, juntagailu guztiak dira berez *kopulatibo*; *emendiozko* izendatzeak, aldiz, beraien gehitze, berretze eta emendatze zeregina. Lehenak haien funtzioa juntadurazkoa dela ematen du aditzera; bigarrenak juntadura hori nolana hikoia ez, baizik berreturazkoa dela juxtuki erakusten digu; alegia, lotu bai, baina berretuz eta batuz dutela egiten lotura. Lehen funtzioa, lotzea eta elkartzea, ordea, juntagailu guztiena denez gero, generikoa alegia, bigarrena markatzen duen izena edo deitura hobetsi dugu.

*Eta* da zeregin honetarako, hau da aurretik esan dugunari zerbait gehitzeko edo eransteko, erabili ohi dugun juntagailu nagusia.

### 1.1. Emendiozko juntagailua

Literaturan ere bai, baina batez ere egunoroko ahozko hizkeran *eta* forma osoaren ondoan *ta / da* forma laburtuak ere ageri dira, ia mendebaldeko euskalkietan bakarrik, egia esan.

- (11) Estu ta larri iritsi zen
- (12) Hi ta ni bi gaituk
- (13) Gaur da bihar hemen izango da
- (14) Han da hemen bizi da

*Ta* eta *da* bereiz idatziez ari gara hemen, jakina, adibide horietan ikusten den bezala, eta ez aurreko partizipioari itsatsiez, *ikusita*, *emanda* eta abar bezalakoez. Izan ere

orduan ez dira emendiozko juntagailu soilak, menderagailuen bidez ere adieraz daitezkeen nabardura semantiko zenbaitez horritzen baitira; menderakuntzaz aritzean aztertuko da zehazkiago *etorrira*, *esanda* eta abarren balioa, erabilera eta esanahia. Beraz hemen ez gara *ta*, *da* itsatsiez ari. Ohart gaituzen hidenabar Hegoaldeko *ikusita*, *emanda* bezalakoak, Iparraldeko literaturan, *ikusi eta*, *eman eta* idatzi izan direla ia beti, edo, balio sintaktikoaren arabera, *ikusirik*, *emanik*.

*Eta* osoaren ordeztu *ta*, *da* idazteko ohitura ez da hain zaharra, egia esan, edo ez hain zabaldua bederen. Oihenart da antzinako Iparraldeko idazleetan darabilen bakarra, baina behin bakarrik eta “metri causa” dudarik gabe:

- (15) Zurckin batu  
Et' aize gabe,  
Su naiz bilharu  
Ta kisu labe (A. Oihenart, *Oihenarten gaztaroa neurthitzetan*, 16)

Forma laburu horien ondoan, baina ahozko hizkeran bakarrik eta isilune baten ondoan, ez bi sintagma elkarri lotzerakoan, *enda* esan ohi da mendebaldeko zenbait lekutan. Alegia,

- (16) Izan zaitez gure erruki...; enda jagola ta artzain ardurazkoak legez estalpetu ta zaindu gaizuz zeure egapean (P.A. Añibarro, *Esku-liburua*, 2, 107)
- (17) Ni janarituteko geldi-zinian sakramentu adoragarri orretan; enda zeuk diraus-tazu... ilgo nasala betiko (P.A. Añibarro, *Esku-liburua*, 1, 160)
- (18) Jatxi zen. Enda gugana etorri zen

Baina ez bi sintagma elkarri lotzean, hemen bezala:

- (19) \*Hau enda hori ikusi nituen.

Nolanahi ere, azken hau ahozko hizkerakoa bakarrik delako eta beste bien, *ta*, *da* formen erabilerarik ia gelditzen ez delako —salbu Euskaltzaindiak berriki gomendatuak dituenetan, hala nola *hogeita bost* eta horien antzekoetan—, ez da dudarik euskara batuan nagusitu dena *eta* osoa dela, gainerako laburtzapenak euskara mintzaturako utziaz.

Hasieran esan bezala, *eta* juntagailuaren funtzioa emendiozko juntadura gauzatzea da. Juntadura den neurrian, kategoria bereko bi osagai (edo gehiago) elkartuko ditu,

eta juntatze honetatik irriten den osagai berria juntagaien kategoria bereko izango da. Emendiozko dela esaten dugun aldetik, aurretik esandakoari zerbait gehitzen, berretzen dion atala juntatzea da *eta*-ren zeregina. Xehekiago aztertu beharrekoa *atal* horren nolakotasuna da; beste hitz batzuetan esanda, zein mailatako juntagaiak elkartzen, lotzen ditu *eta*-k?

## 1.2. Juntagaiak

Oro har, maila eta kategoria bereko juntagaiak elkartzen dituela esan ohi da: perpausak, izen sintagmak, izen sintagmaren barneko osagaiak (izenak, izenondoak, izenlagunak...), e.a. Perpausak juntatzen direnean, osagai juntatua izan daiteke beregaina (20a) edo beste goragoko perpaus baten atal, hau da, perpaus txertatu (20b):

- (20) a. Bostak ziren eta jendea etxera joan zen  
b. Esan zuen bostak zirela eta jendea etxera joan zela
- (21) Hostoetan, xomorro eta larbak zeuden (B. Atxaga, *Behi euskaldun baten memoriak*, 38)
- (22) Luze gabe, beste bi koxkor beltz azaldu ziren: elurra, harkaitz beltza eta hiru koxkor (B. Atxaga, *Behi euskaldun baten memoriak*, 24)
- (23) Txalopa jaubien ernazteak, ernakume ixil da onak (D. Agirre, *Kresala*, 71)
- (24) Asi ziran ikastetxeko mutilxoak (...) Garbitokiko arimentzat eskean da itsasoagaz burruka gogorrean ebiltzan gurasoentzat zeruetako aitari arren egiten (D. Agirre, *Kresala*, 18)

Gainera juntagaien konpuruak ez du mugarik: berez nahi adina maila eta kategoria bereko juntagai elkar daitezke *eta*-z haliatuz. Alde honetatik, juntagailu-mota desberdinak aztertzean ikusiko dugunez, ez dira guztiak berdinak: batzuek —oro har emendiozko juntagailuek eta hautakariak— nahi adina juntagai elkar ditzaketen bitartean, aurkariak bi juntagai baino ez ditzakete elkar.

Hala ere bi osagai baino gehiago lotzen dituen *eta*-k, azken bien artean bakarrik ipintzeko —esateko nahiz idazteko— joera ohi dugu, beti ezartzeak astundu egiten baitu esaldia. Ondoko adibideetan emendiozko juntagailuak bi perpaus/izen/izenondofizen sintagma... baino gehiago elkartzen ditu:

- (25) Umeak sukar handia zuen (eta) medikuari dei egin zioten (eta) honek esan zuen gripea besterik ez zuela *eta* berehala aldegin zuen
- (26) Ez da bazkaltzera etorri, (eta) ez du deitu eta inork ez daki non den
- (27) Apezek, ez apezpikuk, ezetare Aita Sainduk, absolbatzen halakoaren ezein bothererik eztu (B. Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, 45)
- (28) har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia: ... haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere (P. Axular, *Gero* 11)
- (29) Onela ongi datorkio eizari azeriaren izena, ollagor. eper, erbi, ollo, ta gauza askoren eizaan ibilli oi dalako (J.A. Mogel, *Peru Aburka*, 111)

Juntagailua behin baino gehiagotan ipintzea zilegi da, halere; hortxe ditugu bart arratsean asmatuak ez diren hauek:

- (30) Aintza Aitari eta Semeari eta Espiritu Santuari
- (31) Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean

Hori herri hizkera kutsuko testuetan sarriago gertatzen den arren:

- (32) Igo zen eta sartu zen eta ikusi zuenean heldu zion eta harriaz jo zuen buruan.
- (33) Bere soldaruzkako bizkar-zakelarekin jarriko dit txantxetako korkoxa, ta Jenarok egiya dala usteko du; ta zein ta lasai ta galbaia izan leikien, ez du noski korkoxdun emakume batekin ezkontzeko almenik izango (T. Alzaga, *Buruntziya*, 94)

literatur testu klasikoetan ere ez da adibiderik falta, Mendibururen, Axularren edo E. Azkueren hauean bezala:

- (34) Zerbait eskatzen zuen aldian ematen zion batak berez eskatzen zion dirua; ematen zion besteak, ar zezan berak nai zuena, zituen diru guzien giltza; ta batari ta besteari milagroz anditzen zien beren diru-salla edo seguratzten zien itsasoz bidalzen zuten oialdia edo oialdiaren saltze ona; ta zeren limosnaz ematen zien S. Xavierren eskuz behartsu gaisoei zerbait diru (S. Mendiburu, *Bederatziurrena*, 345)
- (35) esperantza baitut zeruko lorian (...) kredit handiarekin zaudela, *eta* hortik helduko zatzaizkidala (...), *eta* arranoak airean dohanean bere umetara bezala

zuk ere enegana begia edukiko duzula. *Eta* gero nik ere (...) zure zorthe ona erdietsiko dudala, *eta* orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala (P. Axular, *Gero*, 5)

- (36) Arriturik egozan txoririk geienak asi zireanean igaroten penak, luma ederrak txoriai kenduteko sarri ugazaba barriak ebiltzazan larri. *Eta* kanarioak eta jilgeruak eta biriarroak eta pardiluak ez eben inos kantau tokietan legez ezpada negar-gisan (E.M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 50)
- (37) Lagun zarrekin biltzea, kontu zarrak oroitzea (...) ta ardo zarrak edatea (...) ta kanta zarragoak abestuztea... (A.M. Labayen, *Euskal Eguna*, 64)
- (38) Horrelako gogoeta sailduetan eta bethiereko oinhazetan eta erran ditugun lanetan bizi eta saildutu zen hainitz urtez. (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 82)

Izenondoekin gauza bera gertatzen da, noski:

- (39) Hura bai zela gizon handia (eta) bikaina (eta) tantaia!

Esan beharrik ez, ez direla beti *eta* guziak maila berekoak perpaus batean:

- (40) Liburuetan eta egunkari eta aldizkarietan agertzen da

(40) adibidean bigarren *eta*-k "egunkari-aldizkariak" elkarrekin juntatzen ditu eta sintagma bakar hori da lehen *eta*-k bere aldetik "liburuei" lotzen diena.

Beste hauetan ere maila diferentetan daude horko bi *eta* horiek eta ezin esan daiteke errepikatuak daudenik:

- (41) Lehengo batcan, esate baterako, harrika egin zidan komentura etorritako mutil koxkor batek, eta ni haserretu eta halaxe mintzatu nintzaion (B. Atxaga, *Behi euskaldun baten memoriak*, 40)
- (42) Etxera igo eta sukaldea eta gela garbituko ditut

"Maila eta kategoria bereko juntagaiak elkartzen ditu *eta*-k" baieztapena sakonago aztertzen hasi orduko ikusten da, ordea, baieztapen orokor hori osatu eta zehazteko beharra. Izan ere ez da aski perpaus kategoriako juntagaiak beharko ditugula esatea, perpausak modu askotakoak izan baitaitezke: adierazpen-perpausak (baieztapenak eta



ezeztapenak), galde-perpauak, aginte-perpauak... Konbinazio horiek guztiak al dira zilegi? Izen-sintagmak ere kasu-marka hartzen du (eta hartzen duen kasu-markaren arabera *adizlagun* deitzen diegu, ik. *EGLU-I*): kasu-marka desberdina daramaten sintagmak junta al ditzake *eta*-k? Banan-banan aztertu beharko ditugu, beraz, juntagai-kategoria bakoitzaren baldintza eta xehetasunak.

### **Perpau-mailako juntagaiak**

*Eta* juntagailuak mota bereko perpauak elkartu ohi ditu: bi adierazpen-perpau (nahiz baiezkokoak (43), nahiz ezezkoak (44), nahiz bata baiezkoa eta bestea ezezkoa (45), (46), bi galde-perpau (47), bi aginte-perpau (48):

- (43) Goiz jaiki da eta lanean ari da
- (44) Ez du ikasi eta ez du ikasi nahi
- (45) Lehenxeago atera da eta ez du esan noiz itzuliko den
- (46) Ez du ekarri eta aitak ekarriko duela esan du
- (47) Ikusi al duzu eta eman al diozu?
- (48) Zoaz etxera eta sar zaitetz ohean

Perpauak mota berekoak ez direnean aldiz, ondoko kasuok bereizi behar dira:

a) Aginte-perpaua eta adierazpen-perpaua elkar daitezke, ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (49) Zaude hemen eta ekarriko dizut
- (50) Ekarriko dizut eta egon zaitetz lasai

b) Adierazpen-perpauak eta haridurazkoak ere elkar ditzake *eta*-k:

- (51) Loreak ekarri zituen, eta ze poliak!

Baina emendiozko juntagailuak elkartzen dituen perpausek, mota bateko edo besteko

izateaz gain, kidetasun bat, beren arteko semantikazko lotura bat ere izan behar dute. Horrexegatik, perpaus baten eta bestearen arteko lotura logiko garbirik ikusten ez denez, nekez esango genuke ondokoa bezalakorik:

(52) Loreak ekarri zituen eta, a zer bazkaria!

c) Galde-perpaua eta aginte-perpaua edo galde-perpaua eta adierazpen-perpaua, berriz, ezin junta ditzake *eta*-k:

(53) \*Non bizi da? eta esaiok etortzeko

(54) \*Hori al da? eta esango diot

d) Juntagaiak adierazpen-perpaua eta galde-perpaua —hurtenkera honetan— direnean, azkenik, iritziak bereiz daudela dirudi hauen zuzentasunaz:

(55) Berandu etorri da eta ez al diozu ezer esan behar?

(56) Ez duzu inoiz ikusi eta ezagutzen duzula?

Bi perpau horiek inork ez-gramatikaltzat jotzeak harritu egin gaitzake, ez baitugu eragozpenik ikusten oso antzekoak diren beste hauek, eta hauek bezalako beste asko, esateko:

(57) Berandu etorri, eta ez al diozu ezer esan behar?

(58) Inoiz ez ikusi, eta ezagutzen duzula?

Bi multzoen artekoen diferentzia formala bistan dago: aurrekoek, (55)ek eta (56)k, adizki jokatuaz emaniko adierazpena daukate bere baitan; ondokoek aldiz adizki jokatu gabeaz, partizipioaz, emana. Ez dirudi hala ere diferentzia formal hori aski denik (55) eta (56) ez-gramatikaltzat jotzeko. Badirudi, beraz, guztiak, (55)-(58), direla ontzat ematekoak.

Nolanahi ere, eta formari dagozkion nabardurak gora behera, hor gehienetan eten bat dugu eta horrek gure *eta* hori lokailutzat hartzera eramango gintuzke. Horixe dugu, hain zuzen, ondorengo adibide honetan ere:

(59) Etorri da, eta noiz joango da?

## Juntagaiak izen sintagmak direnean

Ohizkoena emendiozko juntaduran mota bereko perpausak elkartzea den bezalaxe, sintagmek kasu-marka hartzen dutenez, kasu-marka berekoak elkartu obi ditugu *eta*-ren bidez:

a) Kasu-marka bereko izen sintagmak juntagai:

- (60) Esaidazu zer gura dozun; zeuk, emaztiak *eta* neuk bakarrik apaldutia, edo etxeke guztiok aladabatera? (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 111)
- (61) *Mandozainari eta mandoeri* mintzo zen denbora berean (J.B. Elissamburu, *P. Adame*, 26)
- (62) *Andre dena Mariatz eta bertze saildu batzuez* mintzo (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 164)
- (63) Galeperra da *gari artetan ta galonduetan* oi dabillen epertxuba (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 179)

Adibide hauetan kasu-marka gramatikala duten sintagmak (60)-(61) edo adizlagunak (62)-(63) dira juntagaiak. Guztiak bil ditzakegu *kasu-sintagma* deiturapean.

Kasu-marka desberdineko sintagmak, aldiz, ezin dira oro har juntatu:

- (64) \*Goizean *eta* Txomin ikusi dut
- (65) \*Tximinoak *eta* izkutuan ikusi ditut

b) Dena den, kasu-marka desberdinak izan arren, mota bereko izan daitezke, baldin adizlagunak badira:

- (66) Bizibidea etxean *eta* etxetik ateratzen du

Horrelakoak are normalagoak dira, adizlagunak esanahiaz kideko direnean; adibidez denbora, lekua adierazten dutenean:

- (67) Oraintxe *eta* hemen egin bear duzu hori
- (68) Beti *eta* han bertan ospatuko da festa

Kidekotasun honek esplikatuko luke (69) adibidea ere, non bi galde-aditzondo juntatzen dituen *eta*-k. Izan ere galdera horren erantzun izan zitekeen (68):

(69) Noiz eta non ospatuko da festa?

c) Kasu-marka desberdineko sintagma gramatikalak izan arren, itxuraz junta ditzake *eta*-k zehar galderetan:

(70) Nork eta nori esan dion jakin nahi nuke

Eta galdera zuzenetan, zilegi al da (71) bezalakoak esatea?

(71) Nork eta nori esan dio?

(70) eta (71) bezalako adibideen onargarritasuna, bestalde, horko galderen erantzun izan daitekeen beste honenaren parekoa dela esango genuke:

(72) Zuk eta niri

Azken finean eztabaidatzen dena juntagaien kategoria da eta horrenbestez galdera honako hau litzateke: (70)-(72) adibideetan juntagaiak perpausak ala kasu-sintagmak dira? Galdera honi erantzuteko, lehen puntuan esana izan behar dugu gogoan: kasu-marka desberdineko sintagmak ezin dira juntatu. Horrela (73) eta (74) adibideetan, ez genuke esango *\*aitak eta amari*, *\*zuri eta nitaz* sintagma juntatuak ditugunik:

(73) *\*Aitak eta amari erosi dio*

(74) *\*Zuri eta nitaz mintzatu zaizu*

Hala ere bi perpausak onak lirateke intonazio bereziarekin:

(75) *Aitak / eta amari / erosi dio*

(76) *Zuri / eta nitaz / mintzatu zaizu*

Hemen noski bi izen sintagma horiek ez dute osagai bakarra osatzen; egiazki bi perpaus dira:

(77) *Aitak erosi dio eta amari erosi dio (gainera)*

halako zerbait esango bagenu bezala. Egitura bera dute (70)-(72)k ere, juntagaiak itxuraz kasu-sintagmak diruditen arren, egiaz perpausak baitira. Hortaz, hirurak dira zuzenak.

Adizlagunei dagokienez ere arazo bera genuke. b) puntuan kasu-marka desberdineko adizlagunak junta ditzakegula esan dugu eta (69) adibidean hala gertatzen dela esan daiteke; lekua eta denbora oso gertuko ardatzak izateaz gain askotan kasu-marka beraren bidez —inesiboko *-n* kasu-markaz— adierazten dira eta. Beste zenbait adibidetan, ostera, zalantzak sortzen dira *eta*-k elkartzen dituenak adizlagunak diren, ala perpausak:

(78) Zurekin eta etxean egongo naiz

(79) Eskuz eta ordubetean irabazi dio

Hor bi perpaus ditugula dirudi, baina agian ondoko (80)ko bi adizlagunek (edo (66)-(68)koak) bezalaxe adizlagun kategoriako osagaiak osatzen dute:

(80) Bost umerekin eta oinez etorri zen Bilbotik

Gainera azken honetan galdera berari —*nola* galderari, alegia— erantzuten zaio nolazpait; (78) eta (79)an aldiz bi galderari.

Labur bilduz, bada, izen-sintagmei dagokienez, *eta* juntagailuak kasu-marka bereko sintagmak elkartzen dituela esan daiteke, edo bestela denbora/lekua adierazten duten adizlagunak, nahiz kasu-marka desberdineko izan.

### **Juntagaiak izen-sintagmaren barneko osagaiak direnean**

Perpausak eta, bestelako unitateak bezalaxe, izen sintagmen barneko osagaiak ere, maila berekoak direlarik, junta daitezke. Ardatz izenak junta daitezke, beraz, bai eta izenlagunak eta izenondoak ere:

a) Ardatz izenen juntaketa:

(81) *arbaso eta gurasoengandik datorkigun ondasun urria* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 394)

- (82) *joko ta nagikerian* igaro ditu egunak (D. Agirre, *Garoa*, 367)
- (83) zer izialdura etxean, auzoetan, *hiri eta herri* guzian (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 86)

b) Izenondoen juntaketa:

- (84) euskal itzulpen *zahar eta herriei* buruz (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 342)
- (85) dohatsu horrelako bizitze *on eta eder* baten ondotik, heriotze girixtino bat egiten duena (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 79)
- (86) nere ile *bakhar, luxe eta xuriek* gorritu behar badute ere nere hitzari ohore eginen diat (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 19)

c) [Ardatz izena + izenondoa] egituren juntaketa:

- (87) Orai ditugun *buruzagi framazon eta giristino arnegatu*ekin bat egiten zuela (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 54)

d) Izenlagun juntaketa:

- (88) denbora hartan, Pello, *lehenbizkaitar eta plazatar* muthikoak debroz eginak zituan (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 38)
- (89) lotsariak oso ixildu zituan *Antononen ta Mari Batistaren* mingañiak (D. Agirre, *Garoa*, 259)
- (90) *Xuberoko eta Baxenabarreko* boz-emailek igorria da (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 142)

(81)-(90) adibideetan ditugun egiturak aztertuz, izen-sintaginaren barneko osagaiak juntatzean funtsean honako aukerak ditugula esan daiteke:

Ardatz izenen juntaketa:

- (91) [[lagun eta haurride] ak]
- (92) [[[gizon eta emazte] langile] ak]

Izenlagun juntaketa

- (93) [[[lehen eta bigarren] egun] ean]
- (94) [[[zure eta nire] lagun] ak]
- (95) [[[Donostiako eta Ondarroako] arrantzale] ak]

Izenondo juntaketa:

- (96) [[gizonik [argi ta langile] en] ak]
- (97) [euskaldun [zahar eta gazte] ei]

[Ardatz izena + izenondoa] egituren juntaketa:

- (98) [[[irakasle alper] eta [ikasle saiatu]] ak]

Holakoetan osagaiak zuzenean juntatzen direnaz gero, zenbaitetan anbiguitateak gerta daitezke, kontesturik gabe zaila baita zein mailatako osagaiak juntatzen diren jakitea. Adibidez, (99) bezalako adibide batean bi azterkabide eta bi irakurketa egin daitezke:

- (99) neska eta mutiko abilei dei egin nien
- (100) [[[neska] eta [mutiko]] abil] ei
- (101) [[[neska] eta [mutiko abil]] ei]

(99) adibidea (100)eko egituraren arabera irakurtzen bada, neska abilak eta mutiko abilak deituak izan ziren. Ordea, (101)eko egituraren arabera interpretaturik, neska guztiak izan ziren deituak, baina mutiko abilak bakarrik, *abil* izenondoak dakarren murrizketa *mutiko* izenari baizik ez baitagokio. Nolanahi ere, abilak mutikoak bakarrik direla inolako zalantzarik gabe adierazteko, kasu-sintagmak juntatzera jo ohi dugu (101') modukoak eratuaz:

- (101') neskei eta mutiko abilei

### 1.3. Izen sintagmaren barneko osagaien juntaketa ala kasu-sintagmen artekoa?

*Eta* emendiozko juntagailuak zein mailatako juntagaiak elkar ditzakeen aztertzean, kasu-marka bereko izen-sintagmak (gehienetan hala izan ohi da) nahiz sintagmaren barneko osagaiak junta ditzakeela esan dugu. Aukera hauek garbi ageri dira ondoko adibide pare hauetan:

- (102) a.[Bi euskaldunen eta indio baten] istorioa da  
b.[Bi euskaldun eta indio baten] istorioa da
- (103) a.[Lagunez, adiskideez eta etxekoez] mintzatu ziren  
b.[Lagun, adiskide eta etxekoez] mintzatu ziren
- (104) a.[Pantxikari eta Mireni] eman dizkiet liburuak  
b.[Pantxika eta Mireni] eman dizkiet liburuak

Adibide pare hauek alderaturik, arras elkarren baliokideak direla ageri da. Hala ere ezin esan daiteke formaren aldetik guziz berdinak direla, (102a)n *bi euskaldunen* eta (102b)n *bi euskaldun*, azken hau genitibo markarik gabe, aurkitzen baitugu; (103a)n, *lagunez* eta *adiskideez*, eta (103b)n, *lagun* eta *adiskide* esaten da, ondarki (artikulua, numero-marka eta kasu-marka adierazten dituen) instrumentala desagertarazirik. Gauza bera gertatzen da beste adibidean ere: (104a)n ere datibo kasu marka galdu baitu juntaturiko lehen izenak (*Pantxikari / Pantxika*).

Egituraren aldetik argi da ondarkia errepikatzen delarik kasu marka dakarten sintagmak juntatzen direla, izan daitezen izen lagunak (102a), adizlagunak (103a) edo kasu marka gramatikala duten sintagmak (104a). Horregatik hemen horiek guztiak izendatzeko terminologia hateratua erabiltzeagatik *kasu sintagmak* deituko ditugu denak. Kasu sintagma, beraz, [izen sintagma + kasu marka] egitura duten sintagmak izanen dira ondoko lerroetan.

(102b-104b) adibideetan, ondarkia behin baizik agertzen ez den adibideetan, izen sintagma bakar baten barnean gertatzen da juntaketa. Holako egiturak izendatzeko, ardatz izen bat baino gehiago dutenez gero, *ardatz anitzetako izen sintagmak* direla esango dugu.

Ardatz anitzetako izen sintagmetan, ardatz izenak, edo dagozkien goragoko multzoak, adibidez, [izen + izenondo] edo [izenlagun + izen] bezalako multzoak, juntatzen dira. Hona zenbait adibide:



- (105) a. [[lagun zahar] eta [adiskide berri] eñtzat]  
b. [[zure aita] eta [nire guraso]] engandik]

Pentsa daiteke, beraz, aukeran uzten dituela gramatikak juntamailak, kasu batean juntadura, ardatz bat baino gehiago duen izen sintagma bakar baten barnean gertatzen da (105)eko adibideetan bezala, eta bestean, berriz, bi kasu sintagmen artean. Azken kasu honetan (105)eko adibideak (106)ko moldean agertzen dira.

- (106) a. [[lagun zaharrentzat] eta [adiskide berrientzat]]  
b. [[zure aitarengandik] eta [nire gurasoengandik]]

Galdera batzuk agertzen dira, halere: hiztunak ba al du beti aukera hi jokabide horien artean? Hautua izanik ere, ez al da jokabide bat bestea baino erabiliago edo neutroagoa? Galdera horiei erantzuten saiatuko gara hemen.

### **Noiz den beharrezko kasu-sintagmak elkartzea**

1.2. puntuan ikusi bezala, kasu marka bera erabiltzen delarik kasu sintagmen arteko juntaketa, beti da zilegi. Are gehiago, laster ikusiko dugun bezala, horixe da bestela ere gehieuk baliatua den juntabidea.

Debekurik agertzekotan, beraz, beste juntabidean agertuko da, esan nahi baitu ardatz anitzetako izen sintagmak juntatzean. Ikus dezagun, beraz, noiz ezin den halako juntabiderik hautatu, noiz den nahitaezko kasu-sintagmak juntatzea.

Ondoko bi egitura-moldeetan kasu sintagmak baizik ez daitezke junta:

a) Pertsona izen ordainak direnean sintagmaren ardatz, sintagmak osorik, esan nahi baitu kasu marka daukatela, juntatu behar dira:

- (107) a. \*zu eta eni gertatu zaigu  
b. \*hau eta horiek egingo dute
- (108) An gaitzaren zigorrak atzi nindun, eta *zure ta nere ta besteren* aurka egin gaizkiak ipermura neramatzin (N. Ormaechea "Orixe", *Aitorkizunak*, 115)
- (109) Esaidazu zer gura dozun; *zeuk, emaztiak eta neuk* bakarrik apaldutia, edo etxeko guztiok aladabatera? (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 111)

- (110) *Zuk eta nik* baino gehiagoko gaitzik ez duena (J. Hiriar-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 34)
- (111) *Atsegingarria da zuretzat eta zure gurasoentzat* (D. Agirre, *Garoa*, 341)
- (112) *hark eta honek (...)* lur jo nahi badu, hor konpon (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 383)
- (113) Eskual Herriko gure deputatuak badute *hartaz eta beren buruez* espantu (J. Hiriar-Urruty, *Zenbait Aurpegi*, 80)
- (114) baina lasaiago mintza gaitzke, nahi izanez gero, *hantaz eta hartaz* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 400)

Dena dela, bigarren juntagaian konparazioa dakarten *bezalako, antzeko...* azaltzen denean, izenordain soilak ere junta daitezke:

- (115) ni eta ni bezalako askoren iritzi
- (116) Ni eta antzeko askoren ahotan /beRija/ da *berria (...)* baina *autonomia* ez da beti /-ija/ bihurtzen (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VII*, 176)

b) Ezkerreko juntagaia erakusle batek mugatzen duenean ere, honek kasu marka nahitaez hartu behar du:

- (117) \*Gizon hau eta emazteki hark egin dute
- (118) palazio *haren* eta *Salomonen* bertze obra ederren ospea hedatu zen bazter gehienetarat (B. Larregi, *Testament zaharreko eta herriko historia*, 334)
- (119) Luterok bere heresiaren hazi pozoatua Alemanian erain, eta hedatu zuenean, Ignacio Loiolakoak Eskual-Herriko edergailu dohatsuak preparatu zituen bere konpainiako ordenantzak, eta soldaduak, heresiaren buruzagi traidore, fedegaiztotako *haren* eta *haren banderizakoen* kontra (...) dohatsuki ihardukitzeko (J. Etcheberri (Sarakoa), *Euskararen hatsapenak*, 125)

Bi egoera horietaz landa esan al daiteke aukera dugula juntabidearen hautatzeko: edo kasu sintagmak juntatuz, ondarkiak errepikatuz, edo ardatz izenak (nahiz gorago-ko taldeak) juntatuz, eta ondarki bakarra erabiliz? Lehenik esan dezagun maila bateko (kasu-sintagmak) edo besteko (sintagmaren bameko osagaiak) juntagaiak elkartzeko

joera euskalkien araberakoa dela, behar bada idazleen araberakoa ere bai: ekialdean kasu sintagmaak juntatzen direla dirudi gehienetan, eta mendebaldean, berriz, ardatz anitzetako izen sintagmen bidea ere, bestearen ondoan, kasik parean, erabiltzen dela zenbait baldintza betetzen delarik bederen. Zenbaitetan bi juntamailak elkarren ondoan ere erabil daitezke:

- (120) Ihen uste genuen bagenekiela euskalkiak zein ziren. *Bonaparteri. Azkue ta besteri* eskerrak (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 384)
- (121) Itzulzekó Jesu Christori hónra ta estimázioa dagokióna, emen Judioek, Herege, ta gaixto guziék faltatuzioténa (J. Lizarraga, *Urteko igande guzieturako prediku lahurak*, 13)

(120) adibidean datiboan diren bi kasu sintagma juntatzen dira, baina ikus daiteke bigarren kasu sintagma juntatua ardatz biko sintagma dugula. Beste horrenbeste gertatzen da (121)eko ergatibo-sintagmetan. Ohar gaitezten, alabaina, *Azkue ta beste* moduko egitura orokorra dugula lehen adibidean, juntagaiak ez dira *Azkue* eta beste pertsona jakin bat. Azken batean bi multzo juntatzen dira adibide horietan: *Bonaparte* (120) eta *Judioek* (121) sintagmek osatzen dute hurrenez-hurren lehen multzoa, *Azkue eta beste* (120) eta *herege ta gaixto guziek* (121) sintagmek bigarrena (ik. aurrerago (164)-(165) adibideak direla eta horretaz dioguna ere).

Euskalkien joera orokor hauetaz aparte, goian egin dugun galderari erantzuteko, ikusi behar dugu, zerk izan dezakeen eragina bi jokabideen arteko lehia horretan.

Kasuaren nolakotasunak alde batetik, eta numeroak bestetik, eragina izan dezaketela hipotesia eginik, ikus dezagun bada bataren eta bestearen kasuan gauzak nola agertzen diren.

### **Juntabidea eta kasuak**

Batek pentsa dezake kasu marka batzuekin besteekin baino errazkiago baliatzen dela juntabide bata edo bestea. Baina ez dirudi hala dela. Hona zenbait adibide hemen diogunaren berme, kasuaren nolakotasunak juntabiderik ez duela galarazten erakusten digutenak (berdin idazle beraren baitan):

- a) Ardatz anitzetako izen sintagma kasu desberdinetan:

**Absolutiboa:**

- (122) *zure anai ta aideak* soro lanetan dauden orduan, zu egongo zera emen aientzat *zorion ta pakea* gerorako eskatzen (D. Agirre, *Garoa*, 342)

**Ergatiboa:**

- (123) Gaxua, bera bai jan ebela laster *bele ta miruak* (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 53)

**Datiboa:**

- (124) Historiari baino nazio arteko *lege ta politikari* dagokion bat bazterrera utzirik (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 236)

**Instrumentala:**

- (125) Ahapaldi hau, bere ondorio guziekin, asko klar mintzo da egilearen *asmo ta nahiaz* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 287)

**Inesiboa:**

- (126) *Joko ta nagikerian* igaro ditu egunak eta urteak (D. Agirre, *Garoa*, 367)

**Genitiboa:**

- (127) eskualdun itzain ixtazabal, zangoa herrestan bere *idi eta orgen* aitzinean, edo gibeletik, tuku-tuku doana... (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait Aurpegi*, 200)

**b) Kasu-sintagma juntaketa kasu desberdinetan:**

**Absolutiboa:**

- (128) *ura ta zorna* dario (D. Agirre, *Garoa*, 345)

**Ergatiboa:**

- (129) *Jose Ramonek eta Manuelek* beren naigabe ta urduritasuna ezin gordi izan dute (D. Agirre, *Garoa*, 340)

**Datiboa:**

- (130) *Mandozainari eta mandoeri* mintzo zen denbora berean (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 26)

**Instrumentala:**

- (131) *Andre dena Mariaz eta bertze saindu batzuek mintzo* (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 164)

**Inesiboa:**

- (132) *Galeperra da gari artetan ta galonduetan oi dabilen epertxuba* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 179)

**Genitiboa:**

- (133) *Arana Goirekin bizkaitar literaturaren garaipena dator, hark fundaturiko alderdi politikoaren eta aldizkarien bitartez Euskal herri osotik zabaldu zena* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 381)

## **Juntabidea eta numeroa**

Ikusi dugun bezala, kasuaren nolakotasunak ez du nahitaez juntabide bat hobetsarazten. Ondarkietan, haatik, kasuaz kanpo beste elementu bat ere agertzen da kontuan hartzeko dena: numeroa.

Alde honetatik, garbi ageri da ardatz anitzetako izen sintagmak ondarkia pluralean dutelarik aurkitzen direla bereziki. Bestela esan, numeroa singularra denean (ardatz anitzetako izen sintagmak ondarki singularra hartuko lukeenean), joera nabaria da kasu-sintagmak juntatzearen alde.

- (134) *Remesgo kontzilioak manu berezi hau ekharri izan zuen: igande eta phesta egunetan, jaun erretorak bere jendea bil dezala, mezarat eta predikurat bezala, bezperetarat ere* (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren Eguna*, 125)
- (135) *Len errieta eta alkar ezin ikusi eta gorrotoa besterik etzan etxe eta baserrietan pakezko eta kontentuzko, estimaziozko eta amorezko biziera sartu zan* (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 140)
- (136) *Arazo ori ikusi ta gero, etxaguntzan, batera ta bestera, ahete ta artaldeak ikusten egurastu zirean arratsalde guztian, barre asko egitten ebela txitteen-pitteen, neskatillaren asmo ta esakerakaz* (J.M. Echeita, *Josetxo*, 318)

- (137) *Eremu ta basoetan, bere gorputza lazki nekatzen zuala* (J.A. Ubillos, *Kristau doktriña berri-ekarlea*, 75)
- (138) *Gibel-jale eta errankizundunak ongi obratuz mespreza zatzu; zeure eginbidea egiten duzuino, etzaitzula jeusik hekien hitzez* (J. Etxeberri (Sarakoa), *Es-kuararen Hatsapenak*, 199)

Ondarkia pluralekoa izateak, ordea, ez du esan nahi juntaturiko ardatz guztiak nahitaez pluralean direla, Lafittek bere gramatikan ongi seinatu zuenez:

- (139) Jainkoak eginak dira eguzki, ilhargi eta izarrak (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 69)
- (140) Uraxe zan nunbait gau artako guda-enparantza. Antxen izandu zan, jan bearrak eta bizinaiak ematen duan indar ta adorez abere basatiak egin zuten borroka errimea. (D. Agirre, *Garoa*, 159)
- (141) Etxejabeak, (...) *gure Patxiko ta lagunai* bazkaria ematen diote (D. Agirre, *Garoa*, 350)
- (142) baña isten dot zure kontura zeure *emazte ta ume onakaz* kunplietia (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 193)

Adierazgarria da, bestalde, (140)-(142) adibideetan ezkerrean izenlaguna agertzea; badirudi horrek ardatz-izenen juntaketa errazten duela. Halaber, errazago juntatzen ditugu bi izen eskuinean bieci dagokien izenondoa doanean:

- (143) *laguntza eta sari aberatsenak* zagizkoten (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 76)

Gutxiago agertzen dira ardatz anitzetako izen sintagmak ondarkia singularrean delarik. Orduan, esan bezala, maiz lehen juntagaia izenlaguna duela agertzen da, horrek juntaketa uota hau errazten balu bezala; gauza bera gertatzen da eskuinean izenondoren bat dugunean. Bestalde, esanahiaz oso hurbil diren izen abstraktuak juntatzen dira maizenik horrelako juntaduretan:

- (144) *zein kaltogarria dan euren alperkeri ta nagitasuna* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 218)
- (145) *deritxat danzudala arerijuen ospe ta barallia* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 202)

- (146) uste dogu alan bere, egin dogula zerbait errepublikiaren alderako, gordiaz geure burubak onen *asarre ta burdiña odoltsuti* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 213)
- (147) Nagusiaren *samurgo eta hasarrea* (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 70)
- (148) Deitzen dira *Profetak*, Jainkoak emanikako *ispiritu ta argiarekin* gauza gorde estaliak eta etorkizunak ekusten dituen gizon guziak (J.A. Ubillos, *Kristau doktriña berri-ekarlea*, 46)

Holako adibideetan nozio abstraktuak adierazten diruzte izen ardatz juntatuak (haien gauzatzeko izen konkretua erabiltzen bada ere: *burdiña* adibidez). Are gehiago, juntatu izenetan bata bestearen adierazle dela ere esan daiteke. Beste zenbaitetan sinonimoak ez diren izen konkretuak izanagatik, juntatu diren ardatzak elkarketa moduko bikoteak dira, edo hitz biko esakuntzak:

- (149) Gaztaja, da esatja ai gaztua, edo *gatz ta esnearekin* egiten dan aia (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 176)
- (150) Or dator nor bait *eskopeta ta txakurraz* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 172)
- (151) *zeru ta lurrean* zure oldea egin bedi (D. Agirre, *Garoa*, 340)
- (152) *ari ta orraatzaz* lotu ta josirik (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 147)
- (153) Ingelesez lasai baino lasaiago idatziko da, esate baterako, *weltanschauung* edo *eigen (value)*, gaztelania eta frantsesez baino (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VII*, 192)
- (154) maitasun ta biozkadak, lore ta igaliak bezela, *udaberri ta udan*, izan oi dira onenak: gorrirka, eze ta goxuak (A.M. Labayen, *Euskal Eguna*, 68)

Hemen sartuko genuke bikoteko osagaiak juntaturik dituen ondoko adibidea ere:

- (155) Elizako bedeinkaziorik gabe *gizakume ta emakumea* alkartzea, geienak artzen zuten bidea zan lurralde aietan (N. Etxaniz, *Lur berri billa*, 30)

Juntagaiak izen propioak direnean ere, errazago aurki daiteke ardatz anitzetako izen sintagmen juntaketa (156)-(158); kasu-sintagma juntatuen adibiderik ere ez da falta, jakina (159)-(161):

- (156) Illuntzean etxeratu zan Sabas bere alabakaz: *Dari ta Josetxok* lagundu eutsen biderdirarte (J.M. Echeita, *Josetxo*, 318)
- (157) An dabiltz *Billarreal ta Otxandioko* langille irmeak, (...) aldean *Zeanuri, Billaro, Dima ta Larrabetsuko* nekazariak (D. Agirre, *Garoa*, 180)
- (158) *Jose eta Nikodemo'k* illtzeak gurutzetik atera, eta gorputza jatsi zuten, eta Ama Maria guziz santari magalera eman zioten (F.I. Lardizabal, *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*, 464)
- (159) Arte hartan Zabierek eta Bobadillak Bolonian behar zuten predikatu, Rodrigesek eta Lejaik Ferraren, Brouetek eta Salmeronek Sienan, Codurek eta Diego Hozezekoak Paduan (F. Laphitz, *Bi Saindu Eskualdunen Bizia*, 170)
- (160) *Mariak eta Xanetak*, aski laster, idekitzen diruzte begiak, begi ilhaun eta matatu batzu (J. Barbier, *Supazter Xokoan*, 124)
- (161) Au da egia bat *Florenziako eta Trentoko* konzilioak erakusten diguena, eta katoliko guziak sinisten duena (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak I*, 559)

ez eta bi aukerak, kasu-sintagmen eta ardatz anitzetako izen-sintagmen juntadura erakusten duen adibiderik ere:

- (162) Giputz aditza erabili dute, esate baterako, Arestik eta Villasantek maiz, Mirande eta Peillenek sarritan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 123)

Holako kasuetarik kanpo, ondarkia singularrean delarik kasu sintagmen arteko juntabidea beharrezkoa dela esan daiteke, eta, horretaz, ondarkia errepikatu behar da.

- (163) \*gizon eta haurrari eman diet

Lehenago esana izan den bezala, ondarkia pluralean delarik anitzez errazkiago egiten dira juntaketa horiek (134)-(138).

Bada, azkenik, aipagarri den beste joera nagusi bat, zerrendatze bat egiten denean, ondarrean eta *X guziak*, edo eta *X asko*, edo horrelako elakuntza bat emanez, maizenik ardatzak juntatzen dira:

- (164) Onela ongi datorkio eizari azeriaren izena, *ollagor, eper, erbi, oillo, ta gauza askoren* eizaan ibilli oi dalako (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 174)



- (165) Gure nekiakaz (...) datoz *baba, irar, indirar, garagar, olo, ta jankai guztijak*  
(J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 149)

Labur bilduz, bada, kasu-sintagmak ala sintagmaren barmeko osagaiak, zein mailatako juntagaiak izan ditzakegun ondoko puntuetan jaso daiteke:

- a. Kasu-sintagmak juntatzea beti da zilegi
- b. Kasu-sintagmak juntatu behar dira derrigorrez pertsona izenordainak direnean sintagmaren ardatz (107)-(114), edo ezkerreko juntagaia erakusle batek mugatzen duenean (117)-(119)
- c. Kasu-sintagmak juntatzeko joera nabaria ikusten da sintagmok singularrekoak direnean. Dena den bestelako juntabidea ere aurki daiteke ardatz izenaren arabera (140)-(161).
- d. Ondarkia plurala denean, berriz, aukeran ditugu bi juntabideak: kasu-sintagma osoak edo ardatz anitzetako izen sintagmak. Hala ere euskalki batzuek, ekialdekoek, kasu-sintagmak juntatzeko joera erakusten dute, eta beste batzuek, mendebaldekoek, errazago jotzen dute ardatz anitzetako izen sintagmen juntaketara.
- e. Kasu-markaren nolakotasunak ez du eraginik juntabide bata edo bestea aukeratzean (122)-(133).

#### **1.4. Kasu markarik gabeko izen sintagmen juntaketaren ezintasuna**

Orain arte aipatu ditugun bi juntabideetan, ondarkiak osorik errepikatzen ziren, edo batere ez. Eta hala behar du ia beti, oro har ez baitaitezke ondarkiak dituen elementu desberdinak (mugatzailea eta kasu marka) bereiz juntaduran. Horretaz, euskaraz ezkerreko juntagaia ez da izaten kasurik gabeko izen sintagma mugatua, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala:

- (166) a.\*Nagusia eta langileei mintzatu zitzairen  
b.\*Itsasoa eta mendietan ibili naiz  
c.\*Nagusia eta langileez mintzatu dira

(166)ko adibidean lehen juntagaiak ondarki osoarekin agertu behar du, edo batere ondarkirik gabe. Artikulua soilik hartzen badu, baina ez kasu markarik, egitura

desgramatikala sortzen da. Alde honetatik, salbuespentzat hartu behar da orduer dagokiena, ez baita esaten ahal “\*hamabietan eta laurdenetan”; bai, ordea, “hamabiak eta laurdenetan”.

Noski, kasu sintagma absolutuan direlarik, izen sintagma hutsak ala kasu sintagma diren ez daiteke ikus, baina horrek ez dio ezer kentzen hemen diogunari. Ondoko adibidean, esaterako, absolutuan diren bi kasu sintagma juntatzen dira (ez kasu markarik gabeko bi izen sintagma):

- (167) artoa eta babarruna ziren garai bateko jaki nagusiak

### 1.5. Posposiziodun sintagmen kasu berezia

Ezkerreko juntaia ezin dela ondarkiaren zati batekin bakarrik —artikuluari eta numeroari dagokionarekin— agertu esan dugu aurreko puntuan, ondarkia azaltzekotan osorik (kasu marka eta guzti) behar du. Ondarkien artean, ordea, *EGLU*-ren lehen liburukian ikusi genuen bezala, badira batzuk genitiboarekin erabil daitezkeen posposizio moduko morfema bat daukatenak. Adibidez, *-gan*, *-gana*, *-izat*, edo *-gatik* bezalako morfema lotuak dakartzaten ondarkiak.

Holakoetan ondarkia genitiboaren mailan moztuz izenlagunak junta daitezke.

- (168) a. *Piarresen* eta *Maddalenengatik*  
 b. *Auzoaren* eta *alkatearengana* joan nintzen  
 c. *Auzapezaren* eta *zinegotzientzat* ere hori esan dezakete
- (169) haren arima saindua joan zen zerurat bere birjinitatearen eta martiriuairen *gatik* hartzen zuen bethiereko zorionaz gozatzeraz (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 141)
- (170) illen eta bizen *gatik* Jaungoikoai otoitz itia (Ultzamako apezka, *Kristau Dotriñe.*, 35)
- (171) Eta atzokoaren eta gerokoaren *gatik*, ez dezakegun, gaur, batek ez besteak, gure hitza jan (J. Etchepare, *Mendekoste Gereziak*, 71)
- (172) Arrazoinik onenak aurkitzen ditu batzuen eta besteentzako (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 315)
- (173) baldin bethi eta bethi suspiraz egoten bagare, haren *gana* beharrez, gure ontasun bakharraren eta soberanoaren *gana* bezala (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 73)

Posposizioak sintagma absolutua onartzen badu osagai moduan, joko berak egin daitezke noski:

- (174) a. zu eta ni baitan  
b. agintariak eta menekoak baitan  
c. Maddi eta Piarresgana  
d. Aita eta Jainkoagatik
- (175) zazpigarrena, biziak, ta illak gatik Jangoikoari otoitz egitea (Añibarro/Astete, *Kristau Dotriña*, 42)
- (176) eta bihurtzen naizela ene Jainko emea eta urrikalsua gana (S. Pouvreau, *Philotea*, 75)
- (177) Gure teknikuori or asi zan, *kollaria ta tenadorakin*, batian ikutu ta bestian ikutu, ta olakoren baten ipiñi eban martxan erlojuori (J. San Martin, *Zirikadak*, 65)

Normalena, halere, orain arte aipatutako joeren arabera, kasu-sintagma osoak (178) edo izen soilak (179) juntatzea da:

- (178) a. Emaztearengan eta semearengan konfiantza osoa dut  
b. Hiria itsuentzat eta ezinduentzat egokitu beharra dago
- (179) a. Emazte eta semearengan konfiantza osoa dut  
b. Hiria itsu eta ezinduentzat egokitu beharra dago

Eta singularreko sintagmak diren neurrian, ohikoago kasu-sintagmak juntatzea (178a), izenak baino (179a) bi aukeren artean. Dena den gorago ikusi legez, izenlaguna agertzeak asko errazten du izenen juntaketa (sintagma singularrak dirugunean ere bai), ondoko adibideek erakusten digutenez:

- (180) Euren guraso, anai ta errikide ta enparaukoen alde, itsasoaren baretzea ta itsas-gizonen etxeratzea arren bai arren erregu egiñaz, guztia aal dauan Jaungoikoari (E. Erkiaga, *Arranegi*, 163)
- (181) Hainbertze urrikizko nigar eta auhenen gatik, Jainko jaunak aditzerat eman zion bazuela bere bekhatu guzien barkhamendua (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitzea*, 76)
- (182) Maite diat aita bere indar eta zuzentasunarengatik (J.B. Etchepare, *Mendekoste Gereziak*, 66)

- (183) haren pasione eta kurutzea gatik bethiko loriara eremanak izan gaitezen (Echeverri/Astete, *Guiristino-Doctrina* (Luzaide), 40)
- (184) nere itzulkitzunei buruz egifiko oarkizun eta zuzentzeak gatik esker ona zordiot Orixe jaunari (J.J. Goikoetxea "Gaztelu", *Musika Ixilla*, 6)

Aurki daitezke (120)-(121) bezalako adibideak ere, hau da, lehen juntagaitzat kasu-sintagma dutenak eta ondoren ardatz anitzetako izen sintagma:

- (185) Banidaderik gábe, inbidia, ta biziorik gábe, nióri perjuizioik eztuéna itén (J. Lizarraga, *Urteko Igande Guzietarako Prediku Laburrak*, 41)

Era berean, 1.3. puntuan azaldu dugunez, izenordainak edo erakusleak badinugu nahitaezkoa da kasu-sintagmak juntatzea:

- (186) a. Zurekin eta nirekin hitz egin nahi du  
b. \*Zu eta nirekin hitz egin nahi du
- (187) c. Berehala prestatuko dut mahaia talde honentzat eta beste horrentzat  
d. \*Berehala prestatuko dut mahaia talde hau eta beste horrentzat

Hau gnztia dela eta aipagarria da *-en artean* posposizioaren erabilera. Literatura-tradizioan, ohiko batak, (188)-(192) adibideak bezalakoak dira, hau da, singularrean kasu-sintagmak juntatzen direla erakusten duteuak, eta pluralean, berriz, kasu-sintagmak nahiz ardatz anitzetako izen-sintagmak:

- (188) Hasteko, zilhoaren erditsuan sanzen duzu phaldo bat, eta phaldoaren aldean ezartzen eta estekatzen duzu landarea behar den ueurrian, lasto zamuka batekin lokharriaren eta ondoaren artean (S. Pouvreau, *Laborantzako Liburua*, 343)
- (189) bainan nor da Jainkoaren eta gizonaren artean jartzen ahal den bitartekoa? (B. Joannateguy, *Sainduen Bizitza*, 01)
- (190) nihorrek ez zelakotz hitzartua, Migelek errexki ezagutu zuen, Iñazioren eta haren anean Jainkoa sarthu ahal izan zela bakharrik (F. Laphitz, *Bi Saindu Eskualdunen Bizia*, 133)
- (191) baiña misterio hori hire eta ene artean egon bedi bethi (L. Goyhetché, *Fableak*, 149)

- (192) aste guzia daramat bihotz onez lanean, argitik ihuneraingo, bethi leku berean, bikhe, trukes, ezten eta martiluen artean (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 13)

Azken urteetan baina, asko hedatzen ari zaizkigu (193)ko adibideen antzekoak:

- (193) a. Gobernuua eta Konfederakuntzaren arteko elkarriketak  
b. \*Gurasoak eta ikastolen arteko bilerak  
c. \*Nobelak eta pelikulen arteko borrokan nobelak omen dira galtzaila  
d. Zinea eta bideoaren arteko kompetentzia latza

Adibide hauei dagokienez, literaturan oso urriak direla ohartarazi behar da batetik. Urri horien artean dugu honako Mitxelenaen hau:

- (194) Bartenean bi gizonen borroka latza somatzen degu: ... bihotz euskalduna eta buru erdalduaren arteko borroka amaigabea (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 35)

Nolanahi ere, erabiltzekotan (193a) eta (193d) dira onargarri gertatzen diren bakarrak, hots, lehen juntagaiaren ondarkia singularrekoa dutenak; inola ere ez (193b) eta (193c), horietan lehen juntagaiak pluraleko ondarkia baitu.

## 1.6. Beste zenbait esapide

Emendiozko juntagailua beste esapide batzuetan ere agertzen da:

### a. x eta biak

Batetik, solaskidea (edo solaskide ez izan arren, solasgai dena) gehi beste norbait adierazteko, *x eta biak* (edo "x, y eta hirurak" etab.) esan ohi dugu, "ni", "zu" edo "hura" biltzen duen zenbatzailea emendatzen diren osagaien arabera aldatzen delarik.

- (195) laguna eta biak eizera atera, zer suete izan degun nua esatera (M. Olaizola "Uztapide", *Lengo egunak gogoan II*, 341)
- (196) guan ginen Piarres eta biak itzuli baten egitera Berrako mugaraino (J.B. Elissamburu, *Piarres Adame*, 70)

## b. eta abar

Enumerazio batean, aipatutakoez gain, zehaztu gabe utzi arren beste batzuk ere badirela adierazteko *eta abar* ezartzeu dugu amaieran:

- (197) Lan batzuek ilgoran galazita daude, edo beintzat kaltegarriak izaten dirala uste da, zuaitzak botatzea, txerriak iltzea, eta abar” (J.M. Barandiaran, *Euskalerriko leen-gizona*, 82)
- (198) Mari Gaizto onek izen asko ditu: Anbotoko Señora, Aizkorriko sorgiña, Gaiztoa... ta abar (S. Mitxelena, *Arantzazu. Euskal-sinismenaren poema*, 19)

*Eta abar* honek, jakina, dagokion kasu-marka ere har dezake: *ezagunei, adiskideei eta abarri, eskolatagunekin, auzokoekin eta abarrekin*.

c. Beste batzuetan, indarra, enfasia emateko erabiltzen dugu *eta*. Itxuraz bi juntagairen artean azaldu arren ez du emendio baliorik; ustezko osagaiek ere kasu-marka desberdina eraman ohi dute (199), edo erreferente berekoak dira (200), edo osagai bera (askotan partizipioa) da errepikaturik agertzen dena...

- (199) etxetik eta iturrira 500 metroko bidea genuen
- (200) Ba, eta zer da? *Eclipse* edo delako hura ote da hau? Hura eta bera (J. Hiriar-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 95)
- (201) Patxik bethe bethe zeukan kolkoa eta jan ta jan zebilen (J. Basterrechea “Oskillaso”, *Kurloiak*, 137)
- (202) Pesimistak direnetatik asko eta asko mihiz bakarrik azaltzen dira pesimistak, baiña ori beste kontu bat da (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak. I Jainkoa*, 137)

Lehen juntagaitzat galde-hitza daramaten *nor eta hi, non eta han...* bezalakoak ere enfasi, indar berezikoak dira:

- (203) Besteen aldetik, eztabaida askoren ondorenik, autetsi eben azkenen buruan, euren alkate-geia. Nor, eta Ubaldo bizargillea, beste ifnok nai ez ebalako edo... (E. Erkiaga, *Batetik Bestera*, 85)
- (204) Pobreak sokhorrituz, haurrak argituz, gazteria bere xede onetan borthiztuz, noiz eta aphirilaren hemeretzian, 1527an hiriko muthilak lothu baitzitzaikon, ziotelarik: zure preso hartzeko manua dugu (F. Laphitz, *Bi Saindu Eskualdunen Bizia*, 87)

- (205) Arkaitzik zakarrenen artean izkutu, orrek arritzen ere non eta Arantzan-zu? (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 34)

Bestalde, batez ere Iparraldeko euskalkietakoak diren *izigarria eta eman zion ostiko bat* bezalakoetan ere hanpadura berezia ematen du izenondoaren ondotik doan *eta* horrek.

#### **d. Bereak eta bi**

Oso ezagunak dira bigarren juntagaitzat zenbatzailea duten *bereak eta bi, bereak eta bost ...* esapideak ere:

- (206) Orratikan ere bereak eta bi entzun gabe etziran izaten ereti batzuetan (D. Agirre, *Garoa*, 167)
- (207) Diru asko eralgi diat eta bereak eta bost ateratzen saiatu bear nauk (J. Etxaide, *Joanak Joan*, 42)

e. **x eta guzti** da emendiozko juntagailuak osa dezakeen beste esapide bat. Lehen juntagaia mugagabeen daraman esapide honek predikatu-sintagma osatzen du, ondoko adibideetan ikusten den bezala:

- (208) Jakina, ez da erdaraz ohiturazko adizkiak, atzizki eta guzti, horelako zerbait adierazi nahi denean erabiltzea (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak VII*, 43)
- (209) Egun-sentitik illunabarteraño izardi paisa darixola erbitan ibilliarren, bere erbi-txakur ta guzti be, gure Pemando gizajuak ez eban erbi aziarranik be atara, alako domeka aretan (J. San Martin, *Zirikadak*, 117)

f. Azkenik, era guztietako gramatika-hitzelan aurki daiteke *eta*, bere emendiozko balioa galdurik, indartzaile modura: juntagailu, lokailu, menderagaiñu etab.etan: *harik eta, nahiz eta, baizik eta, edota, zeren eta...*

- (210) Geroztik arik eta azkenean ere borroak bizia kendu zioneraño sosegurik beñere izan ez bide zuen (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 145)
- (211) Hil den jaun apezpiku horrek egin ditu, batek egitekoz, bai hemen bai han, bere ahal guziak, nahiz eta, eztilasunez, zuhurtziaz, onez-onean gobernamenduko gizonekin bakean bizi (J. Hiriart-Urruty, *Zerbait Aurpegi*, 70)

bai eta korrelaziozko esapideetan ere: *zenbat eta... hainbat eta..., zenbat eta..., orduan eta...*

- (212) Zenbat eta beartsuago izan etorrera, ainbat eta biguntasuz geiagogaz artu oi eroan (D. Agirre, *Auñamendiko Lorea*, 143)

## 2. Singularreko komunztadura juntaduran

Emendiozko juntaduraz aritzean, aditz komunztaduraren puntua ere aztertu beharrekkoa da. Komunztaduraren esparrua perpausa da, perpaus bakuna alegia. Esan nahi baita, perpaus bateko aditz jokatuak perpaus horretako, eta ez kanpoko, osagaiak (nor, nori eta nork sintagmak) hartu behar dituela kontutan. Sintagma gramatikalak —*nor*, *nori* edo *nork* sintagmak— juntatzeak beraz, emendioa baruketatzat edo gehiketatzat hartzen denez, eragina izango du nahitaez aditzaren komunztaduran:

- (213) a. [Gizon handi horrek eta beste andreak] liburu bat eman dioTE haurrari  
 b. Gizon handi horrek [liburu bat eta koaderno bat] eman diZKio haurrari  
 c. Gizon handi horrek liburu bat eman diE [haurrari eta irakasleari]

Emendiozko juntadurak, beraz, aditza plural komunztadura hartzera behartzen duela esan daiteke oro har.

Esan beharrik ez da, juntatutako sintagma horietako bat plurala izatea aski da sintagma juntatua nahitaez pluralizat hartzeko:

- (214) [Liburu bat eta orri batzuk] aurkitu nTTuen

Bestalde, numero komunztaduraz gain pertsona komunztadura ere egiten da euskaraz. Alde honeetatik, juntagaietako bat pertsona izenordaina bada, zein pertsonakoa den ikusi behar da komunztadurari begira. Horrela, osagai bat lehen pertsonakoa bada, singularra nahiz plurala, sintagma osoa lehen pertsona pluralekoa izango da. Eta ondorioz, aditzak ere hori kontutan izan behar du. Bigarren pertsonako osagaien bat badago juntaduran, bigarren pertsona pluralekoa izango da. Laburbilduz:

- {ni / gu} eta X = 1. pertsona + plurala  
 {zu / hi / zuek} eta X = 2. pertsona + plurala



Jakina, lehen pertsonakoak agintzen du lehenbizi. Gero, bigarren pertsonak. Horrela, *zuek eta ni* sintagma lehen pertsona pluralekotzat hartuko da.

Esan dugu gorago emendiozko juntadurak aditzari plural komunztadura eragiten diola eta hori dela legea, dirudienez. Baina lege guztiek omen dute bere salbuespena eta hemen ere ustezko lege horri men egiten ez dioten egitura ugari dira. Esan nahi baita, askotan, nahiz eta *nor, nori, nork sintagma* horiek emendiozko juntadura bidez elkarutako sintagmak izan, aditzak delako sintagma juntatu hori plurala ez balitz bezala jokatzeko duela. Azter ditzagun juntadura pluraltzat hartzen ez dugun zenbait kasu:

## 2.1. Perpausak juntatzen direnean

Juntatzen direnak *perpausak* baldin badira, orduan ez da juntadura hori pluraltzat hartzen eta, horrenbestez, aditzak ez du plural komunztadurarik eskatuko:

- (215) Ez ote da beharrezko (...) hizkuntza biziaren kemen eta jatorrasuna urteza eta desegitea argizagia surtan bezala (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 348)
- (216) Ez, ez delako aski gainera gizon hati, urkatzaileari, erru guztia egoztea eta bura gizartetik bazterteza (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 321)
- (217) Gu estutzeak eta ernegatzeak utsa balio du (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 30)
- (218) Andik ateratzea eta galdua zedukan ondra biurtzea agintzen zion (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 21)
- (219) Munduan barrera dabilzan esku-liburuak, euskaldunen ikasbiderako, itzul-tzeari eta haien gisakoak antolatzeari ezin hobeki derizkiot (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 205)

Horrelakoetan ez da juntatutako sintagma pluraltzat hartzen. Perpaus konpletiboak ditugu juntatuak: [... *ateratzea eta ... bihurtzea*]. Horrelakoak, seguru asko perpaus izateagatik abstraktutat hartzen direlako ez dira komunztaduraren aldetik pluraltzat hartzen. Eta hau ez da bakarrik *-tzea* formako konpletiboetan gertatzen. Gauza bera gertatzen dela esan daiteke konpletiboa *-ela* atzizkia duena denean, adibidez:

- (220) a. Esan digu beranduegi dela eta ez digula aterik irekiko

esango dugu eta ez

b. \*Esan dizkigu beranduegi dela eta ez digula aterik irekiko.

- (221) Jakin egizu, badiriala Erromako urijan gure irudikuak, ta ez daguala lurraren gañian bildurgarrijago bat arerijuentzat (J. A. Mogel, *Peru Abarka*, 211)

Nolanahi ere, sintagma hauek erreferente pluralik ez dute. Hortik, hain zuzen, plural komuntadurarik eza.

Horren antzeko zerbait dugu honako honetan ere, nahiz eta berez bi perpaus ez izan:

- (222) Olesa ta ate jotia da: nor ete dogu? (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 153)

## 2.2. Kideko sintagmak juntatzen ditugunean

Sarritan juntatutako sintagmek ez dute batuketarik, gehiketarik adierazten, sinonimoak direlako edo oso antzeko esanahia dutelako:

- (223) Kendu dute boterea eta agintea *da*-ren eskuetatik (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 389)
- (224) Hemen erabili den *arreta* eta zehaztasuna (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 349)
- (225) Nola bere pena eta naigabeak inoiz kordea galtzen baizion... (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 102)
- (226) Bere gaizkj-egiñaren barrungo naigabe, kezka eta arrak bere herida sendatzen uzten etzion (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 92)
- (227) Nondik dakizu emango dizula Jangoikoak epe galanta ta astia? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta komunioko erakasteak*, 136)
- (228) Lotsa ta beldurrak zer asmatzen ez du? (J.A. Mogel, *Konfesioe ta komunioko erakasteak*, 136)

Hauetan sinonimoak edo oso hurbileko esanahia duten sintagmak juntatzen direnez, ez dago egiazko emendiorik. Horregatik, erreferente bakarra dutela pentsa liteke: *pena* eta *nahigabea* gauza bera izan daitezke.

Sintagma juntatuak sinonimoak ez izan arren, oso hurbileko adiera izan dezakete. Hori litzateke *arreta* eta *zehatzasuna* sintagmekin gertatzen zaiguna. Gauza bera ondoko hauetan ere:

- (229) Kreaturakiko itzketa eta tratabidea billatzen det (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 121)

Nolanahi ere (229)ko adibidearen ordezkari posible litzateke sintagma pluralizat hartzea:

- (230) Kreaturakiko hizketa eta tratabidea bilatzen ditut.

Oraingoan *hizketa* eta *tratabidea* bi gauza lirateke. Horrik letorke pluralizat hartzeko aukera. Baina (229)an agian ez gaude bi “zer”-en aurrean, nolabait sinonimo edo liratekeen aurrean baizik. Hori da askotan gertatzen zaiguna esapide hauetan. Esan nahi baita, sarritan *eta*-ren bidez juntatuak agertzen diren sintagmak ez daudela batuketa egiten, nolabaiteko sinonimia edo esanahi baliokidetasunean baizik:

- (231) berari jaiera eta debozio diotenen animen (...) anparatzallea da (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 151)
- (232) eman nai dizut sospetxa guzitik libratuko zaituen señaile eta prueba bat (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 177)
- (233) Guztirako legoke denporea ta astia (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 84)

Hauetan, sinonimo direnez gero, *edo* juntagailua erabiltzea ere zilgi litzateke.

### **2.3. Erreferente bereko izen sintagmak ditugunean**

Bide beretik jarraituz, gerta daiteke bi sintagma juntaturik egotea baina bien erreferentea bat izatea. Hau litzateke honako adibide honen kasua:

- (234) sinis nazazu ere beti zu alabatzen dagokizuna eta ezertan beñere kontrarik egin gabe beti zuri arrazoia uzten dizuna, zure etsaia dala (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 90)

Kasu honetan argi dago kontua: “*zu alahatzen dagokizuna eta beti arrazoia uzten dizuna*” interpreta daiteke pertsona bera dela, pertsona bat bakarra, hortaz. Horrega-

tik, inolako plural baliorik gabekoa dela esango genuke —erreferente bakarra eta bakuna baitu— eta, horrela, interpretazio horrekin, ezin du aditzean inolako plural komuntzadurarik eragin.

Eta esaten dugunaren froga da “zu alabatzen dagokizuna” eta “zuri arrazoi uzten dizuna” bi pertsona desberdin balira, orduan predikatua pluralean agertuko litzatekeela:

- (235) *Beti zu alabatzen dagokizuna eta ezertan behin ere kontrarik egin gabe beti zuri arrazoa uzten dizuna, zure etsaiak dira (biak)*

#### 2.4. Izen sintagma abstraktuak

Izen sintagma juntatuak abstraktuak badira, orduan ere ez da nahitaez plural komuntzadura gertatzen. Bide honetatik etor liteke (215) eta horien antzeko perpausen plural komuntzadurarik ezaren esplikazioa eta baita ondoko hauena ere:

- (236) a. *Gero, askozaz geroago, sortu zen gogoa eta atsegina, poliki poliki, irakurri ahala (K. Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 342)*  
 b. *Bai Peru; baña badakizu ez dala bardin gabeko jagiguria ta goixekua (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 116)*
- (237) *Berak nola nai ere ikusi lezakee goiko zeru orien urdintasun zoragarria eta lurraren berdetasun ederra (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 19)*

Dena den, bi bideak zilegi direla esan daiteke kasu hauetan, honako adibide honetan bezala:

- (238) *Hori egiteko kemen a eta adorea behar {da/dira}*

Axularrek, berriz, oraingo honetan plurala darabil:

- (239) *zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza (P. Axular, *Gero*, 2)*

Honako adibide hau ere, datibo markadun sintagmak juntatu direlarik, hemen sartu beharko genuke:

- (240) *Gure kritikoek bere eginkizunari eta bere erantzun- beharrari, behin edo behin bederen, begiralditxo labur bat opako baliote... (K. Mitxelena, *Idazlan Hautatuak*, 322)*

## 2.5. Partitiboa

Partitiboan doazen bi izen sintagma juntatzen haditugu, izen sintagma juntatuak partitiboan segitzen du eta, horrenbestez, ez dute plural komunztadurarik ezarriko aditzean:

- (241) Joan konfessore on bategana ta esan oni erakatsi dezola nola prestatuko dan, batez ere libururik eta erakurterik ez badu (J.A. Mogel, *Konfesiõe ta Komuniko erakasteak*, 164)
- (242) Nork nahi du ordean etxerik eta lurrik erosi? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 65)

## 2.6. Aditza sintagma juntatuen aurrean

Enumerazioetan, eta bereziki aditza aurrean delarik, komunztadura singularrean egin daiteke, juntagai guztiak singularrekoak badira noski:

- (243) Zuek badaukazute etxetxo bat, soñeko bat, oe bat, sua eta zopa beroa (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 136).

Dena den halakoetan pluraleko komunztadura ere egin daiteke.

Aditza aurrean eta komunztadura singularrean erakusten dute beste adibide hauek ere. Egitura edo hurrenkera honek errazago egiten du, itxura denez, plural komunztadurarik eza. Pentsa liteke aditza aurretik doanean eta juntaturiko sintagmak ondoren, izen sintagma juntatuak barik bi perpaus ditugula. Doinuerak berak, intonazioak, horretara bultzatzen gaituela ematen du:

- (244) Bizkairik geijenak Erriojara *darua dabena ta eztabena* (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 93).
- (245) Har dezagun (...) apezpikuen multzoa eta pipa-hartzaileena (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 230).
- (246) Begiratzen dio (...) Jesu-Kristoren bigarren etorrerari, eta kristaurik geienan bizitza lotsagarriari (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 465)

- (247) a. enzuten dituzte sermoietan; nola lotsaz konfesatu ezin da, *kondenatu zan bata ta bestea*; larritzen dira... (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 113)
- b. Enzuten nituanean pulpitoetatik, nola bata ta bestea kondenatu ziran ... ikaritzen nintzan (J.A. Mogel *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 177)

Adierazgarriak dira alde honetatik Mogelen bi adibideak, lehena aditza aurrean izanik komunztadura singularrean duena; bigarrena, komunztadura pluralcan eta aditza juntaturiko sintagmen ondotik duena. Dena den, eta ohikoena ez izan arren, badira aditza ondotik doanean ere singularreko komunztadura erakusten duten adibideak:

- (248) Horretarako jaio denari ez dio inork erakutsiko *berari eta gaiari dagokion* mintzabidea (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 138)
- (249) Jaungoikoari ta lagun urkoari zor diogun amorioa (J.B. Agirre, (Asteasukoa) *Erakusaldiak III*, 435)
- (250) Errekara goaz, hobeki esan, zuzen baino zuzenago. Hark eta honek (...) lur jo nahi badu, hor konpon (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 383)

## 2.7. Juntaturazko zenbait esapide (*hau eta beste, hau eta hori*)

Esapide hauek agertzen zaizkigunetan, sarritan behintzat, formalki izen sintagma bi baditugu ere *eta*-ren bidez juntatuak, lehenbiziko sintagma singularra bada, sintagma osoa singularizat hartzen da:

- (251) *Onaindia jaunari eta besteri* egin diodan galderatxo bat egin nahi nioke Mokoroari (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 398)
- (252) Hau eta hura esango didazu, baina...

Hemen ere nolabaiteko enumerazio zehaztugabe baten aurrean gaudela ematen du.

## Labur bilduz

Orohar, pentsa liteke, sintagmen abstraktutasunaren bidetik datorkeela esplikabidea, eta ezaugarri honek berekin dakarren zenbakaiztasunetik. Esan nahi baita,

emendiozko juntadurak batuketa adierazten duela askotan. Egiatzko batuketa gertatzen denean, hots, batzen direnek erreferente zehatza badute, *Joxepa eta Joxepe*, adibidez, normala da pentsatzea sintagma hori plurala dugula.

- (253) Jangoikoak gero alderatu edo apartatuko ditu Judas eta San Pedro, sazerdote ona eta gaiztoa (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 119)

Baina juntatuak berez zenbakaitz direnak baditugu, *irina eta zahia* esate baterako, orduan delako sintagma hori nekez hartu ahalko dugu pluralizat, zenbatu ezinak direnak batzetik zenbatu ezina den beste zerbait lortzen baitugu.

Esan liteke, bi mutur bezala ditugula, biak oso argiak: alde batetik, erreferente zehatza duten sintagma juntatzen badira, sintagma plurala izango da aditzarentzat. Beste muturrean berriz, sintagma horiek abstraktuak direlako edo zenbakarri ez direlako, juntaduratik ateratzen zaigun sintagma ez da plurala izango singularra baizik. Jakina, sintagma juntatuek erreferente zehatza baina bakarra ere izan dezakete (sinonimoen kasua hori litzateke) eta horiek ere, bidezko denez, singularizat hartuko dira.

Bi mutur hauen artean halako eremu zabal bat izango genuke, non hiztunaren esku geldituko bailitzateke, hein handi batean, sintagma singularizat edo pluralizat hartzea.

Bide honetatik ulertu beharko genituzke honako adibide hauek ere. Gehienetan erreferente zehatzegirik ez dugu, halako masa zenbakaitz baten aurrean gaude eta horregatik guztiz arrunt egiten zaizkigu plural komunztadurarik gabe:

- (254) Otzak eta goseak hillko ez ditu? (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 60)
- (255) Artzen dezu egiñ dituzun utsegiteen damu egiazkoa eta ontzeko asmo osoa (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 524 )
- (256) Begiratzen dio beste aldetik Jesu Kristoren bigarren etorrerari, eta kristaurik geienen bizitza lotsagarriari... (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 465)
- (257) ontzarca edo mesedea artu duanak deretxa egokia datorrencan aitortu bear du beren ongilleak egin dion mesedea, ta ongille beraren prestutasuna (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 344)
- (258) Guretzako odola ta ura emon eban (P.A. Añibarro, *Esku-liburua 2*, 223)

- (259) emongo deuskuzula barriro bere gure eguneango ogia ta janaria (P.A. Añibarro, *Esku-liburua* 2, 247)
- (260) Deabruak milla asmu ta labankerigaz putza ta gantza emoten deust... (P.A. Añibarro, *Esku-liburua* 2, 76)

Gainera, esana dugun bezala, hitz ordenak ere bere garrantzia izan dezake, zeren asko baitira aditza aurretik eta izen sintagma juntatua ondoren erakusten duten perpausak. Horrelakoetan singularreko komunztadura nahiko normala gertatzen da.

### 3. Osagai ezabaketa emendiozko juntaketetan

Hitz egiten nahiz idazten dugunean, askotan utzi ohi ditugu isilpean, errepikatu gabe, aldez aurretik, solasaren harian aipatu ditugun osagaiak. "Osagai ezabaketa" deitzen dugun fenomeno hori ez da, beraz, juntaduran bakarrik gertatzen (are gutxiago emendiozko juntaduran bakarrik), perpaus elkartugabeetan ere ager baitaitezke horrelako ezabaketak. Ondoko bi adibideetan, esaterako, modu bereko ezabaketa gertatu dela esan daiteke, bietan utzi baita errepikatu gabe, isilpean, *ikasle* ardatz izena:

- (261) a. Donostiako ikasleak oso onak direla esan didazu. Zer diozu Bilbokoez?  
b. Donostiako ikasleak eta Bilbokoak bildu dira

(261a)n *Bilboko ikasleez* irakurtzen da, (261b)n *Bilboko ikasleak* ulertzen den bezalaxe. Kasu bietan errepikapena ekiditen duen ezabaketa mota beraren aurrean gaudela ez da dudarik, nahiz ezabaketa hori (261a)n bi perpaus bere gainen artean gertatu, eta (261b)n, berriz, emendiozko juntagailuak elkartzen dituen bi kasu-sintagmaren artean.

Halaber konpara ditzagun ondoko adibide hauek:

- (262) a. Atsegin gozoak eta gaztaroko nekeziak ahantziak ditut  
b. Gaztaroko atsegin gozoak eta nekeziak ahantziak ditut

(262a) adibidea ezin irakur daiteke *gaztaroko atsegin gozoak* balu bezala; (262b) aldiz *gaztaroko nekeziak* balekar bezala —erran nahi baitu ezabaketa duelarik— zailtasunik gabe irakurtzen dugu. Horrek errepikapenei ihes egiten dieten osagai ezabaketak eskuineko juntagaian gertatu behar direla erakusten digu. Hala gertatzen da (261)eko perpausetan ere.



Horretaz gain, badira beste bi puntu gure ustez azpimarratzekoak osagai ezabaketaz ari garelarik.

Lehenbizikorik, seinalatzeko da, juntadura batzuetan sortzen zaizkigun anbiguitateak, ez baitakigu juntatu sintagma batean osagai bat ezabatua izan den ala ez:

(263) *Donibaneko* arrantzaleak eta laborariak bildu dira

(263) adibidean ezin dugu esan *Donibaneko* izen laguna ezabatua izan denetz [*laborariak*] izen sintagman. Bi interpretapenak zilegi dira eta testu ingurumenaren arabera hautatu behar da bata edo bestea, laborari horiek Donibandarrak soilik diren ala beste non-nahikoak ere izan daitezkeen ikusiz.

Bigarrenekorik osagai ezabaketa diogularik, ez dugu zehazten zenbat osagai eta nolakoak izan daitezkeen, baina ez da dudarik askatasun handia badela alde horretatik, eta osagai bat baino gehiago ere ezaba daitekeela, bereziki perpaus juntaketetan (264); halaber osagai horiek berak ere konplexuak izan daitezke ardatza bera ezabaturik izanik, (265) adibidean gertatzen den bezala:

(264) *Baionatik Miarritzera* lasterka joan daiteke Panpi, eta, beharrez, igerika itzul ere.

(264) adibidean Panpi Baionatik Miarritzera itzuliko dela ulertzen da, ezabaketa jokoak baliatuz, bai sintagma absolutuarentzat, eta bai tokizko sintagmentzat.

(265) *Duel* joko hori [nehon den jokorik zoroena] [eta itsusiena] da (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 24)

(265)ean izenondoa (gradu markatzailearekin batean) eta ondarkia agertzen dira bakarrik bigarren sintagman, baina ez da dudarik lehen sintagman agertzen den (*nehon den*) jokorik multzoa ezabatua izan dela.

1.2. ataleko azterketaren ondoren, eta juntagaiak junta ditzakeen osagaiak funtsean hiru kategoriatan bil daitezkeela esan daiteke: perpausak, kasu-sintagmak eta sintagmaren barneko osagaiak. Juntagaien kategoria eta osagai ezabaketaz orain arte esan duguna konparatuz, berehala ohartzen gara ezabaketak perpaus juntagaietan eta kasu-marka kategoriakoetan bakarrik gerta daitezkeela. Sintagmaren barneko osagaiak juntatzean, aldiz, ez dago ezabaketarako lekurik. Argi ikusiko dugu hori (266)ko bi perpausak alderatuz gero:

- (266) a. gizon [argi eta indartsu] ak etorri dira  
 b. [[gizon argi] ak] eta [[Ø indartsu] ak] etorri dira

(266a)n, bi izenondo juntatu ditugu ezer ezabatu gabe; (266b)n aipatu gabe, ezabatuz, utzi dugu *gizon* ardatz izena. Hala ere, guztiok ulertuko genuke *gizon*, *indartsu* izenondoari ere badagokiola (ik. goiko (262b) adibideaz esan duguna).

Modu berean, ondoko adibideetan, juntagaiak perpausak izanik, aditza osorik (267), aditz laguntzailea (268) nahiz kasu-sintagmaren bat (269) ezaba daiteke eskuineko juntagaien.

- (267) Zuk arraina eskatu duzu eta nik haragia  
 (268) Berandu etxeratu nintzen eta are beranduago oheratu  
 (269) Gure aita gaur Londresa joan da eta ez da etzi arte etxean izango

### 3.1. Juntagaiak kasu-sintagmak direnean

Bi kasu-sintagma elkartzen ditugunean, izenlagunak eta izenak errepikatzen badira, ezaba ditzakegu eskuineko juntagaien. Hala gertatzen zen goiko (261b), (262b) eta (266b) adibideetan. Kasu-sintagmak juntatu ordez, aukeran dugu bi izenondo (266a) edo bi izenlagun elkartzea (261b)ren kide den (270)ek erakusten duen bezala:

- (270) Donostiako eta Bilboko ikasleak bildu dira

Bi aukera horien artean, ezin daiteke esan idazleen artean joera berezirik badela, bestelako unitateen arteko juntaduraren orde, kasu sintagmen juntaduraz baliatzeko. Izenondoen kasuan, kontrako joera nagusi bide da, haien zuzenean juntatzeko joera markatugabea dela esan baitaiteke: izan ere izen sintagmak juntatuz, eta ezabaketa baliauz halako hanpadura berezia sortzen da gutiz gehienetan (266)ko bi aukerek argi erakusten diguten bezala. Halaber aldera ondoko bi perpausak:

- (271) a. Bulego argi eta lasaiak nahi dituzte guztiek  
 b. Bulego argiak eta lasaiak nahi dituzte guztiek

Lafittek bere gramatika ohartarazi zuen bezala, horrelako kasuetan izen sintagmak juntatuz anbiguitateak sortzen dira. Alabaina ezabatua den izen ardatzak lehen perpausakoak duen erreferentzia izan dezake, edo ez:

- (272) a. Etxe zahar eta ederra  
b. Etxe zaharra eta ederra (P. Lafitte, *Grammaire basque*, 69)

(272a)n izenondoak juntatzen dira eta etxe bakar bat aipatzen da; aldiz, (272b)n, sintagmak juntatzen dira, bigarrenen izen ardatza ezabatuz. Azken honetan bi etxe aipatuak izan daitezke, bata zaharra, eta bestea ederra izanki. Halaber sintagma plurala izanik:

- (273) a. Etxe zahar eta ederrak  
b. Etxe zaharrak eta ederrak

(273a) eta (273b) biak dira anbiguoak, etxe-multzo bakarrak edo bi multzoz ari baikaitezke: bata etxe zaharrek eta bestea etxe ederrek osatua. Ohikoena, multzo bakarrak ari garela pentsatzea da; bigarren irakurketa —bi multzo desberdinei dagokiena— batez ere izenondoak kontrako kualitateak, bateraezinak, adierazten dituztenean egingo dugu. Horrela, (274)-(276) adibideetan intxaur-, egia- eta sineste-multzo bakarra dugula ulertuko genuke normalean, multzo horietako bakoitza bi izenondo juntatuz deskribitu dugularik:

- (274) Intxaur handita motelak ziran egokienak botateko (J. Basterrechea "Oskillaso", *Kurloiak*, 77)
- (275) Egia handi eta gogorrek adiarazi ziozkan populuari, hala-nola zorigaitz ikharagarrienak eroriko zitzaizkola gainerat (J. Elissalde "Zerbitzari", *Ixtorio Saindua*, 68)
- (276) hitsarazi sinheste zahar eta bethikoak, gorritazi erromanoen asmu zuhurrak eta ezeztatu hekien indarrak (J.M. Hiribarren, *Eskaraz Egia*, 82)

(277)-(280) adibideetako izenondoak, aldiz, kontrakoak izanik, nahitaez bultzatzen gaituzte bi itzulpen-sorta, bi barri-zati klase, bi gizon-modu edo bi gazeta-sail daudela pentsatzera; beraz, honako egitura genuke horietan:

[[iz. + iznd.] eta [Ø iznd.]] ak

- (277) Argitasunik nahi duenak jo beza Lafitte jaunak (...) euskal itzulpen zahar eta berriei buruz argitara berria duen idazlan jakintsura (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 342)

- (278) Hogeï bat metro daude goitik behera; hogeï metro latz eta harri zathi handi ta tipiz betheak" (J. Basterretxea "Oskillaso", *Kurtoiak*, 105)
- (279) Altxatu zaizko kontra handi eta ttipiak, nekhazale eta erregeak, gizon basa eta jakinak (J.M. Hiribarten, *Eskaraz egia*, 146)
- (280) Zenbait gazeta handi eta ttipiek ez dute erran, mila aldiz seriorik handienarekin, eleksioneko denboran, aphezak dagotzila beren elizan edo sakristian (M. Elissamburu, *Framazonak eta ... Errepubliken Ichtorioa*, 150)

Hortaz, goiko (266a) adibidea bezalakoak berez anbiguoak direla esan liteke: interpretazio ohikoena (266a)n egin duguna izango da, hau da, gizon-multzo bakarrak ari garela ulertuko dugu. Beste modu batera ere uler liteke ordea, bi multzo, gizon argiena eta gizon indartsuena, bagenitu bezala. Irakurketa honi, lerro batzuk goraxea-go ikusi bezala, ondoko egitura dagokio:

(266a') [[gizon argi] + [Ø indartsu]] ak

Dena den bi multzo desberdin aipatu nahi baditugu normalena sintagmak juntatzea da:

- (281) a. sagardo gozoak eta mikatzak (ohikoena)  
b. sagardo gozo eta mikatzak (askoz bakanagoa)

Zenbaitetan kasu sintagmak juntatzen direlarik ezaba daitekeen izenlaguna errepikatzen da (zuzenean edo izenordain baten bidez), edo indar emateko (282) adibidean bezala, edo kasu sintagmako ardatza posposizio modukoa delako (283)-(284) adibideetan bezala). Alabaina azken kasu honetan errepikapena besteetan baino arinago gelditzen da, kasik beharrezkoa izaterainokoa *baita* bezalako hitza delarik ardatza:

- (282) Gure herriaren geroa, eta gure herriaren/ haren iragana ez daitezke elkarren aurka eman.
- (283) *itxasoaren* erdian da *itxasoaren* ertzetan egiten diranak (D. Agirre, *Kresala*, 19)
- (284) badugu nora begiratu *gure* inguruan eta *gure* baitan bertan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 363)

## 3.2. Juntagaiak perpausak direnean

### 3.2.1. Kasu sintagmen ezabaketa

(267)-(269) adibideetan ikusi dugunez, perpausak juntatzean, bi motatako osagaiak ezaba daitezke azken batean: aditza (osorik nahiz laguntzailea bakarrik) eta kasu-sintagma. Bigarren honi dagokionez, juntaduran (eta bai juntaduratik kanpo ere) aldez aurretik aipatua dugun sintagma isilpean uzteko joera aipatzea aski litzateke. Jokabide orokor horretatik kanpo, ez dirudi sintagmen ezabaketak ezaugarri berezirik duenik emendiozko juntaduran. Zer esan eta zer aztertu ugariago emango digu, aldiz, aditz ezabaketak.

### 3.2.2. Aditzaren ezabaketa

Perpausak juntatzen direlarik gertatzen da zenbaitetan aditz osoak edo aditzkera jokatuak ez baitira juntagai guztietan agertzen. Hona zenbait adibide:

- (285) *Nik esango deusut (...)* Maisu Juan, ta zuk niri Peru (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 56)
- (286) jaun erretoarak elizan, eta bere lagun adixkide zaharrek hil-hobiaren aitzinean egin diozkate adioak (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 88)
- (287) baña gure Zabaleta orretan eginbear estuak badaude, eguzki goiztarra baño goiztxoago jaiki, beti bezela, ardi guztiak *jetxi ta zelaira eraman*, esne ontziak lepoan *artu ta an izaten naiz* laster, zazpiretako bai (D. Agirre, *Garoa*, 7)
- (288) euskaldun herriak berriki egin edo kanpotik eratorritakorik *hartuko du*, eta molde berri honek euskal folklore *bilakatuko* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 43)

Lau adibide horiei beharuz ohar gaitzke, lehenbiziko bietan (285)-(286) aditz osoa dela juntagaietarik batean falta, eta beste bi adibideetan (287)-(288), berriz, aditz laguntzailea dela eskas. Aditz osoaren ezabaketa edo hutsune hauek gertatzeko, bestalde, aditzoin bera izan behar dugu bi perpausetan. Laguntzailea ezabatzeko ere laguntzaile biek behar dute zerbait berdina, errepikatzen dena aurreago ikusiko dugun bezala.

Azter ditzagun baina zehazkiago. Horretarako lehenik aditz osoa eskas den juntaketak aipatuko ditugu eta gero aditz laguntzailea falta denekoak.

### a. Aditz osoa eskas denean

Osagai ezabaketak eskuinean gertatzen direla esan dugun arren, bi egoera ditugu hemen: kasu batean aditza eskuineko perpaus juntatuan ezabatzen da, eta bestean, ezkerreko juntagaian. Lehenbizikoa azter dezagun lehenik.

### Aditza eskuineko juntagaian eskas denean

Lehen ere esan dugun bezala, perpausak juntatzen direlarik, zenbaitetan eskuineko juntagaian errepikatu behar liratekeen osagaiak, hala nola adibidez aditzak, ezabaturik gelditu daitezke:

(289) Holakoetan zuk ura edaten duzu, eta nik ardoa

(289)ean bi perpaus juntatzen dira, bigarren juntagaia kontrastez hanpatuak diren osagaietara murrizten delarik, eta aditza ondorioz elipsiaz desagertzen delarik. Hauxe da hain zuzen ere joera nagusia.

Hona zenbait adibide gisa horretako aditz ezabaketak agerian ematen dituztenak, lehenik aditz perifrastikoekin eta gero aditz trinkoekin:

Aditz perifrastikoa:

(290) bakoitzak dakiana erakusten du, ta gaiztoak gaiztakeria (D. Agirre, *Garoa*, 67)

(291) Nik *esango deusur* (...) Maisu Juan, ta zuk niri Peru (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 56)

Adizkera trinkoekin:

(292) zazpikiñeko mutillak berri-berria *dauka*, ta nik zar-zarra (D. Agirre, *Garoa*, 30)

(293) lege tzar guziak heien mutil *direla*; eta gu heien esklabo (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 59)

- (294) Nik badakit beltz guztiak *eztirala* ikatzak eta zuri guztiak iriñak ere ez (D. Agirre, *Garoa*, 47)

Argi dago begien aurrean ditugun adibide hauetan bi perpaus juntatu dirugula eta bietan aditza bera delarik bigarren perpauskoa ezabatu egin dela. Arazo bakarra aditza "bera" izate horrek zer esan nahi duen jakitean datza. Oro har esan daiteke aditzoin bera behar dugula eta aspektuak ere gutxienez bera izan behar duela. Pertsona eta numero komunztadura, ostera, desberdina izan daiteke. (291)ko adibidean, esaterako, lehen perpausko aditza *nik (zuri) esango deusut* badugu ere, bigarren perpausuan *esango* suposatu behar da, baina *esango deustazu, zuk niri* baitugu. (292)an, *dauka* ezkerreko juntagaiko aditza gorde eta *daukat* izango litzateke ezabatua gertatzen dena. (293)an *direla* egoteak zilegi egiten du *garela* ezabatzea. (294)an, azkenik, ezabatua izan den aditza eskuineko perpauskoa bera izan da: *direla*, alegia.

Honako hauetan ere, nahitaez, eskuineko perpausko aditz bera eman behar da ezabatutzat, perpausa ulertuko bada:

- (295) Gizonak makila *hartu zuen* eta haurrak harria  
(296) Zuk Parisera joatea *hauta dezakezu* eta guk hemen gelditzea

Pertsona aldatzen da baina aldi-aspektuak berak dira. Honengatik, honako adibide hau txarra izango litzateke:

- (297) a. \* Nik atzo *erosi nuen* eta zuk bihar  
b. \* Zuk bihar erosiko duzu eta nik atzo

Hauek zuzenak izateko aditza agerian jarri behar da:

- (298) a. Nik atzo *erosi nuen* eta zuk bihar *erosiko duzu*.  
b. Zuk bihar *erosiko duzu* eta nik atzo *erosi nuen*.

Ikus dezagun orain beste hau:

- (299) a. Nik gaur *erosi dut* eta zuk atzo  
b. Zuk atzo *hitzezin zenuen* eta nik gaur

(299a)a zuzena dela dirudi. (299b)k ere bai, baina oraingoan *zuk atzo hitzezin zenuen* eta *nik gaur hitzezin dut* ulertu behar da; inolaz ere ez *zuk atzo hitzezin zenuen*

*eta nik gaur hitzegingo dut.* Hau jarri nahi bada, osorik ezarri behar da.

Gauzak honela badira aski izango litzateke aspektua bera izatea, aldia desberdina delarik.

Orobat, *eta...ere baitez, eta baitez...ere, baitalezta...ere* esamoldeekin aditza eskuinteko juntagaian ezabatzen da (ikus 4.).

### **Ezkerreko juntagaian aditzik ageri ez denean**

Ondoko adibideetan, aldiz, itxuraz ezkerreko juntagaian falta da aditza:

- (300) jaun erretorak elizan, eta bere lagun adixkide zaharrek hil-hobiaren aitzinean egin diozkate adioak (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 88)
- (301) batak bere arrebea ta besteak bere ama negarrez ikusi dituelako (D. Agirre, *Kresala*, 18)
- (302) ...ikustearekin elizako buruzagiak eztiago eta bertzeak beti eta beti tzarrago zoazila (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 70)

Baina egiazki horrela ote dira gauzak?

Bi aukera ditugu berez: (289)-(299)ko adibideetan bezala, (300)-(302)ko adibideetan perpausak juntatzen direla pentsa liteke, oraingoan errepikatu beharko litzatekeen aditza ezkerreko perpausuan ezabatu delarik. Ikuspegi hau onartuz, (300) adibidean (303) egitura izango genuke:

- (303)  $\mu$ [jaun erretorak elizan  $\emptyset$ ] eta  $\mu$ [bere lagun adixkide zaharrek hil-hobiaren aitzinean egin diozkate adioak]

Lehenbiziko perpausuan eskas litzatekeen aditzkia bigarrenan ageri denaren arabera (*egin diozkate*) berreskuratuko geruke. (*Adioak* osagaiaren lekua zein den ere jakin beharko genuke. Garbi dagoela dirudi osagai hori bi perpausuei dagokiela. Nolabait esaldi osoaren mintzagai edo da).

Benetan bi perpaus ditugula onartzen badugu, aurreko atalean dugun fenomeno berbera izango genuke. Diferentzia bakarra, aditza eskuineko perpausuan eman



beharrean ezabatutzat, ezkerrekoan eman beharko genukeela. Alde horretatik, ez genuke arazorik izango (300) eta (302) adibideen berri emateko. Izan ere, perpaus hauetan egiazki agerian dagoen adizkiak dituen pertsona eta numero komunztadura markak bigarren perpausoko osagaien arabera esplikatzen dira:

(304) Bere lagun adixkide zaharrek egin diozkate (=dizkiote) adioak.

(305) Bertzeak beti eta beti tzarrago zoazila (=zihoazela)

Beraz, aditzaren komunztadura adizkia besarkatzen duen perpausetik irten gabe esplikatzen ahal dugu.

Baina (301)eko adibidean gauzak ezin horrela esplikatuz:

(306) \*Besteak bere ama negarrez ikusi dituelako (=dituztelako)

txarra da. Baina, (301) perpaus zuzena bada, aditzaren komunztaduraren berri eman beharko genuke. Hori zail gertatzen da juntagaiak perpausak direla eta aditzaren ezabaketa soil bat gertatu dela onartuz. Bada hor zerbait gehiago.

Beraz, —eta hau litzateke bigarren aukera— pentsa liteke *eta* juntagailuaren bidez juntaturiko osagaiak ez direla perpaus osoak behegoko mailako osagaiak baizik. Honelatsu izango litzateke, hipotesi honen arabera, perpausaren egitura:

(307) [, [jaun erretorak elizan] eta [, [bere lagun adixkide zaharrek hil-hobiaren aitzinean] ] egin diozkate adioak.

Oraingoan perpaus bakarra izango genuke, aditza ere bakarra delarik, horiaz. Baina gauzak horrela aurkeztuta, zail da *eta* juntagailuak juntatzen dituen osagai horiek zer motatakoak diren jakitea. Are gehiago, juntagai horiek ez dirudi osagai bakunak direnik: *jaun erretorak* izen sintagmak *nork* galderari erantzuten dio eta *elizan* sintagmak *non* galderari, baina biak batera ez dirudi inolako sintagma berezirik osatzen dutenik: zer kategoriatakoa izango litzateke, alegia, *jaun erretorak elizan* bezalako atal bat?

Gauzei hurbilagoatik so eginez, ohar gaitezke, horrelako perpausetan, hanpatuak diren osagai batzuen arteko egitura banakaria daukagula, galderetan ere zenbaitetan kausitzen duguna. Adibidez

(308) Nork zer edanen du?

Euskarak, testuinguru egokietan, goiko galdera horri legokiokeen erantzunean bezala, perpausak hanpadura jokoan bidez errazki molda ditzake:

(309) Josebak sagardoa eta Mirenek ardoa

Eta beste honako honetan ere gauza bera:

(310) Pellori itsasoa, eta zuri mendia, ... nori zer gustatzen zitzaion ongi genekien

Azterketa horri jarraikiz, menturaz (301) bezalako perpausetan nolabaiteko sintagma aposatuak ditugu, egitura banakari batean emanak, ondoko perpausaren egituran bezala:

(311) (Guk zerbait), zuk ardoa eta nik ura, edaten dugu

Jakina, perpausak (309) edo (310)ean bezala, aditzik gabe ematen direnean, problemarik ez dugu. Problema, hain zuzen, perpaus horiek "osatu" beharreak aurkitzen garenean sortzen zaizkigu. Zeren ez dago oso argi aditz horrek nolako komunztadura izan behar duen. (311)k zuzena ematen du: aditzak ergatibo pluralarekin eta absolutu singularrekin du komunztadura. (301)ean, berriz, komunztadura subjektua eta objektua, biak, pluralizat hartuz egin da, *batak eta besteak* eta *arrebek eta ama* gisako sintagma juntatuak bagenitu bezala.

Nolanahi ere, hizpidea eman diguten perpausak zilegi izanik ere, lehen motakoak baino (alegia, aditza bigarren perpauscan ezabatua dutenak baino) askoz urriagoak dira eta gainera, komunztadura arazoak sortzen dizkigute. Beraz, gomendioren bat ematekotan eta arazoetatik ihes egin nahi izanez gero, errazago asmatuko da lehen motako esamoldeak erabiliz. Dena den, objektu pluraleko komunztadura egitea ez dirudi denik normalena. Subjektuarekiko komunztadura, ordea, aski arrunta izan daiteke. Zehar objektuarena ere bai, nahiz eta hemen zalantza batzuk sortzen diren:

- (312) a. Nik Azpeitian eta Mirenek Bergaran hitzegingo dugu.  
b. Nik autoa eta zuek bizikleta eramango dugu.  
c. Niri dantza eta Peruri aerobic-a gustatzen zaigu.

Dena den, horrelakoetan halako zalantza izpiren bat edo gelditzen zaigu beti. Beste era honetako adibide arrunt hauetan gertatzen ez den bezala:

(313) a. Nik Azpeitian hitzegingo dut eta Mirenek Bergaran.

- b. Nik autoa eramango dut eta zuek bizikleta.
- c. Niri dantza gustatzen zait eta Peruri aerobic-a.

Jakina, (312)koek ez dute, gorago esan bezala, inongo problemarik aditza adierazi gabe uzten bada:

- (314) a. Nik Azpeitian eta Mirenek Bergaran.
- b. Nik autoa eta zuek bizikleta.
- b. Niri dantza eta Peruri aerobic-a.

### b. Aditz laguntzailea elipsiz desagertarazia

(287)-(288) adibideetan ikusi dugun bezala, batzuetan aditz osoa ez, baina haren jokadurari dagozkion hizkiak desagertarazten dira, aditz laguntzaileak bereziki. Hemen ere bi aukera izan ohi ditu euskaldunak, edo ezkerreko juntagaian desagertarazten du aditz laguntzailea, edo eskuinekoan, hala nola ondoko adibideetan:

- (315) [Manexek liburuei begiratu zien] eta [Maddi-k bizpahiru aldizkari erosi zituen]
- (316) [Manexek liburuei begiratu zien] eta [Maddi-k bizpahiru aldizkari erosi —]
- (317) [Manexek liburuei begiratu —] eta [Maddi-k bizpahiru aldizkari erosi zituen]

(315)ean bi perpaus juntatuetakoa aditzak oso-osorik agertzen zaizkigu. (316)an eskuineko perpaus juntatuan falta da aditz laguntzailea; (317)an, berriz, ezkerreko perpausoko aditz laguntzailea da agertzen ez dena.

Holakoetan perpausak juntatzen direla ikus dezakegu, aditz laguntzailea (eta batzuetan, laster ikusiko dugunez, harekin batean aditz nagusiari loturik agertzen den aspektu marka ere) juntaturiko azken edo lehen perpausuan baizik gauzatua ez delarik. Adibidez, (318) adibidean azken juntagaian agertzen dira aspektu marka eta aditz laguntzailea, (319) adibidean, berriz, juntaturiko lehen perpausuan aurkitzen dira:

- (318) (baña gure Zabaleta orretan eginbear estuak badaude.) eguzki goiztarra baño goiztxoago *jaiki*, beti bezela, ardi guztiak *jetxi* ta zelaira *eraman*, esne ontziak lepoan *artu* ta an *izaten naiz* laster, zazpiretako bai (D. Agirre, *Garoa*, 7)
- (319) nai detan aifña *jaten det*, nai dedan aifña *edan*, la nai detana *agindu* (D. Agirre, *Garoa*, 6)

Halaber, kontuan har bedi aditz laguntzailearen desagerraraztea aukerazkoa dela, eta nahi izanez gero errepika daitezkeela adizkcrak:

- (320) keia, apurtxo batean goietan egonda berala, zabaldu *zan*, makaldu *zan*, urratu *zan*, gutxitu *zan*, utseratu *zan*, gizonik andienen izen ta entzutea laster asko utsera etortzen dan era berean (D. Agirre, *Garoa*, 12)

Aditz laguntzailea eskuineko perpaus juntatuetan desagerraraztea oso zabaldua da euskalki guzietako idazleen artean. Gutiz gehienetan horrelakoetan, aditz nagusiak aspektu markaduraren aldetik dauzkan ezaugarriak atxikitzen ditu, eta bakanka baizik ez zaizkigu agertzen (319) bezalako adibideak (Agirrerren adibide hartan eskuineko juntagaietako aditz nagusiak *-tzen* aspektu markarik gabe agertzen baitira):

- (321) gero guziak ikus arau *hel-araz zitzan* edo bederen *ezagut-araz* Pariseko jakintsunei (J. Hiriart-Urruty, *Zenhait aurpegi*, 96)
- (322) ez dire ohartzen ere diruaren amodio soberakinak fedea *duela ezeztatzen*, (...), bai eta ere bihotza *gogortzen* (J.B. Etcheberry, *Michel Garicoitz*, 123)
- (323) euskaldun herriak berriki egin edo kanpotik eratorritakorik *hartuko du*, eta molde berri horiek euskal folklore *bilakatuko* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 43)
- (324) eginen zitu etziren beno iaun handiago eta emanen koroa bat ainguriena bezain ederrik (J. Tartas, *Olsa hilceco bidia*, 2)
- (325) iratzarri nintzan eta hartu luma eskura euskaldunen faboretan euskaraz porogatzeko (J. Tartas, *Olsa hilceco bidia*, 4)

Aditza ezkerreko juntagaian ezabatzea mendebaleko idazleen artean bereziki gertatzen dela dirudi, eta orduan ia beti ezkerreko aditz nagusia(k) partizipio burutuaren forman agertzen d(ir)a, hala nola ondoko adibidean:

- (326) zer egingo zenduke zuk burdi bat *banatu*, burpillak *lokatu* ta askora bat *emango* balitxakezu? (J.A. Moguel, *Peru Abarka*, 48)

Aspektu markaren ezabaketa oso arrunta da aditz nagusiak juntatzen direlarik ere:

- (327) orrelako maitetasunak *irabazi* ta *beratuko* eztuari gizonik ezta (D. Agirre, *Garoa*, 373)

Ekialdeko idazleen artean, ordea, aditz guziak forma berean uzten dira.

- (328) Ez, ez da harritzeko, jaun hura eta bertze zenbeit gazterik *zahartzen* eta *hiltzen* badire (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 70)

Ezezko perpausak juntatu eta aditza ezkerreko juntagaien desagertarazten bada, ohargarria da baiezkoko perpausetako hitz ordena utzi behar dela eskuineko juntagaien. Horrela, aditz laguntzailea *ez* ezezko hitzetik bereizten da, eta perpaus ondarrean ematen da aditz nagusiaren ondotik. Beha ondoko hiru adibide horiei:

(329) Ez *dut* ogirik jan eta ez *dut* ardorik edan

(330) \*Ez ogirik jan eta *ez dut* ardorik edan

(331) Ez ogirik jan eta *ez* ardorik edan *dut*

(329)an ezezko bi perpausak juntatuak dira eta bi juntagaietan aditza osorik agertzen da. Ikus dezakegu, ezkerreko juntagaia adizkera jokaturik gabe uzten bada, eskuinekoa ez daitekeela utz (329)an duen itxura ohikoan. Bestela, (330) bezalako perpausa molda bailiteke, eta ez da hura euskarazko perpausa. Aitzitik, (331) adibidea, aruntki erabilia ez bada ere, ongi eratua da. Ordea, ikus daiteke hartan, aditz laguntzailea baiezkokoan duen tokian agertzen dela eskuineko perpausuan. Itzuli hori aski markatua da hala ere, eta mendebaleko idazleen artean bakarrik baliatua:

(332) Pasiua berez ez ona ta ez chaarra da (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Oiqueetak*, 31)

(333) Ez jan al ta ez lo eguin al du (F.A. Otaegui, *Eskuizkribuak*, 69)

(334) Ez-ikasjak ez lehen eta ez orain irakurtzen du (M. Atxaga, DEIA, 1992, VI.27)

Aditza eskuineko juntagaien desagertzen delarik, ordea, ezkerreko perpausak ezezko ordena arruntean era daiteke (335), nahiz baiezkoko ordena ere erabil daitekeen modu markatuago batean, berriz ere *ez* eta aditz laguntzailea bereiziz (336)-(340):

(335) *ez dut* ogirik jan eta ez ardorik edan

(336) *ez* ogirik jan *dut*, eta ez ardorik edan

(337) Ez nik izanen nuen hunenbat damu, eta ez hunek ere hunenbat kalte, eta atsekabe (P. Axular, *Gero*, 359)

- (338) Baiña ez mundua da eterno eta ez haste gabe, eta ez hargatik egotu lankoa egundaito alferrik (P. Axular, *Gero*, 20)
- (339) Ez jauna, Espiritu Santua ez Aita da ta ez Semea (*Kristau Ikasbidea Gipuzkoaka Euskeraz*, 12)
- (340) nahi dute ikhan jakintsunen herronkara, ordea nekhatu gabe; ez atseginik nahi dute utzi, eta ez penarik hartu, herabe dute bideari lotzera (J. Etcheberri (Sarakoa), *Eskuaren Hatsapenak*, 180)

*Ez ezezkaria eta aditz jokatua elkarretarik bereizten dituen ordena hori ezabaketarik ez denean ere ager daiteke, juntatzen diren perpaus desberdinetan. Esan gabe doa orduan ere itzuli markatua dela (336)koaren ondoan (ikus aurrerago 5. puntuan banakaritzaz dioguna):*

- (341) *Ez ogirik jan du eta ez ardorik edan du*

(341)eko adibidea beste modu batean ere eman daiteke, *ez eta aditz laguntzailea beren ohiko lekuan gordeaz eta ondoren juntagai bakoitzaren aurrean ez ezarriaz:*

- (342) *Ez du ez ogirik jan eta ez ardorik edan*

Egitura honetakoa da ondoko adibidea:

- (343) *Baña oraiñ da berandu, uztarri ori eziñ diteke ez autsi eta ez kendu (P.M. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 46)*

### **Aditzaren ondarkiaren elipsia perpaus jokatu gabeetan**

Ikusi dugu gorago nola perpaus juntaketak aditz laguntzailearen elipsia ekar dezakeen, eta harekin batean aspektu markarena ere, ikus (321)-(325). Mendebaleko tradizioan, aditz izenkiaz eraturiko perpaus jokatu gabeak juntatzen direlarik ere gerta daitezke gisa horretako elipsiak, hala nola ondoko adibide hauetan:

- (344) *ala ere, morroia badatorkit, larunbatetan jaixten naiz Zabaletara, (...), bartuko jantzi garbiak ipiñi ta tabakorri piska bat artzera (D. Agirre, *Garoa*, 7)*

- (345) jauregi hura jasotzeko, arri batzuek alkarren gañean *tolestatu* ta aien buruan aga bat, lau ostro ta pilla balzuek tellatutzat *jaritzea* baño beste lanik etzuten egin (D. Agirre, *Garoa*, 8)
- (346) egun eder argiak, (...), indar andi dure gogamen naigabetsuak *kendu* ta ankarik astunenak *astintzeko* (D. Agirre, *Garoa*, 46)

(344) perpausean *-tzera* bukaera duten perpaus jokatu gabeak juntatuak dira (*jaitsi* aditzaren osagai gisa erabiltzen direnak), baina ezkerreko aditza partizipio bururatuaren forman agertzen da. Gauza bertsua gertatzen da (345)-(346) adibideetan. Aukera hori duten euskalkietan, oso erabide zabaldua da hau.

Perpaus jokatu gabeetako atzizki desagerteta ezkerrean baizik ez daiteke gerta:

- (347) a. \*Esan zidan goiz jaikitzeke, eta berehala lanera joan  
b. Esan zidan goiz jaiki, eta berehala lanera joateko

(347a) desgramatikala da, aditz partizipioa ezkerrean agertzen baita. Ikus daitekeenaz, ezabaketa eskuineko perpausean eginez, perpausa ongi moldatua gelditzen da (347b). Funtsean izen-sintagmak juntatzen dituguneko jokabide bera dugu ondoko bikoteek adierazten digutenez:

- (348) a. [alkandorentzat] eta [jertseentzat]  
b. [goiz jaikitzeke] eta [lanera joateko]
- (349) a. [[alkandora] eta [jertse]] ak  
b. [[goiz jaiki] eta [lanera joan]] teko
- (350) a. \*[alkandorentzat] eta [jertse]  
b. \*[goiz jaikitzeke] eta [lanera joan]

Lehen esan bezala tradizio bateko joera da ezkerreko aditza partizipio burutuaren forman ematea, ekialdean aditz nagusici beren aspektu marka uzten baitzaie, hala adizkera jokatu gabeetan, nola adizkera jokatu etan.

- (351) eder baitzitizaioten harekin *solas egitea* eta hari esku *tinkatzea bera* (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 75)
- (352) joatekoa zen (...) bere sor-herriaren *ikustera* eta han bere ahaidekin zenbait egun *iragaitera* (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 68)

Inoiz mendebaleko tradizioko idazleek ere erabiltzen dute beste bide hau:

- (353) Zabaletako atsoa *urkatzeko* ta Bidaurretako eliza *erretzeko* beta onaren zai dijoazkio urteak (D. Agirre, *Garaa*, 376)

#### 4. ERE lokailua emendioaren indargarri

Lokailuak aztertzean (ik. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III. Lokailuak*) ikusi genuenez lokailuok behin baino gehiagotan juntagailuen odoan erabiltzen ditugu. Juntagailuak elkartzen ditu perpausak eta lokailuak berriz bi perpausen arteko lotura logikoak (ñabardura semantikoak nahiago bada) zehazten ditu. Liburuki horretan aurkituko du irakurleak lokailu bakoitza zein juntagailurekin erabili izan den; ez dugu, beraz, hemen informazioa errepikatuko.

Hala ere, han esanak osatzeko, orain aztergai dugun emendiozko juntagailuarekin batera ager daitezkeen bi lokailuri buruz —*ere* batetik eta *ez ezik / ez ezen / ez eze ... (ere / bere)* bestetik— ariuko gara atal honetan.

*Ere* lokailua aztertzean azaldu genuenez, ezkerreko osagaiaren erreferentzia zabaltea da lokailu honen eginkizun nagusia. (354)ko adibideetan, esaterako, *Txomin* da *ere*-ren ezkerreko osagaia; beraz, beste norbait ere ezkondu dela (edo ez dela ezkondu) ematen zaigu aditzera. Beste lokailu asko eta asko bezalaxe, juntagailuekin batera ere ager daiteke lokailu hau. Halaxe ageri zaigu (354)koetan, *eta* juntagailua izanik juntadura gauzatzen duena:

- (354) a. Ximon ezkondu da eta Txomin ere ezkondu da  
b. Ximon ez da ezkondu eta Txomin ere ez da ezkondu

Aditza errepikatu ordez, bigarren perpausuan ezaba dezakegu (ik. 3.2.2.). Orduan, ekintzaren baiezkotasuna edo ezezkotasuna jasotzen duten *bai / ez* ezarri ohiko ditugu:

- (355) a. Ximon ezkondu da eta Txomin ere bai  
b. Ximon ez da ezkondu eta Txomin ere ez

Berez juntagailua ez da beharrezkoa, noski. Alborakuntzaz eikar ditzakegu bi perpausok, lokailuak bien arteko lotura logikoa azpimarratzen duelarik:

- (356) a. Ximon ezkondu da, Txomin ere bai  
b. Ximon ez da ezkondu, Txomin ere ez



*Ere* lokailua jadanik aztertua dugunez, badirudi liburuki horretan esanak aski liratekeela. Hala ere *eta...ere bai / eta ...ere ez*, eta horietatik azkeneko *bai eta ez* aurrera eramanik sortzen diren *bai(e)ta ere / ez(e)ta ere* moldeek bere baitan emendiozko juntagailua dutenez gero, han esana hemen, laburki bada ere, jaso eta zertxobait osatzea egoki iruditu zaigu.

#### 4.1. *Eta... ere bai / eta... ere ez*

(355)eko adibideetan ikus daitekeenez, eskuineko perpauseko aditza osorik ezabatzean erabiltzen ditugu molde hauek. *Ere* lokailuaren ezkerreko osagaia perpauseko edozein atal beregain izan liteke —izen sintagma, adizlaguna, aditzondoa, perpaus jokatugabea, mendeko perpaus jokatua, aditza (aspektu-marka eta guzti)—:

- (357) ... eta gurekin ere bai
- (358) ... eta jaikitzerakoan ere bai
- (359) ... eta hamarri ere bai
- (360) ... eta bakarrik ere bai
- (361) ... eta jakin ere bai
- (362) ... eta gaisorik dagoela ere bai

eta abar. Hegoaldeko hiztunentzat arraro samarrak gertatu arren, Ekialdeko euskalkietan ez da nahitaezko azkeneko *bai* horren erabilera; testuetan aurkitu ez ezik, gaurko hiztunetan ere maiz entzuten dira honako hauek:

- (363) ... eta gu ere
- (364) ... eta bihar ere
- (365) ... eta hemen bizi zenean ere

Perpausak ezezkoak direnean, berriz, nahitanahiezkoa da ukazioa, *ez*, gordetzea:

- (366) a. Josu ez da joan eta ni ere ez
- b. \*Josu ez da joan eta ni ere

- (367) a. Gaur ez da jai eta bihar ere ez  
b. \*Gaur ez da jai eta bihar ere

*Ere* lokailuak, aldiz, beti azaldu behar du. Horrenbestez, ez dira zuzenak (368)-(369) adibideak, ezta elkarrizketa modura ere —lehen perpausa solaskide batek eta lokailudun bigarrena beste solaskideak esanik—.

- (368) a. \*Josu joan da eta ni  
b. - Josu joan da  
- \*Eta ni
- (369) a. \*Gaur jai da eta bihar  
b. - Gaur jai da  
- \*Eta bihar

«*Eta... ere bai*ez moldean *ere* lokailuak beti azaldu behar du» baieztapena zuzen ulertzeko gogoan izan behar da bi baiezko perpaus edo bi ezezkoz ari garela. Izan ere, bistakoa da (370)-(374) adibideak bezalakoetan, hau da, perpaus bat baiezkoa eta bestea ezezkoa izanik, ez dagoela *ere*-rentzat lekurik:

- (370) Gauza errazean etzara fidatzen, eta bai gaitzean (P. Axular, *Gero*, 97)
- (371) Hauen iritzian gizona ez litzateke norbait, eta bai xoilki zerbait (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustaiak*, 75)
- (372) nahikundea baita eta ez nahia (P. Axular, *Gero*, 30)
- (373) iduria du, eta ez izana (P. Axular, *Gero*, 37)
- (374) ezina da eta ez pairua (P. Axular, *Gero*, 119)

#### 4.2. *Eta bai... ere / eta ez... ere*

*Eta* emendiozko juntagailua, *ere* lokailua eta ekintzaren baiezkotasuna edo ezez-kotasuna adierazten duten *bai*ez, beste modu honetan ere elkar daitezke. Horrela, goiko (357)-(362) adibideen pareko dira (375)-(380):

- (375) ... eta bai gurekin ere
- (376) ... eta bai jaikitzerakoan ere

- (377) ... eta bai hamarri ere  
(378) ... eta bai bakarrik ere  
(379) ... eta bai jakin ere  
(380) ...eta bai gaisorik dagoela ere

Molde honek bi berezitasun ditu: bata formari dagokiona, *bai/ez* juntagailuaren ondoren agertzen baitira. Bestea, *ere* lokailuaren beharrezkotasunari buruzkoa da. Lehen moldean, *eta... ere bai/ez* moldean, lokailua nahitaezkoa dela esan dugu. Bigarren molde honetan, ordea, *bai* edo *ez* juntagai bakoitzaren aurrean errepikatzen den neurrian, horrek ematen dion korrelazio kutsuagatik edo, ez da derrigorrezkoa *ere* azaltzea:

- (381) a. Zuekin hasarretu da eta bai gurekin ere  
b. \*Zuekin hasarretu da eta bai gurekin  
c. Hasarretu da bai zuekin eta bai gurekin (ere)
- (382) a. Otoitz egiten du oheratzerakoan eta bai jaikitzerakoan ere  
b. \*Otoitz egiten du oheratzerakoan eta bai jaikitzerakoan  
c. Otoitz egiten du bai oheratzerakoan eta bai jaikitzerakoan (ere)
- (383) a. Ez naiz gustora egoten lagunekin eta ez ahaideekin ere  
b. Ez naiz gustora egoten lagunekin eta ez ahaideekin  
c. Ez naiz gustora egoten ez lagunekin eta ez ahaideekin (ere)
- (383) Olerkariak eginbeharra erakutsi digute eta bai aurrera ere, gure lurak einango ahal ditu, erakutsiko (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 40)
- (384) Bada eraiteko denbora, eta bai biltzekoa ere (P. Axular, *Gero*, 120)
- (385) Ta amarretan oraindik ere jarraitzen zuan aien itz-jarioak eten gabe, bai erzaleku-kanpoan eta bai barranean ere (A. Anabitarte, *Aprikako hasamortuan*, 69)
- (386) Gazetaz benzerik egin du, bai hartan ari zelarik eta bai hura utziz geroz (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 158)
- (387) Lanikan gabe gizona ongi bai astian da bai jaian, guztiok gera saiatutzen gu atsegiña artu naian (M. Olaizola "Uztapide", *Sasoa joan da gero*, 81)

- (388) Ez diot ba den gutieneko esperantzarik eman, eta ez emango ere (P. Larzabal, *Iru ziren*, 96)
- (389) Ez nauk eta ez izanen ere ire morroitzako (J. Etxaide, *Joanak-joan*, 29)
- (390) Ez ama, ez aita, ez arrebak eta ez anairikan ez da besoak zabalduaz antxintxika etorriko errukigarti oni laztan ematera (A. Apaolaza, *Patziko Txerren*, 114)
- (391) Baña orain da berandu, uztarri ori eziñ diteke ez autsi eta ez kendu (P. Urruzuno, *Ur-zale baten ipuiak*, 46)

Bestalde, ezezko perpausak juntatzen direnean, ez dirudi *ere* lokailua nahitaezko denik. Badira literaturan adibideak, ez juntagai bakoitzaren aurrean errepikatu ez eta hala ere lokailurik gabe ageri direnak —hau da, *ez... eta ez...* modukoak—. Ikus goiko (382b) eta (383b) adibideen arteko aldea, eta ondoko adibideak ere. Dena den ohikoena lokailua duen *eta ez ... ere* moldea da.

- (392) Eztuzu zuk... hartan parterik, eta ez ikhaskizunik (P. Axular, *Gero*, 94)
- (393) baiña nahi dut iakin dezaten halakoek nik hitzkuntza hunetan dakidana Saran ikasi dudala, eta hango euskara ongi erabiltzen badut ez naizela gaitz erraiteko, eta ez arbuizatzeke, zeren ez paitakit nik hangoa baizen (E. Materre, *Doktrina*, 913)
- (394) hala ostinatuaren, gogortuaren, itsutuaren, eta ezansiatuaren bekhatua, eta eritasuna ere hain da handia, non berenez ezpaita sendakizun, eta ez barkhakizun (P. Axular, *Gero*, 68)
- (395) manatu zuen hiri guztia iar zedilla debozinotan eta penitenziatan, guztiak barur zitezilla, eta are abre mutuei ere, etzekiela eman iatera eta ez edatera (P. Axular, *Gero*, 75)

*Bai* eta *ez* errepikatzetik sortzen den balio banakariak ikus aurrerago 5. puntua.

#### 4.3. Bai eta...ere / ez eta...ere

Hirugarren moldea, *bai* eta *ez* lehen lekuan, juntagailuaren ezkerrean, ezarriaz sortzen da. Hemen berriro jasotzen ditugun goiko (355)eko adibideen pareko dira (396)koak:

- (355) a. Ximon ezkondu da, eta Txomin ere bai  
b. Ximon ez da ezkondu, eta Txomin ere ez
- (396) a. Ximon ezkondu da, bai(e)ta Txomin ere  
b. Ximon ez da ezkondu, ez(e)ta Txomin ere

Pentsa lezake norbaitek hemen beste ezer baino gehiago elkarri alboraturiko bi perpaus ditugula. Ñabardura batek baino gehiagok bultzatzen gaituzte hori sinestera, baldin (355) eta (396) elkarrekin erkatzen baditugu. Batetik ikusten dugu bigarren bikotean, (396)koan, bestean ez bezala, lehen perpausaren kabuan doinu beherapena egiten dugula, ia puntua edo puntu-komak baleude bezala. Bestetik doinu-desberdintasun hau idazterakoan ere nabarmendu ohi da. Axularrek, esaterako, *ez eta*-ren aurrean ia beti puntua edo puntu-komak edo bi puntu darabiltza, hain zuzen, eta ez koma soila, behin edo bitan izan ezik. *Eta... ere baitez* moldearen ondoren, berriz, ia beti koma bakarrik erabiltzen du eta askotan hori ere ez (*bai(e)ta* Axularrengan inoiz ageri ez denez, ezin jakin nola jokatu zukeen). Gutxienez esan behar Axularrentzat, biak zenbat aldiz darabiltzan ikusirik, *ez eta* markatua dela bestearen ondoan.

Zernahi gisaz, ezin uka *eta* juntagailua hor dagoela, nahiz ez duen beharbada hor juntatzeko funtzioa betetzen, *bai* eta *ez* hizkiei atxiki baitzaie elkarrekin urtzeraino. Atxikitze hau ez da gertatu grafian zenbait aldaera sortu gabe: autore zaharrek ia salbuespenik gabe bi hizkiak osorik —baturik *baieta*, *ezeta* nahiz bereiz *bai eta*, *ez eta*— idazten zituzten bitartean, gerokoek laburturik, *baita*, *ezta*, idatzi zituzten eta idazten dituzte maizenik.

Hainbestez esana dago molde horretan bi hizki horiek *bai eta* / *ez eta* beti elkarren ondoan doazela, tartean *ere* ezin ipin daitekeelarik:

- (397) Orai badira ahatik konda ahala Gipuzkoan segurik, bai eta Bizkaiaren ere zombait, zoin baino zoin hobeak (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 53)
- (398) Konprenitzen nauzu, baita nik ere zu (L. Goyhetché, *Fableak*, 294)
- (399) Ark ez daki gu mortu onetan gaudela; ezta bizi geranik ere (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 73)

(397)-(399) adibideetan perpaus osoa lehen juntagaiaren ageri da; bigarrenaren, desberdina den atala bakarrik azaltzen delarik. Ondoko adibideetan, aldiz, bigarren juntagaiaren, *baitalezta ... ere*-ren eskuinean ageri da aditza. Badirudi *bai eta* biziaren

*ere edo ezta gizon mengel batxok ere* inziso modura erantsi direla (ikus (418) adibidea ere):

- (400) Hura da Jinkuari estekatu izatia gisa batez nun hura ofentsa beno lehen, gaiza ororen bai eta biziaren ere galtzera ekharriak beikinate (Katichima, (Souletin) 43)
- (401) Itxas-gain zear eta baso txabola bama abil: igandik, il-ezin batek, ezta gizon mengel batxok ere, ezin iges zegik (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 183)

Perpaus osoak ere izan daitezke juntagaiak, nahiz halako egiturak ez maizegi aurkitu. (402) eta (403) adibideetan, gainera, perpausak ezezkoak direnez, bigarrenean bi lekutan ageri zaigu *ez* ukapena: *eta* lokailuaren aurretik (*ezta* forma laburtuan) eta aditz laguntzailearen aurretik (*ez nintzake* (402) adibidean eta *eztitu* (403)an). Askoz ohikoagoak zaizkigu, noski, (405) bezalakoak; hau da, bigarren juntagaian aditz laguntzailea (eta honekin batean *ez* ukatzailea) ezabatu denekoak (ik. 3.2.2. puntuan esandakoa).

- (402) Eder ausnartzen dun burua ifioiz ez da gaizto: areago: burupide au xuri-zale ez nauzu yatorriz, ezta ifioiz ere ez nintzake ori burutu nai lukenaren erkide izango (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 73)
- (403) Oien zai baitatzate, ortziko egurats bama sorturiko lege oinluzeak: orien aita bakarrik Olinpu, ta gizakume ilkorren alak ez zitun sortu, ezta lo aztukorrek ere eztitu ezabatuko, orien baitan yainko andia bizi baita, zaartu-eziña (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 81)
- (404) Haste dira bertutezko amoriotik, bainan hagitz zuhur ezpadire, amorio ergela hekin balsan sartuko da, gero sensuezko amorioa, gero haragizko amorioa, bai eta peril da amorio espiritualean ere, guardia onik egiten ezpada (S. Pouvreau, *Philotea*, 299)
- (405) Txirotasunak ez dau gizona beratzen, ezta diruak ere ifior goratzen; egipenetan dira gizonak ezautzen (B. Enbeita, *Nere apurra*, 69)

Ondoko adibideetan, berriz, agerian juntagai bakarra dugu, *baita/ezta ... ere*-ren erdian doana. Lehen juntagairik agertzen ez denez, ez legoke berez junda lurarik. Halako egituren balioa ez da aurrekoari zerbait gehitzea, emendatzea, enfasia emateko modua baino ez da. Ahoskatzean ere indar berezia eman ohi diegu horko *ezta* eta *baita* elementuei.

- (406) Ez det nai, ez, ezta tanto bat bakarrik ere; etzait gustatzen edanirik, ura ...  
ezpada (B. Mokoroa, *Damuba garaiz*, 32)
- (407) Lengo denboretan baso bat sagardo izan al leiken onena, arkitzen zan nun-nai  
ardipatian, naiz ardita pazi zar baten puska lizundua izan, bañan oraiñ bost  
zentimoko ederrenakin, ezta arren usairik ere (M. Soroa, *Baratzan*, 94 )
- (408) Orrek kontrabandoa sartuko luke ... baita karabineruen sudur zulotik ere (T.  
Alzaga, *Ramuntxo* 35)

*Ere* lokailuaren beharrezkotasunari dagokionez, bestalde, juntagaiak ukapen per-  
pausetakoak direnean, nahikoa da bigarren juntagaiaren aurretik *ez eta* ezartzea; ez  
dago *ere* lokailuaren beharrik, batez ere Iparraldeko testuetan ageri den bezala. (412)-  
(413) adibideetart, bestalde, juntagaiak perpaus osoak dira; horrenbestez, bi bider  
errepikatzen da *ez* ukatzailea bigarrenean (ik. goiko (402) eta (403) adibideak).  
Perpausak baiezkoak direnean, ostera, ohikoena eta literaturan hedatuena *ere* lokailua  
erabiltzea da.

- (409) Holako lanak ez du nahi ez uri-haizea ez eta bereziki hegoa (J. Duvoisin,  
*Laborantzako Liburua*, 382)
- (410) San Ambrosiok dio oraino, ez dela dantzarat hurbiltzen jende ohorezkorik ez  
eta kontzientzia minbera duenik (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren  
Eguna*, 143)
- (411) Bihotzmin handitan dugu diosesako buruzagia, bainan ez lotsatua; ez eta den  
gutienik etsitua (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 158)
- (412) etzara obligatu pagatzera, pagatzeko ahala dukezun arteiño. Ez eta etzara  
obligatu pagatzera, baldin... (P. Axular, *Gero*, 163)
- (413) Etzaika handik harat halakoari...sinhesterik emaiten, eta ez eman behar ere. Ez  
eta etzaika absolbazinorik eta barkhamendurik eman behar... (P. Axular,  
*Gero*, 178)

#### **4.4. Baita ere / ezta ere**

*Bai eta / ez eta* gehi *ere* lokailua elkarren segidart ere ager daitezke.

- (414) Tiipitzearekin gehixeago irabaz lezakete, bai eta ere menturaz bere ohorea  
hobekixeago begira (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 28)

- (415) Nere borondatea ona da izátez, erregiña zñake nere borondatez, baita ere santa andi, biak bide batez, orra fama biurtu bertsoen bitartez (P. Urruzuno, *Euskal erritik zerura*, 85)
- (416) Lehen-lehenik eskuararen atxikitzea bertzen gain ez utziz; ez eta ere gobernamenduaren gain (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 213)
- (417) Beste aldetik ez dakite zer dan bekatu mortala, ezta ere zer beniala; mortalak dirala esango dute ez diranak gatik, mortalak diranak, dirala arinak (J. A. Mogel, *Konfesioe ta komunioko erakasteak*, 162)
- (418) Jauregietao berregindurek ez eta ere atsegin gozoek etzaituzte ez libratu, ez beretu (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 902)

#### 4.5. *Eta ere*

Ohiko *eta... ere* hurrenkeraren ondoan egungo egunean aise aurkitzen dira Iparraldeko idazleen lanetan *eta ere* garbi-garbiak. Hona bakarren bat Iparraldeko nahiz Hegoaldeko:

- (419) Sabelaren gañcan arrastaka ibilliko aiz, eta ere bizi guzian lurra jango den (F. Lardizabal, *Testament zaharreko eta berriko historia*, 5)
- (420) dohakabekiago galtzen da kastitatea, ezen ez galtzen denean bertzeretik bekhatu sinpleaz, eta ere bertzeren esposarekin... egiten den bekhatuaz (S. Pouvreau, *Philotea*, 261)

#### 5. Baiezko eta ezezko zenbait juntaduraren berezitasunak: banakaritza (*bai... bai..., ez... ez...*)

Bi juntagai, bakoitza bere aldetik baieztatuz edo ezeztatuz juntatu nahi ditugunean, bi aukera ditugu. Lehena, (421)ean ikusten duguna da; baieztapen edo ezeztapen-markak juntagaien odoren kokatzeo dira.

- (421) a.Goizean bai, eta arratsaldean ere bai  
b.Goizean ez, eta arratsaldean ere ez



Bigarren cgituran, baieztapen edo ezeztapen markak juntagai bakoitzaren aurrean ezartzen ditugu, balio banakaria lortuz.

- (422) a. Bai goizean (eta) bai arratsaldean (ere)  
b. Ez goizean (eta) ez arratsaldean (ere)

Lokailuak aztertzean ikusi genuenez (ik. *EGLU-III*, 17-18. or.) alborakuntzaz nahiz juntagailu bidez elkartzen ditugun osagaien aurrean, osagai bakoitzaren aurrean, partikularen bat errepikatzen denean sortzen da balio banakaria. Beste batzuetan partikula berak errepikatu ordez, korrelazioan doazen hitz desberdinek osatzen dituzten formulez ere baliatzen gara: *hala... nola...* etab. Emendiozko juntaduraz ari garela, *bai* edo *ez* juntagai bakoitzaren aurrean ezarriaz lortzen dugu balio banakaria. Horretaz gain bi osagaien artean *eta* ipintzen badugu, juntagailu bidezko juntaduraren banean izango dugu banakaritza (422a'); emendiozko juntagailurik ezean, alborakuntzaren barruan (422a'')

(422a') Bai goizean eta bai arratsaldean (ere)

(422a'') Bai goizean, bai arratsaldean (ere)

Azken juntadura honetan hasieratik ikusten da juntadura eta korrelatiboki baieztatzen edn ukatzen dira juntagai biak. Hona azken molde honen zenbait adibide:

- (423) Bai nere gurasoak eta bai ni, arritu eta ikaratutzen giñan gauza arekin (A. Apaolaza, *Patziko Txerren*, 79)
- (424) Sinetsten banauzu, liburu hari itxekiko diozu zure bizitzeko, bai kanpoko, bai barreneko urrats guzien moldatzeko eta neunzeko (S. Pouvreau, *Philotea*, 909)
- (425) Bai sofiekotarako ta bai barruko erropetarako, aukera aundia etorri zait (N. Etxaniz, *Nola idatzi euskeraz*, 16)
- (426) Nahi dut, eta erran gabe doa, hobeki egin lezaketela, bai beren eta bai bertzeen onetan, aipu ditugun gizon heiek osoki ertisioneari jarraikiak balire. (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 155)
- (427) Familiako bizitzan aurkitzen du gizonak bere giro egokia, bai almenak eldutasunera eramatzeko eta bai bere bearrak erremediatzeko ere. (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak*, 155)

Adibide horietan ikusten den bezala, posible da bigarren atalean *bai* erabiltzea *ere* gabe, juntadura arruntean ez bezala. (Ikus 381-382 adibideak). Beraz, honetan ezezkoen pareko dira baiezkoak. (Ezezkoei buruz ikus 389-395 adibideak).

Nolanahi ere, ezezko perpausak juntatzen direnean, laxu desberdineko moldeak gerta daitezke. Bi modu ditugu euskaraz, jakina denez, ezezko perpausak *eta*-z baliaturik elkarri lotzeko:

(428) Ez du jan eta ez du edan

Hor ezezko bi perpaus arrunt (ukamena + adizki laguntzailea + partizipioa) lotu dizkio elkarri *eta*-k. Beste honetan, aldiz, ez da hala:

(429) Ez jan du eta ez edan du

Hor baiezko perpausen ordena (partizipioa + adizki laguntzailea) ez du trukatu *ez*-ek eta bere hartantxe utzirik lotu dizkio elkarri bi perpausak *eta*-k.

Leizarragaren ondoko adibidean, aldiz, (428)ko egitura dugu, hau da, aditz laguntzailea aurreratua, *ez* ukatzailea bi aldiz ageri delarik:

(430) ...eztuté harturen ezkonzaz, ez eztirade harturen (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Lk. XX, 35)

Aditz sintetikoa izan arren, molde berekoak dira ondoko biak ere:

(431) Eztinát ezagutzen, ez etzeakinat hik zer dionán (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mk. XIV, 68)

(432) Enendaue / ez clauke / bertze bat hunla oboro / ... (A. Oihenart, *Oihenarten gaztaroa neurthizetan*, 61)

Beste kontua da ea alderik baden (428)ren eta (429)ren artean, ala erabat erranki-deak diren semantikoki. Aldea badela uste dugu, eta ez formalki soilik. Aldea honelatsukoa dateke. Lehenean banaka eta bereiz, elkarrekin zerikusirik ez bailuten, aztertzen ditu batek bi perpausak eta banaka eta bereiz ukatzen. Bigarrenean, aldiz, bi perpausen ezezkoa hasieratik ikusi eta korrelatiboki ukatzen ditu. Horrelakoak ditugu (433) eta hemen errepikatzen dugun (334) adibideak; aditza eskuinekojuntagaian ezabatua du lehenak, eta ezkerrekoan bigarrenak:

(433) Ez gizonezkoa dezu osoa ta ez emakumezkoa (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 14)

(434) Ez-ikasiak ez lehen eta ez orain irakurtzen du (M. Atxaga, DEIA, 1992, VI.27)

Ezezko bi perpaus emendiozko juntagailuaz juntatzen ditugunean, aditz laguntzaileraren ezabaketa nola gertatzen den 3.2.2. puntuan aztertua dugu.

## 6. *Eta* juntagailuaren tokia

Juntagailuen ezaugarrietako bat leku jakina hartzea dela esan ohi dugu: bigarren juntagaiaren aurrekoa, alegia. Zenbaitetan, ordea, juntagai bakarraren ondoren zintzilik geratzen dela esan dezakegu; bigarren juntagaia zehaztu nahi ez dugunean, edo beharrik ikusten ez dugunean erabiltzen ditugu (435) bezalakoak.

(435) Nor ikusi duzu kalean?  
Amona eta...

Beste batzuetan, batez ere perpaus baten barruan aditzaren ondoren agertzen delarik, zalantza, nola jarraitu oso ongi ez jakin eta ondoren zer edo nola esango den pentsatzeko unetxo eskaintzen du:

(436) errozu eta ... ez girela eta ... nehunik jiten ahal (P. Lafitte, *Grammaire hasque*, 395)

Lehen perpaus juntagaiari atxikia denean, aldiz, kausa adierazten du askotan:

(437) Bista nekatua omen du, egun osoa paper arnau ematen du eta

Beste batzuetan, berriz, denborazko balioa hartzen du (438), edo kontzesiboa (439), baldintzazkoa (440)...

(438) kruzifika ikhus eta // orhit adi orduian (B. Etxepare, *LVP*, I, 41)

(439) Zuek, beraz, gaixtoak izan-eta, balinbadakizue gauza onen ematen zuen haurrei...! (J. Duvoisin, *Biblia*, Mt., VV 11)

(440) Halakoa utzi eta // non dukegu bertzia (B. Etxepare, *LVP*, II, 40)

Laguntzailerik gabeko aditzari atxikia ere aurki daiteke, kausa, baldintza, etab. adieraziz:

(441) Bere tripako minen berri norbaiti eman nahi eta, Baionako izeba bati igorri

zion gutun bat, zer gertatzen zen erraiteko (X. Arbelbide, *Pierres Lafitte: bere bizia*, 9)

- (442) Txirritak jakin ez eta, nere anaiak kopiatu zizkion bertsoak (A. Zavala, *Txirrita*, 143)
- (443) Hi bezala, sudurretik norbeitek ni ere ereman behar eta, nahiago diat aphezek eta gizon zuhurrek ereman nezaten, ezen ez eta hi bezalako gizonek (J. Barbier, *Piarres* (1. tomoa), 141)
- (444) Eta hala hala, sekulan ez eta, zer zuen bada gaur, bere mahats-haixturrekin, Irulegitik ekarrarazi aihen hoberenak hain gaizki moxteko? (J. Barbier, *Piarres* (2. tomoa), 61)

Ohar gaituzen (443) adibideko hirugarren *eta* ("ezen ez eta") 1.6. puntuan ikusi ditugun esapideen sailekoa dela, beste partikula batzuei erantsiz balio indargarria duena. (444)an, bestalde, *izan* (edo nahiago bada \**edun*) aditza utzi da isilpean.

Harridura ere adieraz daiteke halako egituren bidez

- (445) Nola hazi zaren! Aita adinako egin zara eta!

*Eta* juntagailuaren tokia dela eta, bada argitu beharreko beste auzi bat ere: *ere* lokailuarekin batera erabiltzean sortzen diren molde desberdinei dagokiena—*baita... ere, eta... ere bai* esaterako— (ik. 4. puntua). Molde horietan guztietan juntagailua dagoen neurrian, honek bere lekua, juntatzen duen osagaiaren burukoa, gorde beharko luke. Hala ere, (446)-(452) adibideak ikusirik badirudi *eta*-k bere benetako balioa galdu duela; bestela ezin uler liteke emendiozko juntagailua bi bider errepikatzea *eta baita ere*—, are gutxiago juntagailu aurkariarekin batera agertzea—*baina baita ere*—. *Bai*-ren indartzaila soil bihurtu dela esan genezake. Hala balitz, *bai ere* esateko modu indartuxeagoa baino ez litzateke *baita ere*. Horixe bera gertatzen da azken batean *edo, edota* juntagailu hautakarietan, *baizik, baizik eta* aurkarietan, *zeren, zerren eta* kausazko lokailuan, etabar.

- (446) Mortalak, eta bai eta ere benialak (Ultzamako apezak, *Kristau dotriñe*, 39)
- (447) Ateratzen dira Andres eta Malen, ta baita ere aien atzetik Joxe-Mari eta Anttoni (B. Mokoroa, *Damuba garaiz*, 8)
- (448) Artu zituben, eta abadeak jarri zion eskutan gurutze santuba, esanik iltzen

zegoanari, eskatzeko Jainkuari biotz biotzetik geiena komeni zitzaiona, emango ziyola, eta baita ere sendatu ala komeni bazan (M. Soroa, *Baratzan*, 37)

- (449) Horrelaxekoa duzue kopenhagetarrek, eta Kurylowicz'ek, eta baita ere, hizkuntz tipologiari buruz, Jakobson'ek, maiz ahotan hartu duten delako isomorfismoa (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 194)
- (450) Ez da asmo ta burubide txarra; baiña ezta erreza bere (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 169)
- (451) Gorputza ez-behar bat omen; edo eragozpen bat, baina bai eta arimara daraman bide bat ere, goizerriko mistikoek erakutsi zioten araura (J. Mirande, *Haur besoetakoa*, 90)
- (452) Badu euskarak hitz sorbide ugari, baina baita ere huts nabarmen bat bederen aldameneko hizkuntzen ondoan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 110)

Hala ere ohar gaitzen *baita* beti aurreko juntagailuaren ondo-ondoan doala (edo buruan, juntagailurik agertzen ez denean); inoiz ez lokailuek ohi duten bezala, perpaus baruan, mintzagai den osagai baten ondoren, edo perpausaren amaieran. Beraz, azken 25 edo 30 urte hauetan ugalduz joan zaizkigun erabilerak, (453)-(460) adibideek erakusten dizkigutenak bezalakoak, ezin dira ontzat eman:

- (453) \*Ikastoletan banatuko dira baitare
- (454) \*Etorriko da baita ere Manu
- (455) \*Ene arrebak baita ere emango dio
- (456) \*Badut nik baita ere horrelako erlojua
- (457) \*Esan diot baita ere joango naizela
- (458) \*Antzerkia ere baita hasi da
- (459) \*Ez gaitu gu ezta ere ezagutzen
- (460) \*Pilotari onak dira; txirrindulari trebeak baita

*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III*. liburukian (ikus 35. orrialdea eta ondo-koak) jaso ziren erabilera gramatikalak eta gramatikalak ez direnak. Hara jo dezake, beraz, hemen esandakoa osatu nahi duenak.

## 7. Emendiozko esamoldeak

*Eta* juntagailua eta honen ondoan erabil daitezkeen lokailuak aztertzen ari garela, honako egiturok ere kontuan hartu beharrekoak dira:

(461) Opari mordoia jaso du gurasoengandik ez ezik, baita izeba-osabengandik ere

Adibide horretan bi atal bereizten dira. Alde batetik, 4.4. puntuaz aztertu dugun *baita ... ere* eta bestetik, *ez ezik*, bi atalak korrelazioan daudelarik. Halako egiturei izenen bat eman behar eta, *emendiozko esamolde* izena jarri diegu. Alde batetik, *emendiozko*, esan bezala, gehikuntza edo berrekuntza adierazten dutelako, eta, bestetik, *esamolde*, berez beregain diren elementu bat baino gehiagoko esapidea delako.

Emendiozko esamolde hauek, bestalde, gainerako lokailuak bezalaxe, inolako juntagailurik gabe erabiltzen dira sarri askotan. Hala gertatzen da (461)en baliokide den (462) adibidean:

(462) Gurasoengandik ez ezik, izeba-osabengandik ere opari mordoia jaso du

Formari begiratuta, bi multzotan banatuko ditugu esamolde horiek: 1- Ez ezik... 2- Ez bakarrik ... Banan-banan aztertuko ditugu hauetako bakoitzaren forma (forma bakoitzaren zehetasunak), funtzioa eta erabilera.

### 7.1. *ez ezik / ez ezen / ez eze*

*Ez ezik/ez ezen/ez eze ... ere* elementu erlaziokideek osatzen dute emendiozko lehen esamolde multzoa. Lehen multzo honetako esamoldeek ez dituzte perpaus jokatu beregainak juntatzen, baizik bestela ere mintzagai izan daitezkeen perpaus-osagaiak. Esan beharrik ez dago, mintzagaiok mota berckoak izan behar dute. Mintzagai izan ezin daitezkeen osagaiak —izen-sintagmuaren osagaiak, esaterako— ezin dituzte juntatu emendiozko esamolde hauek: bi izenlagun, adibidez. Hala erakusten digute (463)ko adibideek.

- (463) a. Liburu hau *ez ezik*, beste hori *ere* baduzu.  
 b. Euskadin *ez ezen*, Europaz zehar *ere* ibili naiz.  
 c. Ameriketara joan zela *ez ezik*, handik itzuli dela *ere* jakin dugu.  
 d. Berbetan *ez eze*, idazten *bere* badaki.

- e. Entzun *ez ezik*, ikusi *ere bai*.
- f. \*Amaren *ez ezik*, aitaren *ere* dirua hartu du

Lehenik, (463)ko adibide horietan nabari ageri da emendioa, gehikuntza, dagoela, horiek banan-banan honako hauen baliokide baitira:

- a. Liburu hau ... eta beste hori badituzu.
- b. Euskadin ... eta Europan zehar ibili naiz.
- c. Ameriketara joan zela ... eta handik itzuli dela jakin dugu.
- d. Berbetan ... eta idazten badaki.
- e. Entzun ... eta ikusi (dut).

Eta emendio hori, bigarren parteko mintzagaiaren ondoren kokatutako *ere* lokailuz baliatuz, batik bat, egiten da, horrek (Ikus *EGLU III*, 28. orr., 4. puntuan ere jaso), erreferentzia mundua zabalduz, aurreko mintzagaiarekiko baieztapena bigarreneira hedatzen baitu.

Bigarrenik, eta gehitzeaz gainera, esanahiaren aldetiko beste ñabardura bat erantsen diete perpausei lehen parteko mintzagaiaren ondoren kokatzen diren *ez ezik* eta honen parekoek. Eta ñabardura hori honako hau da: *ez ezik* bezalako clementucn aurreko mintzagaiari buruz lehenagoko perpausean haieztatua sendestea, ontzal ematea.

Beraz, bikoitza dela esan genezake bi mintzagai lotzen dituzten esamolde horien egitekoa: batetik, aurretiaz haieztatua haliozkoztat ematea —esamoldearen lehen partek (*ez ezik* etab.ek) egiten duena—, eta, bestetik, erreferentzia mundua zabaltzea, lehen mintzagaiarekiko baieztapena bigarreneira zabaltzea.

Kokalekuari dagokionez, bestalde, *ez ezik*ez *ezen*ez *eze* lehen osagaiaren eskui-nean eta horri atxikiak doaz beti, (463)ko adibideez gain, (464)-(494)koek erakusten duten bezala.

### 7.1.1. Lehen atalaren forma

Aztertzen ari garen esamolde hauek perpaus juntatuko bi mintzagai lotzen dituzte. Lehen mintzagaiaren ondoren doan atalak, hiru forma desberdin erakusten ditu idazleen eta euskalkien arabera: *ez ezik*, *ez ezen*, *ez eze*. Ikus ditzagun banan-banan.

## ... ez ezik (ezezik)

Lehen atalak har ditzakeen formen artean, erabiliena *ez ezik* (*ezezik*) dugu, eta bi idazkera izan ditu: bereizia —*ez ezik*— eta lotua —*ezezik*—. Hala ere, aztertu diren testuen arabera, idazkera bereizia izan da erabiliena.

Bestalde, gipuzkeraz idatzi dutenek, batik bat, erabili izan dute *ez ezik*(*ezezik*) forma.

- (464) (...) bada munduko giz artean *ez ezik*, mundu bereko emakume beretan ere arkitzen dira relijioko ta eremuko gizon birtutedunak diña birtute dutenak (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 351)
- (465) (...) etxeoandreari Joseganako amorio galdua sartu zitzaion, eta bere gogoan agertu *ez ezik* etzion egun bat ere pakean uzten (F. Lardizabal, *Testamentu zaharreko eta Berriko kondaira*, 52)
- (466) guztiok dugu, bada, hizkuntza geure kabuz aldatzeko eskua *ez ezik*, aldatzeko kemena ere bai (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 397)
- (467) beaz, erritarren artean *ez ezik*, markes-andrearen inguruan zebiltzan aietatik ere, ba zitun Santa Kruzen aldekoak (N. Ormaechea "Orixe", *Santa Kruz apaiza*, 108)
- (468) (...) dugun adi horren gainean Salomonen errana: egundaino ezta naski nihor izan munduan, Israelgo errege hura bezain dohatsu izan denik iduriz; bere izpirituan ezagutzarik ederrenaz bethea, bere menekoez *ez ezik*, arrotzez ere hagitz ohoratua (M. Duhalde, *Meditazione handiak* 193)
- (469) Lazkauko erriak seme argidotarrak *ez ezik*, eman izan ditu etxeandra gogoangarriak ere (J.I. Iztueta, *Gipuzkoako kondaira* 477)
- (470) auen guzien artean Orati du lorratzik sakonena egin ziona, bere olertiltzan *ezezik*, bere egintza osoan barna ere (J.I. Goikoetxea "Gaztelu", *Musika isilla* 60)
- (471) egurastegi apaifean zear, bere *ezezik* beste lagun asko bere, ba doa (E. Erkiaga, *Batetik bestera* 139)
- (472) mamiz *ezezik*, azalez ere bai frankotan (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak I Jainkoa*, 10)



- (473) an bilduko dira gizonak *ezezik* aingeru onak eta gaiztoak ere (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak* III, 455)
- (474) arako itz bikoitzean, bada, orra adirazi, "Erri" 'rena *ezezik*, Erri" 'ren mamia (J.M. Agirre "Lizardi", *Itz-lauz*, 126)
- (475) pilotara *ezezik* beste apustu mueta askotara ere zaleak dira txit gipuzkoatarak (J.I. Iztueta, *Gipuzkoako kondaira* 455)

Ohari gaitezen adibide guztietan bigarren osagaja baiezko perpausean dela. (465)eko exeuplua da itxuraz salbuespena; baina horrek bigarren partea ezezkoa badu ere, edukia baiezkoa du, "etzion egun bat ere pakean uzten" esatean, "egunero segitzen zion" esan balu bezala.

### ... ez ezen (ezezen)

Emendiozko esamoldeetako atal honek ere, aurrekoak bezalaxe, bi idazkera izan ditu: bereizia —*ez ezen*—, eta lotua —*ezezen*—, baina bigarrenak oso erabilera urria izan du idazleen artean. Eta hau ere, loturik nahiz bereiz, gipuzkerazko testuetan ageri da gehienbat, ondoko testu-zatietan nabari denez.

- (476) Ori *ezezen*, baita norbaiti bidegabezko itzak esatea ere (J.A. Ubillos, *Kristau dotriñ berri ekarlea*, 178)
- (477) Badira kristau on bein *ezezen*, bi ta iru bider ere konfesio janeralak anbat garitoen egin dituztenak, ta aspertu ezin diranak esaten leengoa gora ta beera (J.A. Mogel, *Konfesio eta Komunioko erakasteak* 112)
- (478) Animari *ez ezen*, korputzari ere eman dio sarri indarra (J.A. Mogel, *Konfesioe eta komunioko. erakasteak*, 112)
- (479) Gertaera izugarri ez-aditu au uri guzian barreatu zan, eta barrukoak *ez ezen*, kanpokoak ere ikaratu ziran (F. Lardizabal, *Testamentu zarreko ta berriko kondaira* 543)
- (480) Ebanjelioa irakurri ez badute ere, badakite, zeruetakoari *ez ezen*, lurreko erresumari ere bortxa egiten zaiola, eta keixuek harrapatzen dutela hura (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 374)

- (481) Egia, nik, aragia *ez ezen* arraultza janak ere odola beroarazten dit neri geitxo (N. Ormaechea "Orixe", *Quito-n arrabarekin*, 122)
- (482) Jakin zutenean artzaiagandik zer gertatu zitzaion basoan leoi arekin, ta zergatik gero gaitz egin *ez ezen*, erakusten ere ziozkan amorioaren señale edo igargarriak, askatu zituzten leoia ta artzaia; leoia joan zan bere basora, ta artzaia bere ardizaitzera (V. Mogel, *Ipui onak*, 42)
- (483) Jakin *ez ezen*, irakurri ere badet oarrez ta arretaz zure eskuscribatua: eta ikusiaz ta erabiliuz, are geiago ezagutu det lan onen anditasuna (M. Larramendi, *Carta a M.B.*, 277)

### ... ez eze (ezeze)

Aurreko beste biek bezala, bi idazkera ditu, eta biak paretsu erabiliak. Ageri, berriz, bizkaierazko testuetan ageri da gehienbat, nahiz eta Gipuzkoako idazle batzuk erabili duten inoiz.

- (484) diruak *ezeze*, zorroa bera be bai (F. Bilbao, *Ipui barreka*, 247)
- (485) Goizalde baten bat edo bi *ezeze*, beste guztiok lo gengozala, dapa, bat batera itzenu nintzen da iretzartu neuzan lagunek (R.M. Azkue, *Patxi guzur*, 131)
- (486) osasunak *ezeze*, askozaz kalte-gatx andiagoak eroan bear izaten ditu garbitasun edo honestidadeak (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 162)
- (487) eta ziñez, ogasun eta aberaskiak, gizon bakotxaren onerako *ezeze* gizarte osoaren onerako be ba dira (J. Eguzkitza, *Gizarte-auzia*, 180)
- (488) zuek *ezeze* geuk bere Riktrudisgaitik zerbait egingo genduk (D. Agirre, *Auñamendiko lorea*, 95)
- (489) gizon baten *ezeze*, askoren diña zan egitekorik gaitzen onetan, berariazko ta berezkirozko Jaungoikoaren argi ta doai gabe, Aita Manuel berari esan izan diodan bezala, ez berak ta ez bestek ezin gauz onik egingo zuen (A. Kardaberaz, *Euskeraren berri ona*, 49)
- (490) itz onakin gure barruak eta gogoia esnatzeko eta mugitzeko: eta animarekin *ez eze*, gorputzarekin ere gure Jaungoikoa alabatzeko (J.I. Gerriko, *Saiakera*, 384)

- (491) ni *ez eze*, abade jauna bere lotsatuta juanda, ikusirik zubek dakizuna (J.A. Mogel, *Peru Abarka*, 189)
- (492) dantzeetan *ez eze*, eleisaan bere pekatu egin legi, nai dabenak (B. Madariaga "F. Bartolome", *Olgeetak*, 185)
- (493) gogoan arturik *ez eze*, muiñetaraíño sarturik ere bai (J. Mokoroa, *Erraondo danbolintero*a, 8)
- (494) alabantza guzien gañeko, ta neke guzien eragiñen ta izugarrien au ondo ezagutzeko, gramatikaren parte ta erregladi guzien berri ondo jakin bear da: eta arica, eskuetan artu orduko, utziaz, ezer egiten ez degu: beñ *ez eze*, askotan soseguz ta kontuz irakurri ta ere, barrendik ondo aditzeak lana ta errua du (A. Kardaberaz, *Euskeraren herri onak*, 30)

Aztergai ditugun emendiozko esamoldeak —*ez ezik / ez ezen / ez eze* lehen atal dituztenek— ezin dituztela izenlagunak juntatu esan baitugu, ohar gaitezen (489)ko *gizon baten* eta horrekin korrelazioan dagoen *askoren* ez direla egiaz izen-sintagmako osagai. Hor ageri den *-en, diña izan* predikatuak eskatzen duen erregimena baino ez da (eta, horrenbestez, *gizon baten* eta *askoren* predikatu horren argumentu direnez, perpaus-osagaiak dira).

### 7.1.2. Bigarren atalaren forma

Bigarren mintzagaiaren ondoren *ere(ber)*, *baitaiezta + ere(ber)*, *ere(ber)* *hai/ez* aurki ditzakegu. Hauek osatuko dute, beraz, emendiozko esamoldearen bigarren atala.

#### Ez ezik, ... ere

Lehen ataleko *ez ezik (ez ezen, ezeze)* bezalaxe, hau ere gehitzen den osagaiaren ondoren eta horri atxikia doa.

Perpaua baiezkoa baldin bada, *ere(ber)(be)* lokailua agertuko da (463)ko eta ondorengo adibideotan bezala:

- (495) bertsook, gainera, ilarrian ez ezik, egunen batean Oiarzungo herriak, zuzenbiderik gelditzen baldin bada, jasoko dion monumentuan *ere* ederki leudeke (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 400)

- (496) orregatik, bada, erri batean ez ezik, erreinu guzian *ere* buru ta errege bat eta geienaz zenbait printzipe baizik ez dira arkitzen (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako Irakurraldiak*, 238)
- (497) au desobeditzea ezezik, Espiritu Santuaren kontra altxatzea *ere* da (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 104)
- (498) au dakit sollik; zu gabe gaizki nagola, nitaz landa ez ezen neronengan *ere*; ta ugaritasun oro Jainkoa ezik urritasun dala (N. Ormaechea "Orixe", *Aitorkizunak*, 384)
- (499) Ta jantziak ezeze, armusu eder bat *be* emon eutsan gaxuari (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 24)
- (500) eta gauza oneek, esan ezeze, egin *bere* bear dira (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 77)

Ezezkoa denean, jakina, *ere* lokailua izango dugu bigarren osagaiari atxikia, eta ez ukatzailea aditzaren aurrean:

- (501) erregelen arabera eginak ez daudelako lehenbizi, frantsesez berak dionez: euskaldunek, poesiara aski emanak izanagatik, ez dituzte orain arte honen legeak bete; bete *ez ezik*, bai baitirudi haien berririk *ere ez* dutela izan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 240)
- (502) Bada aingeru onak *ez ezik* deabru gaiztoak *ere ezin* ikusi badu aragi sutuaren zikinkeria, nola naiko du ekusi oriek biak baño milletan eta milletan begi argi ta garbiagoak dituen Jesus maitagarriak? (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 129)

Orain arteko adibideetan ez bezala, eta oro har erabilera normalentzat hartuko genukeenean ez bezala, (501) adibidean "ez bete eta gainera ez berririk izan" irakurketa dugu. Ohikoena, noski, "bete bai eta berriak izan ere bai" izango litzateke.

### **Ez ezik, *baita* (*bai eta*)... *ere***

*Ere* lokailuarekin batera esamoldeko bigarren atala osatuz, *baita* nahiz *bai eta* erabiltzen dira emendiozko balioa emateko.

- (503) Eta Ubillos ez ezik, *baita* Larramendi bera *ere*, *baita* Lardizabal eta Agirre Asteasukoa *ere* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 379)

- (504) Mutillari ao-begietara yatorkoz aize parrastadak ezezik, *baita* arri kiskirriak *bere* (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 111)
- (505) Ordentzen danak artzen du bere burua santugiteko grazia ezezen, *baita* besteai sakramentuak, ta oen bidez grazi santugille bera emateko eskua *ere* (J.A. Ubillos, *Kristau doktriñ berri-ekarlea*, 217)

*Baita* eta *ere* ager daitezke inoiz elkarren segidan (ik. 4.4.):

- (506) F, noski, ontzat hartzekoa da, eta, erdaratikako hitzetan ez ezik -fede, faltsu, etc.-, *baita ere* bestelakoetan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 97)

Gogoan izatekoa da, hala ere, azken hurrenkera hau oso testu gutxitan ageri dela, besteekin konparatuz gero.

### **Ez ezik, ... *ere bai*.**

*Ere(bere) bai* bigarren mintzagaiaren ondoren eta horri atxikia doa beti. *Ere* lokailuak erreferentzi mundua zabaltzen digu.(Ikus *EGLU III*, 28. orr.)

- (507) eta au gerta diteke, prestaera obeagatik ezezik, beste alde batetik *ere bai* (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak I*, 474)
- (508) Guztiok dugu, bada, hizkuntza geure kabuz aldatzeko eskua ez ezik, aldatzeko kementa *ere bai* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 397)
- (509) Nik, berriz, bestetan ikusten arriskua: Olabideren Itun Zahar eta Berrian ez ezik, azken urteotan egin diren beste zenbait saiotan *ere bai* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 352)

*Bai* adberbioa, jakina, galdegaia da eta perpauseko aditza ordezkatzan du. Sintagma erlaziokidea aditzaz bestelakoak direnean gertatzen da hori. Horrela, (507)an, 'gerta diteke' aditzaren ordezkari *bai* adberbioa; (508)an, 'dugu' aditzaren ordezkari eta (509)an, berriz, 'ikasten (dut)' aditzaren ordezkari datorkigu.

Beste batzuetan, ordea, aditz laguntzailearen ordezkari da. Eta kasu hau, mintzagai erlaziokidea aditza denean gertatu ohi zaigu.

- (510) Etxean eta ez etxean bazituen errege onek begi, trip, gogo ta aragiaren naikunz guziak asetzeko diña gauza, ta guzia guztiz egokia ta ezin ohea; eta izandu zuen ark au beti-beti bere erregez luzean ta ill arte guzian, ta izandu ez ezik, artu *ere bai* kupide bage ta gogoak ematen zion aldi guzietan (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 62)
- (511) Baketu ezeze, poz adurretan ipifii *be bai*, onoko bertso oneik kantau eutsazanean: *Zezili* biotzeko, ezaitetz samindu; dirua daukagu ta gaitezen ezkondu (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 29)

Bi exenplu hauetan, aurreko perpausetako *zuen* aditz laguntzailearen hutsunea betez datorkigu *bai* adberbioa.

### Ez ezik -Ø

Azkenik, emendiozko esamoldearen bigarren atala Ø ere izan daiteke; bigarren mintzagaiaren ondoren ez dugu beraz honi atxikiriko elementu jakinik aurkituko. Honako exenplu hauek ditugu lekuko:

- (512) Ego-begi izaki-ta, aizeak garra: irakin diraki, beroz *ezezik*, erleen egoek yo ta naasirik... (J.M. Agirre "Lizardi", *Biotz begietan*, 118)
- (513) eta au egiten badu, ongi *ez ezik*, atseginz andiarekin egiñen ditu bere gauzak (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 384)
- (514) Italiakoa *ez ezik*, Ipar-Amerikako zinema, be hin bederen ispilu bihurtu zaigu, geure aurpegi-gogoak ezagutzeko moduan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 326)
- (515) oriek guziek,bada, ta orien erako edozein beste mee-meki ta Jangoikoaren izenean eramatea ta orien emalle gaiztoei alakorik ordañez ez, baizik ongi naiez ta amarez eranzutea ta au guzia bein *ez ezik*, aldiak dakarren guzian guk egitea, egiteko latza ta gogorra da (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 155)

(516) adibidean, ostera, itxuraz *...ez ezik*, ... Ø izan arren, egiazko balioa hau da: "ukatu ez, ezik baieztu egiten du"; hots, "ukatu ez, baizik baieztu", edo beste modu batera esanda "ukatu barik, baieztu", "ukatu beharrean baieztu". Aurkaritza adieraztea

da, beraz, egitura horren betetzen duen funtzioa (ikus “Aurkaritzako Juntadura kapituluko 3. punrua).

- (516) zuk zure naiei jartzen diezun draga orrek, ukatu ez ezik, baieztu egiten du nere emengo irakaspena (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak. I Jainkoa*, 142))

### **Ez ezik ... ezta ere**

- (517) Izango duten ala ez, ordea, ezin dezaket esan, ez bainaiz, profeta ez ezik, ezta igarlea ere (K. Mitxelena, *Euskal Idazlan Guztiak III*, 119)

(501) adibidean bezala, hemen ere esanahia ukapenezkoa da: “ez naiz ez profeta eta ez igarle ere”.

### **7.1.3. Hurrenkera**

#### **Baiezko perpausetan**

Emendiozko esamoldeetako lehen multzo honetako atalak bi hurrenkeratan aurki ditzakegu. Bata, egitura arrunta edo arruntena deituko genukeena, ‘...ez ezik, ... ere’ bezalako segida duena. Egitura hori ageri da (463)tik (517)ra bitarteko esenpluetan.

Bestea, horren alderantzizkoa, hots, ‘... (ere), ... ez ezik’ bezalako hurrenkera duena. Egitura hau oso bakana da; *x ez ezik* tartekatze batean, intziso moduan txertatzen da, harrekin erlaziokidetasunean den mintzagai ezkerrean delarik. Hona hiru esenplu, hirurak ere Mitxelenarenak:

- (518) Europaren kultura, berak sortutako nahiz besterengandik hartutako gaiez oratua, gu guztiona da, nerea *ez ezik*, nahi badugu eta nahi ez badugu (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 301)
- (519) Bestela pentsatzen dugunok, halaz ere, huts horren damuz gelditzen gara, euskal literatura osoaren hutsa baita, Orixerena *ez ezik* (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 263)

- (520) Beste literaturetan *ere*, gurean *ez ezik*, zin-zinetako poesia ez beste gutzia kiskaltzen hasiko balira, ez lukete hutsaldi txarra hartuko liburutegiek (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 239)

Hiru exenplu bakarrak eta hirurak autore berarenak izateak oso erabilera urriko egitura dela erakusten digu.

### Ezezko perpausetan

Bi gauza dira hemen azpimarratzekoak: batetik, ezezkotasuna bigarren perpausuan doan *ez* adberbioak markatzen duela, eta, bestetik, ezezko perpausua hauen hurrenkera, hurrenkera zuzena dela, behinere *ez* atzekoz aurrerakoa, (518)-(520) adibideetako. Eskuarteko testuetan behintzat *ez* da horrelakorik ageri. Ikus (501)-(502)ko eta segidako exenpluetan beterik bi puntu horiek:

- (521) Zimenduetan *ez ezik*, *ez* zen paretetan artesiturik ageri (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 301)
- (522) Aita galdutzat utziak daude or ontzi oriek eta pelearako *ez ezik*, *ez* daude ur gañean ibiltzeko *ere*, ta atoz ikustera esan ta, badijoa Gobernaria S. Francisco Xavierrekin ara (S. Mendiburu, *Bederatziurrena*, 290)
- (523) Herodes, ikusirik bere aurrean miraririk egin *ez ezen*, erantzun *ere* nai etziola, su biziak artu zuen, aintzat *ez* artezagatik emtzuten etziolakoan, eta bere soldaduakin batean iseka eta burlaka eraso zion, eta eroa bazan bezela, soñeko zuri bat jantzita, Pilatogana itzuli zuen (F. Lardizabal, *Testamentu zaharreko eta herriko historia*, 452)
- (524) Orta, bada [...]; bada, S. Basiliok dion bezala, erregeen errege Jangoikoaren begietan *ez ezik*, lurreko prinzipe batenetan *ere ezin* egin du niork atsekabe emanen dion gauzarik (S. Mendiburu, *Igande eta Festegunetarako Irakurraldiak*, 383)
- (525) Erregelari arabera eginak *ez* daudelako lehenbizi, frantsesez berak dionez: euskaldunek, poesiaraz aski emanak izanagatik, *ez* dituzte orain arte honen legeak bete; bete *ez ezik*, bai baitirudi haien berririk *ere ez* dutela izan (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 240)



Idatz-zati horietan garbi ikusten da emendiozko esamoldez loturiko bi perpausak ezezkotzasun horren barruan daudela, baina ezezkotasun hori bigarrenen datoren ez adberbioak markatzen duela; bestela, bi perpausak baiezkotzat jo beharko lirateke.

#### 7.1.4. Funtzioa

Azaldu ditugun esamolde horiek, gorago esanenez, mintzagai izan daitezkeen edozein motatako perpaus-osagaiak junta ditzakete, maila berekoak baldin badira, hots, funtzio bera betetzen baldin badute bai lehenak eta bai bigarrenak, nahiz eta biek kasu marka bera erabili ez. Hori ondo ikusten da ondoko adibideetan. Horietan denetan bi osagaiak funtzio bera betetzen dute, nahiz (531)ko osagaiak kasu marka desberdina izan.

- (526) Semea ez ezik, alaba ere lanean da.
- (527) Nagusiak ez ezen, langileak ere han ziren.
- (528) Gurasoek ez eze, seme-alabek bere jai egin zuten.
- (529) Zuri ez ezik, besteek ere entzun beharko diet.
- (530) Buruz ez ezen, hankaz ere jo du.
- (531) Etxean ez ezen, etxetik kanpo ere zintzo ibili.

Bestetik, gorago esan dugunez, mintzagai izan daitezkeen edozein perpaus-osagai lot daiteke esamolde hauen bitartez: izen sintagmak ((526)-(531)koak), aditz partizipioak (535), perpaus txertatuak (534), (536)-(537), etab.

- (532) Zuk egin duzun bezala ez ezik, bestela ere egingo nuke nik hori.
- (533) Ameriketako jendea zuria ez ezik, beltza ere bada.
- (534) Hemen gaudenontzat ez ezik, falta direnentzat ere bada nahikoa.
- (535) Irakurri ez ezik, idatzi ere bai.
- (536) Lanera etorri ez ezik, aritu zarena ere badakigu.
- (537) Etorri nintzenean ez ezik, joan nintzenean ere egin nizuen diosala.

Nahiz eta juntagailurik ez den ageri, esamolde hauek, *eta*-k betetzen duen funtzio bera betetzen dute.

Emendiozko esamolde hauek ez dira, beraz, emendiozko ohiko lokailuen pare-parekoak. Izan ere, lokailuek perpausak bakarrik junta zitzaketela genioen *EGLU-III*n, eta hauek, aldiz, mintzagaiak elkartzen dituztela esan dugu. Hala ere, *ere* lokailuaren antzeko direla esan daiteke: hau edozein mailatako osagaiaren eskuinean ezar baitaiteke, mintzagai diren ber, osagai horren erreferentzia-mundua zabalduz; haiek, esamoldeak, edozein mailatako perpaus-osagaiak korrelazioan jartzen dituzte.

## 7.2. Ez bakarrik

*Ez bakarrik ... ere* eta beste zenbait elementuk osatzen dute emendiozko esamoldeen bigarren multzoa. Ikus dezagun lehenik aurreko atala, ondoren bigarrena aztertzeko.

### 7.2.1. Lehen atalaren forma

*Ez ezik, ez ezen, ez eze* atalen parekoa, balio eta esanahi berekoa, dugu batzuetan horien ordezt erabiltzen den beste hau ere, *ez + bakarrik(soilik)* bi adberbio horiek osatzen dutena.

Emendiozko esamoldeetan bigarren multzotzat hartu dugunaren lehen atal honetan beti *ez* eta *bakarrik* adberbio ber-berak —beti ere unitate bat osatuz eta perpausaren barruan daudela— erabiltzen badira ere, horien hurrenkera hiru eratakoa izan daiteke:

**ez ... bakarrik/... bakarrik ez/ez bakarrik...**

- (538) a. *Ez* ogia *bakarrik*, ...  
 b. Ogia *bakarrik ez*, ...  
 c. *Ez bakarrik* ogia, ...

a) (538a) adibidean *ez* eta *bakarrik*-en artean doa korrelazioko lehen osagaia. Horrelakoxeak ditugu ondoko exenpluok ere, egitura hau delarik maizen erabilia:

- (539) *Ez* pekatariak *bakarrik*, bai eta diran, ta izango diran justuenak ere egun triste, edo egun illunaren memoriak bildur andiaz beteko ditu (A. Kardaberaz, *Ejertzizioak II*, 201)

- (540) Eta ez gizona *bakarrik*, baita onekin batean abereak edo animaliak berak ere (J.B. Agirre (Asteasukoa) *Erakusaldiak III*, 282).
- (541) Jan zuan Franziskok zeruko janari artatik eta indarberritu zan, *ez* ordia gorputzian *bakarrik*, baita ere animan (C. Beobide, *Asisko loria*, 134).
- (542) *Ez* txirulaz *soilik*, aotsez ere maizuaeren beteko zaitugu (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren idazlanak*, 46)

Lehen perpausean aditza ere ageri bada, bi kasu dira bereiztekoak: aditz-forma trinkoa eta perifrastikoa duena.

Aditz-forma trinkoa bada, *ez* partikula ukatzaileak aditzaren aurretik eta horri atxikia joan behar du beti.

- (543) Orduan beartasun ori ezta egitezkoa *bakarrik*, eskubidezkoa ere ba-da (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustriak*, 52)
- (544) Ederki itz egiteak ezuela itz-makurra *bakarrik*, baita gogoei ere nolabaiteko gaitz egiten diela (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 106).

Aditz-forma perifrastikoa duencan, *ez*-ek bereganatzen du laguntzailea aditz nagusia esamoldearen ondoren ageri delarik.

- (545) Ez det burrunzia *bakarrik* eskeintzen; biotz bat ere eskeintzen det (T. Alzaga, *Burruntziya*, 13)
- (546) Eta kontu: bekatuaren izenez ez da obrazkoa *bakarrik* aditzen, baizik gogoz, itzez, eskuz, edo beste edozer gisatan egiten dana (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak: III*, 483)

Aditz forma perifrastiko osoa tartean dela ere erabili izan da inoiz, nahiz lehenengo den orain maizen erabiltzen den forma.

- (547) Ez du ogiak hazten, *bakarrik*, gizona, bainan Jainkoaren ahotik heldu den hitzak (B. Larregi, *Testament zaharreko eta berriko historia*, 130).

Hala ere, aukera horretatik kanpo gelditzen da zenbait perpaus txertatu, erlatibozkoak adibidez, orduan aditz laguntzailea eta partizipioa nahiz aditzoina elkarren ondoan baitoaz eta esamoldearen bi elementuen erdian:

- (548) Ez nekatu geranean bakarrik, baita bestela ere, gure lanen artean gogotik murgildurik gabiltzanean ere, dena beingoan eta bertanbera utziko genuke, baldin izakiak ezurrusetan, diren bezalaxe, azalduko balitzaizkigu: izugarri hitsak, laruak (L. Villasante, *Kristatu fedearen sustraiak. I. Jainkoa* 153)

b) (538b)ko eredia jarraitzen dute honako adibideak, ... *bakarrik ez segidako* forma hartzen baitu esamoldeak:

- (549) Gure gelatxon andre orretzek dantzan egin du egoki, nik zerbait baño naiago nuke orrek bezela baneki; plaza batian ikusi eta orrek egiten du toki; ortan bakarrik ez da pizkorra, zokor jotzen e badaki (M. Olaiola "Uztapide", *Lengo egunak gogoan* I, 282)
- (550) Bakotxari gizartearentzat zenbat emon bear dauan, agintari ordeko orreik izentauko leuskioe: izentau bakarrik ez, emonazo be bai (J. Eguzkitza, *Gizarte-azua*, 123)
- (551) Aberria maite dut neronek ere, zuk bakarrik ez (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 75)

(549) adibideak argi erakusten duenez *bakarrik* adberbioa da (gogoan izan beste lokailu batzuk ere jatorriz adberbio direla). Adberbioenez, perpaus baten barruan dago eta hori oso ongi ikusten da (549) adibidean non *ez* ukatzailea berez aditzari loturik doan; beraz, bi atal ditugu hor *hortan bakarrik* eta *ez da pizkorra*; "ez da hortan bakarrik pizkorra" esango bagenu bezala. Askotan ordea, *ez* horren ondoren aditzik ez badago —hala da (550) eta (551)an esaterako— bigarren parte bat eskatzen du; bigarren parte horretan alborakuntza (550) edo juntadura (546) egon daiteke.

c) (538 c)koan, berriz, '*ez bakarrik ...*' eran bi elementu horiek elkarren ondoan doaz eta mintzagaia segidan, horiei atxikia. Hirugarten erabilera hau euskalki guzietakoa dugu, eta Ekialdean ia bakarra:

- (552) Eta han laster ohartu zitzaizkon, ez bakarrik bere misionest lagunak, baina bazterretikako jaun argituak [...] asmu zorrotzeko gizona zela (J. Hirian-Urruty, *Aurpegia, Mintzaira, Gizon!* 96)
- (553) Ordea zenbat alditan konfesatzen ziozkan Jangoikoari negar andiekin, ez bakarrik bere bekatu loi, ta eriotza eragiña, baita ere bizitza guzikoak! (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 157)
- (554) Ez bakarrik herriatik herrira, bainan etxetik etxera gaitzeruak desberdinak dira (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 64)

- (555) Aspaldiskoan, urhetik urthera itipitu zait, ez bakarrik hiriarentzat naukan amodioa, baina oraino tokiaran beraren alderakoa (J. Etxepare, *Beribilez*, 84)
- (556) Ori, andre xobadina?, behin baino gehiagotan egona naiz nere buruarekin nola ohartzen dituzun zure etxean, ez bakarrik artho xurizetan, gu orai bezala, baina ere Jainko onak egiten dituen arrats guziez (J. Barbier, *Supazter xokoan*, 109).
- (557) Onetara ekarteko esaten eutsen Fabiori; [...] baña ezaguturik Fabiok ez eguala arerijuai ekiteko, ez eutsen jaramonik egiten, ez bakarrik eurai, ezta erromatarren esamesai bere (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 912)
- (558) oneek, ez bakarrik eztauke zer baru egin biarra egiten dabeen egunian; baña ezta egiten eztabenian bere (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 241)
- (559) Gizon aundi ark au egiten zuan, onetan saiaturzen zan, ez bakarrik kardinal eta ordenako anparatzalle zan denboran, bai eta ere gero, Jaun txit Goikuak ala nai izanik Aita Santuaren mallara goratua izan zanian (C. Beobide, *Asis' koria*, 179)

## 7.2.2. Bigarren atala

### Ez ... bakarrik ... ere

*Ez ezik eta pareko itzuliekin bezalaxe, ez bakarrik-ekin ere bigarren perpausean ere lokailua erabil daiteke, eta hau da erabiliena mendebaldeko adibideetan.*

- (560) Ez det burruntzia bakarrik eskeintzen; biotz bat ere eskeintzen det (T. Alzaga, *Burruntziya*, 13)
- (561) (...) ez da bakarrik Hiribarren mintzatu Azkubez: 1935ean, Ikertzaileak ere bere hitza erran zuen "Gure Herria"-n: Jean de Sosiondo (1566-1578) (J. Elissalde "Zerbitzari", *Azkaine*, 11)
- (562) Urian bakarrik ez, inguruetako errietan be badago zer ikusi (N. Alzola, *Aralak*, 71)

**Ez bakarrik ... *baita(bai eta)/ezta(ez eta) ere*****a. Baiezkoetan:****Ez bakarrik ... *baita (bai eta) ere* elkarren segidan**

- (563) Arrigarria zan Birjiña Guadalupekoari laguntzen igo zan jande-taldea, ez bakarrik Ondarrabi, Irun eta beste Espāniako errietatik, baita ere Frantziakoe-tatik (A.M. Zabala, *Gabon gau bat*, 104)
- (564) Eta ona zein gauza bearra dan kredoa, ta fedearen artikulua ongi jakitea, ezagutzeko Jaunaren maitagarritasuna fedearen argiarekin, eta ezaguera onekin mugitzeko bera amatzera, ez bakarrik gauza guzien egillea bezala, baita ere zeren fedea erakusten digun aldetik dan ezin geiagoraño on, eta maitagarria (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak* III, 402)
- (565) Ordea zenbat alditan konfesatzen ziozkan Jangoikoari negar andiekin, ez bakarrik bere bekatu loi, ta eriotza eragiña, baita ere bizitza guzikoak (J.A. Mogel, *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*, 157)
- (566) Jan zuan Franziskok zeruko janari artatik eta indarberritu zan, ez ordia gorputzian bakarrik, baita ere animan (C. Beobide, *Asis'ko loria*, 134)
- (567) Erbestekoa da, ez bakarrik alemana Espānian edo Zamorakoa Euskalerrian, baita ere donostiara Bilbon, getariara Zarautzen, karrika batekoa bestean, auzokoa gurean ta maizegi —ezin ukatu— etxe barrukoa gure biotzean (D. Agirre, *Garoa*, 329)
- (568) Esker edo grazi guzti auk izango zittuan Adanek zintzo iraun balu, bere bizi guztian; ez beretzat bakarrik, baita ere bere ondorengo guztientzat, baño guztiak galdu zizkigun eta gorputzaren aldekoak iñoiz berriz ez irixteko bizitza ontan (D. Inza, *Kristau ikasbidea*, 46)
- (569) Gizon aundi ark au egiten zuan, onetan saiatutzen zan, ez bakarrik kardinal eta ordenako anparatzalle zan denboran, bai eta ere gero, Jaun txit Goikuak ala nai izanik Aita Santuaren mallara goratua izan zanian (C. Beobide, *Asis'ko loria*, 179)

### **Ez bakarrik... *bai eta ... ere***

- (570) Etsayagan aditzera ematen da ez bakarrik deabrua, *bai eta* beste lagun urkoari bekatutako bidea, oña edo eskandaloa ematen diezan guziak-ere (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak* III, 548)
- (571) Ez pekatariak bakarrik, bai eta diran, ta izango diran justuenak ere egun triste, edo egun illunaren memoriak bildur andiaz beteko ditu (A. Kardaberaz, *Ejertzizioak* II, 201)

### **Ez ... bakarrik ... *ere bai***

- (572) Erriarentzat, ez aberatsentzat bakarrik; beartsuentzat ere bai, au da jolasik asegarriena (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 59)
- (573) Bakotxari gizartearentzat zenbat emon bear dauan, agintari ordeko orreik izentauko leuskioe: izentau bakarrik ez, emonazo be bai (J. Eguzkitza, *Gizarte auzia*, 123)
- (574) Esan liteke, [...] Basaburuko gaztedi guztia (...) Atharratzen biltzen dela eta ez gaztedia bakarrik, urtetan ongi umotuak ere bai (J. Etxaide, *Joanak-joan*, 203)

### **Ez ... bakarrik ... Ø**

- (575) Ba naski, eskuararen bizia, osasuna, iraupena, frantsesaren eta bertze askorena bezala, Jainkoaren eskuetan dire, ba eta gure eskuetan ere; ez geroko bakarrik; orai beretik (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 220)

### **b. Ezezkoetan:**

### **Ez bakarrik ... *ez eta ... ere***

- (576) Onetara ekarteko esaten eutsen Fabiori; [...] baña ezaguturik Fabiok ez eguala arerijuai ekiteko, ez eutsen jaramonik egiten, ez bakarrik eurai, ezta erromatarren esamesai bere (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 912)

**Ez bakarrik ... *baña ezta ... ere***

- (577) Irugarrengo: eztaijela pekatarijak blasfemadu Jaunaren izen beneragarrija, ez bakarrik euren juramentu, eta birauakaz, baña ezta euren pekatu eta bizi modu txarragaz (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 254)
- (578) Oneek, *ez bakarrik* eztauke zer baru egin biarra egiten dabeen egunian; baña ezta egiten eztabenian bere (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 241)

**7.2.3. Bestelako zenbait****Ez bakarrik ... *baina ...(ere)***

- (579) *Ez bakarrik* herritik herrira, *bainan* etxetik etxera gaizteruak desberdinak dira (J. Duvoisin, *Laborantzako Liburua*, 64)
- (580) Bordelesa da sortzez, burraso juduetarik; bera katolikoa, gure erlisionerat gonbertitua, *ez bakarrik* izenez, *bainan* izaitez, urrats eta sendimendu on guzietz (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 189)
- (581) Aspaldiskoan, urthetik urthera tipitu zait, *ez bakarrik* hiriarentzat naukan amodioa, *bainan* oraino tokiaren beraren alderakoa (J. Etxepare, *Beribilez*, 84)
- (582) Nihaurek ere nik konprenitzen ditut bi mintzaira arrotz, mintzatu ere egiten ditut behartua naizen oroz; horiek hola ni euskarari nago bihotzez ta gogoz, *ez* ederraren gatik *bakarrik*, *bainan* gurea delakotz (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 28)
- (583) Ori, andre xobadina, behin baino gehiagotan egona naiz nere buruarekin, nola onhartzan ditutzun zure etxean, *ez bakarrik* artho xuritzetan, gu orai bezala, *bainan ere* Jainko onak egiten dituen arrats guzietz (J. Barbier, *Supazter xokoan*, 109)
- (584) 1952'garren urtean [...], kornubieraz irakurri *bakarrik ez*, *baina* idatzi *ere* gogo dutenen onerako (J. Mirande, *Idazlan hautatuak*, 259)
- (585) Eztau jaoten Eleixiaren agindu au [...], eta *ez bakarrik* eztau gordetan, *baña* egiten dituz pekatu mortal bi (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 228)



Ekialdeko erabilera nagusia eta ia bakarra dugu hau, Mendebaldeko idazle bakarren batek erabili badu ere.

*Bainan, baina*, bestalde, berez formari begiratuta aurkaritzakoak badira ere, hemen emendiozko balioa dute.

### **Ez bakarrik ... baizik ...**

- (586) Eta zergatik eskatzen degu *ez bakarrik* digula egunorokoa, *baizik* egun eman degigula (J.I. Gerrico, *Saiakera*, 424)
- (587) Eta kontu: bekatuaren izenez *ez* da obrakoa *bakarrik* aditzen, *baizik* gogoz, itzez, eskuz edo beste edozer gisatan egiten dana (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak* III, 483)

Gipuzkerazko testuetan ageri da, batik bat.

### **Ez bakarrik ..., ... baizik**

- (588) Izan bildur *ez* gorputza il dezaketeneri *bakarrik*, gorputza il eta anima betiko sutara bota dezaketeneri *baizik* (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 76)
- (589) Poliki poliki dihoakio Peru erakusten *ez* euskara *bakarrik*, [...], beste gauza asko *baizik* euskararen bitartez (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 168)
- (590) *Ez* da maitemifia *bakarrik* gezurtaritzen duena, edozein liluragai *baizik* (J.I. Alvarez Enparantza "Txillardegi", *Leturiaren Egunkari Ezkutua*, 118)
- (591) (...) *ez* begiak *bakarrik*, nere itxura osoa *baizik* (J.L. Alvarez Enparantza "Txillardegi", *Leturiaren Egunkari Ezkutua*, 96)
- (592) Azia *ez* da beerako *bakarrik*, bere tokirako *baizik* (N. Ormaechea "Orixe", *Aitorkizunak*, 385)

XX. mendekoak eta Hegoaldekoak diren azken bost esanplu hauetako *baizik* harrigarri samarra da, aurreko perpauseko 'ez ... *bakarrik*' esapideak bigarren perpausean gehikuntza edo emendioa eskatzen baitu eta, hartzekotan, erreferentzia mundua zabaltzen duen lokailua hartzen. (588)-(592) adibideetan, aldiz, eta arau horren kontra, aurkaritzako *baizik* lokailua ageri zaigu (ikus *EGLU-III*, 28. orr.).

Ondorengo (593) eta (594) adibideetan, *baizik*-ekin batera emendiozko lokailua, *ere*, eta emendiozko juntagailua, *eta*, ageri zaizkigu hurrenez hurren; horrexegatik hain zuzen ez zaizkigu gertatzen (588)-(592)koak bezain harrigarriak.

### **Ez ... bakarrik *baizik* (...) *ere***

- (593) *Ez bere errikoak bakarrik, baizik Andoninekoak ere etorri zitzaizkan* (J.A. Irazusta, *Bizia garraza da*, 126)

### **Ez bakarrik ... *baizik eta***

- (594) Ezagupide horiek xeheki bilatu eta argiki eman nahi ditugu, *ez bakarrik* elizakoak artzeko, *baizik eta* azkenetan daudenen egin beharrak egiteko. nola ordenuak eginarazteko (F. Irigaray, *Lanak*, 184)

Benetan, oso kasu bakanak dira honelakoak.

### **Ez bakarrik ... *ezpada***

- (595) Gurasuak barriz, ugazabak, eta besteen arduria daukeenak, *ez bakarrik* eztabe pekatu egingo bildur izanagaz galdu ezteitezan euren seme, otsein, eta agindupekuak, *ezpada* guztiz da gauza biarra eukitia (P. Astarloa, *Berbaldiak*: 179)
- (596) Askok eta askok, *ez bakarrik* eztabe artuten egin daben pekatuben damurik, *ez bakarrik* ez tira lotsatuten aora etorri jaken lotsabakerija guztija proximuari esan dautselako, *ezpada* alabadu oi dira au egin dabeelako, gauzarik miragarriena izan balitz legez (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 107)
- (597) Eztau agindu au bete, edo kunplietan dongaro konfesetan danak, eta *ez bakarrik* eztau betetan, *ezpada* egiten dituz pekatu mortal bi, bata txarto konfesetan dalako; eta bestia Elexiaren agindu au jaoten eztabelako (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 219)
- (598) Bigarrenko: egiten dabee pekatu mortal dendari, zapatari, errementari, eta beste onelako ofizijoko askok, *ez bakarrik* gastetan dabe euren irabazi guztija

ardao, joko eta beste ekandu zitaletan, *ezpada eztabe* ardurarik artu nai, euren umiai irakasteko euren ofizijua, edo besterenbat (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 90)

### **Ez bakarrik ... *ezpada ze***

- (599) Baña iñor geu bagara, [...], bene benetako malko-ari mingotxak ixurtzen ditugu, ta *ez bakarrik eztauka* lekurik bestien pozak geure barruan, *ezpada ze* mingostasun barriak emoten deuskuz (D. Agirre, *Kresala*, 202)

*Baizik*-en kide den *ezpada* loturako bigarren osagaiaren ondoan, bizkaierazko testuetan ageri da, baina horietan ere esenplu bakan horiek besterik ez. Erabilera murrizta du, beraz.

Bigarrenik, emendioa perpaus mailan da egina eta bi perpausetako aditzak, bai aurrekoa eta bai bigarrena, forma jokatuan erabiliak dira. Gainera, (595)-(599)ko esenpluetan ikus daitekeenez, aurreko perpausak, bat izan ezik, ezezka datozkigu, bigarrena baiezkoa dutela (hauxe da hain zuzen *ezpada* juntagailuak eskatzen duena, aurrerago juntagailu aurkariak aztertzean ikusiko dugunez). Baiezka datorrena (598)koa da, eta honek, besteek ez bezala, bigarrena dakar ezezka.

### **7.2.4. Funtzioa**

'*Ez + bakarrik, ...*' esamolde honek ere, '*... ez ezik, ... ere*' esamoldeak bezalaxe, mintzagai izan daitezkeen maila bereko perpaus-osagaiak lotzen ditu.

Hango (526)-(537) adibideak ondokoekin aldera ditzakegu:

- (600) Aita bakarrik ez, ama ere lanean ari da
- (601) Ez zuri bakarrik, besteei bere entzun beharko diet
- (602) Buruz bakarrik ez, hankaz ere jo du
- (603) Bada nahikoa ez bakarrik hemen gaudenontzat, baita falta direnentzat ere

Bada ordea desberdintasun nabarmen bat *ez ezik / ez ezen ... ere* esamoldearen eta *ez bakarrik ... ere* esamoldearen artean. Lehenak perpaus-osagaiak bakarrik junta zitezkeen, bigarrenak perpaus beregainak ere junta ditzake, hemen errepikatzen ditugun (604)-(605) adibideek erakusten dutenez:

(604) *Ez det burruntzia bakarrik* eskeintzen; *biotz bat ere* eskeintzen det (T. Alzaga, *Burruntziya*, 13)

(605) *ez da bakarrik* Hiribarren mintzatu Azkubear: 1935ean, Ikertzaileak *ere* bere hitza erran zuen "Gure Herria"-n: Jean de Sosiondo (1566-1578) (J. Elissalde "Zerbitzari", *Azkaine*, 11)

## Labur bilduz

Emendiozko esamoldeen erabilerak eskema batean bildu beharko bagenitu, ondoko laburpenaren antzekoa osatu beharko genuke:

### A) {ez ezik, ez ezen, ez eze} ... {ere, baita ... ere, ere bai, Ø}

a. Formen banaketa euskalkien arabera:

*Ez ezik, ez ezen*: batik bat gipuzkerazko testuetan (eta bereiz idatzirik gehiagotan).

*Ez eze*: batik bat bizkaieraz, nahiz gipuzkeraz ere ezezaguna ez izan.

Hegoaldeko euskalkietakoak bakarrik dira, beraz.

b. Esamoldearen bigarren atalean ditugun aukeren artean ohikoena *ere* lokailua da:

(606) Amarentzat ez ezik, aitarentzat ere zerbait erosi nahi nuke

(606) da, beraz, eredutzat eman daitekeena. Gainerakoak askoz urriago erabili dira literaturan (ik. 503-517 adibideak). Era berean ohikoa *ez ezik / ez eze ... ere* hurrenkera da, eta ez alderantzizkoa (ik. 518-520).

c. Funtzioa: mintzagai izan daitezkeen perpaus-osagaiak korrelazio bidez juntatzeko erabiltzen ditugu esamoldeok.

- d. Tokia: esamoldeko atalak, bai lehena eta bai bigarrena, dagozkien osagaien eskuinean eta hauei atxikirik doaz (eta hala ahoskatzen dira): *zuk ez ezik, nik ere; entzutea ez eze, ikustea bere.*

### **B) (ez ... bakarrik) ... ere**

- a. Forma: esamoldeko lehen atala hiru modutan aurki daiteke:

“*ez ogia bakarrik, ogia bakarrik ez*” hurrenkerak Hegoaldean aurki daitezke batik bat.

“*ez bakarrik ogia*” euskalki guztietan, Iparraldean ia bakarra izanik.

Bigarren atalari dagokionez, ohikoena, batez ere mendebaldeko adibideetan, *ere* lokailua aurkitzea da:

(607) Ez bakarrik lagunei, maisuari ere ziria sartu zion

Aditza lehen perpausean ageri denean, *baita/ezta ... ere, ere bai* formak erabiliko ditugu:

(608) a. Ziria sartu zien, ez bakarrik lagunei, baita maisuari ere

b. Ziria sartu zien, ez bakarrik lagunei, maisuari ere bai

Bigarren atalean formalki aurkari izan arren emendio balioa duen *bainal/baizik* juntagailua ere erabiltzen da:

(609) Hizkera desberdinak aurki ditzakegu ez bakarrik herritik herrira, baina etxetik etxera

Gaincrakoak (*baizik ere, baizik eta, ezpada x*) askoz urriagoak dira (ik. (593-599)).

- c. Funtzioa: perpaus-osagaiak ez ezik, perpaus beregainak ere junta ditzakete halako esamoldeek

Ohar gaitezen, azkenik, emendio balioa emateko, goiko 7.1.1. saileko *ez ezik ...* eta 7.2.1. saileko *ez bakarrik*-en ordean erabili izan direla eta erabili daitezkeela -z *gainera*,

-z *gain*, -z *landa* eta antzeko beste posposizio batzuk ere. Baina azken hauek posposizio direnez, badira diferentzia nabariak haien eta hauen artean.

Lehenek, gainerako lokailuek bezala, perpausak (edo perpaus-osagaiak) juntatzen dituzte. Posposizioak, kasu-marken pareko direnez, sintagma bati eransten zaizkio perpaus bakarraren barnean. Ez dute, beraz, juntadurarik gauzatzen. Hona esenplu batzuk:

- (610) (...) onelako bekatari batek Konstantinoplako elizan, Nektrio ango obispo zan zan dnboran, bere bekatuak aitortzeaz *gainera* aditzera eman zuan bekaturen batean lagun izan zuana *ere* (J.B. Agirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 525).
- (611) Baita onezaz *gainera*, edo beroni darraikona orduban ordubango sazerdotiak prest eukitia *bere* (B. Madariaga "F. Bartolome", *Ikasikizunak 3*, 305)
- (612) Txanton, Otoiopere' ren lemazaiñaz *landa*, jabekide *bere* ba-zan (E. Erkiaga, *Arranegi*, 88)
- (613) Eta ez nuke nahi hau inork txartzat har lezan, neure buruari harrika eta ez besteri ari naizenez gero. Ezia ere harako gorago esan dudan hura: euskaldunok, alegia, geure hizkuntzaz *landa* besterik *ere* beharko dugula etorkizunean (K. Mixelena, *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, 348)
- (614) Gorago aitaturiko tresna ta iskilluetaz *gain*, beste batzuk *bere* ba ziran an: matraillu, gabi txiki (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 080).

## 8. Ezaugarri nagusiak labur bilduz

Aurreko orrialde-sailean emendiozko juntaduraz esandako guztitik juntadura honen ezaugarri nagusiak atera nahi izanez gero, honako eskema osa daiteke.

### a. Forma

*Eta* forma osoa da euskara estandarrean bultzatu beharreko, *ta*, *da* eta antzeko laburdurak utziz. Salbuespena, orduak edo kantitateak adierazteko erabiltzen den *t' erdi* da.

## **b. Juntagaiak**

Maila eta kategoria bereko juntagaiak elkartzen ditu *eta*-k: perpausak, izen-sintagmak, nahiz sintagmaren barneko osagaiak. Juntagaien kopurua ere nahi adinako izan daiteke, bi edo gehiago.

Juntagaiak perpausak direnean, perpausok mota berekoak izan ohi dira: adierazpen-perpausak elkartzen ditugu *eta* juntagailuaren bidez, edo galde-perpausak, aginteperpausak... Mota desberdinetakoak direnean, debekuak aurkituko ditugu emendiozko juntadura gauzatzeko: aginteperpaua eta adierazpen-perpaua elkar daitezke,

(615) Zaude hemen eta ekarriko dizut

bai eta adierazpen-perpausak eta harridurazkoak ere:

(616) Loreak ekarri zituen, eta ze politak!

Ez, ordea, galde-perpaua eta aginteperpaua, edo galde-perpaua eta adierazpen-perpaua:

(617) \*Non bizi da? eta esaiok etortzeko

(618) \*Hori al da? eta esango diot

Ikus atal hau osatzeko (43)-(59) adibideen inguruko azalpena eta eztabaida.

Juntagaiak izen-sintagmak direnean, funtsean bi aukera bereizi ditugu: kasu-sintagmen juntaketa

(619) Lankideekin eta lagunekin hasarretu da

eta izenen juntaketa (ardatz anitzetako izen-sintagmen juntaketa deitu duguna) (ik. (81)-(101) adibideen inguruan eman dugun azalpena)

(620) Lankide eta lagunekin haserretu da

Kasu-sintagmak juntatzeko, kasu-marka berekoak izan behar dute, edo kasu-marka desberdina izan arren, funtzio bera betetzen dutenak (ik. (60)-(80) adibideak eta horien azalpena):

(621) Datorren astean eta zure etxean egingo dugu bilera

Bestalde, 1.3. puntuan aztertu dugu noiz juntatu behar diren kasu-sintagmak eta noiz dugun aukeran ardatz anitzetako izenen juntaketa (102-165 adibideetan zehar azaldua). Han egin dugun laburpena hemen berriro bilduaz:

- a. Kasu-sintagmak juntatzea beti da zilegi.
- b. Kasu-sintagmak juntatu behar dira derrigorrez pertsona izenordainak direnean sintagmaren ardatz (107)-(114), edo ezkerreko juntagaia erakusle batek mugatzen duenean (117)-(119).
- c. Kasu-sintagmak juntatzeko joera nabaria ikusten da sintagmok singularrekoak direnean. Dena den bestelako juntabidea ere aurki daiteke ezkerrean bi juntagaii dagokien izenlaguna edo eskuinean izenondoa dugunean. Modu berean, ardatz izenak abstraktuak direnean edo elkarketa moduko bikoteak adierazten dituztenean, errazago gauzatzen da izenak juntatzea (134)-(163).
- d. Ondarkia plurala denean, berriz, aukeran ditugu bi juntabideak: kasu-sintagma osoak edo ardatz anitzetako izen sintagmak. Hala ere euskalki batzuek, ekialdekoek, kasu-sintagmak juntatzeko joera erakusten dute, eta beste batzuek, mendebaldekoek, errazago jotzen dute ardatz anitzetako izen sintagmen juntaketara.
- e. Kasu-markaren nolakotasunak ez du eraginik juntabide bata edo bestea aukeratzean (122)-(133).
- f. Lehen juntagaiak, bestalde, ondarki osoarekin agertu behar du, edo batere ondarkirik gabe:

(622) \*Nagusia eta langileei mintzatu zaie

- g. Posposiziodun sintagmen kasuan, lehen juntagaiaren ondarkia posposizioaren erregimenaren araberakoa izan daiteke:

(623) Biziak eta hilak gatik Jainkoari otoitz egitea

(624) Batzuen eta besteentzako

*-gatik* posposizioak absolutiboa ere onartzen baitu, eta *-tzat* posposizioak,



berriz, genitiboa. Hau dela eta, iruzkin berezia merezi du *-en artean* posposizioak. Azken urteetan ugalduz joan diren

(625) \*batzuk eta besteen artean

bezalakoak, lehen juntagaiaren ondarkia pluralean dutenak, ez dira onargarriak. Gehienez ere, lehen juntagaiaren ondarkia singularrean dutenak onar daitezke, nahiz literatura-tradizioan benetan urriak izan (ik. (188)-(194) adibideak):

(626) Zinea eta bideoaren arteko kompetentzia

### **c. Komunztadura**

*Eta*-k sintagma gramatikalak, komunztadura eragiten dutenak, juntatzen ditue-nean, uhiko bata aditzak plural komunztadura hartzea izan ohi da:

(627) Liburu bat eta aldizkari bat erosi nituen

Badira, ordea, juntadura pluraltzat hartzen ez den zenbait kasu (215)-(260) adibi-deetan ikusi dugunez: perpausak juntatzen dituguncan, juntagaiak sinonimoak, erreferente berekoak direnean, edo izen abstraktuak juntatzen dituguncan, esaterako, singularreko komunztadura gauzatzen da.

### **d. Osagai ezabaketa**

Errepikatzen diren osagaien ezabaketa emendiozko juntaduran nola gertatzen den aztertzean, bi sail egin ditugu: juntagaiak perpausak direnekoa eta juntagaiak kasu-sintagmak (edo sintagmaren barneko osagaiak) direnekoa.

Juntagaiak kasu-sintagmak edo sintagmaren barneko osagaiak direnean, errepikatzen den osagaia zein den, aukera bat edo beste izango dugu ezabaketak egitekn. Honela, izenlagunaz eta izenaz osatutako bi kasu-sintagma juntatzean izenlagunak errepikatzen badira, eskuinekoa bakarrik ezaba daiteke, berez ambiguoak diren egiturak sortuz. (628) adibidean, esaterako, *Donostiako* izenlaguna *langile*-ri bakarrik dagokiola uler daiteke:

(628) Donostiako langileei eta ikasleei

Izenlaguna bi juntagaiei dagokiela inolako zalantzarik gabe markatzeko modua izenak juntatzea da, jakina:

(629) Donostiako langile eta ikasleak

Errepikatzen den osagaia izena dencan ere bi aukera dirugu, kasu-sintagmak juntatu izena eskuinekoan ezabatuz (630a) edo izenlagunak zuzenean juntatu (630b):

- (630) a. Donostiako ikasleak eta Bilbokoak  
b. Donostiako eta Bilboko ikasleak

Halakoetan, ez dirudi idazleen artean juntagai modu baten eta edo bestearen aldeko joera berezirik dagoenik. Izenaz eta izenondoaz osatutako sintagmetan, berriz, izenak errepikatzen badira, izenondoak juntatzeko joera da markatugabea (631a); kasu-sintagmak juntatzean (631b) hanpadura berezia sortzen da:

- (631) a. Bulego argi eta lasaiak nahi dituzte guztiek  
b. Bulego argiak eta lasaiak nahi dituzte guztiek

Bestalde, (631a) eta (631b) bezalakoetan bi bulego-multzoz ala bulego-multzo bakarrak ari garen, zer ulertuko genukeen, (273)-(281) adibideen harira dago azaldua.

Juntagaiak perpansak direnean, aditzaren ezabaketa nola gertatzen den aztertu dugu: aditz osoaren ezabaketa eta aditz laguntzailearena bereiziaz. Aditz osoa eskuineko juntagaiaren ezabatzea da joera nagusia; horretarako aditzoin eta aspektu bera izan behar ditugu bi perpausetan, numero eta pertsona komuntadura desberdina izan daitekeelarik:

- (632) Holakoetan zuk ura edaten duzu, eta nik ardoa

Aditza eskuinean duten adibideak askoz bakanagoak dira, eta horrelako egituretan juntagaiak perpausak diren ala bestelako unitateak, (300)-(314) adibideen inguruan eztabaidatu dugu.

Aditz laguntzailea ezabatzean, azkenik, bi jokabide ageri dira euskal literaturan: aditza ezkerreko juntagaiaren ezabatzea bereziki inendebaleko idazleen artean gertatzen da, ezkerreko aditz nagusia ia beti partizipio burutuaren forman agertuz:

- (633) horrenbeste lan egitu eta aberastuko ez duu gizakirik ez da

Aditz laguntzailea eskuineko perpaus juntatuan desagertaraztea oso zabaldua da euskalki guztietako idazleen artean. Gehienetan aditz nagusiak aspektu-marka gordetzen du:

(634) etxera joango naiz eta afari ederra prestatuko

Juntagaiak ezezko perpausak direnean, bestalde, aukera bat baino gehiago dugu euskalkien arabera laguntzailea ezabatzeko: (a) ohiko *ez* + laguntzailea hurrenkera gorde eta eskuineko perpausean laguntzailea ezabatu, hau litzateke arruntena; (b) *ez* perpaus bakoitzaren buruan ezarri eta laguntzailea ezkerreko perpausean ezabatu, eskuinekoan aditz nagusia eta laguntzailea baiezko perpausetan bezalako hurrenkeran emanez; nahiz (c) egitura beraz baliatuz—*ez* perpaus bakoitzaren buruan ezarri eta aditz laguntzailea aditz nagusiaren eskuinean— laguntzailea eskuineko perpausean ezabatu. Aukera hauetaz (329)-(343) adibideetan zehar jardun dugu.

- (635) a. Ez dut ogirik jan (eta) ez ardorik edan  
b. Ez ogirik jan (eta) ez ardorik edan dut  
c. Ez ogirik jan dut (eta) ez ardorik edan

### e. *Eta* juntagailuaren tokia

Gainerako juntagailuekin gertatzen den bezala, *eta*-ren tokia bigarren juntagaiaren aurrekoa da. Zenbaitetan, ordea, juntagai bakarraren ondoren ageri zaigu; bigarren juntagaia zehaztu nahi ez denean, zalantza dugunean nola jarraitu, edo harridura adierazteko baliatzen ditugu halako egiturak:

(636) Nor ikusi duzu kalean?  
Amona eta...

(637) Errozu eta ... ez girela eta ... nehundik jiten ahal

(638) Nola hazi zaren! Aita adinako egin zara eta!

Lehen perpaus juntagaiari atxikia denean, berriz, kausa, baldintza, denbora... adieraz dezake; lehen juntagaiari, bestalde, aditz laguntzailea isilpean uzten da behin baino gehiagotan:

(639) Bista nekatua omen du, egun osoa paper artean ematen du eta

(640) Lekukoa bizirik uzi eta, nola alde egiugo zuen bada?

Beste batzuetan *eta baita ... ere, baina ezta ... ere* esaten den neurrian, *baita* horretako *eta*-k bere benetako juntagailu balioa galdu duela esan dugu; bestela ezingo litzateke beste juntagailu baten ondoren azaldu. Badirudi bada indarzaile soil dela *eta*

orduan. Nolanahi ere, horrelako erabileretan *baita*-k beti aurreko juntagailuaren ondo-ondoan joan behar du, edo bigarren juntagaiaren buruan juntagailurik agertzen ez denean:

(641) Ez da lanbide txarra, baina ezta erraza ere

(642) Konprenitzen nauzu, baita nik ere zu

(453)-(460) adibideak bezalakoak ez dira beraz onargarriak.

Azkenik, *eta* juntagailua *ere* lokailuarekin batera erabiltzean sortzen diren *eta ... ere bai*, *eta ... ere ez*; *eta bai ... ere*, *eta ez ... ere*; *bai eta ... ere*, *ez eta ... ere*; *baita ... ere*, *ezta ... ere* moldeak nola erabili behar diren jakin nahi duenak 4. atalera jo dezake. Halaber banakari balioko *bai ...*, *eta bai ...*; *ez ... eta ez ...* egiturak 5. atalean daude aztertutak. *Eta* emendiozko esamolde izena eman diegun { *ez ezik*, *ez ezen*, *ez eze* } ... { *ere*, *baita ere*, *ere bai* } eta { *ez bakarrik* } ... { *ere*, *baita ere*, *ere bai* } egituren berri jakin nahi duenak 7. atalean aurkituko du hauen azalpena, azkenean erabilera nagusien labur bilduma ere baduclarik.

## JUNTAGAILU HAUTAKARIAK

*Edo*, *edota*, *ala*, *nahi(z)*, eta *zein* dira euskaraz juntagailu hautakariak, hau da, juntatzen dituzten perpaus edo atalen arteko hautaketa, aukera, adierazteko erabili ohi ditugunak. Gramatiketan, ordea, bi sail desberdinetan banatu izan dituzte juntagailuok: 'disjuntibo' sailean sartuaz batzuk, eta 'distributibo' izenpean besteak. Aurrerago arduratuko gara sailkapen-desberdintasun honetatik.

Bere euskaran ez ditu ordea juntagailu horiek guztiak euskaldun bakoitzak. Bestela esan, juntagailu hautakari horietatik batzuk erabiltzen dira halako euskalkitan eta beste batzuk beste euskalki batean. Juntagailu bakoitzaren mugak eta erabilera banan-banan zehaztuko dira aurrerago. Hala ere esan dezagun zenbait euskaldunentzat *edo* dela beren euskaran (sisteman) duten juntagailu hautakari bakarra. Beraz, euskaldun horiek *edo* juntagailuaz baliatzen dira osterantzeko juntagailu hautakarien balioak adierazteko. Argi dago halere denak direla euskara batuan kontuan hartu eta erabiltzekoak.

Gainera, juntagailu guztiak ez dira berdín aztertuak izan: *edo* eta *ala*-ren gainean hainbat iritzi desberdin aurkitzen da gramatiketan; gainerako juntagailuez, aldiz, ezer gutxi. Labur bilduz:

a. Gramatikari batzuek (Azkuek, Altunak, Goenagak) *ala* juntagailuaren erabilera galde-perpausari lotu diote eta *edo*-rena asertzioari.

b. Beste batzuek (Lafitek, Gèzck edo Gavelck) aukera-motaren arabera bereizi dituzte biak: *edo*-k garrantzi gutxi bereizketak edo aukerak elkartzeko balio luke, bata zein bestea aukeratu berdintsu zaiola adierazteko; *ala*-k, berriz, aurkakoak direnak juntatzeko.

c. Azkenik, Villasantek markatu / markatugabe oposizioa harizen du bereizgarritzat: *edo* juntagailu markatugabea da, *ala* markatua, aukeretatik

bakarra haru behar dela edo gauzatuko dela adierazteko erabiltzen duguna. Mitxelenak ordea, *ala* markatugabea, bakarra aukeratzera behartzen ez duena ere izan daitekeela ohartarazi zuen<sup>1</sup>.

Juntagailu bakoitzaren erabilera aztertzean ikusiko dugu zein perpaus-motatan erabiltzen diren eta zein esanahi duten. Orduan alderatu ahal izango ditugu hobeto goiko iritzi desberdinak. Oro har emendiozko juntadurako eskema berari jarraikiko gatzaizkio: zein mailatako juntagaiak elkartzen dituen juntagailu bakoitzak lehenik (1.1.1) –kasu-sintagmen juntaketak eta ardatz-anitzetako sintagmenak noiz gertatzen diren bereiziaz (1.1.2.)– eta balioa ondoren (1.2.). Izan ere emendiozko juntagailuaren kasuan garrantzi handiegirik ez zuen arren, juntagaien kategoria eta juntagailuaren balioa batera aztertzeik bakarrik atera ahal izango ditugu juntagailu bakoitzaren ezaugarri eta erabilerekuak.

Juntadura-mota honetan nolako ezabaketak gertatzen diren (1.3.) izango dugu hurrengo azterpuntua, emendiozko juntadurari eskainitako kapituluko ordenaren arabera.

Azkenik, juntagailu hautakari bakoitzaren tokiaz eta kokagune desberdinetan hartzen dituzten balioez jardungo dugu (1.4.).

## **1. EDO juntagailua**

### **1.1. Forma eta funtzioa**

#### **1.1.1. Zein mailatako osagaiak elkartzen dituen**

*Edo* da juntagailu hautakari honen forma bakarra. *Eta* emendiozko juntagailuak bezala, maila guztietako osagaiak elkartzen ditu: perpausak nahiz perpausa baino beheragokoak (izen-sintagmak, izenak, izenondoak, aditzondoak, etab.). Bi osagai

---

<sup>1</sup> Michelena apostilla: Acabo de leerme completas las *Obras Completas* de Arana Goiri, y no encuentro eso. Un ejemplo oriental de indistinción lo hallamos en *Alphonsa Rodríguez* (del bajonavarro Lopez, p. 83): *ala deçacien jan, ala edan deçacien, edo beste cer nahi eguin deçacien oro Ginfoaren gloriari daucola eguin itçacie* = «sea que comáis, sea que bebáis, o hagáis otra cosa cualquiera, hacedlo todo para la gloria de Dios» (L. Villasante, *Sintaxis de la oración compuesta*, 25 or. oinoharra).

baino gehiago ere elkar ditzake gainera emendiozko juntagailuak legez. Baina ikus dezagun astiroxeago *edo*-ren distribuzioa. Abiapuntutzat asertzio- ala galde-perpau-setan agertzen den harturik, honako bereizketak egin daitezke:

### 1.1.1.1. *Edo* adierazpen-perpau-setan

#### a. Perpau beregainak eikartzuz:

- (1) Era onetan saiutzen bagiña gure gogoetak, ta naikundeak ukatzera berenez bekatu ez diran gauzetan, kemenik gabe geratuko lirake gure griña, eta pasioak, edo beintzat erraz garaituko ginduke gauza debekatuen eske asitzean (J.B. Aguirre. (Astecasukoa) *Erakusaldiak III*, 619)
- (2) Astero egin neke bat, zelan dan barau bat, edo itxi jan baga au, edo beste kopau zalegarria, edo frutea (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 165)
- (3) Guraso batek esango baleutsa umiari: urlijagaz ezkonduen ez bazara, ez deusut aziendia emongo; edo ez deusut doterik emongo; ugazaba batek bere esan legijo otseginari, edo errenterubari: urlijagaz ezkondu biar dozu; edo, urlijagaz ezkonduen ez bazara, etxeti aterako zaitut, edo ez dozu ene etxian zer eginik izango (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikaskizunak* 3, 353)
- (4) Zomotza aldeko baserritarak ezeutsien garrauzi andirik emoten arrantzalien ondamenari, edo ezebien oraindik ezer jakingo... (D. Agirre, *Kresala*, 205)
- (5) Anjelek zeugaz ezkondu gura dau, ta laster egingo deustu eskabidea, edo, obeto esateko, oraintxe egiten deusut neuk, bere izenean (D. Agirre, *Kresala*, 191)

Emendiozko juntagailuen kapituluan ikusi dugun bezala, *edo*-k ez ditu nahitaez bi adierazpen-, galde- edo aginte-perpau juntatu behar. Dena dela, aukerak emendiozko juntaduran baino askoz urriagoak dira: juntagaiak izan daitezke aginte-perpau eta adierazpen-perpau (6), ez ordea adierazpen-perpau eta harridurazkoa (7) edo adierazpen-perpau eta galde-perpau (8):

- (6) joan korrika edo harrapatuko zaitut
- (7) \*Loreak ekarri zituen, edo ze politik!
- (8) \*Berandu etorri da edo ez al diozu ezer esan behar?

Batzuelan bi perpausen artean egon arren, ezin esan daiteke egiaz bi perpaus horiek juntatzen dituenik; lokailutzat hartuko genuke beraz:

- (9) Ezer ez geiago; edo san Pablok esaten eban legez: (...) axeari kolpeka esetsi, ta daragoiona legez, zein galanto neketuten da, baña nekea baño geiago ateretan eztau (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 139)

b. Mendeko perpaus jokatuak elkartuz, erlatibozkoak (11), baidintzazkoak (12), kausazkoak (13)... Nahi eta nahi ez sail berekoak ez dute izan behar mendeko perpausok, (10) adibidean, esaterako, kontzesiboa eta kausazkoa elkartzen ditu juntagailuak:

- (10) Bizpahiru aldiz ukitua izan den arren, edo, agian, ukitua izan delako, ezdator beti bat bere buruarekin (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 366)
- (11) Itzegiten det bada, gaitzera garamatzien, edo gaitzera amiltzeko perillean ipintzen gaituen, gure griña, ta pasio nagusienen gañean (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 628)
- (12) Orañ zerbait agindu nai baziñit, edo agertu nai zendukean gauza gorderen bat zere biotzean badaukazu, agin zadazu eta ager zadazu konfianza guziaz (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 28)
- (13) ta gogaerazoko deusagula geiago, kuarietetik belu, aldi txarrekook, ta aserraturik gatozelako, edo jokoan dirua galdu dogulako, edo lartxo edan dogulako (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 189)

c. Perpaus jokatugabeak, *-tzea* motakoak (14), *-tze*ko atzizkidunak (15), *zertan* adierazten dutenak, etah.:

- (14) Jaunaren hitza aditzea, edo apaizak eta gañerako kristauak Jainkoari bialtzen diozkaten kanta zoragarri, erregu eta eskariak aditzen egotea! (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 52)
- (15) Egizuez propositu banak ta bakarrak, irabazteko bearrago dozuen bertutea, edo azpituteko gerrarik andiena egiten deusuen bizio gaistoa (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 65)
- (16) ikhusten zutenean Zugarramurdiko arthalde bat mugaz alde huntara alhatzen, edo soilki mugarat hurbiltzen, hek ere inguratzen ziteian berehala arthalde hori eta ekhartzen Sarako plazara (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 73)



d. Perpausa baino beheragoko kategoriak elkartuz: juntagaiak izan daitezke kasu-sintagmak (17), partizipioak (18) nahiz izen-sintagmaren barneko osagaiak (19)–(21)

- (17) Zure idoloa da neskatzakiñ, edo mutillakiñ enaskerian ibilli nai ori (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 632)
- (18) Txit nekez miñanze au sendatzen da; sendatzeko alabaña, kendu, edo desegiñ bear lirake imajinazioan ezarririk dauden antz, eta imajiña loiak, eta aen lekuan ipiñi Jesus gurutzefikatua, infernuko penak, edo beste onelako gauzen imajiñak (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 627)
- (19) hainbertze gizon makur edo ahulen artetik zenbeit agertu baitire, hau bezala, eta hau bezen bat nehor guti, zinezko-gizon (J. Hiriar-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 153)
- (20) Hori da, aire edo doñu aunitzen ezagutzea, eta heietarik, erabili behar duzun gaiari dohakonaren hautatzen jakitea (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 64)
- (21) Hango edo hemengo eliza zaharraren berritzeko zenbeit diru pozi ardietsi badu ere bere kidekoenganik (J. Hiriar-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 143)

Izen sintagmaren barneko osagaiak juntatzen dira ondoko adibideetan ere: izen elkartuko mugatzaileak (22)–(23) edo zenbatzaile mugatuak (24)–(27):

- (22) eta erriko eta ingurumaiko elizetan puskatzeko zorian jotzen zituzten ezkill edo kanpai-soñuak (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 119)
- (23) Ez dinot, gaiski egina dala, praile edo monja gei bati juakonak esatia: ondo pensau dagijala, zer egitera doian (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasiki-zunak*, 329)
- (24) Egun bi edo iruan beti joanta, topatuko dezu erribera andi, zabal eder bat, non asko milla gizon bizi baitiran (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 70)
- (25) Bihotz onez obeditu nahi ez badu, lau edo bortz gizonek makhila mehetto batekin, eman dezotela zurra aldi bat ona, eta ikhusiko duzu nola sendatuko duen eria! (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 61)
- (26) Bermeokoak berrogetak, Elantxobekoak amalau edo amabost, Lekeitiokoak ezekien zenbat... (D. Agirre, *Kresala*, 202)

- (27) orai duela hogoi-la zortzi edo bederatzi urte, hantxet, Lurden, eskualdun beilari andana batekin aldizkatuz emaiten kantika eder hori (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 164)

*Eta* juntagailua aztertzean ikusi bezala, hemen ere junta gaiek maila eta kategoria berekoak izan beharko dute, nahiz osagai batek posposizioa eta besteak kasu-marka eraman:

- (28) Ezta gutiago egia, jaun harek eta hura idurikoek, leherra baitire, azkarki gogoia eskuara huntaz hartua dutenak, badutela dakizuen gazte batzuen eite, zuen barkamenduarekin, samurrean zer ari ziren jakin gabe, *edo gaixtakeriaz, edo jostatzeko*, su eman berek edo utzi lagunak emaiterat, auzo edo beren etxe ezkina bati, eta gero ... garra gainez gain doaia ... izituak, oro suntsitu behar ote diren! (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 197)

### 1.1.1.2. *Edo* galde-perpauzetan

#### a. Perpau beregainak elkartuz:

- (29) Badakizu, edo jakin nai dezu nola? (J.B. Aguirre, (Asteasukoa) *Erakusaldiak III*, 620)
- (30) utzi al nau irugarren tentaera onek, edo utzi al nazake bizi guzian? (N. Ormaechea "Orixe", *Aitorkizunak*, 291 or.)
- (31) Egia da, edo ez, edo ta nik ames egin ote del? (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 143)

#### b. Mendeko galde-perpauak, hau da zehar-galderak, elkartuz:

- (32) Ez dakit eman behar nukenez suete txarraren kondura / edo nihaurek tentatzen dutan delako suete txar hura (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 320)
- (33) Galdezka hasten bazaut nehoiz kanpotarra / nongo semea naizen edo nongo-tarra, / goraki erraiten dut: "ni urepeldarra!!" (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 107)

c. Juntagaiak perpaus beregainak ez direnean, galdegai ez diren juntagaiak berezi behar dira batetik:

- (34) Zer, guraso onen umia izanak, edo gauzia eukijak, bere ezkongeiya, bere laguna, beragaz bizi biar dabena, bere gustokua ez bada? (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 356)
- (35) Nor, Jaunagandik, edo lagun urkoagandik datozkigun gurutzeak ongi artzen, ta biotz prestuarekin daramazkiana? (J.B. Aguirre, (Asteasukoa) *Erakusaldiak III*, 618)
- (36) Nor zeñatu, ta miraritu da iños, ikustea gaitik, lurrean jausten ume txiki bat, edo austen bideriozko ontzi argal me bat? (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 113)
- (37) Pachekok errepusta: nola senda dezaket nik erregeren alaba edo bertzerik ere, mirikua ez naizenaz geroztik? (J.B. Eliissanburu, *Piarres Adame*, 62)
- (38) Zer dauka orrek zer ikusi ezkontuteko edo ezkongai egoteko? (D. Agirre, *Kresala*, 122)

d. Bestetik, galdegai diren juntagaien artean, bi azpimultzo ditugu. Batean, galde-hitzak elkartuz aurkituko dugu *edo*:

- (39) Noiz edo non da oker, lainkoa biotz osoz, gogo osoz, asmo osoz maitatzea, ta lagun urkoa norbera bezaia? (N. Ormaechea, "Orixe", *Aitorkizunak*, 66 or.)
- (40) Nos, edo zelan oneek alkar estimatuko dabee, ta amauko dabee, ezkontzako sakramentu santubak aginduten deutseen moduban? (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 356)
- (41) Noren asmutik edo nondik zaio heldu? (F. Aire "Xalbador", *Ezin bertzean*, 49)
- (42) Ta nondik edo zegaitik etenda Antonigazkoa? (D. Agirre, *Kresala*, 192)
- (43) Erregu zaiezu gizonai, eraman zaitzate la beragana; baña zu zeñ edo nor zeran iñori ere ez esan (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 74)

e. Beste multzoan, *edo*-k bestelako galdegaiak juntatzen dituen adibideak

sartuko ditugu; hots, *zer, nor, noiz* etab. bezalako galde-hitzet osatuak ez daudenak:

- (44) Musturzulotik sardiña batzukaz lenengo agertu zan emakumetxoari errira sartu baño be lenago, erruduna edo errugabea zan jakinbarik, asi jakon Tramana deadarka (D. Agirre, *Kresala*, 170)
- (45) nor da gutan dakienik zoinck zaituen maitenik, zure amattok edo nik? (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 99)

Arruek egitura berezia erabiltzen du zehar-galdera batean galdegai diren juntagaiak elkartzerakoan: "x ote edo y", aditza ondoren doalarik:

- (46) Au kondearentzat bere buruaren gañera tximista bat erortzea bezela zan; etzekin alabaña amesetan ote edo esna zegoan (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 102)
- (47) Kondeak bere utsegiña aitortu zuen; baña errua bere esposa Jenobebak ote, edo bere serbitzari Golok zuen, oraindik zalantzan zegoan (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 91)

### 1.1.1.3. Egindako esapideak

Behin baino gehiagotan *edo*-k ez ditu egiazko juntagaiak elkartzen, egitura osoa egindako esapidca haita: *noiz edo behin, noiz edo noiz, inoiz edo berriz, bat edo beste* (zenbatzaile nahiz izenordain gisa), *nondik edo handik, behin edo behin, gutxi edo gehiago, sast edo sist, zirt edo zart, gaur edo bihar* ("egunen batean, noizbait" esateko), *zer edo zer, behin edo berriz...*

- (48) Nafarroa Beherea aipatzen da noiz edo behin zenbait lekutan, behar bezain maiz ez bada ere (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 384)
- (49) Eta asko baratza-zai batek belar gaiztoak beñ, edo berriz jorman ebakitzea: beti kontuan egon bear du, ta jorraia sarritan erabili (J.B. Aguirre, (Asteasukoa) *Erakusaldiak III*, 633)
- (50) Karismadunen artean bizi direlarik beti, karisma apurren bat lonu nahi lukete, nondik edo handik (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 374)

- (51) Ohartzen bazira zure sakelan, sast edo sist, sartzera doakizula esku arrotz bat, etzira luzaz egoiten zure baitan gogoeta (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 205)
- (52) Izan zaitte noiz edo noiz zere aserre orren jabe (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 91)
- (53) Ikus arte, laguna, etzaitut ahanzi, hel bekizu niganik zerurat goraintzi; zur'ondoan jartzerat bertzerik ez utzi, ni horrarako bainaiz bihar edo etzi (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 128)

### 1.1.2. Izen-sintagmaren barneko osagaien juntaketak eta izen-sintagmenak: noiz bata eta noiz bestea

Funtsean emendiozko juntaduran ikusi ditugun jokabide nagusi berak aurkitzen ditugu hemen ere: kasu-sintagmak beti junta daitezke, bai singularreko bai pluraleko direnean; ardatz anitzetako izen-sintagmak ostera pluralekoelan anrki daitezke batik bat. Eta hauetan ere kasu-sintagmak juntatzeko joera nabarmena da:

- (54) Bestetik, ez zuen behinere menderatu hizkuntza, ez diot Axularrek, Mendiburuk, Agirrek edo Prai Bartolomek bezala, ezta humilago diren Duvoisinek, Lardizabalek edo Uriariek adinean ere (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 351)
- (55) Badijoa Rakelen gelara, edo estalpera, ta Rakelek ezkututzen ditu idoloak gameluen txalmapean, ta esertzen da gañean (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Era-kusaldiak III*, 631)
- (56) Baina, zer balijo deutsa zeure semiari edo alabari, zeure otseginari, edo errenterubari, zuk emon deutzazun ezkongeiaren odol garbijak, ezkongei ja bera ikusi ezin badau? (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak 3*, 356)
- (57) Odyssean, izan ere, itsaso goldatu-gabean barrera zabaltzen diren bide bustiak eta urak inguratzen dituen lurralde izkutuak izaki beldurgarriak josiak dande oraindik, haur-ametsetan edo haur-ipninetan bezalaxe (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 323)
- (58) Ez Patxi ta ez Peru etzituan urian inok ezagutzen, jauntxoren batek izan ezik; baña erritar bakotxak beren etxean, beren txalopan edo ardatzegi baztarrean zerbait entzunda beste barik, goizetik gabera gelditu ziran gizon da emakume guztiak Patxiren edo Peruren alde (D. Agirre, *Kresala*, 172)

- (59) onetarako Mariaren laudorio edo alabanzen gañean eskribitu zuten jakintsuen esacerak bilduta idukiaz (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 172)
- (60) Bakhotxak hatsa ere doi-doi hartzen zian, beldurrez den mendren harrabotsa eginez, huts egin-araz ezan nik egiten dituen piko edo haizturretarik bat (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 71)

Jokabide orokorraren salbuespenak zein diren aztertzean, izen sinonimoen juntaketa aipatu behar da lehenik. Izan ere, sinonimoen edo oso antzeko esanahia duten izenen artean gertatzen da batik bat ardatz anitzetako sintagmen juntaketa, bai singularrean eta bai pluralean ere. Goiko (59) adibidearen ondoan hor ditugu beste hauek ere:

- (61) oroimen-galtze edo amnesiarik gabe lasai geldi gintezkeen behingoz behintzat (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 324)
- (62) erantzun zion Jakobek: zure idolo edo jainkoakiñ zuk arkitzen dezun edozeñi, kendu bekio guztien aurrean bizia (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 631)
- (63) Esango dozuc neke egiten dala, alako gogarte edo konsideraziñoak betibere egitea (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 127)
- (64) emok hunako eskutitz hau, eskutik-eskura, fraiden aita edo jeneralari, aditu nauk ongi Mattin? (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 82)
- (65) erantzueutsien gurasoai ezeiela gaixotegi edo txiro-ctxera joateko bildurrik euki (D. Agirre, *Kresala*, 164)

Dena den sinonimoak izan arren, kasu-sintagmak ere elkar daitezke:

- (66) Angeruzko garbitasuna edo kastidatea (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 171)
- (67) denbora eta leku guztietan bere babesean edo anparopean gaude (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 13)
- (68) Laugarrenian: ezkontzia egin ezkeru, ez dabee ezkongejak, edo nobijo nobijak etxe baten egon biar (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak*, 336)

batez ere erabateko sinonimoak ez, baina oso antzeko kontzeptuak adierazten dituzten sintagmak juntatzen dituenen *edo*-k:

- (69) Hauek, enetzat, pertsu idazleak edo kantu egileak dira, eta zonbaitek deitzen dituzte olerkariak (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 66)

Bigarrenik, emendiozko juntaduran bezalaxe, zenbatzailereren bat edo erakuslea izateak izenen juntaketa errazten du; orobat izenlagunak:

- (70) Bere inguru guzira arbola-zulo edo arkaitzarte baten billan begiratzen zuen (G. Arrue, *Santa Jenohcha*, 42)
- (71) Seme, edo alaba batek artuten badau asmo santuba praile edo monja izateko, edo Jaungoikua serbiduteko, bizi-era obago bat artuteko (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak*, 329)
- (72) Laugarrenian: pensau biar dogu, ez daguala gizon, edo emakume bakotxarentzat nai, ta nai ez ezkontuteko legerik (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 324)
- (73) Erantzun zion Jakobek: zure idolo edo Jainkoakiñ zuk arkitzen dezun edozeñi, kendu bekio guztien aurrean bizia (J.B. Aguirre, (Asteasukoa) *Erakusaldiak III*, 631)

Posposiziodun sintagmetan ere emendiozko juntaduran bezalako jokabideak ikus ditzakegu; posposizio-sintagmak izan daitezke juntagaiak:

- (74) Baita inoren ederra gaiti, edo enpeinuba gaiti egiten dirianak bere (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 353)
- (75) Munduko craak gaiti, aragijaren engainubak gaiti, etsaijaren eskini paltsuak gaiti, edo inoren erregubak gaiti artuten da norberari ez jagokan estaduba (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 320)

eta bai posposizioak eskatzen duen atzikia daramaten sintagmak ere:

- (76) ez zaitezalainos ezkondu inoren enpeinuba, erreguba, edo ederra gaiti, zeuben gogoko ez dan lagunagaz (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak*, 356)
- (77) Jaungoikuak umiai emondako eskubide onen kontra da, gurasuak, nai beste edozeinek, euren aparteko irabazija gaiti, enpeinuba, edo temia gaiti, eurak derixuenagaz, edo euren ederrekuagaz, inor ezkontzera ekartia, aren gogokua ez dana, ezautu arren (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 355)

- (78) Ez zaizala diabrubak inos engainau, zeuben irabazija, edo munduko ustezko era ona gaiti umia ez jagokan, ta atzera pena daukan estaduban imintera (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 321)

(76)-(78) adibideetan, juntagaiak sintagma absolutiboak dira, hauxe baita-*ga-tik* posposizioaren erregimenetako bat.

## 1.2. Balioa

*Edo* juntagailuaren forma eta funtzioa aztertzean egin dugun sailkapena hartuko dugu ardatz juntagailu honen balioaz aritzean ere.

### 1.2.1. *Edo* adierazpen-perpausetan

#### a. Aukera balioa

Zenbaitetan egiazko aukera adierazteko baliatzen dugu *edo*; hau da, bata edo bestea izan behar du:

- (79) Hori edo bere burua hiltzea (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 336)
- (80) Estaduko uts egitiak erabagiten dau geijenian geure zerurako, edo inperurako bidia (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 320)
- (81) hunek dio bere liburu ederretarik batean behialako batez treina hartu zuela Parisen, edo urrunago, biziki urrun (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 206)
- (82) Joko huntan lau molde dezazkegu ikus: esku larruz, xixteraz, palaz edo eskuz; iduriz bereziak jokatzeko moduz, baina denak arima ber beraren gorputz (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 283)
- (83) Nolanahi ez kantatu doiñu txarrean edo egokia ez dencan, egileak berak erraten digun bezala (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 20)
- (84) Aita itxasotik eldu zanean, illuntxo billatu zituan ama-semeak, eta bere itaunei "bai" edo "ez" besterik erantzuten ezeutsiela (D. Agirre, *Kresala*, 110)



Ondoko adibidean bezala, aginte-perpauak ere izan daitezke juntagai:

- (85) enago gauz andien eske; baña edolabere auxe egizue: itxi jan бага gauza zalegarriren bat, edo laburtu afaria (P.A. Añibarro, *Lora sorta* 58)

### b. 'Orobatasuna' adieraziz

Juntagailuaren bidez elkartzen diren aukeren artean hiztunarentzat ez dagoela desberdintasun handiegirik, berdintsu edo orobat zaiola bata nahiz bestea litzateke ondoko adibideotan *edo*-k hartzen duen balioa. Juntagaiak, berriz, perpaus jokatuga-beak edo perpausa baino txikiagoak diren kategoriak izan ohi dira:

- (86) Ez naiz ni noski bakarra liburua berehala baztertzen duena, polizi-sail horretan, egilearen izena Gómez, Pérez edo gisa horretakoa dela ikusi orduko (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 359)
- (87) Sor-herriari, bihotzez edo buruz, nolazpeit, azkenean zangoz bederen atxikiak direnek badaukate beren herritarrekin (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 173)
- (88) Ta gatzbagekoa izanagaitik autua, edo berakatza, edo porrua, edo kipulea, baeban zerbait, bada mutillak geroago ta geldiago igoten zituan mallak, eta azkenerako, Mañasiri aurrez aurre begira, atsedean andiak egiten ebazan malla bakotxean (D. Agirre, *Kresala*, 104)
- (89) Zernahi dela basurdea zen, sanoa edo heria (F. Aire "Xalbador", *Ezin bertzean*, 117)
- (90) Horren egitea edo norbaiten jo buruan eta botatzca dituenen ekentzeko, berdintsu zaut eni (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 172)

Villasantek dioena («*edo* es un término indiferenciado: sirve para expresar la idea disyuntiva, pero también la de equivalencia u otras zonas intermedias indiferenciadas») eta oro har 'conjunción disyuntiva' / 'conjunción distributiva' bereizketa balio-desberdintasun honek esplikatuko luke. 'Aukera' balioa adierazten duten juntagailu hautakariak sartuko lirateke "disyuntivo" deiturapean, eta 'orobatasuna' adierazten dutenei esan zaie "distributivo".

Badirudi gainera 'orobatasun' balio hau ez dagoela hautakizuna osatzen duten atalak galdegai edo mintzagai izatearen baitan. Ikus ondoko adibideak, non *edo*-k elkartzan dituen osagaiak galdegai liratekeen:

- (91) Zuen semea izan ditake mediku edo notari Eskual-herrian (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 208)
- (92) prefetaren gogoia, egiaz edo gezurrez, nolazpeit hatzemana zuketelakotz (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 138)

(91) adibidean *mediku edo notari* galdegaitzat hartuko genuke; adierazpen-perpau-  
sa den neurrian normala da *edo* agertzea. Baina aldi berean 'berdintsu izatea'  
adierazten duela dirudi, 'mediku' edo 'notari' edo antzeko beste zerbaiz.

Juntagaiak antonimoak direnean ere bat edo bestea berdintsu zaiola adieraz dezake  
hiztunak *edo* juntagailuaz. Goiko (92) adibideaz gain ikus beste hauek ere:

- (93) Biharamunean, izan ninduan, eskolara guateko ordean, bipher egitekotan ere,  
bainan, goizxago edo berantxago, berdin atzamana izanen nintzelakoan, guan  
ninduan halere eskolara (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 47)
- (94) Egia da hurbildik edo urrundik Piarres Adame ikhusten zuena ohartzan zela  
berehala gauza batez (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 8)

Nahikoa arrunta da adierazpen-perpauetan ekintza bat gertatu edo ez gertatu  
berdintsu zaigula adierazteko "x *edo* ez" adierazpidea:

- (95) Gañera nai edo ez eraman bear ziozkagu onen begiak, hill degula, sinisterazi-  
tzeko (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 38)

Balio bera adierazteko *gura ta gurez*, *gura nai gurez* (377), *gura zein gurez*, *nahi  
ala ez* ere aurkitzen ditugu.

Orobatasun balioa atzeman daiteke bigarren juntagaia "horrelako", "gisa horreta-  
ko", "nolazpeit", "bertzela"... denean; orduan badirudi *edo* dela ager daitekeen  
juntagailu bakarra (ez pareko balioan ikusiko ditugun *ala*, *nahiz*, *zein*):

- (96) Indianoak judioa edo olangoa izan bieban (D. Agirre, *Kresatu*, 188)
- (97) Bainan, suertez edo bertzela, ez ginuen ikhusi arima bat agertzen ez kanpora  
ez eta ere leihotara (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 31)

- (98) Hasi zen jendea guri dei egiten, herriko bestak zirela edo tobera edo zerbait holako zela (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 21)
- (99) Hamairu zokoetan ez gorde nehola, zikint beldurrez edo nik dakita nola; etzaio zikinduko dakarren eskola, kez beltzaturik ere ez izan axola, sukaldeko solasen guardian dagola (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 21)
- (100) Hil-hurran edo hola hirirat ereman dutela dugu azken berria, suprefetaren etxerat (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 140)

### c. Bigarren juntagaia lehenaren aldaera

Zenbaitetan badirudi bigarren juntagaiak lehenean adierazi dena zerbait zehazteko, beste ikuspuntu bat adierazteko... balio duela; lehen aukeraren aldaeratzat edo hartuko genuke bigarrena. Horrelakoak adierazteko *edo* juntagailuaren ondoren eta bigarrean juntagaiaren aurretik "nahi badezu", "bederen", "behintzat", "berdin dena"... bezalakoak tartekatzen dira behin baino gehiagotan. *Behintzat* eta *bederen* lokailuek duten balio murriztailea (ik. *EGLU III* 64 e.h.) eransten zaio halakoetan lehen juntagaian esandakoari:

- (101) Ez zaio nonbait iruditzen legeak ongi jarriak daudenik edo, hobeto esan, ez zaio iruditzen legearen zigorra behar bezala dantzatzen denik (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 320)
- (102) Dardarak ez gintuen artean ukitu edo, ukitu bagintuen ere, begi-belarri emeak eta arima urduria behar ziren zirrara sumatzeko (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 301)
- (103) Omen zion eritasunak baino jende gehiago zeremala beldurrak, izialdurak, edo bederen askori eritasuna izialdurak lot-arazten ziotela (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 162)
- (104) Bakarrik esango deusut, guztiok jakin biar dozuna, edo jakitia ondo dana, eleisiaren ordenetati, ta guraso santuben erakutsiti urten bagarik (B. Madariaga "Fray Bartolome" *Ikasikizunak* 3, 364)
- (105) Amesetan ikusitako gizonak ezira lurtean bizi, edo ezira beintzat etorten gure billa (D. Agirre, *Kresala*, 161)

- (106) Bata eta bestea, gainera, ezinegonak, edo hobeto esan larminak, darabiltza (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 334)
- (107) Ez zion honi agian Jainko-maitasunak gehiegi eragingo, baina bai Jainko-begiramenak edo, garbiago esateko, Jainko-beldurrak (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 324)
- (108) Neure etxeoandreak daukazanak langoa ia, edo ia barik (D. Agirre, *Kresala*, 166)
- (109) Alacre bekatu oek, edo beintzat oen ama izan oi da guztiz ezkutatua, estalia, ta kolore ederrakin apaindua (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 609)
- (110) Zugarramurdiko fraidek eraman edo eraman arazi dituzte beren komentura gure berrehun ardiak, beren ahariekin, mugarriz hunatako alban ziren lekhu-tik (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 75)

Modu berean, balio hau da ageri dena *edo* juntagailuak esanahiaren aldetik diferentzia handiegirik ez duten osagaiak elkartzen dituenean:

- (111) Gauza txikietan, ta egun oro, edo sarritan gertatzen zaizkigunetan ukatzen badegu gure gogo (...) txarra, erraz gero garaitzen da gauz andietan (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 618)
- (112) Janaria osasuntsuenak, ondo egosten ezpada, on gitxi edo bapere egiten ezteutso jaten dabenari (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 61)
- (113) Erri au, beste edozeñ añakoa edo ohea da (D. Agirre, *Kresala*, 217)
- (114) ikhusten diat elizako atxean nere hegineko edo handixagoko haur multxo bat, liburu tiki batzuek eskuetan, sos galdetzen hari direla mezara heldu diren jenderi (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 19)
- (115) Iru gauza oneek txito dira zer egin andikuak, ta ezkonduhari entero asko, edo guztia balijo deuteenak (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak*, 331)
- (116) Da gertatzen diran gaiztakeria guztien, edo geienen sutegia (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 614)
- (117) Eskual-Herri betean, asko etxetarik haizartua eskuara; utzia, edo utzixea, kasik oharu gabe, edo bederen axolarik gabe (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 216)

Beste batzuetan *edo*, *bestela* lokailuaren laguntzan erabiltzen da, honek duen baldintza kutsua erantsiaz; lehen juntagaien adierazten dena gauzatzen ez bada, bigarrenak adierazten duena gertatuko da (ik. *EGLU III*, 80 e.h.):

- (118) Gaizo otsoak nai duelarik ez da, ez, gero asetzen, edo bertzenaz orai den baino gizenago izanen zen (F. Aire "Xalbador", *Ezin bertzean*, 95)
- (119) Neholaz ere zuentzat onik hortik datorren banago, alda soinuak ihardesten du gaur deusek baino barnago; zuentzat ere jo dezake ta orduan denak akabo, edo bertzela, fede izpi bat zuetan baldin badago, biek higatu behar duzue gaur erran hitzen esklabo, gaur erran hitzen esklabo (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 321)

Ez da beti gainera beharrezko *bestela/bertzela* lokailua azaltzea. Beste adibide hauek ere (118) eta (119)-koen pareko ditugu:

- (120) Gurutzefika zezala Jesus, edo, Erromako enperadoreak jakinen zituela haren berriak. (B. Joannategui, *Sainduen bisitza*, 29)

halakoa da hemen ostera jasotzen dugun (6) ere:

- (6) joan korrika edo harrapatuko zaitut

Lehen juntagaiak adierazten duenari buruzko balio murriztailea edo baldintzazkoa *edo* juntagailuarena bakarrik dela dirudi eta gainerako juntagailu hautakariak ez dutela lekurik. Gainera *edo*-k perpaus jokatuak elkartzen dituenen hau litzateke balio nagusia. Hala ere ondoko adibideetan perpausak elkaru arren ez al da aukeren arteko antzekotasuna azpimarratzen?

- (121) Eskual-herrian baino araz behar gehiago ikusiz, edo galde gehiago zuelakotz, noiz nahi Landesetako zoko batzuetaraino bazoan predikatzerat (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 148)
- (122) Urtego eguncan barriz agertu zan Arranondora Lekuitoko andre zar bat, eta oni, zarra zalako, edo besteari egiñikoa naikoatzat artu ebielako, imiñerdi baba zuri ta urdai zati bat emoeutsien (D. Agirre, *Kresala*, 171)

Badirudi *edo*-k elkartzen dituen juntagai horiek aukeren arteko batzuk besterik ez direla; aipatzen direnengatik, "edo beste arrazoiren batengatik" bezalako zerbait eman nahi dela aditzera.

Askotan ez da erraza izaten 'orobatasuna' ala hiztunak diferentetzat dituen aukerak, bat edo bestea hautatu axola zaizkionak alegia adierazten dituen jakitea. Horrelakoetan ikusten da ongien *edo* juntagailuaren "markatugabetasuna". Azken batean Villasanteren "término indiferenciado" ikusi ditugun balioetatik edozein, modu markatugabea adierazteko juntagailua da:

- (123) Badateke, gizon eskergabea, zuri pestak egiten dizkitzun txakurtxo batek, edo graziren bat daukan aur batek zure lege eta gogoa irabaztea, eia amodio azkengabeaz maite zaituen Jesukristori eranzun bear eztiuzula? (G. Arrue, *Maitetzeko illa*, 135)

"lege eta gogoa" gauza edo pertsona askok irabaz diezazuketenez, aukera horietatik batzuk aipatzen dira besterik gabe.

Goiko horien antzeko balioa aurkitzen diegu ondoko adibideei ere:

- (124) baldin zure anajea, edo arrebea arkietan badira billosik, ta goseak-illik... (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 176)

non ez den zehazten idazleak esan nahi digun bilosik "anaia" ala "arreba" aurkitzen den berdin zaiola ala "anaia edo arrebea edo beste norbait" moduan ulertu behar den. Ondoko adibideetan ere zaila da esatea *edo*-k 'aukera' ala 'orobatasuna' adierazten duen:

- (125) Bigarrenian: ez deutseela elisiak, edo aita santu Erromakuak kenduten senidiai, oidanez, ezkondu ezina, aparteko, ta atarako duinako preminia bagarik (B. Madariaga "Fray Bartolome" *Ikasikizunak* 3, 364)
- (126) Baña gauzeari irauin eragiten edo diruari ondo begiratuten Arranondoko emakume zintzoari eruangot deusarik ezta iñun jaio (D. Agirre, *Krësala*, 131)
- (127) Kantatu izan diot Euskal-Herriari edo gure hizkuntza dohakabeari; gaur, Urepele, zuri hasten naiz kantari, zu baitan munduratu naizenaren sari (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 107)
- (128) Dudarik batere gabe, rima errexki bilatze horrek uzten diotelakotz, bertze egin beharrez arta hartzeko, denbora edo askatasuna (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 60)

### 1.2.2. *Edo* galde-perpasean

*Edo*-k galde-perpasetan duen distribuzioa gogoan izanik (ik. 1.1.1.2. puntua), juntagailu hautakari hau da ageri den bakarra bi galdera desberdin (eta ez galdera beraren bi aukera) elkartzeko. Honelakoak dira:

- a. *edo* galde-perpase beregain desberdinak elkartuz ageri den (29) eta (30) adibideak. Bi adibide hauek zehazkiago aztertuaz, ordea, ohartzen gara (29)-koak duen baldintza-kutsuaz, “ez badakizu, jakin nahi duzu nola?”. Gainera ez da egiazko galdera, zerbait adierazteko, azaltzeko modu erretorikoa baino. (30) adibidean, osteraz, perpase bakoitzak du bere galdera eta hemen ere juntaturak baldintza-kutsua hartzen du (“utzi ez banau, utzi al nazake?”). Bietan, gainera, bigarren juntagaiak lehena zehazten du; ez du lehen juntagaiaren pareko beste aukera adierazten.
- b. bi galde-hitz elkartzen dituenak: (39)-(43)

Modu berean, galde-perpasean, galdegai ez diren atalak elkartzeko (34)-(38) *edo* aurkituko dugu.

Galdera bakarraren bi aukera juntatzen ditu, aldiz, *edo*-k (32)-(33) eta (46)-(47) adibideetan. *Ala* juntagailua ere erabiltzen da halakoetan. Ikus B. Madariaga “Fray Bartolome”ren ondoko adibidea, non *ala* eta *edo* jarraian ageri diren galde-perpaseak juntatuaz:

- (129) Ez dau inok penseetan, ezkontzia egin biar danian, jazo txarrekoa, ala ona izateko bidia daroian, edo ez (B. Madariaga “Fray Bartolome”, *Ikasikizunak*, 329)

Ikus, azkenik, ondoko bi adibideok non adierazpen-perpasea eta galde-perpasea juntatzen dituen *edo*-k, bigarren juntagaiak diskurtsoaren harian idazleari sortu zaion zalantza adierazteko edo balio duela:

- (130) Egia duk Olhetako eta hauzo-herrietako kukuso eta zimitz guziak nere ohera deithuak eta bilduak zituztela (...) dudarik gabe nere erne egon arazteko, edo, behar-bada, nere irets-arazteko? (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 68)
- (131) Iriarte ixildu zenetik, Matin izan da ene ardureneko laguna, edo kontrarioa? (F. Aire “Xalbador”, *Odolaren mintzoa*, 49)

### 1.2.3. Sinonimoak elkartzuz

Sinonimo edo baliokideak elkartzen ditu ondoko adibideetan:

- (132) Izenak izen, baduela zer ikusirik, laugarren, indargabetze horrek Baxenabarrak edo Nafarroa Behereak Lapurdiren aldean, jendez eta eremuz, orain duen nagusitasunarekin (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 380)
- (133) Baderitzat, kristaua, esan dedanarekin ezagutu dezakezula, zer dan griña, edo pasio nagusia esaten dioguna (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 627)
- (134) Olabide ez zela zinetako eta benetako euskaraz ari, saio euskara edo euskara experimental batean baino (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 347)
- (135) Gerokoak arrituten dau: aurrez aur ifinten jako betirauna, edo etemidadea; eta eztaki gertatuko jakonez zerua, ala infernua (P.A. Añibarro, *Esku-liburuak*, 26)
- (136) bere bizi guztian garbitasun edo kastidadea gordetzeko boto edo promesa egiñaz (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 199)

Izenondo sinonimoak ere elkar ditzake:

- (137) ta alan kastigetean badau edozein pekatu ilgarri, edo mortal; zelan begiratuko deutsa, ezkontuteko egiten dan pekatubari? (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak*, 362)
- (138) onetarako baraurik, ta bekatu larri, edo mortal gabe allegatu bear degula (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 589)

### 1.2.4. Zenbatzaileak elkartzuz

Bi zenbatzaile mugatu elkartzen dituenean ((24)-(27) adibideak) "gutxi gora-behera" balioa hartzen du *edo*-k. Kopuru zehatzik ez dakigula baina inguru horretan dabilela adierazten dugu. Balio horretarako ere *edo* da erabiltzen den juntagailu hautakari bakarra.



### 1.3. Ezabaketak

Solasaren harian alde zurretik aipatu duguna isilpean uzteko joera orokorretik abiatuz, honako xehetasunak eman daitezke hautakaritzako juntaduran gertatzen diren ezabaketez.

#### 1.3.1. Juntagaiak kasu-sintagmak direnean

*Eta* emendiozko juntagailua aztertzean ikusi dugun jokabide bera atzematen dugu hemen ere: bi kasu-sintagma elkartzen ditugunean, izenlagunak edo izenak errepikatzen badira, ezabatu egingo ditugu eskuineko juntagaiari:

- (139) Hemen naukazue, beraz, gogo onean edo txarrean etorria, zernahitarako gertu (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 309)
- (140) Badijoa Rakelen gelara edo estalpera, ta Rakelek ezkututzen ditu idoloak gameluen txalmapean (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 631)
- (141) Iriarte ixildu zenetik. Martin izan da ene ardureneko laguna, edo kontrarioa? (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 49)
- (142) Nolanahi ez kantatu doiñu txarrean edo egokia ez denean, egileak berak erraten digun bezala (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 20)

*Eta eta edo* juntagailuen jokabidea ez da, ordea, zeharo berdina. Emendiozko juntaduran, izenondoak zuzenean juntatzea dela joera markatugabea esan dugu; eta izen-sintagmak juntatuaz (bigarrenen errepikatzen den izena isilpean utzirik, noski) indar berezia hartzen duela halako egiturak. Honako bikote hau ipini dugu adibide:

- (143) a. Bulego argi eta lasaia nahi dituzte guztiek  
b. Bulego argiak eta lasaia nahi dituzte guztiek

*Edo* juntagailuarekin esanahi bera edo oso antzekoa duten izenondoen arteko juntaketa da ohikoena (ohar gaitezen (144) adibidean, ondarkian *-en* superlatibo marka ere badagoela, bi izenondoei, *andi eta printzipal*-i dagokiena):

- (144) Erantzungo dizuet, ezen onek dakartzien gertakaririk andi edo printzipalenak guziz egiazkoak dirala (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 4)

Hortik kanpo joera nagusia kasu-sintagmak juntatu eta izena edo izenlaguna eskuineko sintagman isilpean uztea da (139) eta (142) adibideek erakusten duten bezala.

### **1.3.2. Juntagaiak perpausak direnean: aditzaren ezabaketa**

Emendiozko juntaduran bezala, juntagailu hautakariak aztertzean ere honako kasuok bereiz daitezke:

#### **1.3.2.1. Aditz osoa eskas denean**

Juntatzen diren bi perpausetan aditza oso-osorik errepikatzen bada, ezabaketako arau orokorraren arabera, eskuineko perpauskoa uzten dugu gehienetan isilpean.

- (145) Peruk, inolaz ere, beste hariko ezpala dirudi edo gutxienez behintzat ukamen bidean aurrerago joana (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 335)
- (146) batzuetan etxean gelditzen zan, besteetan plazara joaten zan, edo soroak ekustera (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 596)

Modu berean jokutzen dugu juntatzen ditugun bi perpausen arteko desberdintasun bakarra *bai* edo *ez* denean, hau da adierazten den ekintzaren baieztapena edo ukazioa. Ohart gaitezen, dena den, (147) adibidean bigarren perpausuan aditz laguntzailea gorde dela, (*ez*)*pagara*:

- (147) Alan bada, ezkara ibilli bear umeak legez pensetan, azten bagara, edo ezpagara, ezpada pazienziatz diardu ta erago beti lan santu oni (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 141)
- (148) Zaldi bat etxera ekarri biar bada, asto bat, idi bat, edo kriadu bat etxera ekarri biar bada, itanduten da, ta jakiten da kontu andijagaz zelakuak dirian, ta paltarik dauken, *edo ez* (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 333)

Askoz bakanagoak dira aditza eskuineko juntagaien daramatenak:

- (149) Eta mutilak gogoko duen neska, edo neskak mutila ikusten duenean (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 311)

### 1.3.2.2. Laguntzailearen ezabaketa

Laguntzailea ezabatzen denean, bi aditzek gorde dezakete aspektu-marka:

- (150) Ez ditubee guztiz gixxituten, edo kenduten ezkonduben ardurak, eta naibagiak (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 340)

edo lehena partizipio burutu itxuran ager daiteke, bigarren jokabide hau batez ere Hegoaldeko testuetan aurkituko dugularik (ik. Emendiozko Juntadura kapituluko 3.2.2. puntua ere).

- (151) Gauz oietakorik zuk enzun edo igerriko etzenduen, zeren zu orandañokoan mortuan mundu guztiagandik guziz uruti azi zeran (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 80)
- (152) Laugarrena: eroanik pazienziatz, orain dozuezan nekeak, ez bakarrik aurreratu, edo obeto, pagetan dozuez lenagotik, purgatorioan igaro bear dituzuezan penak; bai ta, egiten dozue koroï eder bat, zeruan itxadoten dozuena (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 127)
- (153) Egiten dira ezkontzak, laster aaztu edo amaituten dirian lurreko gauzak gaiti (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak* 3, 348)

### 1.3.2.3. Aditzaren ondarkiaren ezabaketa perpaus jokatugabeetan

Edo bi juntagaietan gordetzen da ondarkia:

- (154) Salbatzalleak eremuan barau gogor batekiñ aragia nekatzen edo mortifikatzen erakusten dit (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 121)
- (155) egiten dodan legez, irakurten, edo eskribietan nagoanean, bada enas geratuten culiak joten (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 179)
- (156) Egia duk Olhetako eta hauzo-herrietako kukuso eta zimitz guziak nere ohera deithuak eta bilduak zintzela (...) dudarik gabe nere erne egon arazteko, edo, behar-bada, nere irets-arazteko? (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 68)
- (157) Jaunaren itza aditzea, edo apaizak eta gañerako kristauak Jainkoari bialtzen diozkaten kanta zoragarri, erregu eta eskariak aditzen egotea! (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 52)

edo lehena partizipio burutuaren itxuran ager daiteke. Hegoaldeko autoreetan bakarrik aurkitzen dira halako jokabideak:

- (158) Oartuten deusku, alegin guztia egin bear dogula bere graziaz bitartez, ondo egosi edo dijerietako (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 60)

## 1.4. Tokia

Orain arte ikusi ditugun adibide guztietan, elkartzen dituen atalen artean ageri zen *edo* (bi atal baino gehiago baziren, azken bien erdian bakarrik askotan). Beste bi kokagunetan ere ager daiteke, ordea: atal bakoitzaren aurretik errepikaturik edo atal bakarrenen ondotik bigarren atalik ez dagoelarik.

### 1.4.1. Edo X, edo Y

X eta Y edozein kategoriako –perpauis jokatu, perpauis jokatugabe, adizlagun zein izen-sintagma– baina maila bereko osagai izanik, juntagailu hautakaria juntagai bakoitzaren aurrean ezar daiteke:

- (159) Ezpadakizkitzu, ikasi bear dituzu, edo elizara zatozela, edo liburuaz edo bestez baliatzen zerala (J.B. Aguirre, (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 412)
- (160) Berhutea eta lana han ikhasten dituzte neskato gaztek, eta ez dire handik atheratzen edo ezkontzeko, edo serora juaiteko baizik, gogo nola duten (F. Laphitz, *Bi saildu heskualdunen bizia*, 238)
- (161) Beti daukez erremuak, jateko koillarak, alegia, edo aoan edo platerean, bideak tximisteak baiño bizkorrago egiten dituezalarik (E. Erkiaga, *Arranegi*, 121)
- (162) Ez dugu ordean guziek edo bordarik, edo arthaldearen erosteko ahalik (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 268)

Bi balio diferente har ditzake halako egituretan *edo* juntagailuak, eskuinean daraman osagaiaren galdegaitasunaren edo mintzagaitasunaren arabera.

- a. 'Aukera' adierazten du adierazpen-perpauisean galdegai edo galdegaia-  
ren aposizio diren juntagaien ezkerrean errepikatzen denean:

- (163) Zuei, ta niri joaku onetan, ez gitxiago, ezpada gure arimea, ta izatea, edo zorionekoak, edo adu-gaistokoak (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 138)
- (164) Arima debotoak ara: komuniño guztiak, len adierazo dodan legez, zuzendu bear dozuez, edo zeuroi kalterik andienak egiten deusuezan bizio agintariari buru gaistoa ebagitera; edo bearren dozuen bertutea irabaztera (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 80)
- (165) Santa Teresaren padezitzeko deseoa guztiz andia zan: eta aren esana zan, Jauna, edo padezitu, edo ill (J.I. Guerrero, *Saiakera*, 441)

Galde-perpaseko galdegaien aurretik ere errepika daiteke, baina ohar gaitezen bigarren juntagaiaren aurrean errepikatzen dena *ala* dela:

- (166) Zelan eroango dozue obeto egur karga bat, edo arrastaka oñetatik, ala besartean edo lepoan jasorik? (P.A. Añibarro, *Lora Sorta*, 125)

Kasu honetar, bistan da, *ala* izango luke lehian; (ikus (356)-(360) adibideak).

b. 'Orobatasuna' adierazten du beste batzuetan. Bi osagairen artean doanean ere hartzen duen balio honetatik eta errepikaturik agertzetik sortzen bide da "banakaritza" nabardura (gogoan izan "orobatasun" balioko juntagailu hautakariari 'conjunciones distributivas' deitu izan diela gramatikari batek baino gehiagok).

- (167) Asko izaten dira ezkonduen artian, edo gurasuen, edo seniden, edo adiskiden erreguha gaiti, bat bere gogo bagarik ezkondu zirianak (B. Madariaga "Fray Bartolome". *Ikasikizunak*, 369)
- (168) Alan egiazko arima debotak ateretan dabe onik asko euren falta txikienetatik, edo dala negarrez ustelduaz, edo damu erexegiñaz erreteaz (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 110)

*Ala* (361)-(366), *nahi(z)* eta *zein* (425)-(434) ere aurki daitezke balio honetar.

c. Perpausen aurrean errepikaturik ere aurki daiteke, *edo* (*bestela*) baldintza-kutsua hartuz batzuetan (169), aukera bat adieraziz bestetan (171):

- (169) Edo arrizkoa zera, edo eziñ dateke dei añ amodiotsuari ez erantzutea (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 135)

- (170) Gerra utsa da gizonen bizitzea; edo iil, edo esetsi (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 181)
- (171) Eta bitarik bat: edo pagetan deust munduak egiten dodana bera gaitik, edo ez; pagetan badeusti, Jesusek esango deust azkeneko egunean... (P.A. Añibarro *Lora sorta*, 180)

Bi juntagairen artean kokatzen denean bezala, aurretik errepikaturik doancan ere ez da beti erraza izaten 'orobatasuna' ala 'aukera' adierazten duen jakitea:

### 1.4.2. X edo

Juntagai bakarraren ondotiko *edo*-k bigarren aukera zehaztu gabe uzteko balio du. Adibideetan ikus daitekeenez juntagai hori edozein kategoriatakoa izan daiteke eta *edo* enklitiko bihurtzen da, aurrekoarekin batera ahoskatuz:

- (172) Badut, haatik, susmoa ez lukeela gogoko izan behar, halako masoi usaina edo dariolako (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 396)
- (173) Zetan garan edo jakitera nator (D. Agirre, *Kresala*, 184)
- (174) Guri geuroi, berriz, ez dakit zer sorginkeria dela medio, geure egiazko irudia atzendu edo zaigu (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 373)<sup>2</sup>
- (175) Aita edo itoko jakon (D. Agirre, *Kresala*, 202)
- (176) Egia latza, garratza ta margatza dalako-edo, ugazaba aberatsak olakorik entzun be eztabe nai (J. Eguzkitza, *Gizarte-auzia*, 26)
- (177) Plaentxian baintzat, Kant'engandik edo, errazoiak ondo neurtzen ikasi zituen noizbait (J. San Marrin, *Zirikadak*, 43)
- (178) Zikiro pare bat edo, erretzen dute kanpoan (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 233)

---

<sup>2</sup> Ikus itxuraz distribuzio berean agertzen den *omen* partikula modalaz *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-II* liburukian genioena (505-506 or.)

Aipagarria da (174) adibideak erakusten duen 'partizipioa + *edo*' egitura, emendiozko juntagailuarekin ezinezkoa dena (\**atzendu eta zaigu*).

Galde-perpausetan ere aurkitzen dira halako egiturak:

- (179) Zertaz izan oi da nagusi-maizter arteko ezda-baida ori?  
Maizter guziak zuaitzaren, arbolaren etsaiak diralako edo? (I. Munita, *Gure mendi ta oianak*, 105)
- (180) Bai, ezkonberri gera ta European eztaiondoa igarotzeko gogoa izan degu.  
Emendik Parisa edo? (R.M. Azkue, *Ardi galdua*, 57)

Galde-perpausarekin batean, *ala* bezala (368)-(371):

- (181) Zer bada, jende aundi-mandiak ez al du edaten edo? (A.M. Labayen, *Euskal Eguna*, 101)

## 2. EDOTA JUNTAGAILUA

Oro har, *edo* juntagailuaren distribuzio bera duela esan daiteke, desberdintasun bakarrak sinonimo edo esanahi bereko atalen artean, zenbatzaileen artean eta X *edota* egiturarik ez azaltzea izanik.

### 2.1. Forma eta funtzioa

Formaren aldetik aipagarriena Iparraldeko hiru adibideetan *eta* forma osorik eman izana litzateke; gainerakoetan *ta* forma laburtua, klitikoa, da ageri dena (bereiz *edo ta* nahiz elkarurik *edota* idatzirik). Ahoskatzerakoan, ohikoena, *eta* enklitiko bihurtzea da, *edo* juntagailuaren arrimura ahoskatuz. Nolako juntagaiak elkartzen dituen aztertuz, berriaz, ondoko distribuzioa ikus dezakegu.

## 2.1.1. Zein mailatako osagaiak elkartzen dituen

### 2.1.1.1. Edota adierazpen-perpauetan

#### a. Perpau beregainak elkartuz:

- (182) Izanik nere animaren esposoa epeltasunik andienaz arizen det jaun au, edota bereala uzten det, bear bezela eskerrak eman gabe, edo, bear bada, beragandik iges egiñ eta uzten det (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 99)
- (183) Atsetara aizatu, edota sakonki zulatutako auspean ezkutatu itzazu, orietako ezer aitaren il-ocera inoiz eldu ez dedin (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 23)
- (184) Uziazu, ba, neuk nai ainbat esaten, edota, galde egin ezazu, galde egin nai ba'zeneza (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 145)
- (185) Ta biek elkarrengandik aldegitan, eskua emateko ez du pertza erortzen utziko, edota eskuaren orde ez dio pertza luzatuko (N. Ormaechea "Orixe", *Quito-n Arreharekin*, 137)

#### b. Mendeko perpau jokatuak elkartuz:

- (186) Olerkirako lillura aundiago du, baiña garbi diago lau tokitan, Ibanek, olako aldi oriek etzaiezela gertatzen asiberri batzueri besteri, ta gaixo daudelako, edota beren griñak oso moteldurik ez dauzkatelako (J.I. Goikoetxea, "Gaztelu", *Musika Isilla*, 28)
- (187) Hitzketan ari zitzaien bitartean aurtxoak farra egiten bazion, edota bere besotxoak luzatzen baziozkan, far ark kanpo aiek guziak berritu eta edertzen zituela oi zeritzan (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 51)
- (188) Neri, beintzat, lainkoak ala egin naulako, edota grazi bereiziz dalako, entzunoroiketa ori aski zaida (N. Ormaechea "Orixe", *Quito-n Arreharekin*, 136)

#### c. Perpau jokatugabeak elkartuz:

- (189) baña bere atsegin-kontentu andiena errosarioa eskuan idukitzea, edo Maria txit santaren laudario edo alabanzak zekarzkien libururen bat irakurtea edota ama ezitsu oni gogokoen zitziola zeritzan beste zerbait egitea oi zan (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 191)



- (190) Olerki-egiturari dagokionez, auteman geneza, adibidez 2'gn aapaldiko ele-irauketa (hiperbaton), alegia aditza galdekizunen tartean ezarri; aapaldi bereko elkarkien-berriztea (polisindeton), edota 4'gn, 8'gn eta 13'gnekoko elkarki-kentzea (asindeton) (J.I. Goikoetxea, "Gaztelu", *Musika Ixilla*, 65)
- (191) Asmau bai, zeozer egin dau: bidebarriren bat eskeini; ala urak ekartea; edota arako trena gure erritik pasautea edo (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 72)

d. Perpaua baino txikiago diren kategoriak: izen-sintagmak (192), izenlagunak (193), adizlagunak (194)... batzuetan enumerazio batean, aurretik *edo* ageri delarik:

- (192) Basetxetako txakurrak zaunka ta zaunka asi ziran, lapur-sailen bat edo ijitano mordoia edota bertako eztiranak beintzat urteratuten etozala adirazi nairik (E. Erkiaga, *Arranegi*, 120)
- (193) Hemen, eserita nekean, deusezaren atean, edo tormentuaren edo ta zeruaren, bidearen ertzean, edo Jaungoikoaren edo deabruaren edo ta pakeraren, bainan ez sekula neronen bizitzaren, edo ta ez dakit zeren atadi aurrean (J. Azurmendi, *Hitz Berdeak*, 48)
- (194) Jakintzatik, irakaskintzatik edo ta erlijiotik artutako pake-bideak gizadian nagusiagotzen dijoaz (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak. I Jainkoa*, 181)
- (195) Lankide, gaizkide, edota, unaiia, aier unaiari (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 117)

### 2.1.1.2. Edota galde-perpauetan

a. Perpau beregainak elkartuz: perpau bakoitzak bere galdegaia du (196) eta (197)-an; (198)-(200) adibideetan, aldiz, aukera bakarra osatzen duten galderak juntatzen ditu *edota* juntagailuak:

- (196) Zer gerta ete zan lurtean, edota zer jazo yakon neskatilleari barruan? (E. Erkiaga, *Arranegi*, 185)
- (197) Zer ari naiz, ene Iainko, ene bizi, ene atsegin guren, edota zer diardu ari danak Zutaz ari danean? (N. Ormaechea, "Orixe", *Aitorkizunak*, 12)

- (198) Karlista zelako idatzi ote zuen Garoa gipuzkeraz edota, alderantziz, Garoa gipuzkeraz idatzi zuelako ote zen karlista? (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 383)
- (199) Zer egin? Ostikadaka atea apurtu? Edo ta eskillaren bat nonondik zuzenduta, tellatutik kortara sartu? (F. Bilbao, *Ipuin Barreka*, 252)
- (200) Sendakintza bera aula ote da, edota, adore baten bearrean ote da, beste edozein antze, begiak ikusmenaren bearrean bezala, ta belarriak entzumenaren bearrean bezala? (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 134)

b. Menpeko galde-perpauak —zehar-galderak— elkartuz: bakoitzak bere galdegaia duela, (196) eta (197)-ren pareko beraz:

- (201) eta ez al dakizu zerua nor dan, edota nor litzakidan? (E. Erkiaga, *Arranegi*, 192)
- (202) bitartean gure aita ez zan axolatzen nola ari nintzan azitzen, edota zein biozgarbi ninteken, itzez landua izan ezkeru (N. Ormaechea, "Orixe", *Aitor-kizunak*, 40)

c. Perpaua baino txikiago diren kategoriak elkartuz ageri dencan, galdegai ez diren juntagaiak bereizi behar ditugu batetik:

- (203) geznariren batek, edota bidaideren batek ikusitakoak ez al digute bide-eman-go aren berri ikasteko? (J. Zaitegi, *Sopokelen Anzerkiak*, 60)
- (204) Nola dateke, etxeoandre andi prestua, esaten zioten, zu otzak eta goseak edota piztia gaiztoen atzaparrak ez hiltzea! (G. Arrue, *Santa Jenobeha*, 118)
- (205) Iñoiz ikus aal izango ote ditut ene gurasoen mugarteok edota nere etxola txiroaren gaindegia belarrez iosita? (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 33)

d. Bestetik, galde-sintagmak elkartzen dituen kasuak:

- (206) Zeren giñoko edota zein esteritako lapurretak egin ete zituan Zorritzok? (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 23)

e. Azkenik galde-hitz ez diren galdegaia juntatuz ere aurki daiteke, edo galdegaia loturiko juntagaiak:

- (207) Zer dala onena deritzozute, ni oso oraziuai ematia, edo ta bestelaz Jaungoikuaren itza adiaraztiari? (C. Beobide, *Asis'ko Loria*, 98)

### 2.1.2. Izen-sintagmaren barneko osagaien juntaketak eta kasu-sintagmenak: noiz bata eta noiz bestea

*Edo* juntagailu hautakaria aztertzean ikusi legez (ik. 1.1.2.), *edota* juntagailuarekin ere joera orokorra kasu-sintagmak juntatzearen aldekoa da:

- (208) Lakirioz, biskaz, zepoz edota tiragomaz izango ziran arrapauak (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 40)
- (209) Geznariren batek, edota bidaideren batek ikusitakoak ez al digute bide-eman-go aren berri ikasteko? (J. Zaitegi, *Sopokelen Antzerkiak*, 60)
- (210) Bai pozgarria izan oi dala erriko neska-mutillak esnedunenera edota iñude-aiñanera joatea (E. Erkiaga, *Arranegi*, 119)
- (211) Jakintzatik, irakaskintzatik edo ta erlijiotik artutako pake-bideak gizadian nagusiagotzen dijoaz (L. Villasante, *Kristau Federearen Sustraiak. I Jainkoa*, 181)
- (212) Besteak txortenak sartu zituen lurtean, lan epaidun arbastak edota egurrezko ziri punta-zortrotzak (A. Ibiñagabecitia, *Bergiliren Idazlanak*, 83)
- (213) Jaungoikoaren legean debekatutako zerbait, ajola gutxiko gaietan, edo ta bestela ajolazkoetan ezaguera argi ta gogo osorikan gabe, esan, egin, gogoratu, nai izan edo, agindurik dagona ez egitea da oben ariña (XX, *Kristau Ikasbidea Gipuzkoako Euskeraz*, 41)
- (214) Etxean balitz ezirik edota sardiña zaarrik, aundienetik txikienera listua dario ortzitik (N. Ormaechea, "Orixe", *Euskaldunak*, 279)

Benetan zaila da *edota* juntagailuarekin ardatz anitzetako izen-sintagmen juntaketa aurkitzea.

## 2.2. Balioa

### 2.2.1. Edota adierazpen-perpausetan

a. Aukera balioa: juntatzen diren aukeretatik bakarra gauzatu behar dela adierazten du ondoko adibideetan *edota*-k:

- (215) Nai edo ez pekatu gabeko bizieraren bidetik, edota penitenziarenetik joan bear dezu (G. Arrue, *Maietzeko Illa*, 77)
- (216) Emango da gero salbazioko edo ta kondenazioko epai edo sententzia (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 47)
- (217) Baina, lenik, zaude gotor esan ditzakezunetan, edota, esanik alda ba'zenez, alda ezazu argi ta garbi, ta ezkaitzazu iruzurtara ekarri (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 137)
- (218) Erantzun ere euskalduna naiz edo ta enaiz euskalduna ta kito (R.M. Azkue, *Ardi Galdua*, 4)

b. 'Orobatasuna' adierazteko: balio hau garbi ikusten den adibideak asko ez diren arren, ondokoetan behintzat *edota*-k 'orobatasuna' adierazten duela dirudi:

- (219) Koloniako urak eukan doaja ala emakumearen berezko usaiña, bata nai bestea edota biak batean, usain egingarri ta sentigarri zirala uste eban Nikanor'ek buru-belarri (E. Erkiaga, *Batetik Bestera*, 87)
- (220) Markos, eiztari azkarra, erriko zadorlaria, egun askotan Olarratzegaz batean, sekulako erbi mordo, edota eper-sailla etxeratzen ebana (E. Erkiaga, *Batetik Bestera*, 79)
- (221) Zu ta au, edota maitasunaren atsegin-atsekabeak dasiatu dezazken edonor, txekorraren gai zerate (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 40)
- (222) Zure olerkiak, olerkari goitar, belar-gaineko lo-kuluxka edota uda-galdatan lats iauzkarian egaria berdintzea bezin atsegin-garri zaizkit (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 46)
- (223) Lau bide-zabalak bertan alkar zeartuten dabe, ta orregaitik erbestera doiana ala kanpotik datorrena, gizaki, abere edota izaki, legorrez beintzat, andixek igaro oi dalako (E. Erkiaga, *Arranegi*, 28)

c. Bigarren juntagaia lehenaren aldaera; lehen atalean esandakoa zehazteko balio du bigarrenak:

- (224) Eta arenganik artutako iraiña edota Zuriñek iraintzat etsitakoa, intziri orren ondoren, parkatu egitea otu jakon (E. Erkiaga, *Arranegi*, 172)
- (225) Bat-batean, Nikanor'ek, kanu azarriak saltu egin oi duan antzera zapart egiñik, artu eutsan edota kendu eutsan ataratzailleari, ari berari egokion pardel biribilla (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 29)
- (226) Gero, izengoitirik ipini nahi badiogu, edota bestek asmatu badio, diogun argi eta garbi ez dela izena, izengoitia baizik (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 381)
- (227) Zuk badakizu nor naizen, baina nik ez dakit nor zaitudan, edota, baldin badakit, zeharbidez dakit (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 216)
- (228) Etzazu maite mundua, esana zuen Sokratek, edota, ori esan-irudi zuen, beintzat (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 114)

lehen juntagaia beste modu batera esateko, hura azaltzeko:

- (229) anima, alegia, lendanik erakunde izan eta, zigor baten pean edo, soñarekin uztarkide gerta izan zala ta gorputzean, illobi batean edo kokatua dagola; orrik ere (...) "soñia", "illobi", grekoen esana; edota, alako espetxe batean ere dartzala gizona (J.I. Goikoetxea, "Gaztelu", *Musika Ixilla*, 67)
- (230) esan oi denez, aritzak zozpela beretarikoa omen, edota, beste nolarebait esan, ezpalak bere egurra dirudi ta egurrak bere ezkurra, edo, beste nonbait esan oi denez, nolako zura, alako ezpala (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 81)

edo lehen atalean esandakoari baldintza-kutsua emateko, batzuetan *bestela* lokailuaren laguntzaz:

- (231) Ill nazazute ni ordu onean, pozik hilko naiz; ona emen nere lepoa agirian; baña utzaiozute arren aur errukarri oni bizirik: eraman zaiezute nere gurasoai, edota zuek au egiteko bioizik ezpadezute, utzadazute bizia (G. Arrue, *Santa Genoveba*, 35)
- (232) Aska nazazute, edo ta bestela egingo diat nik ez-egitekoren bat gaur emen (M. Lekuona, *Eun dukat*, 49)

- (233) Beraz, aal besteño aldia laburtzearren, agaz zartakoka, edota, bestela, zuaizburuari eragiñaz lurreratzen ditue biltzalleak sagar-gezak (T. Agirre, *Uztaro*, 280)
- (234) Arrapatzen zuten jakia loranez iruntsitzen, beltzetik edo zuritik zurrutean, edo ta bestela berritsukeriarik txoroenetan, sudur zuloetatik keia boteaz ta ate ondotik kalean zijoazen neskatxa guztiai txistadaka igarotzen zituzten egunaren orduak (D. Agirre, *Garoa*, 165)
- (235) Hamabost gerreneko, ni ez deusetako egoitera ez ausat etez hun laneko mithila, odrekei lanin bortxatzeko edo eta bestela, ene zaflatzeko halere nik hobena, hurá enetako (P. Topet "Etchahun", *Bertsokak*, 178)
- (236) Nik eremanen dit, bai, gizon hori oherat, edo eta bestela barruki zokualat (*Astolasterrak*, 153)
- (237) bisita egin artio, zointan galtharu beitzunian arrazureki, gaiñen erran konfariaren establitzeko dekreta, bula eta estatuak; ezin erakutsi ukhen zitizien, zeren eta ezpeitzen jagoiti izan, edo eta bestela baztertu edo galdu beitziren (A. Mercy, *Eskapularioa*, 11)

Ohart gaitezen, Iparraldeko hiru adibideetan *edo eta bestela*, juntagailua eta lokailua ageri direla.

Beste batzuetan, *edo* juntagailuarekin gertatzen den bezala, ez da garbi ikusten zein balio hartzen duen *edota* juntagailuak, "markatugabetasun"etik datorkiokeen ezaugarria:

- (238) onen scnarra, gizaiso aundia, leioan egoan, urrunera so, itsas zabalari begiak eskeiñiaz, edota ondartzetan azal-aragiak baltzituden edota uretan igeri atsegiñetan ebilzanez iraizean begira (E. Erkiaga, *Arranegi*, 105)
- (239) Familiak errosarioa eta gañerako debozioak errezatu oi dituen leku artan, edota eliz edo oratorioren batean, ipiñiko da lurrean Mariaren imajiñ alik ederrena, bakoitzak aldezekan ongien apañduta, eta zenbait kandela eta lore, batez ere sasoi artakoak ipiñiaz (G. Arrue, *Maietzeko Illa*, 7)
- (240) Jupiter zan bere buruz euria sortzen eta bialtzen zuena, edo ta oiñazturak jaurtikitzen zituena (L. Villasante, *Kristau Fedearen Sustraiak*, 77)
- (241) Trebe baino trebeago izan da beti hitz berriak sortzeko, hitz elkartuak batez ere, edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 355)

### 2.2.2. Edota galde-perpausetan

Barzuetan bi galdera desberdin elkartzen ditu *edota* juntagailuak; hala gertatzen zen (196), (197), (201) eta (202) adibideetan, bai eta honako hauetan ere:

- (242) Norbaitek olimpiar-iokoetako palma-sariz txundituta zaldiak bazkatzen al ditu, edota goldaketarako idi-koxkorrak? (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 95)
- (243) Zertako bear yunagu toki oberik, edota zer ibili bearra zeukenagu toki billa irudimenez, mendi ta malkor, arroil eta aintzira igarotzen, anima aiek non eta nola dauden adierazteko? (N. Ormaechea, "Orixe", *Quito-n Arrebarekin*, 110)

*Edota* da, pare-parekoa duen *edo*-rekin batera (ik. kapitulu honetako 1.2.2. atala) horrelako egituretan ager daitekeen juntagailu bakarra.

Beste batzuetan, berriz, (199) eta (200)-ean *edo* ondoko adibideetan, galdegai diren juntagaiak elkartzen ditu; orduan, *ala* juntagailua du lehian.

- (244) Lenaldi luzea, igarota al zan luze, edota igaroten ari zala? (N. Ormaechea, "Orixe", *Aitorkizunak*, 318)

Azkenik, (245) adibidean juntagaiak itxuraz adierazpen-perpauza eta galde-perpauza ditugu. Benetan, ordea, lehen perpausetik ondoriozta daitekeen zerbait litzateke lehen juntagaia (ik. *ala* juntagailuaren (290)-(293) adibideak non balio bera ageri den):

- (245) Izan zitezte gizonen baño Jaungoikoaren beldurrago; edota naiago dezute Golo orri obeditu Jaunogikoari baño? (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 36)

### 2.3. Ezabaketak

Batez ere aditz-ezabaketak dira *edota* juntagailuaren adibideetan atzeman daitezkeenak. Ezabaketok —bai aditz osoarenak bai eta laguntzailearenak ere— eskuineko osagaien egiteko joera ageri da oro har. (246)-(248) adibideetan ezkerreko juntagaien gorde da aditza, eta eskuinekoan ezabatu:

- (246) Zeru-sabaia izarratu, lore-zuri-urdiñez josia zirudian edota pitxi dirdaitsuz ereiniko zelai illunkara (E. Erkiaga, *Arranegi*, 179)
- (247) Egibiderik makurrena zuzenen egitea gogoko zitziola uste izan bide duzu, edota, eziala uzkur ori egiteko (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 103)
- (248) Jainkoaren liburuetan beraren berri eskuarki belarriz ematen baitzaigu, egi soil oietakoak agertzen zaizkio gure adimenari, edota Jainkoaren ixilgordeak (N. Ormaechea, "Orixe", *Quito-n Arrebarekin*, 181)

Hurrengo adibideetan, ostera, ez da aditz osoa, laguntzaile soila baino eskuineko juntagaian ezabatu dena (249); (250)ean berriz, aditz jokatugabea ("aginduz"):

- (249) Oialak orrazten ditu orrazi arantzatsuz, edota sutan egosten ardo goxoa indarra gutxitu dakion (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 75)
- (250) Naiz ilda ere bete bear da besteren bitartez itza, argizaritan dirua aginduz edota bizpairu meza (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 123)

Ondoko adibideetan, eskuineko juntagaiko aditza "partizipio burutu" itxuran ageri zaigu (ik. Emendiozko juntaduraren kapituluaren 3.2.2. puntuaren barruan "aditz laguntzailea elipsis desagertarazia" izenburupean honetaz esaten dena):

- (251) gañera, arpegia garbitu naiko zendutela... edo ta dutxa bat artu (A.M. Labayen, *Su-emailleak*, 173)
- (252) Aingerukiak tarteko ditugu, gizonen eskariak Jainkoei eramaten baitizkie, edota, gizonei Jainkoen gogoak ekarri, ta izadiaren bateratasunari eutsi, ilkor ta ez-ilkor, zeruko ta lurreko lokarrituz (J. Zaitegi, *Platoneneko Atarian*, 153)

Joera orokorra aditz-ezabaketak eskuinean egitea izan arren, ezkerreko juntagaiko aditz-ezabaketak ere aurki daitezke:

- (253) Uretan, naiz geldia izan naiz lasterra, sarats enbor eta arri koxkorak iarriko dituzu erleak kokatu ditezen, udako eguzkitan egoak zabaldu ditzaten, agian, astiro ibilki, Eurusek busti edota Neptunek bere iarioan murgildu baditu (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren Idazlanak*, 108)



## 2.4. Tokia

Bi juntagairen artean bakarrik ez, juntagai bakoitzaren aurrean errepikaturik ere aurki daiteke, batzuetan *edo... edota...* bezala, bestetan juntagailu indartua emanik bietan, *edota... edota...* Ondoko adibideetan 'aukera' balioa adierazten du errepikaturiko juntagailuak:

- (254) Baiñan on baiño kalte geiago du Luisen bixikotasun orrek, azentuak okerrago banatzen baititu, edo urbillegi elkartuz, edota urrunegi bakanduz (J.I. Goi-konetxea "Gaztelu", *Musika ixillia*, 30)
- (255) Zerura joateko bi bide bakarrak daude: edo pekaturik ez egitea, edo ta penitentzia (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 76)
- (256) Beste aunitz utziko ditut, edo oroi ez naizalako, edota, bearrenak aitortzeko iradu naizalako (N. Ormaechea, "Orixe", *Aitorkizunak*, 72)
- (257) Bein batez bada eman zien errictan, eta agindu zien edo egon zitezela ixilik, edo ta bestela jua zitezela andik (C. Beobide, *Asis'ko Loria*, 160)
- (258) Batasunik ez denean, bi moldetakoak izan ohi ditugu ezberdintasunak: edota 1 alderdi bateko eta besteko hitzek ez dute itxuraz elkarrekin zer ikusirik, edota 2 erro batekoak izanik, badute elkarren eitea, elkarren senide dira, baina hots-aldaketa berzieki saihestuak (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 105)
- (259) Jauna, arriturik nago, ta zertzaz geiago arritu, nik ezdakit: edo ta zure ontasun, ta pazienziatz, edo ta nere lotsagabeko atrebimentuaz (A. Kardaberaz, *Ejerzizioak II*, 34)

Azken adibide honetan galdegaiari loturiko juntagaiak dira *edota*-k lotzen dituenak; beste batzuetan *ala... ala...* juntagailuaz elkartzen direnak (ik. (356)-(360) adibideak).

## 3. ALA juntagailua

### 3.1. Forma eta funtzioa

Formaren aldetik aldaerarik ez duen juntagailu honek ere maila guztietako atalak elkartzen ditu: perpausak, izen-sintagma, aditzondoak, predikatu-sintagma, ize-

nondoak... Ez da hau baina juntagailu honen ezaugarririk garrantzitsuena, zein motatako perpausetan azaltzen den baino. Izan ere *edo* juntagailuarekiko desberdintasuna bi alde hauetan aurkitu behar dela dirudi:

- a. Zein motatako perpausetan erabiltzen den *ala* batetik
- b. Zein balioekin erabiltzen den bestetik.

Lehen puntuari dagokionez, orain arte egin legez, galde-perpausak eta asertzioak bereiziko ditugu.

### **3.1.1. Zein mailatako osagaiak elkartzen dituen**

#### **3.1.1.1. *Ala* galde-perpausetan**

Erabilera honen barruan ere zenbait kasu bereiz daitezke, juntagailuak elkartzen dituen osagaien arabera, beti ere kontuan izanik bi atal edo gehiago junta ditzakeela *ala*-k:

- a. Perpausak elkartzen ditu *ala* juntagailuak

- (260) ... Jesus Krist elkhiten deia zelutik, ala ... han ere dago? (A. Belapeyre, *Katixima laburra*, 72 )
- (261) Konfesioe on bat egiteko, (...) naikoa da damu (...) bildurrezkoa, ala damu osoa bear izaten da? (A. Iturzaeta, *Azalduera laburrak*, 140)
- (262) Ote zakien hastetik, zer putikoekilakoari lotzera zoan, ala ondoan ditu ezagutu, ikusi? (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 154)
- (263) Zinez ote da zure eginbide mina, ala hortan ote da zure atsegina? (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 242)
- (264) Eztakit bertan jaio den ala datorren zerutik (S. Mitxelena, *Arantzazu*, 60)
- (265) Inork eztaki (...) emazteagandik izan zun alaba bizirik dagon ala laidoki il ote dun (J. Etxaide, *Alos Torrea*, 44)

- (266) Beti ibilli ete naz zuzen-zuzen da neure lurra ostenduteagaitik bakarrik, ala Euskalerrriaren areiuai euki dautsetan gorrotoak neurririk kanpora erabili ete nau? (D. Agirre, *Auñamendiko lorea*, 84)
- (267) Zelan juzgauko dau, laguna deungia dan, ala ona dan? (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Ikasikizunak*2, 229)

Azpitarratzekoa da (263), (265) eta (266) adibideetan *ala* juntagailua *ote*-rekin batera agertzea.

b. Galdegai diren osagaiak, sintagmak, elkartzen ditu; oro har bi atal, baina gehiago ere izan daitezke:

- (268) Ametsa ala egia da au? (A. Kardaberaz, *Ejercicioak II*, 15)
- (269) Illak ala biziak daude? (A. Iturriaga, *Dialogos*, 7)
- (270) Ogi zohiaren lastoa, ala ogi burutu gabearena othe laizteke goriago bazkatzat? (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 120)
- (271) Orain ikasiko duk gizonak zigorrez ala eskuz neurtzen diren! (N. Ormaechea, "Orixe" *Mireio*, 60)
- (272) Nok daki izango dirianez urteak ala egunak? (P.A. Añibarro, *Lora Sorta*, 194)
- (273) Baina, gaixo deunga bat sartu dan errijan, ala osasun onekuan dago, illteko peligru geijago? (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Oigetak*, 186)
- (274) Berehala ikhusi behar da ea hura altxa-arazi duen kausa, barnekoa ala kanpo-koa den (J. Haraneder, *Gudu izpirituala*, 113)
- (275) Orain, ordea, ez digu axola Cayatte zuzen ala oker dagoen jakiteak (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 321)
- (276) Halaber guk eskualdunek behar ote dugu egun hautarik batez aditu, oboinak baino areagokoak diren gaixtagin tzat batzuen ahotik: bizia ala eskuara? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 120)

Batzuetan galdegaiak ez daude zuzen-zuzenean aditzaren aurrean:

- (277) Bizitze nagiaz, edo guti eginaz, ala gauza guzietan ahal zen hobekienik eginaz, orai gogabetheago zinaizte? (J. Duvoisin, *Liburu Ederra*, 198)

- (278) Gaztetan ala zartu ezkerro, gauaz ala egunaz eriotzak arrapatuko nauen ez dakit (A. Kardaberaz, *Ejertzioak II*, 87)
- (279) oingo eleixe au dagoanik gerokoa ala eleixe au egitordukoa dan guk eztakigu (L. Akesolo, *Ipiña ta ipiñatarren-barri*, 15)
- (280) Neronek ala besteren batek erri au yaurri bear dik? (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 182)

c. Askotan galdetzaile baten aposizio modura ageri diren atalak elkartzten ditu *ala-k*:

- (281) Zein zaldi da on edo hobea, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta manaiatzen dena? (P. Axular, *Gero*, 23)
- (282) Zer egin du Donostiak 70 urte hauetan, galdu ala irabazi? (K. Mitxelena, *Iduzlan hautatuak*, 131)
- (283) Zer zinduke nahiago? Berheala zerurat jua, ala (...) arimaren galtzeko arriskuan bizi? (F. Laphitz, *Bi saildu eskualdunen bizia*, 247)
- (284) beriala igarriko dautzu zein markakua dan, Buick ala Chevrolet ala Citroen ala Amilkar ala (...) (E. Bustintza "Kirikiño", *Abarrak II*, 154)
- (285) ezpaitakizue zein ordutan etorriko dan etxeko nausia, illunabarrean ala gaucrdian, ala oillaritean ala goizean (P. Iraizoz, *Yesu-Kristo gure J. bizia*, 415)
- (286) Ea nor den ohoin orai hor: apezak ala bertzerik? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 152)
- (287) Argi eta garbi eranzun zazu, anima kristaua, nor edo zeñ serbitu nai dezu, Jaungoikoa ala deabrua? (G. Arrue, *Maietzeko illa*, 87)

d. Galde-perpasean egon arren, galdegai ez diren atalak ere elkar ditzake. Batez ere Iparraldeko autoreetan aurkitzen dira halako adibideak. Halakoetan *ala* juntagailuak, *eta* juntagailuaren pareko balioa hartzen du; alde honetatik, adierazpen-perpaserako zenbait adibideren pareko balioa du (ik. (313)-(314) eta (313)-(314) adibideak):

- (288) Bainan gero gaztek ala zaharrek zer egin behar dute ilhunduz geroztik? (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 144)

(289) Eta igandeak ala bestak nola behar dire begiratu? (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 63)

e. Batzuetan *ala* juntagailua bi perpausen artean suertatzen da, baina ezin esan daiteke bi galde-perpaus juntatzen direnik. Izan ere perpaus horiek ez dituzte bi aukera adierazten:

(290) Gizona, zer pentsatzen duzu, / ala buria nahasi zaizu, / zure plinta horiez / estonatzan naizu (X.X., *Asto lasterrak*, 21)

(291) Aski ote da serorei beren lanaren ebasteko? Ala ez ote dire jendeak serorak ere? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 106)

(292) Zer uste lukete, ala eskualdun tzarretarik frantses onak egin? (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 209)

(293) Gero hasten zaio lagunari, erdi trufaz, erdi zinez, eraiten: zeren beldur zinen, ala muskerrak ausik; sugandola ferde bat da muskerra; ez du gehiago egiten ahal, ur-hileko aratxe-buruak baino (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 99)

Horrelakoetan lehen perpausetik ondoriozta daitekeen zerbait litzateke *ala*-k elkartzan dituen aukeretatik lehena, ez perpausa bera. Areago, lehen perpaus horrek ez du nahitaz galdera izan beharrik:

(294) Ordu luke khexatzeko. Ala oraindik ez ote du aski hartza milikatu? (L. Goyhetche, *Fableak*, 189)

(295) Bategaitik negar egiten dozula usteko dabe. Ala ezaldaki nok zuk ...? (D. Agirre, *Kresala* 23)

(296) Ez doakigu guri hemen erraita, ez ote zoan batzutan urrunxegi, xede bati buruz oldarra behin hartuz geroz; ala xede onak zituelakotz uste zuken beti zuzenean zela? (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 148)

(297) Behar derait aitortu izan dukala tupeta, lagun bati sakatzeko hik holako estrumenta, ala egin duk horren gainetik lurrerat erori eta hiretzat eginen zuela Xalbadorrek testamenta? (F. Aire "Xalbador", *Ezin bertzean*, 29)

(298) Atseginek ustelduz gizontasuna, akhabo litezke laster mendeak: ala norbaitek athera lezake ezpata, errateko, marra bat eginez gora-beheren zorubian: horraino da zilhegi atsegina, beherago direnekin egin dezatela barur? (J.M. Hiribarren, *Eskaraz egia*, 122)

Beste batzuetan *ala*-ren aurretik doan osagaiak adierazten duena zalantzan jartzen da, eta solasaren harian zalantza hori galdera modura adierazteko baliatzen dugu juntagailu hautakari hau:

- (299) Darion herri bertso eta herri hizkera usaina bera ez zaigu, ezta gutxiagorik ere, Oihenarti bezain nardagarri: Etxepareren neurritz batzuen oihartzuna, ala ez ote da alderantziz. Azkuek Zaraitzun bildurikako kanta zahar batean hautesman zuen Lafonek (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 287)
- (300) Aurtengo gure almanakan irakurtu dituzketzuen koplaldietarik bar, ala ez ote biga, bat segurik ba, harena zen (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 165)
- (301) Beraz errientak zituen Baionara deituak, harroaldi baten emaiteko, higi diten hortik norapeit; ala lo dauden? (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 137)
- (302) Badut aneia bat apez, ala ez dakit osaba erran duen ancia orde (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 171)

Oso antzekoak dira beste hauek ere:

- (303) Ez du aspaldi, Itsasu elizaldean, ala, ez nakike xuxen, herri bereko bertze ostatu batean, gizon batzu solasean zagozila (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 137)
- (304) Nahi zituenak oro erranik, joan zen herriko auzapezarengana, ala ez baitakit ez ote zen bakezko jujearengana joan (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 60)

Azken batean, (290)-(304) adibideetako *ala*, benetan bi perpaus juntatzen ez dituen neurrian, lokailu dela esan daiteke.

### 3.1.1.2. *Ala* adierazpen-perpausetan

Batez ere ekialdeko testuetakoa den erabilera honetan, asertzioetan, baiezko nahiz ezezko perpaus bateko bi osagai edo gehiago elkartuz agertzen da *ala*. Osagaiok ez dira perpaus jokatuak izaten:

- (305) Eta gizona gizon da, eta gizalgea gizalge, erdaraz ala euskaraz ari (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 171)

- (306) Español edo italiano ala bertze arrotz gaixtagin batzu nola dituzte bi jandarmek hartu-eta, han harat eremaiten (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 22)
- (307) Hitz batetik ala bertzetik has dezazun solasa, zure elheak bethi xuxen adosturen dire (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 15)
- (308) Hura ere bat, bere erratekoekin, hau bezala; egungo egunean nehor guti baita haren eta hunen kaskoko gizonik; batek ala bertzeak, ziren tokian, zilo bat ederra utzi baitute, nekez-nekez betetzekoa (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 104)
- (309) Entzun xoriak kantuz goiz ala astiri, erakutsi beharrez kantatzen bertzeri (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 109)
- (310) Geroztik ene bizia, izan eguzki xuria ala elur erauntsia, santa sekula pentsatu gabe zer dutan irabazia, hola deramat guzia; ardier erne begia, bihotzez heier josia (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa* 97)
- (311) Arantzazuko batzarren gaia h sartzea ala h kentzea izan zela diona ez da egiaz ari (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 223)
- (312) Nor nahi har dezagun: ez jaun ala ba jaun (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 218)

Hiriart-Urruty-ren adibideetan, esaterako, *ala*-k elkartzen dituen sintagmak askotan mintzagai den osagai baten aposizioan doaz, mugagabeen oro har:

- (313) Frantses ala arrotz, jakintsunak hitz bereko dire: bekatu litakela eskuara gal ladin (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 218)
- (314) Bihotzez atxikia; eta guzier, handi ala ttipi, gazte ala zahar, beren behar-ordu guzietan arimako ala gorputzekoetan, jarraikia (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 111)
- (315) Jaun argitu bat, mediku ala bertze, ahalge behar liteke holakorik iresteko, edo irest-arazi nahi ukaiteko, den zozoenari ere (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 106)

### **3.1.2. Izen-sintagmaren barneko osagaien juntaketak eta izen-sintagmenak: noiz bata eta noiz bestea**

Aurreko juntagailu hautakarietan ikusi bezala, ohikoa, kasu-sintagmak elkartzea da:

- (316) Sari banaketa batean zen, eta saritutako lan batek ez zuen oso ongi hartzen norbaiten filosofia: Kantena ala existenzialistena zen, ez naiz oroitzen (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 296)
- (317) jende xeheak ezuela bihotzez ala buruz nehoi zorrik (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 199)
- (318) Hoinbertzetaraino gizontzat eta gizon handitzat zaukaten orok, non edo zoin erregeri eta enperadoreri, ala bertze buruzagi handiri eder baitzitzaieten harekin solas egitea eta hari esku tinkatzea bera (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 75)
- (319) Zein parte estimatzen duzu hobe, lainkoarena ala deabruarena? (P. Axular, *Gero*, 325)

Baina izenondo, erakusle edo zenbatzaileak egoteak izen-juntaketa errazten du; jokabide bera ikus dezakegu emendiozko juntaduran ere (ik. emendiozko juntadurako 1.3. atala):

- (320) Trufa serorez, trufa gizon ala emazte fededunez; trufa otoitzaz (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 181)

Dena den, autore batzuk besteek baino joera handiagoa dute ardatz anitzetako sintagmen juntaketarako:

- (321) Eliza katolikoaz kanpo, ezda deus onik; oro goibel eta nahasdura dira gogoeta ala gauzetan (J.M. Hiribarren, *Eskaraz egia*, 105)
- (322) Aphez berak, sinheste berak, igurikimen berak dituzte handi ala ttipiek (J.M. Hiribarren, *Eskaraz egia*, 99)



### 3.2. Balioa

Aurreko puntuan egin dugun bereizketari jarraiki, bi balio desberdin hartzen ditu *ala* juntagailuak galde-perpasean azaldu edo asertzioan.

1. Galde-perpasean *ala*-k elkar baztertzen duten aukerak juntatzen dituela esango genuke; horietatik bat aukeratu behar dela adierazten dugu eta gainerakoak baztertu. Horrexegatik dira askotan antonimoak *ala*-k elkartzen dituen osagaiak: “bai ala ez”, “mortal ala benial”, “pobre ala dirudun”, “bertan jaio den ala datorren zerutik”...

Dena den ez da nahitaezkoa kontrako edo antonimoak izatea; bi osagai baino gehiago elkartzen ditucnean nabarmentzen da hau batez ere. *Buick*, *Chevrolet* etab. ez dira kontrakoak, baina marka batekoa izan behar du autoak eta marka hori zein den aukeratzea da kontua. Hiztunak desberdintzat ditu, beraz, aurkezten dituen aukerak.

2. Asertzioetako adibidectan, ostera, berdintsu zaizkigun aukeren aurrean gaudela adierazten dugu *ala* juntagailuaz. Horrelakoetan hiztunak ez du desberdintasun handiegirik ikusten aukera baten eta bestearen artean; ez zaio axola bat hautatu nahiz bestea hautatu. Oso nabarmen ageri da hori (323) edo (324) adibidectan. Areago, zenbaitetan multzo bateko talde desberdinak adierazteko-edo balio duela dirudi, batez ere *guztiak*, *oro*, *noiznahi* eta antzeko sintagmen aposizioan doazenean *ala*-k elkartzen dituen osagaiak:

- (323) Hemen gaingiko framazon guziak: heien esklabo eta eskumakil, eskualdun giristinotasunaz ala jazko haizeaz berdintsu axola dutenak (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 175)
- (324) Murde ala jaun bardintsu zautzue, ez dea hala? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 174)
- (325) Aski zen haren ikustea, noiz nahi, astelegun ala igande, bere artalde maitearen erdian (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 116)
- (326) Hala nola soinuari, edozoin musika, xirribika, origina ala zer nahiren joile, nehoi zorrik etzutenak izan dire, ba eta badire oraino ere (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 189)
- (327) Hanbat gaixtoago hori ahanzten duenarentzat, nor nahi izan dadin, judu ala giristino! (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 24)

Orobatasun-balio hau dela-eta, ez da harritzekoa balio bereko *edo*-rekin batera agertzea:

- (328) Orroit ala ez orroit, jiten ordean hura, goiz edo berant (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 139)
- (329) Mozkortzea orori gerta dakiguke; aberats ala pobre; lanetik edo lanik gabe bizi (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 203)

*Ala* juntagailu hautakariak elkartutako osagaien ondoren *eta* emendiozko juntagailuaz elkartuak ere aurkitzen dira; orduan badirudi berdintsu zaizkigun aukerak baino gehiago emendatzen, gehitzen diren aukerak ditugula aurrean:

- (330) Hetatik bat hau, hunekin lehenengo deputatu gorri ez-tienetarik zenbeit; gizon zuzenak beren hartan, eta zuzenak direlakotz, ohiko ala oraiko eta betiko gorri gaixtoek, tzarrek, lehen xuriak bezen edo gehiago begietan baitituzte orai (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 153)
- (331) Nor nahi, borondatu ona duten ber, zahar ala gazte, gizon ala emazte, jaun eta andere, ala den apalena bardin (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 141)

### 3.3. Juntagailu hautakariaren bidez juntatutako sintagmak eta aditz-komunztadura

#### 3.3.1. Numero komunztadura

*Edo* eta *ala* juntagailuek —eta gainerako juntagailu hautakariak ere— ez dute normalki batuketa baliorik eta, horrenbestez, normala da pentsatzea juntagailu hauen bidez juntatutako izen sintagmak, bakoitza bere aldetik singularrak hadira, ez direla pluralizat hartuko singularizat baino, aditz komunztadurari begira. Beraz, alde honetatik, *eta* juntagailuak eta *edo* nahiz *ala* juntagailuek alderantzizko ondorioak izango lituzkete aditz komunztaduraz den bezanbatean.

- (332) Ez da hori, ene iritziz, bokal luzea adierazteko bidea, *doinua edo azentua* bokal horrek *zeramalakoa* baizik (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 166)

Izen sintagma datiboekin ere gauza bera:

- (333) Zorionari edo zorion itxurari dagokionez (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 299)

Hala ere, zenbaitetan posible da pluraltzat hartzea:

- (334) Euskal Herria, edo Espainia edo Frantzia edo honelako beste edozer, hitz bat baino gehiago dira (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 269).

Pluralean agertzen bada, bistan da, hiztunak juntaturiko sintagma multzo hori erreferente pluralekotzat hartu duelako izan da. Pentsa liteke, hemen 'edo' baino gehiago 'eta' dugula.

### 3.3.2. Aditzaren pertsona komunztadura

Aditzaren pertsona komunztaduraz den bezanbatean, juntaturako izen sintagmak hirugarren pertsonakoak badira, inolako arazorik ez da sortzen. Numero komunztaduran ikusi dugu singularreko balioa duela juntadura hautakariak; beraz, halakoetan pertsona komunztadura izen sintagma singularrari dagokiona izaten da normalki:

- (335) a. Jon edo Andoni etorriko da.  
b. Mirenek ala Joxepak esan dizu?

Baina, lehen eta bigarren pertsonakoak ditugunean juntaduran parte hartzaile, arazoak sortzen dizkigu pertsona komunztadurak; aditz laguntzailean zein pertsona-marka ezarri jakin ezinik ibil gaitzke:

- (336) a. Zu ala ni joango ???  
b. Zuek ala ni joango ???

Euskal literaturan badira adibideak, non hautakaritza-juntadurak aditzari plural komunztadura ezartzen dion eta pertsonari dagokionez, aditzak emendioan bezala jokutzen duen:

- (337) Zeuk ala neuk asiko dogu erregua? (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 360)
- (338) Neuk sartu niyuan lurrean bezigua, i ala ni arrazoidun gintzoazen jakitearren (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 121)

- (339) Zuk ala nik nola dakikegu lege batek zer hedadura duen (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 122)

Baina badira bestelakoak ere. Halakoetan, sintagma singularizat hartzen da eta, pertsona komunztaduraz den bezanbatean, bigarren sintagmak agintzen du:

- (336) a. Zu ala ni joango naiz?  
b. Zuek ala ni joango naiz?
- (340) Orain ez dakit, Jauna, zu edo ni aldanu ote naizen (F. Aire "Xalbador", *Odolaren mintzoa*, 215)

Askotan perpausa bi zatitan banatzen dugu, komunztadura arazorik sortzen ez duen egitura hautatuz:

- (341) a. Nor joango da, zu ala ni?  
b. Nork esan du, zuek ala nik?

Hona hemen horrelako zenbait adibide, literaturan bilduak:

- (342) Eztabaida ontan, nork galtzen dula deritzak, ik ala nik? (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 128)
- (343) Gaur ikusiko nor helduko den hobeki, zu othoitzean arizanik, ala ni dantzan iostaturik (J. Barbier, *Supazter xokoan*, 53)

Jakina, perpaus juntadura garbiaren bidez ere egin daitezke horrelako itzuliak:

- (344) Zu joango zara, ala ni (joango naiz)?

### **3.4. Ezabaketak**

Aditz-ezabaketak eskuineko juntagaian gertatzen dira oro har. Ezkerreko juntagaia izan ohi da perpaus osoa eta ondokoan, *ala*-ren ondoren, errepikatzen ez diren elementuak bakarrik ageri dira (345)-(352):

- (345) Egia hauk sinhesten othe dirut, ala ez? Edo sinhets detzadan edo ez, ez dire gutiagi egiak (A. Baraciarri, *Meditazione tipiak*, 149)

- (346) Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza ona ote, edo gaiztoa zan; baizik irabazi edo atsegiñen bat emango ote zion ala ez (G. Arrue, *Santa Jenobeba*, 15)
- (347) Eure burutatik ua, ala aginduta? (E. Bustintza "Kirikiño", *Abarrak* II, 52)
- (348) Ezpaitakigu zeñez zerratzen den kontua, lehenbiziko egin dugunaz ala bigarrenaz (P. Axular, *Gero*, 117)
- (349) Galdegiten diogu atxoari etxetiar direnez, ala etxezain, ala etxearen jabe (J. Etchepare, *Beribilez*, 31)
- (350) Elizgizonak bakarrik ote dira eliza ala elizgizonak eta beste zenbait? (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 398)
- (351) Biak bardin hordi arrail; zoinek zeraman bertzea, ez baitzinen ezagutuko ez eta elgarten laguntzale ote ziren, ala poxolu? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 203)
- (352) Pobre diren errazu ala aberatsak (J.B. Elissanburu, *Poesiak*, 221 )

Modu berean bi izen-sintagma elkartzen direlarik izena errepikatzen bada, eskuinteko osagaien egiten da ezabaketa:

- (353) Hauta dezagun, bada, behin eta betiko zer nahi dugun: euskara garbia ala bizia (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 78)
- (354) Bada alafede hor zertaz trufa; zuek eta ni barne, irri-egingarri baita, zoin laster asetzen giren solasik arinenez ala pizuenez, ditaken gogoeta-garrienaz bardin (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 144)
- (355) Orain da bada kontua, eta pontua, ea zeinek duen atsegin eta plazer, edo trabailu gehiago, parabisuko bidean, ala ifemukoan dabillanak? (P. Axular, *Gero*, 322)

### 3.5. Tokia

Orain arteko adibideetan, elkartzen dituen osagaien artean aurkitu dugu *ala* juntagailua. Baina galde-perpauzetan juntagai bakoitzaren aurrean kokatua joan daiteke eta osagai bakarraren ondotik zintzilik ere geratu ohi da (*edo, eta* juntagailuak bezalaxe).

**3.5.1. Ala X, ala Y:**

Galde-perpauzean, galdegai bakoitzaren aurrean ezar daiteke, galdegaiok bi baino gehiago ere izan daitezkeelarik (360) adibideak crakusten duenez:

- (356) Eta ezta kigu ala ustekabeen, ala berariaz (P. Axular, *Gero*, 208)
- (357) Ezta antsia, ala probeari ala lesu kristo berari eman, ezta batek baiño bertzeak gehiago monta, eta ez balio, guztia da orobat (P. Axular, *Gero*, 151)
- (358) Kastidadiaren kontra pensamentu, berba, gurari, edo egitade loi bati puska baten bijotzian ezauberaz, ta naiz leku emon deutzanak, gixtija, ta ezer eza dala, berak uste izan arren, ez dabela jakingo erijotzako ordua artian, ala pekatu mortala ala beniala egin daben (B. Madariaga "Fray Bartolome". *Euskal-Errijetako Olgueetak*, 98)
- (359) Eta bildurren bildurrez ez ezkien zer egin be: ala oe azpian ezkutatu ala ate-osteko zulutik begiratu, deika eukena nor zan jakiteko (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 263)
- (360) Ala tiro batez, ala urean, ala gaitzak bet-betan ezagutza khendurik hilen naizen, nihork ezin erran (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 164)

Adierazpen-perpauzetan juntagai bakoitzaren aurrean ezar daiteke askotan balio banakaria emanaz. Juntagaia, bestalde, edozein kategoriatakoa izan daiteke, izen-sintagma nahiz perpausa:

- (361) Ala dadin aberats ala pobrea, gizona gizonaren duk haurridea (J.B. Elissanburu, *Poesiak*, 215)
- (362) Ala jan dezazün, ala edan dezazün, ala besterik zer nahi egin dezazün (...) oro Jinkuaren gloriatako egitzü (*Uskara libria*, 75)
- (363) Ala mendietan, ala zelhaietan, non-nahi ongi heldu da (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 319)
- (364) Eta geroztik hunat, igande egunaren sainduesteko eginbide hori, mendez mende bethi errepikatu eta sinkatu izan dute ala aita-sainduak ala kontzilioek ala enperadore, errege eta gobernamentu suerte guziek, salbu framazonek (J.P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 62)

- (365) Gure don Fakundori, ondo ekien erritarrek, ala baserrietako soloak ikustera urten, ala, eskopeta ta txakur pare bat artuta, eizara joan, iakon guren-gurena (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 133)
- (366) Ala aitorensemek, ala aphezek, bai eta aphezpikuek berek entsegu frango baderabilate herriko mintzajia zahar ederra xutik atxiki beharrez (J. P. Arbelbide, *Igandea edo Jaunaren eguna*, 35)

Azken adibidean, lehen ere (330)-(331) adibideetan ikusi dugun emendiozko juntagailuaren pareko balioa, bi juntagairen aurretik *ala* ezarri arren, hirugarrenaren aurretik *bai eta* ezarri izanak garbi asko adierazten duena.

Balio bera hartzen du galde-perpasean egon arren, galdegai ez diren juntagaien aurrean ezartzean:

- (367) Ezen nondik jali, asko herri tipi erromesetan, ala mutikoen ala neskatoentzat eskola berezi baten egiteko eta seroren edo fraiden bizi arazteko dirua? (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak Errepublikan*, 111)

### 3.5.2. X ala:

*Ala* juntagailua galde-perpasearen ondotik zintzilik uzten dugu batzuetan; orduan egiaz adierazten dena baieztapena da. Batez ere bizkaierazko testuetan ageri dira halakoak:

- (368) Gure hizkuntzaren egoera larriak ez zaituzte nahigabetzen ala? (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak* 138)
- (369) Agindu bear ditudanak, erriak esan bear zizkidak, ala? (J. Zaitegi, *Sopokelen antzerkiak*, 182)
- (370) Eta gizonak: zer ba, ama birjiñie-edo agertu yatsu ala? (N. Alzola, *Atalak*, 55)
- (371) Zer nai dok pa, putz einda aberastia ala? (J. San Martin, *Zirikadak*, 70)

Batzuetan *ala* ez da amaieran ezartzen, perpase-barruan aditzaren ondotik baino:

- (372) Ez zainuedaze ala zuek be ipuinzale? (F. Bilbao, *Ipuin barreka*, 59)
- (373) Eztakik ala ibajia Maltzarutz doiala ta ur-korrontak berutz eruango ebaia? (J. San Martin, *Zirikadak*, 121)

## 4. NAHI(Z), ZEIN juntagailuak

### 4.1. Forma eta funtzioa

Formari dagokionez, *nai* bizkaierazko testuetan ageri den aldaera litzateke aipagarriena. Bi juntagailu hauen erabilerekoa, berriz, mendebaldekoa da. Areago, *zein* bizkaierazko testuetan bakarrik aurkitu dugu.

Elkartzen dituzten osagaiak perpausa baino kategoria txikiagoak izaten dira oro har. Adibide gehienetan *nahi(z)* eta *zein*-ek izen-sintagmak, adizlagunak, aditzondoak, predikatu-sintagmak, partizipioak... juntatzen dituzte:

- (374) Beti bizi izan dira gizon asko alperrak, inor mutulduteko txorikume ederrak; eurena eztan gauzea atrapetan zurrak: basoak nai piztiak, arriak nai lurrak (E.M. Azcue, *Parnasorako bidea*, 331)
- (375) Askotan, ardau apurra nai pitxar bete sagardau eroan oi eban amak, gorputzari zerbait piztugarri emon nairik (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 59)
- (376) Zar, gazte, txiki ta andi, aberats nai txiro, ta neska ta mutillak alkartu ezkerro, itxarturik daukogun lo-zorro txarretik, atarskogu ama lokarri artetik (K. Enbeita, *Bertsoak*, 164)
- (377) Etxuat bein be entzun gure yatorrian gaztelarrak izan danik; baña Errodrigues nok, gure nai gurez (E. Bustintza "Kirikiño", *Abarrak II*, 183)
- (378) Martiñek arrazoia euki zein ez euki, ogeitxo bat makilla, ainbeste urtean, gitxienez eutsazan, bringau bizkarrean (F. Arrese Beitia, *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria*, 236)
- (379) Baltsakeri, gizartekeri ta olakorik inoz irakatsi nai ontzat emon ete eban gure jaunak? (J. Eguzkitza, *Gizarte-auria*, 12)
- (380) Eta hitz batek, ingurukoak gehitzen, gutxitzen nahiz aldatzen bazaizkio, ezin lehengoan iraun (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 348)

Izen elkartuko mugatzaileak ere junta ditzakete:

- (381) berotasuna, errea, sukarra, garratzasun nai minberaa antza dauka (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 196)



- (382) Euskal unibersidadea eztaukagun bitartean, auxe eskatuko neuke nik: euskal kulturako bazkuntzaren batek, edo bazkuntza baten baiño geiagoren artean, edo fraide nai apaizgai ikastetxe nagusien arte, euskal kulturaren irakasletzako titulu bat sortu (N. Alzola, *Atalak*, 137)
- (383) Zaharzailea nauzue, baina zahar nahiz berri-zaletasunean beharrezkoa dirudi neurriak (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 344)

*Ala* juntagailua bezalaxe, aposizioan doazen sintagma absolutu mugagabeak juntatuz ere aurkitzen dira (ik. kapitulu honetako (313)-(315) adibideak):

- (384) Erbi zein koneju, meriendatxo bat emon bearco deustak beintzat gaur adar-jote onen ordez (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 136)
- (385) Beti irribarrea ezpanetan; beti agurrik zintzo ta bertena, aberals zein txiro, guztientzat (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 133)

Perpaus jokatuak ere elkartzen dituzte:

- (386) Esku lanez egindako gauzak truketako nai diru-ordez saltzeko dauken aldin edo balioa, langilleak orritan sartu eta ezarri bear izan dauan gizarte lan errañarena bestekoa da, ez andiagoa, ez txikiagoa (J. Eguzkitza, *Gizarte-auzia*, 61)

baina bitan bakarrik aurkitu dugu *zein* menpeko perpaus jokatuak elkartuz; adberbio balioko perpaus laburrak dira gainera:

- (387) Nire biotzean, bizi bada zein ildala, Josetxo dago, ta eztago lekurik besterentzat (J.M. Echeita, *Josetxo*, 290)
- (388) Olan dala zein alan dala, Bilbora joan bear don (J.M. Echeita, *Josetxo*, 158)

## 4.2. Balioa

'Orobatasuna' adierazten dute *nahiz* eta *zein* juntagailuek, (323)-(331) adibideetan *ala* juntagailuak duenaren parekoa, aukera bat edo bestea berdintsu zaiola biztunari edo idazleari adierazten duena:

- (389) Batera nai bestera izan, neskamea estura gorrian jarri da (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 157)
- (390) Gure aldikoa izan balitz, gure gisako gizona eta idazlea izango gendukeen, hobeoa nahiz kaxkarragoa, baina antzekoa eta kidea (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 293)
- (391) Edertasunik saltzen inñun balegoke, kostako dana kostatuta garesti naiz merke, zuretzat pozikan nik erosiko nuke, erregalarutzeko pelukaren truke (P. Urruzuno, *Euskal erritik zerura*, 85)
- (392) Gaiñerako ioko guztietan, azentuak ez daude ain ongi banaturik, geiegi naiz gutxiegi diralako (J.I. Goikoetxea "Gaztelu", *Musika ixilla*, 32)
- (393) Ikusiko dozue zein polito ikasiko deusuen aita gurea naiz beste edozein leziofio (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 76)
- (394) Urliari naiz sandiari galdetuaz ez tugu auzi au garbituko (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak*, 141)
- (395) Baña, gure esanak gora-beera, gazteok biyoaz aurrera, gurekin naiz gure gañetik (J.M. Aguirre, "Lizardi", *Itz lauz*, 58)
- (396) Itxasoan, legorrean, errian naiz erritik landa, non da baztarrik, bat edo baten gorpuzka erio gelditu ez zanezko? (N. Ormaechea, "Orixe", *Quito-n Arrebarekin*, 113)
- (397) Mikaelak ez eutsan ezer erantzun; baiña bizarregaz zein bizar barik, urrengo goizean-goiz etxe-atzeko soloan egoan, sokillak apurtuten ekinalean (F. Bilbao, *Ipuin-barreka*, 165)

Ez da harrizkoa adibide berean 'orobatasuna' adierazteko juntagailu hautakari bat baino gehiago txandaturaz azaltzea:

- (398) Gisa onetan, beti bilddurrez ezin ibilli letekezan itxasalde guztiko arrantza-leak, eta artu eben burubidea, zelan edo alan, il nai bizi, ezetsi ta azpiratzeko alegiñak egittea (J.M. Echeita, *Josetxo*, 117)
- (399) Baserritarrak agertuten ziran, zekor, bigantxa, edo inoiz bei zaar nai idi argalen bat ekarrela; adarretatik edota sudur-mitzetatik lotuta; aurretik mutikoren bat edo neskatoren bat, sokea eskuan ebala eta atzetik aren aita, aitita, osaba nai auzoko mutil sendoa (E. Erkiaga, *Batetik bestera*, 50)

- (400) Bata, izentauriko Jontxu, Arantzaren nebea zan; ezizenez edo izengoitiz Bizkor esaten eutsen, au naiz ori egiteko, orra ala ara joateko beti gertu egon oi zalako (E. Erkiaga, *Arranegi*, 27)
- (401) Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzeak, Pygmalion ez da gure artean ezaguna, larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 386)
- (402) Orrelakoxe laket aldiak zuzpertzta aizatzen ditu kaieko lagunak, zar ta gazte, atso naiz agure, lirain zein lodi, ankarin ala oiñastun (E. Erkiaga, *Arranegi*, 197)

Hala ere, batzuetan badirudi ez dela 'orobatasuna' adierazten, 'aukera' baliotik gertuago dagoela erabilera hori:

- (403) Baña berba bat; eta da, ez tala bardin, asmetea batek bere arteko griña edo inklinaziño txar karidadearen kontrakoa, zein karidadean uts egitea (P.A. Añibarro, *Lora sorta*, 55)

Azken adibide honetan juntagailu hautakaria eta emendiozkoaren pareko dela esango genuke, lehen *ala* juntagailuaren zenbait adibideetan ikusi dugun bezala (cf. (288), (308), (309), (330) eta (331) adibideak).

### 4.3. Ezabaketak

Orain arte aztertutako juntagailu hautakarietan bezala, sintagma osoak, kasu-markadun osagaiak, elkartzen dituzte gchienetart *nahi(z)* eta *zein-ek*:

- (404) Nikanor'en barruan alako sentimentu samurra sortu-erazoteko alegiñak alegin egiten ditue, zori eskasez nai itxaropen obez, batzuetan (E. Erkiaga, *Bateik bestera*, 199)
- (405) Eguraldie aizetara nai euritara aldatu bear dan egunetan, aizea ta eurie zerutik datozana badakik eta iretargi papu-andie zerura begire geldituten da (R.M. Azkue, *Patxi guzur*, 154)
- (406) Sendiak uriaren nai estaduaren alal egiñaz, bere bereak dituan eskubideok galduko ba'litu (J. Eguzkitza, *Gizarte-auzia*, 95)

- (407) Uste ahal duzu legeak, elizarenak nahiz erregerenak, utziko ziola hori egiten? (J. Mirande, *Idazlan hautatuak*, 178)
- (408) Ain da biarra janurrija ganadubarentzat zein guretzat gexo danian (J.A. Uriarte, *Dialogos*, 76)
- (409) ikusbide ederra ta baketsua egoan zeruan zein lurtean, inguru guztietan (J.M. Echeita, *Jose txo*, 250)

Hala ere, bi izen juntatu aurki ditzakegu sintagma zenbatzailea edo erakuslea hartzen duenean determinatzailetzat, edo izenaz gain izenondoak edo izenlagunak osatzen duenean izen-sintagma:

- (410) Gizon nai giza-aldra bakotxak besteakazko artu-emonetan alkarri zor dau-  
tsen zuzenbidea, gizabatz osoak bakide bakotxari zor daušana baño askoz be  
ertsi ta estuagoa da (J. Eguzkitza, *Gizarte-auria*, 179)
- (411) Udazken arrats odoldu ezti entzuidazu bihotza, pago hostoen hosto naiz orbel  
errietan lotsati (J. Azurmendi, *Hitz Berdeak*, 58)
- (412) milla ta aundiak badira ere emengo aitz zein mendiak, dira geiago ta aundiak  
goak seme txit miragarriak (F. Arrese Beitia, *Ama Euskeriaren Liburu  
Kantaria*, 102)
- (413) ez dauke indar bardiña, edozein gizonek nai emakumek egiten dituezan  
erreguak eta eskariak? (A. Iturzaeta, *Azalduera laburra*, 169)

Azken adibide honetan badirudi bi izen-sintagma juntatzen direla, *edozein* bigarrenean isilpean utzi delarik. Zenbatzailekun sintagma ere junta daitezke ordea:

- (414) obe zaizu, ba, esku-motz edo errenik zeruan sartzea, betiko sutara bi eskuak  
naiz bi oñak dituzula joatea baño (M. Atxaga, *Gaztetxo*, 48)

Juntatzen diren sintagmetako izena errepikatzen denean, bigarrenean isilpean utzi ohi da:

- (415) Gizartean lotzen eta askatzen gaitu hizkuntzak, hizkuntza honek nahiz horrek,  
bakarkako amets gogoetelan baino areago (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*,  
386)
- (416) euskal idazleak, gure kulturaren ispilu garden eta distiratsu behar zuketenak.

ez zitzaizkigulako inuditzen, haien berririk inoiz heltzen bazen gure aditzera bide zuzenez nahiz okerrez, gure usteen neurriko mailakoak (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 279)

- (417) ikasi ebazan arrantzuko bizibidean egitten zirean arazo guztiak, eta ekandu zan itxasoan ibiltzen, eguraldi onakaz zein txarrakaz (J.M. Echeita, *Josetxo*, 103)

Ondoko aposizio-sintagmetan ere izena isilpean utzi da, izenondo edo izenlagunak juntatuz:

- (418) Sartaldeko Europa honetako hizkuntzekin, zahar nahiz berriekin, ari denak nola ez eduki euskara gogoan? (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 144)
- (419) Eta, hori aski ez dela, informazio-teoriak, automaten teoriak, zibernetikak, itzulpen automatikoak eta beste hainbestek behartu ditu azkenean linguistikak, hizkuntzalariak, beste jakiteetara, inguruko nahiz urrutikoetara, begiak iraultzera (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 196)

Dena den kasu-marka bigarren juntagaian soilik ere ageri da, bizkaierazko testuetan batez ere:

- (420) Jesus garbija: zuk ikusten dituzu gabaz, ta egunaz, etxe, bide, plaza, baso nai beste zurkulubetan (J.J. Moguel, *Baserritar nekezaleentzako eskolia*, 237)
- (421) Mutill nai gizonik nasaijeena bada, ez da inporta (J.J. Moguel, *Baserritar nekezaleentzako eskolia*, 133)
- (422) Ugazabak bere ola nai lantegian daukazan tramankulu, bulzkin eta makiñak, balio bakoak ete-dira? (J. Eguzkitza, *Gizarte-auzia*, 60)
- (423) Osterantzean Anton ona zan benetan, aberats zein pobreak danak serbietan (F. Arrese Beitia, *Ama Euskeriaren Liburu Kantaria*, 301)
- (424) bazkari bategaitik, ogerleko batzukaitik, edota makillau piltoa nai txarrikumearen jan tropegaitik bere bai inoiz (E. Erkiaga, *Batetik Bestera*, 67)

#### 4.4. Tokia

Orain arteko adibideetan *nahi(z)* eta *zein* bi juntagairen artean kokaturik ikusi ditugun arren, juntagai bakoitzaren aurrean errepikaturik ere ager daitezke, balio banakaria hartuaz. Juntagaia, noski, izen-sintagma, adizlaguna, adjektiboa, perpaus jokatu edo perpaus jokatu mendekoa izan daiteke. Bi juntagaitik gora ere aurki ditzakegu:

- (425) Aingeruak ta Isabel Deunak itz ber-beraz alabatzen dute Maria, naiz aingeruak zeruan eta naiz gizonak lurtean onetsizat daukatelako (D. Intza, *Kristau ikasbidea*, 156)
- (426) Naitaezkoa zan Agerre, Dorronsoroko gertakizun guztietan, naiz alaialdietan, naiz itunaldietan (T. Agirre, *Uztaro*, 314)
- (427) Joan Gurutzeko, beraz, eredu jator dugu bame-bizitzarako, txit garrantzitsu nai andik nai emendik, edozein ertzez begiratuta (J.I. Goikoetxea, "Gaztelu" *Musika ixilla*, 145)
- (428) Nahiz frantsesez, nahiz alemanez, nahiz ingelesez, mundu guztiko liburuetan topetan dituz berak ikasitako berbak (J. Basterretxea, Oskillaso, *Kurloiak*, 119)
- (429) Itz au (...) ezta alde egiterakoan bakarrik esatekoa: baizik naiz ongi etorria ematerakoan, naiz alde egiterakoan alkarrengandik, esan litekena (N. Etxaniz, *Nola idatzi euskeraz*, 10)
- (430) Nai txantxetan zuazala, nai benetan zuazala, bardin bardin erreko zaituz ango subak (P. Astarloa, *Berbaldiak*, 146)
- (431) Joan Gurutzekoak, berriz, zein ikusmena zein entzumena, biak zeuzkan zorrotz-zoliak (J.I. Goikoetxea, "Gaztelu" *Musika ixilla*, 145)
- (432) Zein organuba, zein biolina, zein gitarria, zein tanbolina, zein tronpia, zein sartain zaar bat, baserrietako bigiretan useetan dan legez, guztiekin jotan da soinuba (B. Madariaga "Fray Bartolome", *Otgetak*, 32)
- (433) Zuk, dana dala, ni makillatuba ixatia gura dozu, orratifio, bardin ixango jatzu zein an jo zein emen jo, makilladak neuk artu ezker; artez diñot? (B. Garro, "Otxolua", *Bertolda eta Bertoldin*, 35)

- (434) Zein bekatu guzia ezkutatu, zein estalgarriekin eskusatu, oro bat da (J.A. Moguel, *Konfesioe ta komunioko... erakasteak*, 112)

Bi juntagailuen kideztaren lekuko, txandaturik ere ager daitezke bata juntagai baten eta bestea bigarren juntagaiaren aurrean:

- (435) Aritx maitea nai dala osasunaz, zein gexo txarretan, naibagez ondaturik, zein atsegiñetan (J.M. Echeita, *Jose txo*, 261)

Ezin dira, ordea, juntagai bakarraren ondoren zintzilik utzi; ezin da, esate baterako, (436) bezalakorik eratu:

- (436) a. \*edozer jango luke, legatza nahiz...  
b. \*edozer jango luke, legatza zein...

Bestalde, ez dira lokailuen laguntzan ageri, baina bai *eta* emendiozko juntagailuaren eta *edo* hautakariarekin batera. Goiko (425) adibideaz gainera ikus beste hauek ere:

- (437) Nai ardaa, nai ura edo nai petroliua, edozer biar eban egarriak itoko ezpa eban (J. San Martin, *Zirikadak*, 18)
- (438) Nagusi etxeoandreai etzaie gaizki etorriko arratsaldean naiz lukainka mutur edo naiz txokolate goxoa artu nahi badute (I. Munita, *Gure mendi ta oianak*, 70)
- (439) beltzak eta zuriak Muñagorriekin geldituko gerade bandera batekin; gero naiz onekin edo naiz arekin, nai degunarekin, geldituko gerade gu fueroakin (A.P. Iturriaga, *Ipuiak*, 212)
- (440) Nola nahi den dela, begiratu behar da ihardukitzetik eta etsaiaren akometatze-tik, nahiz dela etsai hura zure berdin, nahiz handiago, eta nahiz nipiago (P. Axular, *Gero*, 220)
- (441) Ekusiko dituzu asko, ta asko emakume, agertzen diran jauntzi mota berriai jarraitzen naiz etxea gaizki geratu, naiz etxeo pakea galdu, eta naiz jaunaren legea era askotara ausi dedilla (J.B. Aguirre (Asteasnoa), *Erakusaldiak III*, 606)

Juntagailuekin batera agertzeak lokailu direlako baieztapenera eramango gintuzke.

Alde honetatik, *dela ... dela ...*, *hai ... hai ...* eta antzeko formulen pareko lirateke, hauek ere izen-sintagma, adizlagun, perpaus jokatu gabe edo mendeko perpaus jokatuaren aurrean ezartzen direnean banakaritza balioa adierazten baitute:

- (442) Hirietan ala oihanen erdian, etxen erdiak ostatu; batzu agerian, bertzeak gordez, arno saltzen, aguardient saltzen; dela koñaka, dela bermuta, dela chartreuse, zernahi izenetako edari guzietarik urrats guziez, edateko (J. Hiriart-Urruty, *Zezenak errepublikan*, 27)
- (443) Makurtua gorputzaren atsegiñ loietara, dala janean, ta edanean, dala jaunzian, dala jolas, ta ibillera lotsagarrietan (J.B. Aguirre (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 624)
- (444) Gizon gazteak alabainan, dela argitzeko, dela bere adin ederraz gozatzeko, nahiago hiri handia (J. Etxepare, *Buruxkak*, 48)
- (445) Begira, zure begiak erabili ote dituzun zuretzat bekaturako bidea dakarten gauzak ekusten, dala bakarrik zaudenean, dala senide, edo auzokoakin jolasean zabiltzanean? (J.B. Aguirre, (Asteasukoa), *Erakusaldiak III*, 143)
- (446) Zeren, zurea balinbada, semea izan dadin, edo izan dadin alaba, ez baitu aitaren egiterik (J.B. Elissanburu, *Piarres Adame*, 26)

Inoiz behin *eta* edo aditz jokatu bat ere indargarri moduan-edo erabiltzen dira:

- (447) Justino Santu edo deunak bigarren mendean erakusten zuan ez zala gizon motarik, naiz basatietan, naiz grezitarretan, naiz ta beste edozein izenetakotan... (D. Intza, *Kristau ikasbidea*, 89)
- (448) Bestetan berriz, nai dala epeltasuna, nai nagitasuna, nai gogoraziño txarrak, askotan asmako dozue, ta pazientzia andia bearko dozue, ez gogaituteko (P.A. Añibarro, *Lora-sorta espiritual*, 90)

## 5. EZPA

Antzinako autore batzuek, hala nola Etxepare, Leizarraga edo Pouvreauk, *ezpa* erabili izan dute juntagailu hautakari bezala, perpausetik beherako atalak juntatuz; gainerakoan badirudi *edo*-ren distribuzio bera duela (bi zenbatzailereren artean edo bi



sinonimoren artean koka daiteke; bai eta bi galde-hitzen artean ere). Dena den askotan ez da bat ere garbi ikusten *ezpa* juntagailu hautakari den ala *ezpada*-ren baliokide. Nolanahi den, adibide argi samarrak iruditzen zaizkigu ondokoak:

- (449) Zer axola duzu hau huncelako ezpa horrelako izaiteaz, edo hura hunela ezpa horrela haritzeaz edo mintzatzeaz? (S. Pouvreau, *Imitazionea*, 162)
- (450) Baratxe eder batetan ibilli direnak eztira gogotik ilkiren lau ezpa bortz lore eskuan hartu gabe (S. Pouvreau, *Philotea*, 108)
- (451) Zer bidez ezpa nolatan nehor on handi horretara hel ahal daite? (J. Leizarraga, *Othoizta*, 7)
- (452) Bada, ministre on eta fidel batek kontsideratzeko eta bilhatzeko du zein den eri baten, ezpa aflijitu baten konsolatzeko moienik hobena (J. Leizarraga, *Othoizta*, 30)
- (453) Eta lehenik, gauza klaroa da, ezen lainkoaz ordenatu ezpa manatu etzaikun guzia, gure libertatean dela (J. Leizarraga, *Othoizta*, 20)

## LABUR BILDUZ

Juntagailu bakoitzaren nondik norakoak xehetasun handi samarrez azaltzen ahalegindu ondoren, honela labur daiteke bakoitzaren erabilera:

1. *edo* da juntagailu hautakari bakarra:

a. Bi sinonimo juntatzeko:

(454) garbitasun edo kastidatea

b. Bi zenbatzaile zehaztu juntatzeko, galde-perpausetan ez bada:

(455) bi edo hiru liburu

2. *edo*, *edota* dira honako distribuzioan ageri direnak:

a. Adierazpen-perpaus jokatuak elkartuz. Askotan murriztapen- (*edo behintzat, edo bederen*) edo baldintza-kutsua (*edo bestela*) adierazten du juntagailu hautakariak. Orduan bigarren juntagaiak ez du egiaz aukera desberdina adierazten, baizik lehenak adierazten duenaren aldaeratzat edo hartzen da:

(456) Andonik esan du bilerara etorriko dela edo/edota bestela txostena bidaliko duela

b. Adierazpen-perpausetan, perpaus jokatu gabeak edo sintagmak elkartuz, 'aukera' adierazteko:

(457) Hil edo biziko auzia dela esan digu

Alde honetatik azken urteotan hedatu den joerak, hau da bi antonimoren (kontrakoa adierazten duten bi hitzen) artean *ala* juntagailua ezartzekoak (*hil ala biziko auzia*), ez du literaturan tradizioirik.

c. Galdera desberdinak adierazten dituzten galde-perpausak edo bi galde-hitz juntatzeko:

(458) a. ez al diguzu esan behar noiz edo/edota nola joango zaren?  
b. Trena huts egin duzu edo zer arraio gertatu zaizu hain berandu heltzeko?

d. Galde-perpausetan galdegai ez diren juntagaiak elkartzeko:

(459) Zer zerikusi du horrek ezkoduta edo/edota ezkongai egoteko?

3. *edo* eta *ala* ageri dira:

a. Bi perpaus elkartzen direnean, bien artean aukera (galdera) bakarra adieraziaz:

(460) a. Zinera joango gara ala nahiago duzu etxean gelditzea?  
b. Zinera joango gara edo nahiago duzu etxean gelditzea?

b. Galde-perpauetan, galdegai diren atalak elkartzeko:

(461) a. Zer hartuko duzue, ardoa ala sagardoa?  
b. Zer hartuko duzue, ardoa edo sagardoa?

Bi juntagailuak erabiltzen dituzten euskaldunentzat edo “koiné” bat erabiltzen ohituak diren idazleentzat, normalagoa da halakoetarako *ala* hautatzea. Ohart gaituzen bestalde, (460) eta (461) bezalako egituretan juntagailuak (*ala nahiz edo*, edozein erabiltzen delarik ere) ‘aukera’ balioa hartzen duela, hots, juntagai bataren edo bestearen arteko aukera adierazten duela (ik. 1.2. puntuan egiten den ‘aukera’ eta ‘orobatasuna’ balioen arteko diferentzia).

4. *edo, ala* (batez ere Ipar-Ekialdeetan), *nahiz* eta *zein* (Hegoaldean) erabiltzen dira perpaus jokatugabeak eta era guztietako sintagmak (perpausetik beherakoak) juntatuz ‘orobatasuna’ adierazteko, juntagaien artean bata zein bestea berdintsu zaigula aditzera emateko:

- (462) Hizkuntza bat edo bestea jakiteak, ongi ala gaizki, hala nahiz honela mintzatzearak (...) larru-azaleko koloreak baino gehiago batzen eta bereizten gaitu (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 386)



## AURKARITZAKO JUNTADURA

### 1. Juntagailu aurkariak

1.1.- Aurkaritzako juntadura gauzatzeko bide bat baino gehiago du hiztunak eskumenean, guttiz jakina denez. Alborakuntza hutsa bera, esate baterako, nahikoa izan daiteke inoiz horrelako elkarketa bideratzeko:

- (1) a. Uzta ugaria da, langileak gutxi

*Eta* juntagailuak ere –adiera desberdinetara irekia dagoen oinarrizko juntagailua izaki– nolabaiteko aurkaritza adierazten duen juntadura gauza dezake:

- b. Uzta ugaria da *eta* langileak gutxi

Horrelakoetan, noski, juntaturiko perpausek erakusten duten kontrako esanahiari berari zor zaio aurkaritza-balioa, ez alborakuntzari edo *eta* juntagailuari. Badira, ordea, berez *eta* berariak aurkaritza adierazten duten juntagailuak *eta*, hortaz, “juntagailu aurkari” dei ditzakegunak. *Baina*, esate baterako:

- c. Uzta ugaria da, *baina* langileak gutxi

Azken juntagailu hau erabiltzen duenean, garbi uzten du hiztunak badela perpausen artean nolabaiteko kontrakotasuna, hau agerikoa ez denean ere. Ikus, esaterako, ondoko bi perpaus hauen arteko aldea:

- (2) a. Gaztea da, *eta* langilea

- b. Gaztea da, *baina* langilea

(2a) perpausean gauzatzen den juntadura aski irekia da balioaren aldetik *eta* testuinguruaren argilara ulertu beharko da. Aurkaritza-kutsua duena izan daiteke, jakina, *baina* baita emendiozko soila ere, hau da, *gazte* izateari *langile* izatea besterik gabe emendatzen diona, *eta* are ondoriozkoa, hots, *langile* izatea hain zuzen *gazte*

izatearen ondorio suposatzen duena. (2b) perpausa esaten duenak, berriz, berariaz adierazten du aurkaritza; *gazte* eta aldi berean *langile* izatea zaila dela suposatzen bide du eta agerian ipintzen du bere ustea, *baina* erabiliz.

1.2.- Goiko adibideko *baina* horrek aditzera ematen duen aurkaritzaz bestelakorik ere bada, ordea, ondoko perpausak erkatuz ikus daitekeenez:

- (3) Etorri da, BAINA ez da hemen gelditu
- (4) a. Ez da nire nahia, BAINA/BAIZIK/EZPADA zurea  
b. Ez da nire nahia, zurea BAIZIK/BAINO

Adibide horietan ageri den bezala, bi aurkaritza-mota ditugu euskaraz, aski desberdinak. Lehenak —(3) adibideak erakusten duenak, hain zuzen—, nolabait ere bata bestearen kontrako diren bi juntagai elkartzen ditu eta *baina* juntagailuaren bitartez gauzatzen da euskalki guztietan. Bigarrena, berriz —(4) adibideetan ageri dena—, galdegai bat ezeztatuz eta haren lekuan beste bat baieztatuz gauzatzen da, euskalki diferenteetan juntagailu desberdinez bideratzen delarik: Iparraldean *baina* erabiltzen da esknarki bigarren mota honetarako ere; eta Hegoaldean, berriz, *baizik*, *baino* eta *ezpada* erabiltzen dira eskuarki, azken biak mendebalean batez ere. Horiexek dira behintzat joera nagusiak, aipaturiko mugak guztiz zehatzak ez badira ere.

1.3.- Gogoan hartu behar da, noski, juntaduraz bestelako egitura batzuetan ere erabiltzen dela inoiz *baina* hitza —menderakuntza gisako egituran edo lokailu gisa, hain zuzen—, eta *baizik* eta *baino* hitzek, bere aldetik, balio murriztailca dutela zenbaitetan.

## **2. BAINA, aurkaritza-juntagailu nagusia (A, *baina* B )**

(Aldaerak: *bana*, *bainan*, *baia*, *bena*, *baino*... Azken hau *baina*-ren aldaera da zenbait lekutan; ez da, ordea, *baizik*-en esanahi berekoa den bizkaierazko *baino* juntagailuarekin nahasi behar)

### **2.1. Aurkaritza honen zer-nolakoak**

Gramatika eta hiztegi gehienetan aditzera ematen denez, nolabait kontrajarriak dauden bi perpaus edo bi sintagma elkartzeko erabili nahi da esknarki *baina* juntagailua.

Bata bestearen “aurka” dauden esaldi bi juntatzeko, alegia. Zer esan nahi du horrek, ordea? Nola daude elkarren “aurka” edo “kontrajarriak” horrela elkarturiko perpausak? Esaten errazago da, noski, argitzen baino.

2.1.1.- Hasteko, hau esan behar da: juntadura horretan ez dutela derrigor perpausak bataz baiezkoa eta besteak ezezkoa izan behar, inoiz horrelakorik adierazi izan bada ere. Horrelakoak gerta daitezke, noski, baina baita biak baiezkoak edo biak ezezkoak ere:

- (5) a. Nik badakit, baina hark ere badaki
- b. Nik badakit, baina hark ez daki
- c. Nik ez dakit, baina hark badaki
- d. Nik ez dakit, baina hark ere ez daki

Gainera, ez dute zer izan adierazpen-perpausak. Bestelakoak ere izan daitezke: galde-perpaua (6), agente-perpaua (7 eta 8) edo are harridura-perpaua ere (9). Hona, esate baterako:

- (6) Gizon hori ezagutzen dut, baina non ikusi dut?
- (7) Atera zaitezke, baina etorri laster!
- (8) Sar zaitez, baina presa daukat
- (9) Merkeak dira, baina bai politak!

Ez, kontua ez da perpausak nolakoak diren, baiezkoak ala ezezkoak. Kontua da —perpausak diren gisakoak direla ere— bigarrenaren esanahiak “kontra” egiten diola nolabait ere aurrekoari.

2.1.2.- Nola egiten dio, ordea, “kontra” edo “aurka”? Ez zuzenean, noski. Ez, alegia, hark baieztatzen duena ezeztatuz edo hark ezeztatzen duena baieztatuz, *A baina ez A* gisako lotura eginaz, hori logikaren legeak haustea izango bailitzateke. Aurreko perpausari berari ez, hark iradoki edo suposaraz dezakeen zerbaiti egiten dio kontra bigarrenak. *“A perpausak B iradoki edo suposa arazi dezake, baina hala ere kasu honetan ez B gertatu da”*: horra, gutxi gorabehera, aurkaritzako elkarketan esaten dena. Ikus ditzagun, esate baterako, honako adibide hauek:

(10) Nire erlojua merkea da, baina ona

(11) Euria ari du, baina ez naiz bustiko

Hori esaten duenak, honako hau adierazten du gutxi gorabehera: "nire erlojua merkea da bai, baina, hala izanik ere eta erloju merkeak gehienetan txarrak izaten badira ere, nire hau ez da txarra, ona da" eta "euria ari du bai, baina, hala izanik ere eta euria egiten duenean bustitzeko arriskua badago ere, oraingoan ni ez naiz bustiko", hurrenez hurren.

Iradokizun-kontu hori areago zehazten ez da erraza, noski. Bistakoa da, edozein modutan ere, oso zahal hartu beharreko gauza dela. Elkartetaren lehen perpausak suposarazten duenak ez du haren ondorio zuzena izan behar derrigor; haren inguruan pentsaturiko zerbait ere izan daiteke. Ondoko perpausan, esaterako:

(12) Ni ez naiz zinera joan, baina laguna bai

"Ni zinera joana ez izana"k ez du berez eta beti "laguna ere joan ez dela" iradokitzen. Hiztunak *baina* juntagailua aukeratu duenean, ordea, horrela pentsa dezakeen mintzalagunari aurre egiten dio.

Gauzak guttiz zehazten erraz ez bada ere, bizpahiru gauzatxo bederen esan daitezke, ordea, kontu honen inguruan:

a. Lehen perpausetik *nahitaez* ateratzen dena ez da iradokizuna, nahitaezko ondorioa baizik, eta horrelakorik ezin du, jakina, bigarren perpausak ezeztatu. *Afrikar izateak*, esate baterako, *amerikar ez izatea* dakar nahitaez, irakurketa normalean bederen: hori ez da iradokizuna, hori nahitaezkoa ondorioa da. Hortaz, ondoko perpaus hau ez litzateke zuzena izango (\**A baina ez A* izango bailitzateke hau ere):

(13) \*Gizon hori afrikarra da, baina amerikarra

b. Oso testuinguru berezietan ez bada, badira iradokizun-itxurarik batere ez dutenak eta, hortaz, aurkaritzarako biderik ere ematen ez dutenak. Horixe da, esate baterako, ondoko perpaus honetan gertatzen bide dena:

(14) ??Bihar jai da, baina japoniarrak asiarrak dira



Izan ere, bururatzen ere ez zaigun oso inguru bereziren batean ez bada behintzat, *bihar jai izatea*-k ez du inolaz ere *japoniarrak asiarrak ez direnik* iradokitzen.

c. Arrazonamendu logikoak, kultur ezaguerak edo testuinguruak esango digute askotan zer den bigarren perpausaren "aurka" lehen perpausak iradokitzeu dueua, edo, zuzenago esanda, zer dueu bigarren perpausak lehenak suposa arazten duenaren "aurka". Demagun, esate baterako, ondoko perpaus bikote hau:

(15) Berandu da, baina joan egingo naiz

(16) Berandu da, baina geratu egingo naiz

Lehen begiratuan badirudi ezinezkoa dela bi perpaus horiek zuzenak izatea; bietako batek okerra behar duela, alegia. Gauzak poliki ikusita, ordea, biak zuzenak izan daitezkeela ikusiko dugu. Izan ere, testuinguruak agintzen du hor. Eta asmatzen hasten bagara, haiubat testuinguru egoki asma dezakegu, batarentzat bezala bestea-  
rentzat ere. Honako hauek, adibidez: "*Berandu da inoren etxera bisitan joateko eta, hortaz, badirudi ez nukeela joan behar, baina larri nabil eta joan egingo naiz, hala ere*". Edo: "*Berandu da eta etxera joateko ordua iritsi zait, haina pozik nabil dantzan eta geratu egingo naiz*". Testuinguruak erakusten digu, esan bezala, zer iradokitzen duen lehen perpausak bigarrenaren kontrako egiten duena. Testuinguru hori gabe "arraro" egingo zaigu askotan perpausa. Ondoko hau, esate baterako, galde-ikurtzaz emango luke batek baino gehiagok:

(17) Erloju hau merkea da, baina txarra

Izan ere, badirudi merkea izateak txarra izatea iradokitzen duela beti ere eta, hortaz, hor ez dagoela *baina*-reutzat lekurik, ez baitago inolako aurkaritzarik. Baina izan daiteke hor ere perpausa zuzena egiten dueu ingururik. Demagun bezero batek "erloju on eta merkea" eskatu diola dendariari. Honek bat erakusten dio. Bezeroak erlojua hainu, aztertu eta honela dio: "*erloju hau merkea da eta, hortaz, badirudi nire eskaria bete dezakeela, baina, bestalde, txarra da eta, beraz, ez du betetzen. Ez dut nahi*".

2.1.3. Azken adibide honek, hain zuzen, orain arte esandakoa are zehatzago agitzen lagunduko digu. Orain artekoa honela irudika dezakegu informalki:

(18) A baina B = [A ( $\rightarrow$  -B), eta hala ere : A + B]

Eta horixe da, adibidez, goiko (10) eta (11) perpausetan gertatzen dena. Zenbaite-tan, hala ere, bigarren perpausak ez dio aurrekoaren iradokizunari zuzenean kontra

egiten, beste iradokizun baten bitartez baizik. Horixe da, hain zuzen, ondoko adibide honetan gertatzen dena:

(19) Euria ari du, baina badut euritakoa

Perpaus honen iruzkina hau litzateke: “*euria ari du (eta, beraz, bustitzeko arriskua dut), baina euritakoa dut (eta, hortaz, ez naiz bustiko)*”. Irudikapen informala, berriz, beste honako hau:

(20) [A ( $\rightarrow$  C), B ( $\rightarrow$  -C) eta hala ere : A + B]

2.1.4.- Horra, beraz, labur esanda, zer den *baina* juntagailuaren bitartez gauzaturiko aurkaritzak egiten duena:

a.- Ez nahitaez baiezko perpaus bati beste ezezko bat elkartu.

b.- Ez, bigarrenik, esaldi bat baieztatu eta ondoren hura bera ezeztatu.

c.- Ez, hirugarrenik, perpaus baten nahitaezko ondorioa ezeztatu ere (\**gizon hori afrikarra da, baina amerikarra*), hori ere zerbait aldi berean baieztatzea eta ezeztatzea izango bailitzateke.

d.- Ez, azkenik, perpaus bat eta honen iradokizunekin zerikusirik ez duen beste perpaus bat elkartu ere (? *bihar jai da, baina japoniarrak asiarrak dira*).

e.- Bai, ordea, perpaus bat eta haren iradokizunari “aurka” egiten dion beste perpaus bat juntatu (*euria ari du, baina ez naiz bustiko*).

f.- Bai, orobat, aurkako iradokizunak dituzten perpaus bi juntatu ere (*euria ari du, baina badut euritakoa*).

## **2.2. Baina-k elkartzen dituen juntagaiak**

2.2.1.- Gauzak ez nahastearren, *perpausen* juntaduraz mintzatu gara ia beti aurreko atalean. Eta egia da sarri askotan *perpaus osoak* izaten direla *baina* juntagailuaz elkartzen direnak, goiko adibideetan ikusi dugun legez:

- (21)  $_p$  [Euria ari du] baina  $_p$  [ez naiz bustiko]  
 (22)  $_p$  [Berandu da] baina  $_p$  [geratu egingo naiz]

2.2.2.- Perpaus osoak ez dira, ordea, *baina*-k elkar ditzakeen juntagai bakarrak. Horretan beste juntagailuak bezain emankorra ez bada ere, badaki honek ere perpausetik beharagoko sintagmak edo osagaiak juntatzen eta elkartzen. Ondoko adibide hauetan, esate baterako, perpausak ez baina hauen *iruzkinak* dira juntatzen direnak, juntagai biek mintzagai nagusi bakarra dutelarik:

- (23) a. Azeri zaarrari ulia juan, baña antza ez (J.A. Moguel, *Peru Abarka*, 122)  
 b. Gaurko egunean kaletarrak ondo bizi dira, baina nekazariak gaizki

Kontutan hartu behar da, noski, aurkaritzako juntaduran ere izaten direla, bestelakoetan bezala, ezabaturiko sintagmak edo osagai hutsak, juntadurari esker berreskura daitezkeenak. Eta, hortaz, goiko adibide horiek beste era honetara ere irakur daitezkeela, mintzagai nagusia perpaus bietan emanaz eta hartara perpaus osoak elkartuz:

- (24) a.  $_p$  [Azeri zaarrari ulia juan]  
           baina  
            $_p$  [azeri zaarrari antza ez juan]  
 b.  $_p$  [Gaurko egunean kaletarrak ondo bizi dira]  
           baina  
            $_p$  [gaurko egunean nekazariak gaizki bizi dira]

2.2.3.- *Baina*-k junta ditzakeen beste osagaiak *izenondoak* dira:

- (25) a. Jongoiko ttipi / bañan adoragarria! (B. Gasteluzar, *Egia katolikak*, 89)  
 b. Leku urrun baina lasaian bizi gara

Hau da:

- (26) a. Jongoiko  $_{\lambda}$  [(ttipi) baina (adoragarri)]-a  
 b. Leku  $_{\lambda}$  [(urrun) baina (lasai)]-an

Izenondo-sintagmak bina izenondo osatuak daude hor, *baina*-ren bitartez elkar-ruak.

2.2.4.- *Izen sintagmak*, ordea, ez dirudi *baina*-k elkar ditzakeenik:

- (27) \*Aita baina ama etorri da
- (28) \*Haragia baina arraina jan dut

Horretan, beraz, *baina*-k ez du *eta* eta *edo* juntagailuen antzik. Azken hauek izen sintagmak nahiz predikatuak junta ditzakete. Hark, berriz, predikatuak behar ditu juntadura gauzatu ahal izateko. Perpausak edo iruzkinak elkartzen dituenean, esate baterako, garbi da predikatuak ere tartean direla. Ikus, adibidez, goiko perpausen eta ondoko beste hauen artean dagoen aldea:

- (29) Aita bai, baina ama ere etorri da
- (30) Haragia bai, baina arraina ere jan dut
- (31) Aita ez, baina ama etorri da
- (32) Haragia ez, baina arraina jan dut

Perpaus hauek zuzenak dira, dudarik gabe. *Bai* eta *ez* partikulak, hain zuzen, aditz-sintagmaren ordain daude hor eta, horrenbestez, predikatua tarteko denez, ez dago eragozpenik aurkaritzako elkarketa egiteko. Izan ere, hor elkartzen direnak ez dira subjektuak, bina perpaus oso baizik: *aita bai (etorri da)*, *baina ama ere etorri da* eta *haragia bai (jan dut)*, *baina arraina ere jan dut*, batetik, eta *aita ez (da etorri)*, *baina ama etorri da* eta *haragia ez (dut jan)*, *baina arraina jan dut*, bestetik.

Izenondoa bera ere, izenaren predikatu denez, *baina* juntagailuaren bitartez junta daitekeena gertatzen da, gorago ikusi dugun bezala.

2.2.5. *Eta*-k eta *edo*-k ez bezala, azkenik, badirudi *baina*-k ez dituela normalean juntagai bi baino gehiago elkartzen:

- (33) \*Mikel gaixo dago, baina ospitalera eraman dute, baina berehala sendatuko da.

Esaldi hori zuzena izango litzateke, noski, aurreko edo ondoko bi perpausak *eta* juntagailuz eikaturik baleude:

- (34) a. Mikel gaixo dago eta ospitalera eraman dute, baina berehala sendatuko da.  
 b. Mikel gaixo dago, baina ospitalera eraman dute eta berehala sendatuko da.

Adibide horietan hiruna perpaus izan arren, aurkaritza bi multzoen artean gauzatzen baita:

- c. [Mikel gaixo dago eta ospitalera eraman dute] *baina* [berehala sendatuko da]  
 d. [Mikel gaixo dago] *baina* [ospitalera eraman dute eta berehala sendatuko da]

Eta horixe da kontua: *baina*-k aurkaritza bakarra gauzatzen duela juntadura bakoitzean eta, hortaz, ez dituela bi juntagai baino gehiago elkartzen. Zenbaitetan, egia da, badirudi debeku hori horren guzizkoa ez dela. Ondoko adibidean, esaterako:

- (35) Bera ez dela joango esan du aitak, baina semea bai, baina denbora laburrerako.

Zinetako perpaus elkarketa bakarra gauzatzen ote da, ordea, adibide horretan? Ez, noski. Hor maila desberdineko juntadura dugu. Aurkaritza A (“aita ez da joango”) eta B (“semea joango da”)-ren artekoa da. Ondoren, aurkaritza horretatik ateratzen den ondorioaren kontra (“semea joango da”), bigarren aurkaritza bat dugu, “baina c” (“baina denbora laburreko”).

### 2.3. Ezabaketak

Aurreko atalean garbi esan dugunez, aurkaritzako juntadura honetan ere askotan izaten dira, besteetan bezala, ezabaturiko osagaiak, juntadurari esker “berreskuratzen” direnak. Izan ere, enfasiaeren zerbitzuan-edo ez bada behintzat, hauxe da juntaduraren joera nagusia: amankomunak diren osagaiak ez dira juntagai batean baizik ageri, bestean —edo besteetan—ezabatu egiten baitira.

Nola betetzen da arau edo joera nagusi hori orain aztertzen ari garen aurkaritza-juntaduran? Ez da gauza erraza ezabaketaren kontu hau zehaztasun bete-beteaz aztertzea. Gorabehera nagusi batzuk, ordea, aipa daitezke.

2.3.1.- *Juntaturiko perpaus edo sintagmetan osagai berdinek ez dagoenean*, juntadurak ez du inolako ezabaketarik eragingo, bistan denez. Gerta daitezkeen elipsiak, perpaus bakunean bestela ere gertatzen direnak izango dira, ez elkarketak eraginda-koak:

- (36) Euria ari du, baina ez naiz bustiko  
(perpausen juntadura)
- (37) Leku [urrun baina lasai]-an bizi gara  
(izenondoan juntadura)

Hor, (36) adibideko bigarren perpausak hutsik dauka subjektuari dagokion gunea ("ni") eta (37) adibidean ere gauza bera gertatzen da ("gu" dago hor eskas). Hutsune horiek, ordea, ez dira juntaduraren ondorio, aditzaren morfologia aberatsari esker euskal perpausak —are bakunak ere— duen aukeraren ondorio baizik.

2.3.2.- *Osagaia berdinen ezabaketa*. Askotan, elkaturiko perpausak osagai batzuk errepikatuak izaten dituzte eta, hortaz, juntagaietako batean ezabatuak gerta daitezke. Irukin osoa ez dute berdina, baina bai haren osagai bat edo beste.

Honakn honetan, esate baterako, hat haino gehiago dira isilpean utzitako osagaiak:

- (38) a. Zuk garajean uzten duzu autoa, baina nik kalean

Aditzak eta beste osagarri batek osatzen dute perpaus horretako elipsia: "uzten dut autoa".

Ondokoan, berriz, osagai bakarra da berdina, "autoa" objektu zuzena eta horixe da, hain zuzen, ezabatzen dena:

- b. Zuk garajea sartzen duzu autoa baina nik kalean uzten dut

Aditz ezabaketa bigarren juntagaian egiten da eskuarki:

- (39) a. Zuk etxean egiten duzu lo baina nik kalean

Ezabaketa lehen juntagaian egiten bada, egitura markatuagoa-edo gertatzen da, baina ez okerra:

## b. Zuk etxean baina nik kalean egiten dut lo

2.3.3. *BAI eta EZ partikulak, iruzkin berdinen ordain*. Beste zenbaitetan, ordea, iruzkin osoa izaten dute berdina juntagai biek, batak baiezka eta besteak ezezka. Eta horrelakoetan, jakina, enfasiaren zerbitzuan-edo ez bada behintzat, ez da iruzkin hori bigarren juntagaien berritzen. Iruzkina juntagai batean ematen da eta bestean *bai, ez, bai...ere (ere bai), ez... ere (ere ez)* partikulak erabiltzen dira mintzagaiaren ondoan.

- (40) Aita garaiz iritsi da, baina ama ez
- (41) *Aita bai, baina ama ez da garaiz iritsi*
- (42) Aita ez da garaiz iritsi, baina ama bai
- (43) *Aita ez, baina ama garaiz iritsi da*
- (44) Amak badaki hori, baina aitak ere bai
- (45) Amak ez daki hori, baina aitak ere ez

Edo, kontrastatzen direnak subjektuak ez direlarik:

- (46) Goizean etorri da, baina arratsaldean ez
- (47) Goizean ez da etorri, baina arratsaldean bai
- (48) Kalean atsegina da, baina etxean ez
- (49) *Kalean bai, baina etxean ez da atsegina*
- (50) Kalean ez da atsegina, baina etxean bai
- (51) *Kalean ez, baina etxean atsegina da*

Kontuan hartu behar da, hori bai, adibide horietan guztietan *bai* eta *ez* partikulak berak direla perpausaren galdegai eta iruzkin osoa. Horregatik doaz, hain zuzen —hori guztiz derrigorezkoa ez bada ere—, juntagaien ondoan (*arratsaldean ez*) eta tartean etena egin daiteke. Baietza eta ezetza berak dira, nolabait esan, hor kontrastatzen direnak, komak ipinita nabarmen daitekeen bezala:

(46') Goizean, etorri da; baina arratsaldean, ez.

Perpausck bestelako galdegaiak dituztenean, ordea, eta, hortaz, perpausaren baie-tza eta ezetza galdegai horien gainean eraikiak daudenean eta haiei dagozkienean, bestelako eginura batzuk sortzen dira eta aurkaritza-mota desberdin bat gauzatzen. Elkarketaren lehen perpausa baiezkoa baldin bada, honako eginura hau sortzen da:

(52) Goizean etorri da, ez arratsaldean

Ikusten denez, *goizean* eta *arratsaldean* dira perpaus horietan kontrastatzen diren galdegaiak, ez baietza eta ezetza bera. Horregatik, goiko (46)n ez bezala, hemen ezin da *goizean* eta *etorri da* osagaien artean etenik egin eta, bestetik, *ez* partikula galdegaiaren aurrean doa (*ez* arratsaldean).

Elkarketaren lehen perpausa ezezkoa denean, berriz, honako beste eginura hau sortzen da:

(53) Ez da arratsaldean etorri, goizean baizik

*Arratsaldean* eta *goizean* dira hor ere galdegaiak eta ezetza, aurrean doalarik, *arratsaldean* galdegaiari dagokio ("etorri dela bai, baina *ez arratsaldean*" esan nahi du elkarketaren lehen perpausak). Eta eginura horixe da, hain zuzen, ondoko atalean aztertuko dugun *baizik*-motako aurkaritza sortzen duena.

## **2.4. Baina juntagailuak hartzen duen lekua**

Orain arte emandako adibide guztietan juntagaien artean kokatua ikusi dugu *baina* juntagailua. Eta horixe du, hain zuzen, lekurik ohikoena eta nagusia euskalki guztietan: juntagaien artekoa.

Gramatikariek esan izan dute, Hegoaldean —eta batez ere Hegoaldeko mendeba-lean— bigarren perpausaren barruan eta azkenean ere erabiltzen dela inoiz juntagailu hori. Honelakoetan, ordea, badirudi lokailu zeregina betetzen duela. Hona zenbait adibide:

(54) Ni neu bakarrik, zuzenduten naz bere obira, neur bakarrik, gogotik etxat aldunduten; nik neuk errezaue egifagatik bere alboan, ai! arek baña, berbarik ez deust eranzuten. (F. Arrese Beitia, *Ama euskeriaren liburu kantaria*, 173)



- (55) Esan ditudan gertaerak igaro ziranetik urrengo egunean, Aitzbarrengo eliz-  
-ondoan Portunegaz aserretu zan gizona Amando apezpikoagaz izketan  
egoan, antxiñetako lagun bat legez. Zein zan baiña gizon ori? (D. Agirre, *Lu-  
ñamendiko lorea*, 43)
- (56) Baratzeko lorak bedar-artetik huruba ateratzen ehen. Ikuskixun ederra, zora-  
garrija zan. Baratzeko bazter baten, baña, ondiño neguba zan toki onetan ume  
bat eguan. (J. Altuna, *Ipuñak* (Wilde), 47)
- (57) Izkuntza danak gurgarri dira,  
autortu nai dot egia;  
neuretzat, baña, gurgarriena  
Euzkera maitagarria (K. Enbeita, *Bertsoak*, 45)
- (58) Ezpañak ziotena, ordea, biotzondoak gezurtatzen zion barrendik. Beste zer-  
baitegatik itzuli zan ain goiz, gaixtoa! Ez, baña, azaldu nai (T. Agirre, *Uztaro*,  
14)
- (59) —Beraz, egin berba, enetxu orrek, abo ori zabalduetako baimena neuk emoten  
dauat-eta.  
—Itxitta eukinia gura dau amak, baña. (B. Garro "Otxolua", *Bertolda eta Ber-  
toldin*, 131)
- (60) Sukaldetik dator.  
—Eren esne bero-beroa.  
—Ar zazu, ta on egingo dizu.  
—Zertan ibilli zera, baña? Jainkoak bedeinka zaitzala (N. Etxaniz, *Euskal  
Antzerkiak*, 91)
- (61) Lotsa larregirik be ez eukan-da, zist-zast, zaratatxu bi bota eutsazan  
arpegi-arpegira. Eta antxe egoan aritz baten zuloan sartu zan. Buztana ageri  
baiña! Eta otsoak buztanetik eldu ! (F. Bilbao, *Ipuin-Barreka*, 187)
- (62) Bein, juan zan guraso bat bere semeari elgorrixa osatzen ibilli zan medikua-  
rengana kontua pagatzera.  
—Zerbait merkatuko destazu baña.  
— Merkatu? Zer dala-ta? (J. San Martin, *Zirikadak*, 16)

Gauza bat erakusten dute garbi adibide horiek: galde-perpausetan, erantzun labu-  
rretan eta harridura-perpausetan gertatzen dela *baina* hori perpaus-barruan edo azke-  
nean. Horrelako perpausetan batez ere, alegia. Hau da, hizketa-gisako testuinguruetan.  
Garrantzizkoena, ordea, ez da hori. Garrantzizkoena beste hau da: adibide horietan ez

*dagoela zinetako perpaus-juntadurarik*. Juntatu gabeko perpausetan ager-tzen da hor *baina*, lokailuek hartu ohi duten kokaleku eta inguru bertsuetan eta zeregin beretsua betez. Hortaz, perpausen arteko lotura semantikoa bideratzen du *baina*-k adibide horietan, elkarketa edo juntadura sintaktikoa gauzatu gabe ordea, junta daitekeen bigarren perpausik ez baitago. Salbuespen bakarra (57)a izan daiteke, baina hor ere ez dirudi perpaus-elkarketa sintaktikoa dagoenik.

Hori dela-eta, ohargarria da beste honako hau ere: *baina* gisa horretan eta perpaus barruan nahiz azkenean gehien erabiltzen duen euskalkia dela, hain zuzen, beste euskalkiek leku horietan ohikoa duten *ordeu* lokailua erabiltzen ez duena. Hortaz, hark honen pareko lekua eta zeregina betetzen duela esan genezake.

### 3. BAIZIK eta horren kideen aurkaritza (ez A, B baizik)

Aurkaritza-mota hau bideratzen duten juntagailuak bat baino gehiago dira, nahiz ez duten denek ez hedadura ez jokabide berbera.

- *Baizik*, esate baterako, hegoaldean erabiltzen da batez ere, bizkaieran izan ezik, eta juntaturiko perpaus edo sintagmaren ondoan nahiz aurrean kokatzen da:

(63 a) Ez da alaba jaiki, ama *baizik*

(63 b) Ez da alaba jaiki, *baizik* ama

(Honako aldaera hauek ditu: *baizikan*, *baizi*, *baiezi*, *baiezik*, *baiezila*, *beizi*, *beizik*, *bezi*, *hezik*... *Baizen* ere erabiltzen da, *baizik*-en pare).

- *Baino* hizkaicraz erabiltzen da, bigarren juntagaiaren ondoan beti:

(63 c) Ez da alaba jaiki, ama *baino*

- *Ezpada* ere Hegoaldean erabiltzen da, bizkaieraz batez ere, bigarren juntagaiaren aurretik:

(63 d) Ez da alaba jaiki, *ezpada* ama

- *Baina* juntagailua bera ere erabiltzen da, Iparraldean batez ere, aurkaritza hau adierazteko:

(63 e) Ez da alaba jaiki, *baina* ama

Hortaz, Iparraldeko *baina*-rentzat aurreko atalean esandakoak bezala honetan esango denak ere berdin balio du.

- Juntagailu hori bera erabiltzen da Hegoaldean ere, honako beste egitura honetan:

(63 f) Alaba *ez-baina* ama jaiki da

- *Ezezik* eta *ez ... ezen* ere erabili izan dira inoiz honelako aurkaritza aditzera emateko.

### 3.1. Aurkaritza honen zernolakoak

3.1.1.- Aurreko atalean ikusi dugun aurkaritza eta oraingo honetan aztergai duguna ez dira mota batekoak. Aitzitik, diferenteak dira. Hark, esan bezala, nolabait ere *kontra* dauden juntagaiak elkartzen ditu. Honek, berriz, *galdegaien arteko kontrastea* adierazten du, lehenari ezetza eta bigarrenari baietza ematen zaielarik.

Goiko (63) adibideko perpausak erakusten digute argi nolakoa den hemen gauzatzen den aurkaritza. "Jaiki dena" nor den esaten digute perpaus horiek, honako adierazpen hau eginaz: *jaiki dena: [ez alaba, bai ama]*. Eta horren irudikapena, berriz, honako hau izango litzateke:

(64) *X: [ez A, B baizik]*, A eta B galdegai direlarik.

Gauzak garhiago ikusiko ditugu, beharbada, aurkaritza-mota biak adibide banaz alderatzen baditugu. Demagun, esate baterako, honako bikote hau:

(65) Alaba ez da jaiki, *baina* ama sukaldean ari da

(66 a) Ez da alaba jaiki, ama baizik

Aurreko adibidean "kontrako" perpaus bi juntatzen dira: *alaba jaiki ez dela* adierazten du batak eta *ama sukaldean ari dela* besteak. Mintzagai biri buruz egindako iruzkinak kontrastatzen dira hor: *alabari* buruz *zerbait* esaten da eta *amari* buruz, berriz, horren "aurkako" *beste zerbait*. Mintzagai bakartari eginiko "kontrako" iruzkin bi ere elkar daitezke, noski, gorago esan dugunez.

Bigarren adibidean, berriz, esun bezala, mintzagai bati zein galdegai dagokion esaten zaigu; *jaikitze* kontu hori *nori* dagokion, alegia, *alabari* ala *amari*. Galdegaiak kontrastatzen dira horrela juntaturiko perpausetan.

Gauza bera ikus dezakegu are hurbilagoko den bikote honetan ere:

(67) Alaba *ez* da jaiki, baina ama *bai*

(66 b) Ez da *alaba* jaiki, *ama* baizik

Honetako lehenean, berriro ere, bakoitzak bere mintzagaia eta bere iruzkina dituen perpaus bi juntatzen dira: alaba jaiki *ez* dela esaten zaigu batean eta ama *bai*, jaiki dela, bestean. Perpausaren baietza eta ezetza berak dira hor galdegaiak. Ea alaba *jaiki den* eta ea ama *jaiki den* dira, hain zuzen, hor adierazten zaizkigunak. "Alaba" eta "ama" dira mintzagaiak eta bakoitzari buruzko iruzkina egiten da perpaus banatan. Hortaz, *baizik* juntagailuak ez du lekurik hor:

(68) \*alaba.... *ez* da jaiki, baizik *ama*

(66b) adibidean, ordea, ezetza eta baietza ez dira elkarturiko perpausen galdegaiak. Aitzitik, ezezkoa eta baiezkoa beste galdegai batzuen gainean daude eraikiak eta haiei dagozkie. Jaiki dena *alaba* ez dela esaten zaigu hor, *ama* dela. Hura dela pentsa dezake, beharbada, norbaitek eta haren ustea "zuzendu" egiten du perpausak.

Honela irudika daiteke guzti honi:

(69) [alaba *ez* da jaiki] *baina* [ama *bai*, jaiki da]

(70) *ez* [alaba jaiki da] *baizik* [ama jaiki da]

Azken hau beste era honetara ere irudika daiteke, hobeto beharbada, goiko (64)an bezalatsu:

(71) Jaiki dena [ *ez alaba, baizik ama* ] da

Mintzagaia bakarra da —*jaikitze-kontua*, hain zuzen— eta hari buruz eginiko galdegaia, berriz, konplexua. Horrexegatik esan liteke azken perpaus honetako juntagaiak —bata ezezka eta bestea baiezkak— ez direla bata besteari gehiturikoak, elkarren

osagarriak baizik, korrelatiboak banakaritzan bezala. Izan ere *bai...bai* edo *ez...ez* banakaritzaren ondoan, *ez... baizik* gisakoa daukagu.

3.1.2. Molde horretako kontrastea aditzera ematen dituzten perpausak bi osagai dituzte, bata baiezkak eta bestea ezezka formulatuak. Osagai horien ordena, berriz, diferentia izan daiteke: batzuetan baiezkakoa doa aurretik eta besteetan ezezkoa (ikus 2.3.3).

Baiezkoa baldin bada aurrean doana, honako alborakuntza hau eratzen da:

(72a) Ama jaiki da, ez alaba

Eta hor ezetza *alaba*-ri dagokionez kontrastea zehatza da: "jaiki dena ama da, ez alaba".

Aurrean doana ezezkoa bada, ordea, *baizik / baino* gisako juntagailua erabiltzen da gehienetan. Izan ere, segida horretako alborakuntza hutsa ez da ezer euskaraz:

(72b) \*Ez da alaba jaiki, ama

Eta *bai* erantsita ere ez da behar bezala gauzatzen aditzera eman nahi den kontrastea:

(72c) \*Ez da alaba jaiki, bai ama

Izan ere, perpaus horretako lehen parteak 'nor ez den jaiki' adierazten du eta bigarrenak, ostera, 'ama jaiki denenz', kontraste ezin daitezkeen bi esaldi elkarren alora ekarritik.

Kontraste egokia eta zehatza egiteko modu bat aditza errepikatzea izan daiteke, honako egitura enfatiko hau eratuz:

(72d) Ez da alaba jaiki, ama jaiki da

Baina gehienetan, esan bezala, *baizik / baino* gisako juntagailua erabiltzen da:

(72e) Ez da alaba jaiki, ama baizik

Eta horixe da, hain zuzen, atal honetan aztertzen ari garen juntadura-motari dagokion egitura.

Garbi dago, hortaz, aurkaritza honetako lehen juntagaia ezezkoa dela beti. Eta formalki ezezkoa gainera, ez baita nahikoa esanahi aldetik negatiboa izatea, ondoko aidibide hauek erakusten duten bezala:

(73) Ez naiz zurekin joango, Idoiarekin baizik

(74) \*Zu gabc joango naiz, Idoiarekin baizik

Juntagailua, berriz, bigarren juntagaiari kokatzen da, noiz hasieran noiz bukaeran, baina kontrastean den osagaiari dagokiola beti ere, lehen juntagaiko ez partikulak bezala:

(75) Honek ez du *ardoa* edaten, *ura* baizik

(76) Honek ez du *ardoa* edaten, *ezpada ura*

3.1.3.- Bata bestearikiko kontrastean ipini ahal izateko, *funtzionalki homologoak* izan behar dute galdegai biek. "Galdera bera"ri — nolabait esan— erantzun behar diote biek, ez lehenak bati eta bigarrenak beste bati:

(77) ? Ez naiz zurekin joango, *astelehenean* baizik

Lehen perpauseko galdegaia *norekin* osagaiari dagokio eta bigarrenekoa, berriz, *noiz* osagaiari; hortaz, ezin dira kontrastean ipini.

Horrelakoetan, noski, ez dira ahaztu behar pragmatikarekin lotuta dauden gorabeherak, testuinguruak eta horrelakock garrantzi handia izaten baitute perpausak ulertzeko garaian. Goiko adibidera itzuliz, eman dezagun norhaitek honako galdera hau egin diola lagunari: *Zer, nirekin joango zara gero ala trenez astelehenean?* Eta lagunak erantzuten diola: *Ez, ez naiz zurekin joango, astelehenean baizik.* Horrela ulertuta, onargaria izan daiteke beharbada perpausa, isilpean utzitako osagaiek kontrastagarri egiten baitituzte galdegaiak: *zurekin (gero) - (autobusean) astelehenean.* Horrek, ordea, gorago esandakoa sendotu baizik ez du egiten: gisa bereko galdegaiak direla kontrastatzen direnak.

Funtzionalki homologoak izateak ez du eskatzen, ordea, formalki ere berdinak izan behar dutenik:

(78) Ez dut hori zuregatik egin, amak agindu didalako baizik

Homologoak ezezik, bestalde, *kontrastagarriak* ere izan behar dute galdegaiek, elkartuko badira, honako adibide hauek erakusten duten bezala:

(79) ? Ez dut *ogia* jango, *ogia* baizik

(80) ? Ez dut *Bilbon* lo egingo, *ohean* baizik

Adibide horietako galdegaiek homologoak dira alde batetik —*zer* osagaia lehenen eta *non* osagaia bigarrenean—, baina hala eta guztiz ere ezin dira kontrastean ipini. Izan ere, (79) adibidean ez dago egiazko kontrasterik, galdegai berbera ageri baita perpaus bietan, batean ukatua eta bestean baieztatua —logikaren mugak hautsiz—; eta (80)an, berriz, formalki berdinak izan arren ezaugarri diferenteak dituzten osagaiak ditugu kontrastean: *non*, +*hiria* <-> *non*, +*etzatokia*. Beraz, elkaru ezinak dira perpaus horiek, zeharkako irakurketaren bat egiten ez bada behintzat.

3.1.4.- Orain arteko azalpenetan, gauzak erraztearren, sintagma bakar batez osaturiko galdegaiek eman ditugu ia beti, adibide gisa, eta hura aditza ez zena, gainera:

(81) Ez da *ataba* jaiki, *ama* baizik

(82) Ez naiz *zurekin* joango, *Idoiarekin* baizik

(83) Honek ez du *ardoa* edaten, *ura* baizik

Aditza bera ere izan daiteke, ordea, kontrastean ipintzen den galdegaia :

(84) Horrek ez nau *poztu*, *goibeldu* baizik

(85) Euskereaz guk mintzo landu elertitsu bat egin—*naiak* eztu *amorrarazten*, *errukiarazten* baizik (J.M. Agirre "Lizardi", *Itz lauz*, 31)

((85) adibideko aipamenetako knrtsibak gureak dira, ez Lizardik berak ipiniak).

Eta baita sintagma bat baino gehiagoz osaturikoa ere, tartean aditza bera egon daitekeelarik:

(86) Gutun hori ez dut *etxean* eskuz idatzi, *bulegoan makinaz* baizik

(87) Haren hautsak ez zituzten *itsasora bota*, *mendian zabaldu* baizik

Galdegai moduan, perpaus osoak ere kontrasta daitezke, honako adibide hauek erakusten duten bezala:

- (88) Jangoiko Semeak eztu amarik Jaungoiko den aldetik baizikan Jangoiko Aitagandik bakarrik sortua da (D. Intza, *Kristau Ikasbidea*, 59)

edo hain ezaguna den *Gure Aita* otoitzaren garai bateko bertsioko esaldikoak bezala:

- (89) Ez gaitzazu tentazioan erortzen utzi, baizik libra gaitzazu gaitzetik

Esaldi horretan *tentazioan erortzen utzi* eta *gaitzetik libratu* dira kontrastean ipinitako galdegaiak, (*zuk gu*) ... *gaitzazu* osagaia delarik bi perpausetako mintzagaia. Honelako perifrasi honek argi dezake esaldi horretan gauzatzen den kontrastea: *zuk guri egin behar diguzuna da ez tentazioan erortzen utzi, baizik gaitzetik libratu*.

Beraz, adibide horiek erakusten dutenez, galdegai perpaus osoak izanik ere, aipaturiko kontrastea berdin-berdin gauzatzen da. Argi ikusiko dugu hori bera honako bi perpaus hauek alderatzen baditugu (Hegoaldeko erabileraren arabera, jakina; izan ere, Iparraldean *baina* erabiliko haitzateke perpaus bietan):

- (90) Miren ez zen biltzarrera etorri, *baina* txostena bidali zuen

- (91) Miren ez zen biltzarrera etorri, *baizik* txostena bidali zuen

Bi adibide horietako lehena *baina*-gisako aurkaritzari dagokio. Hortaz, elkarren “kontrako” bi adierazpen ditugu hor: alde batetik, Miren biltzarrera *ez* zela etorri egiazat ematen da (perpausaren ezetza aintzat hartuz, bera baita perpausaren galdegai), *baina* beste alde batetik —etorri ez izanak biltzarraz guztiz ahaztu zela iradoki badezake ere—, *txostena bidali zuela* baieztatzen da.

Bigarren adibidea, berriz, *baizik*-gisako aurkaritzari dagokio. Biltzarren kontu horretan Mirenek *zer* egin zuen esaten zaigu hor, “galdegai” gisako bi perpaus kontrastatuz: hura biltzarrera etorri zela usteko du beharbada norbaitek eta ezetz esaten zaio (“biltzarrera etorri zela” ukatu egiten da, ezetza galdegaiari baitagokio, hau da, “biltzarrera etortzeari”); izan ere, Mirenek egin zuena izan zen, *ez biltzarrera etorri*, baizik *txostena bidali*. Beraz, juntagaia konplexua izan arren, bigarren aurkaritzamota honi dagokion egitura dugu hor ere: mintzagai bati (*Mirenek egin zuena*) bi



galdegaiaren arteko kontrastea eranstean zaio, bata ezeztatuz eta bestea baieztatuz. Horrelako egiturarik ez balego, ezin izango litzateke *baizik* juntagailua erabili:

- (92) \*Miren ez zen biltzarrera etorri, baizik lasai geratu gara

Perpaus hori okerra da, irakurketa normalean, hor mintzagai bati buruzko galdegaiaren arteko kontrasterik ez baitago. Aldiz, ez dago inolako eragozpenik egitura hori eskatzen ez duen lehen aurkaritza-motari dagokion *baina* juntagailua erabiltzeko:

- (93) Miren ez zen biltzarrera etorri, baina lasai geratu gara

3.1.5. Aurkaritza honen egitura funtsean beti bera den arren, honako beste segida markatu hauek ere egin daitezke:

a Egitura perifrastikoa, mintzagaia perpaus erlatibo baten bitartez berezten duena, alegia, “*jaiki dena ez da alaba, ama baizik*” gisako perpausak gauzatuz. Hona adibide batzuk:

- (94) Baña nik nai dedana ez da bere gorputza, bere biotza baizik (T. Alzaga, *Ramuntxo*, 100)
- (95) bere edanz guziarekin egiten duena da egarri andia ill ez, baizik berotu, berritu ta sutzea (S. Mendiburu, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, 248)

b. Aditza perpausaren lehen buruan duena, “*jaiki da ez alaba, baizik ama*” itxura duena, alegia. Hona adibide batzuk:

- (96) ta bisitazenzué ez elizabat, baizik anitz eliza (J. Lizarraga, *Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona en el s. XVIII*, 98)
- (97) baño Jaungoikoaren semeak bera gizon egiñaz eta gurutzeko eskeintzaren bidez, gizatasuna berak artu ta ontzean egin du ez Jainkoaren mirabe, baizik alaba (D. Intza, *Kritau ikasbidea*, 130)

c. Aditza perpausaren azken buruan duena, hau da, “*alaba ez, baizik ama jaiki da*” gisakoa. Hona adibide batzuk:

- (98) Orañ zelai au len bezela elurrez zuritua ez, baizik berdez jantzia dago. (G. Arrue, *Santa Genobeba*, 54)

- (99) zuri...ez Lanzurdea, baizikan Pepa-negar jarri bear zizuten izena (A. Apaolaza, *Patxiko Txerren*, 118)

3.1.6.- Hona, beraz, laburbilduta, bigarren aurkaritza-mota honi dagozkion zer-nolakorik nagusienak:

a.- *Baizik*-motako aurkaritza galdegaien arteko 'kontraste'ari dagokio, lehen galdegaiari ezetza eta bigarrenari baietza ematen zaielarik, korrelatiboki, banakaritzan bezala.

b.- Lehen juntagaia formalki ezezkoa da beti.

c.- Juntagailua bigarren juntagaian doa: *baizik* aurrean zein ondoan; *ezpada* eta *baina* beti aurrean eta *baino* beti ondoan.

d.- Juntagaiek homologoak eta kontrastagarriak izan behar dute.

e.- Kontrastatzen diren galdegaiak osagai bakarrekoak nahiz konplexuak izan daitezke, hauen arteko kontrastea garbi geratzen dela beti ere.

f.- Egitura funtsean beti bera izanik, ordena eta itxura diferenteak izan ditzake.

### **3.2. Ezabaketak**

Bestelako juntaduretan gertatzen den gauza berbera gertatzen da honetan ere elipsi kontuei dagokienez: elementu, osagai berdinak juntagai batean baizik ez direla ageri, alegia, bestean ezabatuz. Eta aurkaritza honetan, hain zuzen, galdegaia ez beste guztia izaten da berdina. Horregatik, juntagaietako bat bestea baino laburragoa izaten da normalean. Batean osagai guztiak daude agerian eta bestean, aldiz, galdegai "berria" baizik ez:

- (100) Mikelek ez du dirua eskatu, baizik lana (*eskatu du*)

Horixe da aurkaritza-mota honek erakusten duen joera nagusia. Izan ere, juntadurak berak eskaintzen du isilpean utzitako osagai horiek argitara ekarri eta berreskuratzeko modua. Ikus dezagun, ordea, nola gauzatzen den joera hori kasu diferenteetan.

a. Kontrastean ipinitako galdegaiak perpausak edo iruzkin osoak baldin badira, ez dugu zer ibili elipsien bila:

- (101) —Zergatik biraldu zuten bada kongregaziyotik Mikela-lñaxi?  
—Zuek orrela kontatzen dituzute gauzak; *etzuten biraldu*, baizikan *bera atera zan* (V. Mokoroa, *Damua garaiz*, 25)

b. Askotan, ordea, iruzkinaren osagai bat edo beste baizik ez da izaten perpausaren galdegai. Eta horrelakoetan, hain zuzen, galdegai ez den hori guztia, berdina denez, bigarren juntagaian ezabatuta geratzen da. Esate baterako, galdegaiak perpausen subjektuak direnean, predikatu osoa izaten da berdina eta horixe da bigarrenen “isilpean” uzten dena:

- (102) Ez da aita joango zuregana, baizik ama (*joango da zuregana*)

Aldiz, galdegai predikatuaren osagai bat baldin bada, haren gainerako osagaiak, berdinak izanik, isilpean uzten dira eta orduan predikatua “murriztua” ageri dela esan daiteke:

- (103) Ez zuen bere izena emaiten, bainan alegiazko izen bat [*emaiten zuen*] (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 165)

c. Bi adibide horietan aditz bera da lehen perpausaren agerian eta bigarrenen isilpean geratu dena —pertsona, denbora, aspektua eta guzti, alegia—: *joango da* (102)an eta *emaiten zuen* (103)an—. Baina ezaugarri batzuk diferenteak izanik ere, ez dirudi elipsirako debeku handirik dagoenik, baldin eta agerian utzitako zatiak ezaugarri horiek berreskuratzeko modua ematen badigu behintzat:

- (104) Eizan erbiya, baizik baratxuri sopak [*ziran*] (M. Soroa, *Gabon, au ostatuha*, 92)

- (105) Ez naiz ni joango, baizik ama [*joango da*]

- (106) Ez zen atzo etorri, gaur baizik [*etorri da*]

Aurreko bi adibideetan aditzari dagokion pertsona aldatu egiten da juntagai batetik bestera: *hura* <—> *haiek* lehenean eta *ni* <—> *hura* bigarrenen. Baina, hala ere, ez dago debekurik aditza isilpean uzteko, agerian dagoen galdegaiak aldaturiko ezaugarria berreskuratzeko modua eskaintzen baitigu (*sopak*: + *plurala*; *ama* + *hura*).

Hirugarren adibidean, berriz, aldia da aldatzen dena (+ *iragana* <—> - *iragana*), baina hor ere zuzena gertatzen da elipsia, agerian utzitako galdegaiak ezaugarri hori berreskuratzen laguntzen baitigu (*gaur*: - *iragana*). Ondoko hau, ordea, ezinezkoa da:

- (107) \*Ez zen atzo etorri, bihar baizik (*etorriko da*)

Hor, izan ere, aldia ezezik aspektua ere aldatu egiten da perpaus batetik bestera (+ *iragana*, + *bukatua* <—> - *iragana*, - *bukatua*) eta horrek galerazten du, itxuraz, elipsia.

d. Adizki laguntzailea ere izan daiteke gorderik uzten den osagai bakarra, baina ez nolana. Ondoko adibidean, esate baterako, aditzen egitura argumentala diferentea izanik, ezin da laguntzailea isilpean utzi; *zuten* eta *zan*, biak eman behar dira agerian:

- (108) —Zergatik biraldu zuten bada kongregaziyotik Mikela-Iñaxi?  
—Zuek orrela kontatzen dituzute gauzak; *etzuten biraldu*, baizikan *bera atera zan* (V. Moco-roa, *Damuba garaiz*, 25)

Laguntzailea juntagai bietan bera denean, ordea, isilpean utzi daiteke bigarrenean, debeku handirik gabe:

- (109) euskereaz guk mintzo landu eleritsu bat egin-najak eztu amorrarazten, errukiarazten [*du*] baizik (J.M. Agirre "Lizardi", *Itz Lauz*, 31)

Bigarren aditzak, gainera, laguntzailearekin batera aspektu-marka ere utzi dezake isilpean:

- (110) eskurik esku iraulka erabilliarren, ezta inoiz *birrintzen* atzartean *itsatsi* baizik, pikea bezala (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren idazlanak*, 87)

*Itsatsi* partizipioa neutroa da hor aspektuari dagokionez, hau da, markatugabea. Lehen perpausoko *birrintzen*-ek "luzatzen" dio bere ezaugarria eta horri esker berreskuratzen dugu isilpeko (*itsas*)*ten*.

e. Galdegaiak berek ere izan dezakete, bere aldetik, osagai erkideren bat, izen-sintagmaren burua edo ardatza esaterako, eta orduan, ohikoa den bezala, osagai hori ere utzi daiteke isilpean, horrela egitea nahitaezkoa ez bada ere:

- (111) *ez mediku naizen aldetik*, adiskide *naizenetik* baizik, onu bat emango dizut (A.M. Labayen, *Euskal Eguna*, 63)
- (112) *ez baitut nere naia* billatzen, *bidali nauenaren naia* baizik (P. Iraizoz, *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia*, 107)

Lehen adibidean *alde*, ardatz izena, isilpean geratu da bigarren juntagaian. Bigarrenean adibidean, berriz, *naia* errepikaturik eta perpaua bietan fonologikoki gauzaturik ageri da.

### 3.3. Juntagailu bakoitzaren tokia eta erabilera

Behin eta berriz azaldu dugunez, aurkaritza hau bideratzeko erabiltzen diren juntagailuek ez dute denek jokabide bera. Malguena eta mugikorrena, esan bezala, *baizik* da, juntagaiaren aurrean nahiz atzean joan baitaiteke. Gainerakoek, berriz, leku jakina dute: juntagaiaren aurrean batzuek eta ondoan besteek. Ikus dezagun, ordea, hurbilagoetik juntagailu bakoitza nola erabiltzen den.

#### 3.3.1. Baizik juntagailua

a. Juntagailu hau juntagaiaren ondoan erabiltzen da eskuarki, hura laburra denean behintzat:

- (113) *ez da ori eginkizuna*, ezinkizuna baizikan (M. Larramendi, *Panegirico de San Agustin*, 4)
- (114) *ta ezta arrotasuna egia* baizik (D. Agirre, *Garoa*, 8)

Aurrean ere joan daiteke, ordea, ondoko bi adibide hauek alderatuz ikus dezakegun bezala:

- (115) Berealaxe erakutsiko dizutet danoi eta ez bat, zazpi baizik (J. Etxaide, *Joanak joan*, 96)
- (116) *ta bisitazenzué ez elizabat*, baizik anitz eliza (J. Lizarraga, *Fedearen Propagazioneko urtekarria*, 98)

b. Bigarren juntagaia luzea eta konplexua denean, berriz –aditza eta guzti daramana, esate baterako– haren aurrean kokatzeko joera erakusten du *baizik*-ek:

- (117) Etziran erlijosuak oso ezeztatu; baizik eskatu zuten Jaungoikoaren izenian legorpe bat (C. Beobide, *Asis' ko Loria*, 108)

Horrelakoetan ez dirudi juntagailuak perpausaren ondoan leku har dezakeenik: *?Jaungoikoaren izenian legorpe bat eskatu zuten baizik* .

c. Juntagaiaren aurrean doanean, esanahiaren aldetik ezer berririk eransten ez dion *eta* gehigarria berretu ohi zaio inoiz juntagailuari, *baizik eta* forma hartuz (*zeren eta, nahiz eta, edota* eta horrelakoetan gertatzen den bezala). Juntagaia luzea eta konplexua dencan gertatzen da hori, batez ere:

- (118) (...) baño ez an gelditzeko, baizik eta tenorez andik etxeratzeko (F. Irigarai, *Lanak*, 173)
- (119) ez legoke Erioarentzat lekurik, baizik eta bizirik izardietara aldatuko lirake zeru garaiena iristeko (A. Ibiñagabeitia, *Bergiliren idazlanak*, 112)

Ere lokailua ere berritzen zaio inoiz, ondoko testu hauetan ikusten den bezala:

- (120) Lagun zazu beraz zure laguna. ez dirutan, baizik-ere ordainean (J. Duvoisin, *Laborantzako liburua*, 10)
- (121) Kantu hok egin dira  
ez libertitzeko,  
baizik ere guziek  
esenplu hartzeko (J. Etchamendi "Bordel", *Bertsokak*, 146)

d. *Baizen* aldaera ere erabili izan da aurkaritza-mota hau aditzera emateko, juntagaiaren ondoan nahiz aurrean:

- (122) eztut gehiago neuretzat bizi nahi, zuretzat baizen (E. Materre, *Doktrina*, 244)
- (123) Baña orien penak, infernukoak bezala betiko ez dira; baizen beren kulpen loiak garbitu, ta pagatu arteraño (A. Kardaberaz, *Ejertzioak II*, 206)

### 3.3.2. *Baino* eta *ezpada* juntagailuak

a. *Baino* juntagailua Hegoaldean erabiltzen da, bizkaieraz batez ere, gorago ere esan dugunez. Muga jakin bat du: juntagaiaren ondoan kokatzen da beti, inoiz ez aurrean.

(125) Eztot gixonakaitik egin, Aberrijagaitik baño (E. Urquiaga "Lauaxeta", *Bide-barriak*, 142)

(126) (...) ez jakon egoki kaltegarri baiño (E. Erkiaga, *Arranegi*, 88)

Hortaz, galdegai laburrak kontrastatzen direnean erabiltzen da batez ere *baino* hau. Galdegaiak konplexuak eta luzeak direnean, ordez, nekez agertuko da.

b. *Ezpada* juntagailua, berriz —bizkaieraz eta gipuzkeraz erabilia—, juntagaiaren aurrean kokatzen da beti, azken hau luzea zein motza izan.

(127) Errua ez dauka aitak, ezpada semeak

(128) Gure semea ez da lanera joan, ezpada etxean geratu da

Gramatikariek okerretsi izan dute inoiz *ezpada* hau, erdal itxurakoa eta sasikoa dela esanaz. Iritziak iritzi, ordea, ezin da ukatu aipatu euskalkian erabiltzen dela eta goiko perpaus horiek bezalakoak zuzentzat dituztela euskalki horretako euskaldunek. Testu zaharragoetan ere ageri da, bigarren juntagaiaren aurrean beti:

(129) Ez jako beliari usua esaten, ezpada belia (B. Madariaga, "Fray Bartolome" *Olgetak*, 51)

(130) Ez beste gauza gaiti, ezpada (...) irauñ ezin dabelako (B. Madariaga, "Fray Bartolome", *Olgetak*, 15)

(131) Neskatxa ez ilda, ezpada lo datza (F.I. Lardizabal, *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*, 390)

c. Esanahi bereetsuko beste egitura bat ere badu bizkaierak, *ba(ga)rik* hitza erabiliz gauzatzeu dena, *A barik B...* gisakoa, hain zuzen:

(132) Orreik andra ergelok, bakalduntzat barik bakallutzat artu zaitubez zu (B. Garro, "Otxolua", *Bertolda eta Bertoldin*, 46)

Ez dirudi, ordea, *barik* juntagailu denik. Ez partikulak hartzen duen leku bera hartzen du hor *barik* hitzak, ondotik inolako juntagailurik ez duela. Hortaz, alborakuntzaz eginiko elkarketa dakarkigu gogora egitura horrek:

- (133) Alaba ez, ama jaiki da
- (134) Alaba barik ama jaiki da
- (135) Baserrian ez, kalean bizi da
- (136) Baserrian barik kalean bizi da

Kontuan hartu behar da, izan ere, esanahaiaren aldetik antzekoak diren esamoldeek ez dutela zer izan egitura sintaktiko berberekoak. Goiko perpausek, hain zuzen, esanahiaren aldetik aurkaritzako juntaduraren antza badute ere, egituraz alborakuntzaren pareko dira. Eta esanahi bertsuko bestelako egitura gehiago ere bada: *alaba jaiki beharrean ama jaiki da* etab.

### 3.3.3. *Baina* juntagailua (*baizik*-en pareko denean)

a. Batez ere Iparraldean erabiltzen den *baina* honek Hegoaldekoak baino erabilera zabalagoa duela esana dugu gorago. Erabilera horretan, izan ere, bestelakoan *baina* eta *baizik*, biak, besarkatzen ditu juntagailu horrek. Hau da, gorago aztertu ditugun aurkaritza-mota biak adierazteko balio du. *Baizik*-en pareko ere badela ondoko adibideek erakusten dute aski argi:

- (137) ez zuen bere izena emaiten, baina alegiazko izen bat (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 165)
- (138) Hanitzek obeditzen dute, ez amarez, bainan borixaz (M. Chourio, *Jesu-Kristoren imitazioa*, 22)

Mt. IX, 24 pasarte ezagunaren aldaera diferenteak konparaturik are garbiago ikusiko dugu hori:

- (139) ezta hil neskaxá, baina lo datza (J. Leizarraga, *Testamentu berria*)
- (140) Neskaxa ez ilda, ezpada lo datza (F. Lardizabal, *Testamentu zarreko eta herriko kondaira*, 390)



(141) Neskatilla au ez dago ilda, lo baino (J. Kerexeta, *Biblia*)

Nola berezten dira, hortaz, Iparraldeko euskalkietan *baina*-ren adiera biak? Erraz al da beti zein aurkaritza-mota adierazten duen bereizten? Ez ote da inoiz zalantzazkoa-edo gertatuko?

Bereizketa garbia da, noski, bi perpausak baiezkokoak direnean edota bigarrena ezezkoa denean. Kasu horietan euskalki guztietako *baina*-ren aurrean gaude. Zalan-tza sor daiteke lehena ezezkoa eta bigarrena baiezkkoa direnean, *baizik*-ek lotzen dituenak izan ohi diren bezala, [ez...] [baina...] gisakoa denean, alegia. Orduan ere, jakina, perpausaren egiturak esango digu askotan zein den adiera zuzena: ezezkoa galdegai bati dagokionean eta, hortaz, galdegaiak kontrastean ipintzen direnean, bigarren aurkaritza-motaren aurrean gaude:

(142) Ez da *alaba* jaiki, baina *ama*

Galdegai perpausaren ezezkoa bera denean, ordea, lehenbiziko aurkaritza-motaren aurrean gaude, hau da, "kontrako" perpausak elkartzen dituen aurkaritzaren aurrean:

(143) a. Alaba ez da jaiki , baina ama sukaldean ari da

b. Alaba ez da jaiki , baina ama bai

Zailago gertatuko da bereizketa horri antzematen perpaus osoak kontrastatzen direnean eta, hortaz, iruzkin osoa galdegai izan daitekeenean. Gorago aztertu dugun ondoko esaldia, esaterako, zalantzazkoa gerta daiteke Iparraldeko euskalkietan:

(144) Miren ez zen biltzarrera etorri, baina txostena bidali zuen

Intonazio kontutan-edo sartzen ez bagara behintzat, horko *baina* hori Hegoaldeko *baina*-ren zein *baizik*-en pareko izan daiteke. Testu idatzian ez da erraz asmatzen lehen perpausaren galdegai zein den, "biltzarrera etorri ez izana" ala "biltzarrera etorri ez izana". Bestela esanda, "biltzarrera etorri zela" ukatzen den ala "biltzarrera etorri ez zela" baieztatzen. Lehenbiziko kasuan *baizik*-en pareko izango genuke perpaus horretako *baina*, bigarren kasuan ez (ikus honetaz goiko 3.1 atala).

Dena den, horrelako kasuetan izan ezik, aski argi antzematen da nolako aurkaritza gauzatzen duen Iparraldeko *baina*-k ere.

b. *Baina* honek hartzen duen lekua ere bi juntagaien artekoa da beti. Garbi ikusten da hori honako egitura diferente hauetan:

- (145) ez zuen bere izena emaiten, baina alegiazko izen bat (J. Hiriart-Urruty, *Zenbait aurpegi*, 165)
- (146) Hanitzek obeditzen dute, ez amorez, baina bortxaz (M. Chourio, *Jesu-Kristoren imitazioea*, 22)
- (147) Zer izanen da bada, ez bat bakharrik, baina hainbeste miliun kondenatzen direnean? (J. Duvoisin, *Liburu ederra*, 237)

c. Inoiz, *baina* horri *bai* partikula eranstean zaio ondotik eta, hortaz, lehen begiratuan badirudi ezetza eta baietza berak direla perpausen galdegaiak, hots, ez gaudela *baizik*-en pareko aurkaritzaren aurrean, lehenbiziko *baina*-ri dagokion aurkaritzaren aurrean *baizik*. Ez da horrela izaten, ordea: galdegaia horrelakoetan ez da perpausaren baietza bera:

- 148) Ezta niganik heldu hontazuna, baina bai linkoaganik (J. Tartas, *Onsa hiltzeko bidia*, 6)
- (149) zeren hori ez baitarozute haragiak eta odolak irakhatsi, baina bai ene Aita zeruetan denak (J. Duvoisin, *Biblia*, Mt. XVI, 17)
- (150) Humiltasunak erakarriko zaitu ez lagunarekin zure buruaren neurtzerat; baiñan bai haren ohoratzerat (A. Mihura, *A M Imitazioea*, 34)

Perpaus horietan, *bai* partikula gorabehera, kontrastean ipintzen diren galdegaiak ez dira ezetza eta baietza, bestelako osagai batzuk *baizik*: *niganik* eta *linkoaganik*, aurreneko adibidean; *haragiak* eta *odolak* eta *ene Aita zeruetan denak*, bigarreanean; eta *lagunarekin zure buruaren neurtzerat* eta *haren ohoratzerat*, azkenean. Beraz, *baizik*-en pareko jarraitzen dute.

Gauza bera ikusten da ondoko bi perpausak erkatuta:

- (151) a. Ezen eznaiz ethorri justoén deitzera, baina bekatorén emendamendutara (J. Leizarraga, *Testamentu berria*, Mt. IX, 13)
- b. Ez naiz ezen prestuen deitzera ethorri, baina bai bekhatoreen (J. Duvoisin, *Biblia*, Mt IX, 13)

Beraz, esan beharra dago *baina bai* bikotea ere —*bai* partikula galdegaiaren aurrean doalarik— *baizik*-en pareko izan daitekeela Iparraldean, *baina* soila bezala.

### 3.3.4. Ez *baina*, ez ... *baizik*-en pareko

Bada beste egitura bat, Hegoaldean erabilia, bigarren aurkaritza-mota honi dago-kiona. Egitura horretan *ez* partikula lehen juntagairen azken-azkenean kokatzen da eta bigarrenari, berriz, *baina* juntagailuak ematen dio hasiera, aditza normalean ondotik datorrela. “Hori ez baina hura [aditza]” egitura sortzen da horrela, “alaba ez baina ama jaiki da” gisakoa alegia —3.1.5. c atalean ikusi dugun “alaba ez, baizik ama *jaiki da*” egituraren parekoa—, *baina*-k *baizik*-en balio bera duelarik.

Jakina, *ez* da nahastu behar egitura hori lehen aurkaritza-motari dagokion “hori ez, baina hura bai” egiturarekin. Goiko adibidean, esaterako, *ama* da galdegaia eta, hortaz, ezin da *ama*-ren eta *jaiki da* aditzaren artean etenik egin —*ama, jaiki da* egin, alegia—, aditzari buruzko baietza izango bailitzateke orduan galdegaia eta aurkaritza ere lehen motakoa izango litzateke:

- *alaba* ez baina *ama* jaiki da (*baizik* motako aurkaritza)

- *alaba ez*, baina *ama*, jaiki da (hots, “baina *ama bai*, jaiki da”), (*baina* motako aurkaritza)

Horietako lehena da orain aztertzen ari garena, hain zuzen. Egitura horretan, gainera, *baina* juntagailua aurrean duen *ez* partikulari atxiki ohi zaio sarri askotan, bien artean batasun gisako bat sortuz. Zenbait idazlek, hain zuzen, lotuta idazten dute:

- (152) Osasunaz daudenak ez-baña gaixorik daudenak dute sendagile beharra (Orixe-Kerexeta-Zugasti, *Itun berria*, Lk V, 31)
- (153) Mireni buruz ez-baña neure buruaz utsegin dut (J.I. Alvarez Enparantza, “Txillardegi”, *Leturiaren egunkari ezkutua*, 91)

Egitura honek ere *baizik*-en pareko aurkaritza adierazten duela garbi ikusten da goiko (139)-(141) adibideen aldacra den beste honetan:

- (154) Aurra ila ez-baña lo dago (Orixe-Kerexeta-Zugasti, *Itun berria*, Mt IX, 24)

Eta, orobat, ondoko adibide hauetan:

- (155) Nik kontu ditzakedan gertaerak ez dira gain gaineko axala baizik, muin gordea estali ez baina ukierazten digun itxura sotila (K. Mitxelena, *Idazlan hautatuak*, 297)
- (156) Orduan ezagutu zuten, ogi-orantzatik ez baña farisauen eta sadukearren irakaspenetik begiratzeko esan ziela (P. Iraizoz, *Jesu-Kristo gure J. Bizia*, 235)

“Lotura” zenbaterainokoa izan daitekeen ondoko adibideak erakusten digu. Hor, izan ere, *ez baina*-ren ondotik etena dator:

- (157) Itsusia zan eta nik ua maite (...); uts eragiten zidana ez-baiñan, utsa bera (N. Ormaechea, “Orixe”, *Aitorkizunak*, 44)

### **3.3.5. Ezezik eta ez ... ezen aurkaritza egituran**

*Ezezik eta ez ... ezen* ere erabili izan dira inoiz aurkaritza mota hau aditzera ematen duen egitura bideratzeko:

- (158) Zuk zure naiei jartzen diezun draga orrek, ukatu ezezik, baieztu egiten du nere emengo irakaspena (L. Villasante, *Kristau fedearen sustraiak. 1. Jainkoa*, 142)
- (159) Badakite, ez gobernariak ezen ez eta arekin batean bere bilguma osoak ere, ezin kenduko ditugula fueroak ematen digun eskua, libertatea ta bidea (M. Larramendi, *Los Fueros de Guipúzcoa*, 275-276)

## **4. Baina, baizik/baizen eta baino-ren beste zenbait erabilera**

Aurreko ataletan hitz horiek juntagailu aurkari gisa duten erabilera izan dugu mintzagai nagusi eta ia bakarra. Inoiz edo behin aipatu dugu, ordea, iragaitzean bezala, bestelako erabilerarik. Izan ere, egiteko nagusi horrez gain bestelako zeregin batzuk ere betetzen dituzte inoiz hitzok. Gure gramatika honetako beste leku batzuetan aztertuko dira berariaz eta luzeago erabilera horiek guztiak. Batzuen aipamen labur eta arina egingo dugu, hala ere, hemen, ikuspegia osoagoa izan dadin.

#### 4.1. *Baina* menderakuntza gisako egituran

Eskuarki juntagailu bada ere, menderakuntza gisako ondoko egitura honetan ere erabiltzen da batzuetan *baina*, perpausaren azkenean kokoatua eta *ba ... ere* edo-(e)n *arren* egituren pareko balioa hartuta:

- (160) Dana jadetsi eben, kosta jaken baña (K. Enbeita, *Bertsokak*, 80)
- (161) Oien fedea ez da zuzena, baietz uste dute baña (X.X., *Euskal jokoak bertsoan*, 152)

Erabilera honek *eta*-ren jokabidearentzat eman ohi den oinarri edo arrazoi linguistiko berbera du, noski; alegia, beste hizkuntzetan *pero*, *mais*, *but*, *aber* etab. ezin daitezke enklitiko bihur eta aurreko hitzari kontra etzan; *baina* bai, ordea. Ikus, esate baterako, Xenpelarren bertso ezagunaren honako zati hau (*baño* hor *baina*-ren aldaera da):

- (162) aitak ill ziran baño  
 semeak oraindaño  
 legea degu guardatu (Xenpelar)

Eta horrela, perpausari ondotik erantsita dagoenean, menderakuntza edo txertakuntzarako pausua emana duela esan liteke, beharbada, *eta*-ri dagokionez esan ohi den bezala. Juntaduraren arrastoak gordeta ere, honako hauetan txertakuntzaren eremura-edo etorria dela, alegia.

Ez hori bakarrik, ordea: gisa horretara loturiko perpausak trukatu egin daitezke beren artean, aurrekoa atzera eta atzekoa aurrera paseaz, *eta*-k lotzen dituenak ere egin daitezkeen bezalaxe:

- (163) Amak haur egin du eta, ez da etorri  
 —> Ez da etorri, amak haur egin du eta

Modu berean:

- (164) Ez dit idatzi baina, maite nau  
 —>Maite nau, ez dit idatzi baina  
 (Hots: *Maite nau, idatzi ez badit ere* )

Trukaketa hori ez da, ordea, euskalki guztietan gauzatzen. Hegoaldeko euskalkietako gauza dela dirudi. Iparraldekoetan ezagutzen ez dena. Aurreko perpausari lotuta ageri da inoiz *baina*, hori bai, Iparraldeko euskalkietan ere, baina perpausak trukatu gabe, ordea. Hona, horren lekuko, Etxepareren bertso hauek:

- (165) nik eztakit berziak bana ni ari niz bekhatu (B. Detxepare, *Linguae V.P.*, 139)
- (166) nik eztakit zer den bana estamendu berri du (B. Detxepare, *Linguae, V.P.*, 161)
- (167) heben hik badukek bana haiek ez norik konsola (B. Detxepare, *Linguae V.P.*, 243 )

*Bana*, hor, zesura aurrean kokatua eta hainbestez lehen perpausaren azkenean eta ez bigarrenaren hasieran ezarria dago, ahoskeran ere aurreko perpausari eta ez ondokoari atxikirik irakurri behar delarik. Hortaz, hor ere menderatzaile gisa erahilia dagoela esan daiteke, beharbada, perpaus trukaketarik ez badago ere.

#### **4.2. *Baina* lokailu**

Lokailu gisa ere erabiltzen da inoiz *baina*, perpaus-juntadurarik gauzatzen ez duela (ikus *EGLU-III*). Horrelakoetan, arestian esan dugun legez (ikus 2.4. atala), perpaus-barruan edo are azkenean ere kokatzen da inoiz, Hegoaldean batez ere, lokailu gehienak bezala.

Enfasi edo *harridura* adierazteko ere erabiltzen da batzuetan, lokailuak erabiltzen diren bezala, osagairen bat errepikatuz eta benetako aurkaritzarik gauzatu gabe:

- (168) Danetik zegoan elea ugari, oso ugari baña (D. Agirre, *Garoa*, 86)
- (169) (...) soin bat ferdea, bainan ferdea, muskerra! (J. Barbier, *Supazter xokoan*, 907)

#### **4.3. *Baizik*, eta *baino* hitzen erabilera “murriztailea”**

Nolabaiteko antza izan arren, zuzen-zuzenean aurkaritzako juntadurari ez dagoion beste erabilera bat ere badute hitzok, erabilera *murriztailea* dei dezakeguna eta ondoko adibideetan ageri dena:

- (170) a. Ez dut maite zu baizik/baino  
 b. Ez dut zu baizik/baino maite  
 c. Zu baizik/baino ez dut maite

Lchen begiratuan, hor osagai bakarra dago: *ez* [*A baizik*]. Eta, osagai bakarra baldin badago, ezin da, noski, inolako juntaturarik egin. Egitura horrek egiten duena, hortaz, ez da bi osagai juntatu —bigarren osagairik ez baitago—, aditzak adierazten duena aipaturiko elementu bakar horretara mugatu eta murriztu baizik.

Horien parekoa da, hain zuzen, beste honako hau ere:

- (171) *Zu besterik ez dut maite*

Eta *beste*-k zer egiten du, ezezko perpausetan, murriztu baizik? Gainerako guztiak baztertu eta aditzak predikatzen duena elementu bakarrera mugatu baizik?

Garbi ikusten da *baizik*-en erabilera hori zenbakiekin ageri denean ere:

- (172) *Ez dira bi baizik etorri*

*Ez ... bi baizik* egituraren egitekoa etorri diren kopurua bira murriztea da.

Komuntadura, bestalde, *hura*-rekin egiten du sarritan aditzak, sintagmaren lehen osagaia 1. edo 2. pertsonari dagokionean ere:

- (173) a. *Zu baizik ez dut maite*  
 b. ? *Zu baizik ez zaitut maite*

Horrelakoetan badirudi *zu baizik* gisako egitura horren *hura*-ri dagokion beste elementuren bat duela bere baitan, isilpean-edo, eta horrexekin egiten duela aditzak komuntadura. Agerian ere ikusten da inoiz delako beste elementu hori:

- (174) a. *Ez dut inor maite zu baizik*  
 b. *Ez dut beste inor maite zu baizik*  
 c. *Ez dut besterik maite zu baizik*

Horregatik esan dugu gorago egitura honek baduela aurkaritzako juntaduraren antza ere; ez *A, B baizik* egiturareu antza, alegia. Antz hori ez da guztizkoa, ordea. Aurkaritzako juntaduran kontrastean ipintzen diren elementuak bere eskukoak izaten dira beti, nolabait esan. Bataren esanahia ez dago nahitaez bestearekiko erreferentzian. Egitura murriztailean, berriz, lehen elementua ezin da bigarrena gabe behar bezala ulertu. Izan ere, lehen perpausako *inor*, *beste inor* eta *besterik* horiek ez dira guztiz bere eskuko elementuak, bigarrenari erreferentzia egiten diotenak baizik *inor*-k, esate baterako, ez du berez eta bete-betean *inor* adierazi nahi, *zu ez den inor* baizik. Eta *beste* ere ezin da ulertu bigarren osagaiaren argitan ez bada: *zu ez den besterik*.

Garbi dago, hortaz, (174) perpausetan azpimarraturiko elementu biak ere batera ulertu behar direla, elkarrekiko erreferentzian.

Zenbaitetan, hala ere, osagai bikoitz horren lehen elementua falta denean —*inori ezer/deus* edo horrelakorik ez dagoenean, alegia—, agerian dagoen elementuarekin ere egin dezake aditzak komunztadura, goiko (172) adibidea lekuko. Izan ere, goiko (170) perpausetan aditzak “isilpean” dagoen elementuarekiko komunztadura gorde badu ere, beste zenbaitetan badirudi hori ez dela posible. *Nori* osagaia duen ondoko adibidean, esate baterako, badirudi lehen elementuak agerian egon behar duela —“ez diote *inori* eman, niri baizik”—, edo bestela bigarren elementuarekin egingo duela aditzak komunztadura —“niri baizik ez *didate* eman”—.

Egitura murriztaile honek, bestalde, ez du debekurik galdetzaileak erabiltzeko:

(175) Zer egin dut nik, ona baizik?

(176) Nork egin du hori, uik baizik?

Perpaus horietan ere ez dago kontrasterik —“ez hau, hura baizik”— bi elementuz osaturiko galdera murriztailea baizik: *onaz beste zer?*, *nitaz beste nork?*

*Baizik*-en aldaera *deu baizen* ere erabiltzen da adiera honetan. Eta, orobat, Hegoaldeko *baino* ere:

(177) Ez da *deus* iduriki behar baizen ere Jainkoaren loria (A. Jauretche, *Meditazio-neak*, 396)

(178) Ongi zeinaturik baizen ez naiz atheratzen sekulan etxetik (J. Barbier, *Supazter xokoan*, 18)



- (179) Ez bai neban begiratzen neure miña baizen (V. Gandiaga, *Elorri*, 113)
- (180) Eztaukat etxe bat baiño (J.A. Moguel, *Peru Abarka*, 107)
- (181) Ez dot gura beste ondasunik, zeu baino (B. Madariaga, "Fray Bartolome", *Ikasikizunak I*, 49)
- (182) etzuan Josek irritxo baten argia baiño besterik eskatzen (D. Agirre, *Garaa*, 160)
- (183) Elizan etzen deusik entzuten, apezaren otoitza baiño (N. Ormachea, "Orixe", *Mireio*, 147)

#### 4.4. *Baizik* espletibo edo gehigarri hutsa

Gorago esandakoez aparte, beste erabilera bat ere badu *baizik* hitzak. Perpaus konpletiboen sarreran erabiltzen da inoiz, *baizik eta* eta *baizik ere* formak hartuta, *esan* edo gisa horretako beste aditzen bat suposatuz:

- (184) Azken hitz ezarriko dugu: *baizik eta* apezak ez ditugula erakustuntzat onesten (J. Etxepare, *Buruxkak*, 54)
- (185) gezurrez beltzatu zuten Iñaki, *baizik eta* haren fedea etzela iduri bezain "katolikoa" (P. Narbaitz "Arradoy" *San Frantses Jatsukoa*, 137)
- (186) asko jaun erreter beren tratamenduaz gabetuak izan dire, *baizik ere* mintzatu direla errepublikaren kontra, guziz elektionetako denboretan (M. Elisamburu, *Franazonak eta... Errepublikan ichtorioa*, 161)

## LABURPENA

### • Aurkaritzako juntadura-motak

1. 'Baina' motakoa: nolabait ere bata bestearen kontrako diren bi juntagai elkartzen ditu. *Baina* da aurkaritza-mota honetako juntagai bakarra:

(187) Etorri da, *baina* ez da hemen geratu.

2. 'Baizik' motakoa: galdegai bat ezeztatu eta bestea baieztatzen du. *Baizik*, *baino*, *ezpada* eta *haina* dira, euskalkieñ arabera, aurkaritza-mota hau bideratzen duten juntagailuak:

(188) a. Ez da nire nahia, *baizik/baino/ezpada* zurea

b. Ez da nire nahia, zurea *baizik/baino*

### • *Baina* -ren aurkaritza

**Aurkaritza-mota:** Kontrajarriak dauden bi juntagai elkartzen ditu. Ez, ordea, batak berariaz baieztatzen duena besteak ezeztatuz. Lehen juntagaiak "iradokitzen" duenareu kontrakoa da bigarrenak adierazten edo iradokitzen duena:

(189) a. Euria ari du, *baina* ez naiz bustiko

b. Euria ari du, *baina* badut aterkia

**Forma:** *Baina*

**Juntagaiak:** Beste juntagailuek ez bezala, predikatua daramaten juntagaiak dira juntagailu horiek elkar ditzakeen bakarrak.

a.- *Perpau* osoak : [Euria ari du] *baina* [ez naiz bustiko].

Mintzagaia berdina denean, hala ere, juntagaiak *iruzkinak*: direla ere pentsa daiteke, beharbada, ez nahitaciz perpausak: Hemen [[kaletarrak ondo bizi dira] *baina* [nekazariak gaizki]].

*b.- Izenondoak* : leku [[urrun] *baina* [lasai]]-an bizi gara

Ez ditu, bestalde, bi juntagai baino gehiago elkartzen.

**.Kokagunea:** Juntagaien artean kokatzen da *baina* juntagailua.

**.Ezabaketak:** osagai berdinak ezaba daitezke juntagaietako batean, bigarrenean eskuarki; baita aditza bera ere batzuetan, aldiari nahiz pertsonari dagozkien aldeak gorabehera:

(190) a. Zuk garajean uzten duzu autoa, *baina* nik kalean (*uzten dut autoa*)

b. Zuk garajean sartzen duzu autoa, *baina* nik kalean uzten dut (*autoa*)

Iruzkin osoa berdina denean, batean baiezkta eta bestean ezezka, *bai* edo *ez* partikula soilak eman daitezke juntagaietako baten iruzkinean:

(191) a. Aita etorri da, *baina* ama *ez*.

b. Aita *ez* da garaiz etorri, *baina* ama *bai*.

### • *Baizik* -en saillekoen aurkaritza

**.Aurkaritza-mota:** Galdegaien arteko kontrastea adierazten du, lehenari ezetza eta bigarrenari baietza emanaz. Aurrena baiezkoa denean, ez da juntagailurik erabiltzen: *Ama jaiki da, ez alaba*. Baina aurrena ezezkooa denean, bigarrenak sail honetako juntagailu bat eraman dezake: "Ez da alaba jaiki, ama *baizik*".

**.Forma:** *Baizik* (*etalere*), *baino*, *ezpada*, *baina* (*bai*), *ez-baina*.

*Baizik* Hegoaldean erabiltzen da batez ere, bizkaieran izan ezik. *Baizik eta* eta *baizik ere* formak hartzen ditu inoiz.

*Baino* eta *ezpada* Hegoaldean erabiltzen dira, bizkaieraz batez ere.

*.Baina (bai)* batez ere Iparraldean erabiltzen da aurkaritza-mota hau ere adierazteko.

.Hegoaldean, azkenik, *ez-baina* ere erabiltzen da aurkaritza-mota honetan.

**.Juntagaiak:** Juntagaiak, kontrastaturiko galdegaiak dira. Aurkaritza gauzatzeko lehen juntagaiak formalki ezezkoa izan behar du eta juntagai biak homologoak eta kontrastagarriak. Kontrastatzen diren galdegaiak sinpleak —"ez da *alaba* jaiki, *ama* baizik"— nahiz konplexuak —*ez zen biltzarrera etorri*, baizik *txostena bidali zuen*— izan daitezke.

**.Kokagunea:**

*.Baizik* bigarren juntagaiaren atzean nahiz aurrean joan daiteke:

(192) a. Ez da alaba etorri, *ama baizik*

b. Ez da alaba etorri, *baizik* ama

*.Baino* bigarren juntagaiaren ondoan doa beti: Ez da alaba etorri, *ama baino*.

*.Ezpada*, berriz, aurrean: Ez da alaba etorri, *ezpada* ama.

*.Baina* ere aurrean: Ez da alaba etorri, *baina* ama.

*.Ez-baina*, azkenik, aurreko juntagaiari atxikia doa: alaba *ez-baina* ama etorri da.

Juntagai konplexuek juntagai-lua aurretik eramateko joera erakusten dute.

**.Ezabaketa:** Galdegaietako osagai berdinak ezabatu egin daitezke; baita aditza bera ere zenbaitetan, aldiari eta pertsonari dagozkien aldeak gorabehera:

Mikelek ez du dirua eskatu *baizik* lana (eskatu du).

Ezabaketa normalean, *baina* ez beti, bigarren juntagaien egiten da.

•**Baina, baizik/baizen eta baino-ren bestelako erabilerak**

**.Baina lokailu:** perpausen arteko erlazioa adierazi bai, baina juntadura sintaktikorik ez du gauzatzen. Juntaduran ez bezala, hemen *baina* perpaus barruan edo azkenean ere koka daiteke:

(193) -Zerbait egin behar genuen. Zer, baina?

**.Baina menderakuntza gisako egituran:** *eta*-k bezala, *baina*-k ere txertakuntzarako pausua eman duela esan daiteke, perpausaren azkenean kokatua eta perpausak bere artean trukaturata inoiz. *Ba...ere*-ren balioa du horrelakoetan: Maite nau, ez dit idatzi *baina* .

•**Baizik /baizen eta baino murriztaileak:** *Baizik, baizen* eta *baino* perpaus barruan ere erabili ohi dira, balio murriztalaria dutelarik, *bestetik* bezala:

(194) a. Zu *baizik* ez dut maite

b. Ez da deus iduriki behar *baizen ere* Jainkoaren loria

c. Ez daukat etxe bat *baino*

•**Baizik gehigarri hutsa:** Perpaus konpletiboen sarteran erabiltzen dira inoiz *baizik eta* eta *baizik ere*:

(195) Azken hitz ezarriko dugu: *baizik eta* apezak ez ditugula erakustuntzat onesten (J. Etxepare, *Buruxkak*, 54)

## BIBLIOGRAFIA

## Literatura lanak

- Agirre J.B. (Asteasukoa), *Erakusaldiak*. Tolosa 1850.
- Agirre, D., *Auñamendiko Lorea*. Bilbo, 1898.
- Agirre, D., *Garoa*. Durango, 1912.
- Agirre, D., *Kresala*. Durango, 1906
- Agirre, J.M. "Lizardi", *Biotz begietan*. Bilbo, 1932.
- Agirre, J.M. "Lizardi", *Itz-lauz*. Donostia, 1934.
- Agirre, T., *Uztaro*. Bilbo, 1937.
- Aire, F. "Xalbador", *Ezin bertzean*. Tolosa, 1969.
- Aire, F. "Xalbador", *Odolaren mintzoa*. Zarautz, 1976.
- Akesolo, L., *Ipiña ta ipiñatarren-barri*. Bilbo, 1959.
- Altuna, J., *Ipuñak* (Wilde). Bilbo, 1927.
- Alvarez Enparantza, J.L. "Txillardegi", *Leturiaren egunkari ezkutua*. Bilbo, 1957.
- Alzaga, T., "Burruntziya", *Euskal Eснаlea*. Donostia, 1962.
- Alzaga, T., *Ramuntxo*. Donostia, 1961.
- Alzola, N., *Atalak*. Zarautz, 1967.
- Anabitarte, A., *Aprika-ko basamortuan*. Zarautz, 1961.
- Añibarro P.A., *Lora sorta*. Tolosa, 1803.
- Añibarro, P.A., *Esku-liburua 1, 2*. Tolosa, 1802.
- Añibarro/Astete, *Cristau Dotriña*. Iruñea, 1802.
- Apaolaza, A., *Patxiko Txerren*. Bergara, 1890.
- Arbelbide, J.P., *Igandea edo Jaunaren Eguna*. Lille, 1895.
- Arbelbide, X., *Pierres Lafitte: here bizia*. Donostia, 1986.
- Arrese Beitia, F., *Ama euskeriaren liburu kantaria*. Bilbo, 1900.
- Arrue, G. *Maietzeko illa*. Tolosa, 1888.
- Arrue, G. *Santa Genoveba*. Tolosa, 1885.
- Astarloa, P., *Urteco Domeca gustijetarako verbaldi icasbidecuac*, Bilbo, 1916-18.
- Atxaga, B. *Behi euskaldun haten memoriak*, Donostia, 1991.
- Atxaga, M., DEIA, 1992.VI.27

- Atxaga, M., *Gaztetxo*. Donostia, 1963.  
Atxaga, M., DEIA, 1992. VI.27  
Axular, P., *Gero*. Burdeos, 1643.  
Azcue, E.M., *Parnasorako bidea*. Bilbo 1896.  
Azkue, R.M., *Ardi Galdua*. Bilbo, 1918.  
Azkue, R.M., *Patxi guzur*. Bilbo, 1897.  
Azurmendi, J., *Hitz Berdeak*. Oñate, 1971.  
Barandiaran, J.M., *Euskalerriko Leen-Gizona*. Donostia, 1934.  
Baratciart, A., *Meditazione itipiak*. Baiona, 1784.  
Barbier, J., *Piarres* (2 tomo). Baiona, 1928.  
Barbier, J., *Supazter chokoan*. Baiona, 1924.  
Basterrechea J. "Oskillaso", *Kurloiak*. Zarautz, 1962.  
Belapeyre, A., *Katechima laburra*. Pau, 1696.  
Beobide, C., *Asis'ko Loria*. Tolosa, 1855.  
Bilbao, F. *Ipuin Barreka*. Bilbo, 1959.  
Bustintza, E., "Kirikiño", *Abarrak II. Amorebieta*, 1930.  
Chourio, M., *Jesu-Kristoren imitazionea*. Bordel, 1720.  
Duhalde, M., *Meditazione handiak*. Baiona, 1809.  
Duvoisin, Echeita, J.M., *Josetxo*. Durango, 1909.  
Duvoisin, J., *Biblia edo Testament zahar eta berria*. Baiona, 1858.  
Duvoisin, J., *Laborantzako liburua*. Baiona, 1858.  
Duvoisin, J., *Liburu ederra*. Baiona, 1856.  
Echeverri/Astete, *Guiristino-Doctrina* (Luzaide). ASJU, 1985.  
Eguzkitza, J., *Gizarte Auzia*. Zornotza, 1935.  
Elissalde J. (Zerbitzari), "Azkaine. Gure sorterria", *Gure Herria*. Baiona, 1952-1957.  
Elissamburu, J.B., *Piarres Adame*. Baiona, 1946.  
Elissamburu, M., *Framazonak eta ... Errepublikan ichtorioa*. Baiona, 1890.  
Elissamburu, J.B., *Poesiak*. Donostia, 1978.  
Enbeita, B., *Nere apurra*. Tolosa, 1974.  
Enbeita, K., *Bertsoak*. Buenos Aires, 1971.  
Erkiaga, E., *Arranegi*. Zarautz, 1958.  
Erkiaga, E., *Batetik Bestera*. Zarautz, 1962.  
Etchamendi, J., "Bordel", *Bertsoak in Bordel bertsoalaria*. J.M. Satrustegi, Tolosa, 1965.  
Etcheberri J. (Sarakoa), *Eskuararen Hatsapenak*. J. Urquijo, Paris, 1907.  
Etcheberry, J.B., *Michel Garicoitz*. Baiona, 1962.  
Etchepare, J.B., *Mendekoste gereziak eta beste*. Baiona, 1963.  
Etxaide, J., *Alos Torrea*. Zarautz, 1950.

- Etxaide, J., *Joanak-joan*. Zarautz, 1955.  
 Etxaniz, N., *Lur berri billa*. Donostia, 1917.  
 Etxaniz, N., *Nola idatzi euskeraz*. Donostia, 1968.  
 Etxeberri, J. (Ziburukoa), *Manual devotioenezcoa*. Burdeos, 1669.  
 Etxepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*. Burdeos, 1545.  
 Etxepare, J., *Beribilez*. Baiona, 1931.  
 Etxepare, J., *Buruxkak*. Lekorne-Aldude, 1910.  
*Fedearen Propagazioneko urtekaria edo Fedearen Propagazioneko berriak urteka ematen dituena*. Baiona, 1877-1912.  
 Gandiaga, V., *Elorri*. Oñate, 1962.  
 Garro, B. "Otxolua", *Bertolda eta Bertoldin*. Bilbo, 1932.  
 Gasteluzar, B., *Egia katolikak*. Pau, 1686.  
 Goikoetxea, J.I. "Gazteln", *Musika Ixilla*. Donostia, 1963.  
 Goyhetché, L., *Fableak*. Baiona, 1852.  
 Guerrico, J.I., *Saiakera*. Tolosa, 1858.  
 Haraneder, J., *Gudu izpirituala*. Toulouse, 1750.  
 Hiriart-Urruty, J., *Aurpegia, Mintzaira, Gizon!*. Donostia, 1971.  
 Hiriart-Urruty, J., "Zenbait aurpegi" *Aurpegia, Mintzaira, Gizon!*. Donostia, 1971.  
 Hiriart-Urruty, J., *Zezenak Errepublikan*. Donostia, 1972.  
 Hiribarren, J.M., *Eskaraz egia*. Baiona, 1858.  
 Ibiñagabeitia, A., *Bergiliren Idazlanak*. Bilbo, 1966.  
 Intza, D., *Kristau ikashidea*. Iruñea, 1924.  
 Iraizoz P., *Yesu-Kristo gure Yaunaren bizia*. Iruñea, 1934.  
 Irazusta, J.A., *Bizia garratza da*. Buenos Aires, 1950.  
 Irigarai, F./Zubiri, E., *Lanak, Nafarroako euskal idazlariak*. Iruñea, 1958.  
 Iturriaga, A.P., *Dialogos*. Donostia, 1842.  
 Iturriaga, A.P., *Ipuiak*. Donostia, 1842.  
 Iturzaeta, A., *Azaldura laburra*. Durango, 1899.  
 Iztueta, J.I., *Gipuzkoako kondaira*. Donostia, 1847.  
 Jauretche, A., *Meditazioneak*. Baina, 1840.  
 Joannateguy, B., *Sainduen bizitza*. Baiona, 1890.  
 Kardaberaz, A., *Ejertzioak II*. Iruñea, 1761.  
 Kardaberaz, A., *Euskeraren berri onak*. Iruñea, 1761.  
 Kateximak:  
*Catechima Oloroeco Diocezaren cerbutchuco (...) Messire Joseph de Revol hanco*  
*Apezcupiaren manaz eguina*. Pau, 1706. (J. Maytie zubererara itzulia)  
*Kristau Ikashidea Gipuzkoako Euskeraz*, *Kristau-Ikashidea*. Gozai Jaunaren ardara-  
 pean, Jaungoiko jakintzaren erakuste-batzordeak antolatatu du. *Gipuzkoako*  
*euskeraz*, Gasteiz, 1933 (1.go arg. Gasteiz, 1922)



- Cristau Dotkriñe Aita Gaspar Astetec erdaraz escriptue eta Ulzamaco Apezac Balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue.* Iruñea, 1906.
- Labayen A.M., *Euskal Eguna*. Tolosa, 1931.
- Labayen, A.M., "Su-emalleak", *Egan*. 1966.
- Laphitz, F., *Bi Saindu Eskualdunen Bizia*. Baiona, 1867.
- Lardizabal, F.I., *Testamentu zaharreko eta berriko kondaira*. Tolosa, 1855.
- Larramendi, M., *Carta a M.B.* Donostia, 1973.
- Larramendi, M., *Los Fueros de Guipúzcoa*. Donostia, 1983.
- Larramendi, M., *Panegirico de San Agustin*. Azpeitia, 1855.
- Larregi, B., *Testamentu zaharreko eta berriko historia*. San Sebastian, 1978.
- Larzabal, P., *Iru ziren*. Zarautz, 1962.
- Leizarraga, J., *Othoitza. Testamentu Berria*. Donostia, 1979. (Faksimila)
- Leizarraga, J., *Testamentu berria*. Donostia, 1979. (Faksimila)
- Lizarraga, J. "Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Iruñea en el s. XVIII", *FLV*. 1975.
- Lizarraga, J., *Urteko igande guzietarako prediku laburrak*. Donostia, 1846.
- Madariaga B. "Fray Bartolome", *Ikasikizunak 2*. Iruñea, 1817.
- Madariaga B. "Fray Bartolome", *Ikasikizunak 3*. Iruñea, 1819.
- Madariaga B. "Fray Bartolome", *Euskal-Errijetako Olqueeta ta Dantzeen neurritzogatz-ozpinduba*. Iruñea, 1816.
- Materre, E., *Doktrina*. Bordel, 1617.
- Mendiburu, S., *Bederatziurrena*. Tolosa, 1916.
- Mendiburu, S., *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*. Bilbo, 1982.
- Mercy, A., *Eskapularioa*. Pau, 1780.
- Mihura, A., *Andredena Mariaren Imitazionea*. Baiona, 1778.
- Mirande, J., *Haur besoetakoa*. Iruñea, 1987.
- Mirande, J., *Idazlan hautatuak*. Bilbo, 1976.
- Mitxelena, K., *Euskal Idazlan Guztiak III*. Donostia, 1988.
- Mitxelena, K., *Euskal Idazlan Guztiak VII*. Donostia, 1988.
- Mitxelena, K., *Idazlan hautatuak*. (P. Altunak paratua), Bilbo, 1982.
- Mitxelena, L., *Sobre Historia de la Lengua Vasca*. ASJU, 1988.
- Mitxelena, S., *Arantzazu. Euskal-sinismenaren poema*. Oñate, 1949.
- Mogel, J.A., *Konfesioe ta Komunioko erakasteak*. Iruñea, 1800.
- Mogel, J.A., *Peru Abarca*. Durango, 1881.
- Mogel, V., *Ipui onak*. Donostia, 1804.
- Moguel, J.J., *Baserritar nekezaleentzako eskolia*. Bilbo, 1816.
- Mokoroa, B., *Damuba garaiz*. Tolosa, 1897.
- Mokoroa, J., *Erraondo danbolinteroa*. 1925-1958 (A. Campioni itzulia)

- Munita, I., *Gure Mendi ta oianak*. Tolosa, 1952.
- Narbaitz P. "Arradoy", *San Frantses Jatsukoa*. Donostia, 1966.
- Oihenart, A., "Oihenarten gaztaroa neurthizetan". *Les Proverbes basques*, ASJU. 1955.
- Olaizola, M. "Uztapide", *Lengo egunak gogoan I - II*. Tolosa, 1975.
- Olaizola, M. "Uztapide", *Sasoia joan da gero*. Donostia, 1976.
- Orixe-Kerexeta-Zugasti, *Itun berria*. Donostia, 1967.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Aitorkizunak*. Zarautz, 1956.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Euskaldunak*. Zarautz, 1950.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Mireio*. Bilbo, 1930.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Quito-n Arrebarekin*. Guatemala. "Euzko Gogoa", 1950-1954.
- Ormaechea, N., "Orixe", *Santa Kruz apaiza*. Donostia, 1929.
- Otaegui, F.A., *Eskuizkribuak*.
- Petritena, J.F. "Xenpelar" in Dorronsoro, J., *Bertsotan 1789-1936*. Bilbo, 1981.
- Pouvreau, S., *Imitazionea*. Donostia, 1979.
- Pouvreau, S., *Philotea*. Paris, 1664.
- San Martin, J., *Zirikadak*. Zarautz, 1960.
- Soroa, M., *Baratzen*. Donostia, 1962.
- Soroa, M., *Gabon, au ostatuba!*. Donostia, 1962.
- Tartas, J., *Onsa hilceco bidia*. Paris, 1911.
- Topet, P. "Etchahun", "Bertsoak" in Haritschelhar, J. "L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchaun", *Euskera* 1969-70. Bilbo
- Ubillos, J.A., *Kristau doktrin berri-ekarlea*. Tolosa, 1785.
- Uriarte, J.A., *Dialogos*. Londres, 1857.
- Urquiaga E. "Lauaxeta", *Bide-barriak*. Bilbo, 1931.
- Urruzuno, P.M., *Euskal-erritik zerura*. Donostia, 1961.
- Urruzuno, P.M., *Ur-zale haten ipuiak*. Donostia, 1965.
- Villasante, L., *Kristau Fedearen Sustraiak I. Jainkoa*. Oñate, 1962.
- X.X., *Asto lasterrak*. Donostia, 1984. (P. Urkizuk paratua)
- X.X., *Uskara libria*. Baiona, 1814.
- Zabala, A.M., *Gabon gau bat*. Tolosa, 1962.
- Zaitegi, J., *Platoneneko atarian*. Donostia, 1961.
- Zaitegi, J., *Sopokelen Antzerkiak*. Mexiko, 1946 - Baiona, 1958.
- Zavala, A., *Euskal jokoak bertsoetan*. Lizarra, 1984.
- Zavala, A., *Txirrita*. Tolosa, 1960.

### Gramatikak

- Altuna, P., Mundaiz aldizkaria, 7. alea, 1977ko martxoa, 45-46 or.  
Azkue, R.M., *Morfología vasca*. Bilbao, 1925.  
Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika Lehen Urratsak - III. Lokailuak*. Bilbo, 1990.  
Euskaltzaindia, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - II*. Bilbo, 1987.  
Gavel, H., *Grammaire Basque I*. Baiona, 1929.  
Gèze, L., *Éléments de grammaire basque, dialecte souletin, suivi d'un vocabulaire basque-français et français-basque*. Donostia, 1979 (Faksimila)  
Goenaga, P., *Gramatika bideetan*. Donostia, 1980.  
Lafitte, P., *Grammaire basque*. Baiona, 1962.  
Villasante, L., *Sintaxis de la oración compuesta*. Oñate, 1976.

## Gai aurkibidea

**aditz**

- jokatua 7, 27, 72
- jokatugabea 7, 27, 72
- komunztadura 49
- nagusia 72
- partizipio 72, 98
- perifrastiko 100
- trinko 100

**agintekera 7**

- ala** 15, 17, 119, 132, 137, 143, 145, 153, 155-169, 171, 180, 181

**enklitikoa 169****lokailu 160****ala... ala... 155, 168****alborakuntza 10, 73, 82, 101, 183, 210****alokutiboak 8****aspektu marka**

- ezabaketa 72

**aukera balioa 130, 142, 144, 150, 155, 163, 173, 180****aurkaritza 95**

- juntadura 183

**bai 73, 74, 76, 82, 190, 193, 194****bai ... bai 81, 178, 199****bai eta 93****bai eta ... ere 77-80****baia (baina) 184**

- baina** 7, 10, 11, 15, 110, 184-196, 197, 202, 204, 210, 214
- emendiozko balioa 106
- lokailu 196, 216
- menderakuntza gisako egituran 215

**murriztailea 216****baina bai 212, 222****baina ezta ... ere 116****bainan 184****baino 15, 184, 196, 209, 214, 221, 222****bait- 7,13****baita 93,116****baita ... ere 87, 109****enfasia emateko 79****baita ere 80****kokagune okerrak 86****baizen 208, 214, 218****murriztailea 223****baizik 11, 15, 106-108, 110, 184, 196-208, 211, 212, 214, 222****gehigarri 219, 223****—motako aurkaritza 194, 203, 204****murriztailea 216, 223****baizik ere 208, 223**

- baizik eta** 48, 208, 223  
**bakarrik**  
 adberbio 101  
 ... **bakarrik ez** 99, 101  
 (**baldin**) **ba-** 7  
**balio banakaria** 82, 176, 178  
**bana (baina)** 184  
**banakaritza** 81, 199  
*bai ... bai* 81  
*ez ... ez* 81  
**bona (baina)** 184  
**bere** 65  
**beregain**  
 atal — 74  
 perpaus — 109, 110, 124, 147  
**bestetik** 218  
**da ('eta')** 21, 111  
**dela... dela...** 178  
**disjuntibo** 119, 131  
**distributibo** 119, 131  
**edo** 7, 15, 119, 120-145, 152, 153, 179, 190  
 baldintza-kutsua 135, 137, 143  
*bat edo beste* 126  
*behin edo behin* 126  
*behin edo herriz* 126  
 enklitiko 144-145  
*gaur edo bihar* 126  
*gutxi edo gehiago* 126  
*inoiz edo herriz* 126  
 juntagailu markatugabea 136  
 lokailu 122  
 murriztailea 135  
*nahiz... edo nahiz...* 177  
*noiz edo behin* 126  
*noiz edo noiz* 126  
*nondik edo handik* 126  
*sast edo sist* 126  
*zer edo zer* 126  
*zirt edo zart* 126  
**edo bederen** 133, 180  
**edo behintzat** 133, 180  
**edo bestela** 135, 143, 180  
**edo... edo...** 142  
**edo... edota...** 155  
**edota** 15, 48, 119, 145-155, 179  
 baldintza balioa 151  
 "markatugabea" 152  
**edota bestela** 151  
**edota...edota...** 155  
**-ela** 7  
**-ela** 8  
**-ela** 50  
**emendiozko**  
 balioa 183  
 juntadura 49, 50  
 juntagailua 21, 73  
**emendiozko esamolde** 87  
**-en** 7  
**-en** 8  
**-en artean** 45, 114  
**enda ('eta')** 22  
**-enez** 8  
**ere** 73, 83, 88, 208  
*bai(e)ta ... ere* 77-80  
*eta ... bai ere* 75  
*eta ... ere bai* 74, 76  
*eta ... ere ez* 74, 76  
*eta ... ez ere* 75  
*ez(eta) ... ere* 77-80  
 nahitaezkoa 75, 80  
**ere bai** 94, 109  
**ere ... ez ezik** 96  
**eta** 7, 10, 11, 15, 21-72, 111, 120, 139, 158, 164, 190  
 aditz flexioaren parte 9

- bai(e)ta ... ere* 77-80  
 balio sintaktikoak 84  
*bereak eta bi* 48  
 enfasia emateko 47  
 enklitikoak 84,116  
*eta abar* 47  
*eta bai ... ere* 75  
*eta baita ... ere* 85  
*eta baita ere* 85  
*eta ere* 81  
*eta ... ere bai* 74, 76  
*eta ... ere ez* 74, 76  
*eta ez ... ere* 75  
*ez(e)ta ... ere* 77-80  
*harik eta* 48  
*hau eta beste* 55  
*hau eta hori* 55  
 indartzaile 48, 85, 178  
 lokailu 27  
*nahiz ... eta nahiz ...* 177  
*nor eta hi* 47  
*x eta biak* 46  
*x eta guzti* 48  
*zeren eta* 48  
*ez* 73,74,76, 77, 82, 83, 93, 97,  
 100, 190, 193, 194  
*ez baina* 213, 222  
*ez ... baizik* 199, 213  
*ez bakarrik ...* 99, 101  
*ez ... bakarrik* 99  
*ez bakarrik..., bai eta ... ere* 104  
*ez bakarrik ..., baina ... (ere)* 105  
*ez bakarrik ..., baita ere* 103  
*ez bakarrik ..., ... baizik* 106  
*ez bakarrik ..., baizik ...* 106  
*ez ... bakarrik, baizik (...) ere* 107,  
 110  
*ez bakarrik ..., baizik eta* 107, 110  
*ez bakarrik..., baita ezta ... ere*  
 105  
*ez ... bakarrik, ... ere* 102, 110  
*ez ... bakarrik, ... ere bai* 104  
*ez bakarrik ..., ez eta ... ere* 104  
*ez bakarrik ..., ezpada* 107, 110  
*ez bakarrik ..., ezpada ze* 108  
*ez bakarrik ..., ezta ere* 103  
*ez ... bakarrik, ... ø* 104  
*ez(e)ta*  
 kokagune okerrak 86  
*ez ..., eta ez ...* 77  
*ez ... ez*  
 banakaritza 81  
*ez eze* 91  
*ez ezen* 90  
*ez eze ... ere* 87, 109  
*ez ezen ... ere* 15, 87, 109  
*ez ezik* 89  
*ez ezik, baita...ere* 93, 109  
*ez ezik ... ere* 15, 87, 92, 109  
*ez ezik, ... ere bai* 94, 109  
*ez ezik ... ezta ere* 96  
*ez ezik ... ø* 95  
*ezabaketa* 57  
 aditz (oso)arena 59, 62-68, 83,  
 115, 140, 153, 166  
 aditz laguntzailearena 59, 62,  
 68-71, 115, 141, 153  
 aspektu-markarena 69, 115  
 izenarena 59, 60, 114, 139, 167,  
 174  
 izenlagunarena 59, 114, 139  
 kasu-sintagmarena 59, 62, 114  
*ezeze* 91  
*ezezen* 90  
*ezezik* 89, 214  
*ezpa* 178

- ezpada** 15, 108, 196, 209, 221, 222
- ezla ere** 80
- enfasia emateko 79
  - kokagune okerrak 86
- galdegai** 94, 132, 194, 197-8, 201, 205, 206, 211
- gatik** 113, 130
- gehikuntza** 88
- iruzkin** 189, 190, 197, 205
- berdina 192-193, 221
- izen**
- ardatz — 113
- izen sintagma** 98
- abstraktuak 53
  - ardatz anitzetako — 33, 112, 127
  - erreferente berekoak 52
- izenordain**
- pertsona — 34, 49
- juntadura** 5, 6, 9, 49
- juntadura eta menderakuntzaren arteko diferentzia morfologikoa 7
  - juntadura eta menderakuntzaren arteko diferentzia sintaktikoa 7
  - juntaduraren egitura nagusia 7
  - untagailurik gabekoa 12
  - perpau — 188
- juntagai** 6, 7
- adierazpen perpauak — 25, 27, 112, 121, 146, 180
  - aditzondoak — 170
  - adizlaguna — 28, 147, 170
  - adjektiboa — 176
  - aginte perpauak — 26, 27, 112, 121
  - antonimoak 132, 180
  - ardatz izenak — 30, 35, 39
  - ardatz anitzetako izen sintagma — 36, 37, 38, 41, 45, 127, 162 [ardatz izena + izenondoa] egiturak — 31, 32
  - ezezko — 200, 204
  - galde hitz ez diren galdegaiak — 148
  - galde hitzak — 29, 125, 137, 180
  - galde perpauak — 26, 27, 112, 121, 137, 147, 180
  - galde sintagma — 148, 153
  - galdegai ez diren sintagma — 125, 137, 148, 158
  - galdegai sintagma — 125, 153, 157
  - harridura perpauak — 26, 112, 121
  - iruzkinak — 189
  - izenak — 23, 44, 112, 174
  - izen abstraktuak — 39
  - izen elkartuko inugatzaiak — 123, 170
  - izen propioak — 40
  - izen sinonimoak — 128, 138, 179
  - izen sintagma — 19, 23, 28, 59, 112, 170
  - izen sintagma abstraktuak — 53
  - izen sintagmaren barneko osagaiak — 19, 23, 123
  - izenlagunak — 23, 31, 32, 147
  - izenondoak — 23, 31, 32, 60, 189
  - izenondo sinonimoak — 138, 139

- kasu sintagmak — 32, 35, 36,  
 37, 38, 41, 42, 44, 45, 59, 61,  
 113, 123, 127, 149, 162, 173  
 maila desberdineko juntagaiak 6  
 mendeko perpaus jokatuak —  
 122, 146  
 partizipioak — 123, 170  
 perpaus beregainak — 23, 87,  
 121, 124, 146, 156  
 perpaus jokatuak — 122,  
 131, 146, 171, 180  
 perpausa baino beheragoko  
 kategoriak — 131, 147, 170  
 perpausak — 19, 135, 185  
 pertsona izenordainak — 34, 45  
 predikatu sintagmak — 170  
 sintagma absolutu mngagabeak  
 — 171  
 sintagmaren barneko osagaiak —  
 112, 114  
 zehar galderak — 124, 148  
 zenbatzaile mugatuak — 123,  
 138, 179
- juntagailu** 7, 207  
 disjuntibo 119  
 distributibo 119  
 juntagailu eta menderagailuen  
 arteko muga 7  
 kokagunea 11  
 — metatzea 10  
 Ø juntagailua 10
- juntaketa** (ikus "juntagai")
- kasu sintagma** 28, 33  
 (ik. "juntagai")  
 sinonimo 128
- komunztadura**  
 aditz— 49, 66  
 kideko sintagmen juntaketa eta  
 aditz — 51
- komunztaduraren esparrua 49  
 numero — 50, 165  
 parititboa eta aditz komunztadura  
 54  
 perpaus juntuak eta aditz —  
 50  
 pertsona — 50, 67, 165  
 pluralekoa 49, 55, 56, 67, 114,  
 165  
 singularrekoa 49, 54, 56, 67,  
 114, 164
- kopulatiboa** 21
- lokailu** 10  
 aurkaritza — 12  
 emendiozko — 99  
 kausazko — 13  
 kokagunea 11  
 lokailuen aditzondo izaera 11  
 morfologia 11
- lotura**  
 egiturazko lotura 11  
 esanahiari dagokion lotura 11  
 menderagailu 7  
 juntagailu eta menderagailuen  
 arteko muga 7
- menderakuntza** 6, 14  
 ezaugarri morfosintaktikoak 7  
 juntadura eta menderakuntzaren  
 arteko diferentzia morfologikoa  
 7  
 juntadura eta menderakuntzaren  
 arteko diferentzia sintaktikoa 7  
 mendekotasun erlazioa perpau-  
 sen artean 6  
 txertakuntzaren errepikatzea 6
- mintzagai** 87, 88, 95, 98, 132,  
 161, 197, 203  
 — erlaziokide 94



- mintzagaia ezkerrean 96  
perpaus-osagaiak — 98  
**nahi(z)** 15, 119, 132, 143, 170-178, 181  
lokailu 177  
**nahiz... edo nahiz...** 177  
**nahiz eta** 177  
**nahiz... eta nahiz...** 177  
**nahiz... nahiz...** 176  
**ondarkia** 33, 38, 39, 42, 46, 58  
aditzarena 71, 98, 141  
**ondoriozko** 123  
**ordea** 132  
**orobatasun balioa** 130-32, 136, 143, 144, 150, 171-173  
**osagai**  
-berdin 192  
-hierarkia 6  
izen sintagmaren — 87  
perpaus — 87, 98, 109  
**partitiboa**  
eta aditz komunztadura 54  
**partizipio**  
burutua 69, 72, 141, 154  
**perpaus**  
adicrazpen — 112, 185  
aginte — 112, 185  
— beregain 109, 110  
— elkarketa 6  
— elkartu 7  
galde — 112, 185  
galde perpaus lokabeak 8  
harridura — 11, 185  
— jokatugabea 72  
— juntadura 196  
— juntatu 5, 7, 8  
— juntatuak eta aditz komunztadura 50  
— konpletiboak 50  
— lokabea 8  
— mailako juntagaiak 26  
mendeko — 8  
— nagusia 6, 9  
— osagai 87, 98, 108, 110  
perpausen arteko etena 12  
— txertatu 7, 9, 98, 100  
— txertatu, mendeko 6, 7  
**plural**  
erreferente — 51  
**plural**  
komunztadura 49, 55, 56  
**posposizio** 43, 111  
**sintagma**  
ardatz anitzelako — 36  
bereko izcu sintagmak 52  
— erlaziokide 94  
ergatibo — 36  
— gramatikal 49, 114  
izen sintagma abstraktuak 53  
— juntatu plurala 49  
kasu — 28  
nor — 49, 50  
nori — 49, 50  
nork — 49, 50  
posposizio — 44, 113, 129  
sintagmen abstraktutasuna 55  
sinonimo 51  
— zenbakaitz 8  
**-ta** 8, 22  
**ta ('eta')** 21, 111  
**-tu (izan)a** 9  
**-turik** 9  
**-tuz** 9  
**-tzat** 113  
**-tzea** 9, 122  
**-tzeke** 9, 122

- tzen* 9
- tzera* 9
- z gain* 111
- z gainera* 110
- z landa* 111
- zein* 15, 119, 132, 143, 170-178,  
181
- zein ... , zein ...* 176
- zenbakaiztasuna* 55
- zeren* 13-16

**«Gramatikak» bilduman  
argitaraturiko zerrenda:**

1. *Euskal Gramatika:  
Lehen Urratsak-I.*
2. *Euskal Gramatika:  
Lehen Urratsak-II.*
3. *Euskal Gramatika:  
Lehen Urratsak-III.  
(Lokailuak).*
4. *Euskal Gramatika Laburra:  
Perpauk Bakurak.*
5. *Euskal Gramatika:  
Lehen Urratsak-IV.  
(Juntagailuak).*